


Etxaburu'tar Jose Mari  
«KAMIÑAZPI»

# Neure Idazlan Bilduma



ETXABURU'tar JOSE MARI  
(Kamiñazpi)

NEURE IDAZLAN  
BILDUMA

I.S.B.N.: 84-7086-274-X

Legezko gordailu: S.S. 284/91

Konposaketa eta inprimaketa: ITXAROPENA, S.A. - Zarautz

*ESKEINTZA*

*Oraintsu il jatan neure andra on-onari, Juanita'ri eskeintzen  
dautsat liburu au.*

*Ondarrabia'n 1991'ko lenengo illean*

## AURKIBIDEA

Sarrera.....	11
ERLEJIÑO ALDERDITIK IKUSIAK.....	15
Guraso baten eretxia .....	15
Katolikuak eta dibortzioa.....	20
Lege bi: ezkontza austea ta ume galtzea.....	22
Bilbo egaleko kontuak .....	24
Eliza katolikua ta mundua.....	26
Elizea ta misioak.....	28
Erlejiñoa ta politikea.....	30
Elizea ta aurrerapena.....	34
Ikastolak eta kirstiñau ikasbidea .....	36
Nora doa gaztedia?.....	38
Gazteengan ez daigun nasterik sortu .....	40
Zarrak euren buruak garbitzen.....	42
Abadeak lanera .....	45
Ziri ta miri.....	47
Sasi-kompesiñoa .....	49
Europa ta gu euskaldunok.....	52
Seigarrena dala-ta .....	54
Elizgizonak eta euskerea.....	57
Inesa Gaxen'go ta sorginkeriak .....	58
Batzarraren oiartzunak.....	60
ABERTZALE USAIÑEKOAK.....	63
Bere buru jaube izan da Euskal Erria.....	63
¿Zein da Euskal Erria?.....	66
Gernika'ren seireungarren urtea ta Bizkaia'ren eskubideak .....	68
Euskal endea dala-ta .....	71
Gu ta kanpotarrak.....	74
Euskal abizenaren esanaia .....	76
Nai ta nai ez erromatar.....	77
Lanean iraun bear dau Eusko Alderdi Jeltzaleak.....	79
Eusko ikurriñaz .....	83
Politikea bai baiña poliñkeriarik ez .....	84
Pemiña bako eztabaidarik ez .....	87

Ez gara euskaldunok orren astakilloak .....	88
Zer da politikea? .....	92
Euskerea ta politikea.....	94
Lengo euskaltzaleak.....	96
Auzo alkarteak .....	98
Eusko Alderdi Jeltzalearen elburuaz.....	100
Kontu zarrakaz.....	102
Unamuno ala Loroño lenago?.....	104
<b>EUSKEREA .....</b>	<b>107</b>
Eutsi euskereari! .....	107
Ez deiogun laga ilten euskereari! .....	110
¿Zegaitik maitatu bear dogu euskerea?.....	112
Euskerearen zabalkundea egiteko da .....	114
Euskerearen alde erriari zuzenean berba egin deiogun.....	118
Euskerearen zabalkundea egin daigun.....	120
Zabaldu PAN PIN .....	124
Euskerearen batasuna.....	125
Euskerearen batasuna.....	128
Zeintzuk dira euskal itzak .....	133
Batu izkelgi bakotxa .....	140
Euskera erreza ta euskera zailla .....	142
Jator jokatu daigun.....	144
Ez daigun txirotu euskerea.....	147
¿Zegaitik ez euskal ortografia? .....	149
Izen abizenak .....	152
Loiola'ko batzar ostein .....	154
<b>ABERRIEN ARTEKO POLITIKEA .....</b>	<b>157</b>
¡Gudarik ez! .....	157
Guda bildurra .....	159
Txikien zaindari .....	162
Zer jazo da Vietnam'en .....	164
Amaitu dan Vietnam'go gudearen gaiñean .....	165
Judutarrak eta arabetarrak .....	168
Israel'ko gudea .....	171
Arrolio dala-ta .....	173
De Gaulle ta Ipar-Amerika .....	175
Portugal erbestean.....	177
Arjentina'ko politika giroaz .....	179
Zuriak eta baltzak.....	181
<b>EUSKAL FOLKLOREA .....</b>	<b>183</b>
Euskal abestiak dirala ta .....	183
Ravel euskal ereslaria al zan? .....	185

Folklore ta barrikeriak.....	186
Euskal abesti barria.....	190
Txistua ta euskal dantzak.....	193
Literatura sariketa epaiak dirala-ta .....	196
Bertsolari sariketak eta erria .....	198
Bertso paperak dirala-ta .....	200
Satarka olerkariaren urrezko ezteguak.....	203
Joan dira erregeak .....	205
Santa Ageda'ren eskea .....	207
Euskalduntasunagaz zer ikusirik ez dauken oiturak .....	209
<b>GIZARTE AUZIA.....</b>	<b>213</b>
Emakumea duintasun bidean .....	213
Emakumeen eskubideak eta lana .....	216
Umeen lana .....	218
Beargiñen zartzaroa .....	220
Kontsumo gizartea .....	222
Osakuntza Gipuzkoa'n .....	224
Lenengo maillako irakaskintza duakoa al da? .....	226
<b>ARRANTZEA.....</b>	<b>229</b>
Euskaldunen antxiñako arrantzea .....	229
Arrantzaleen bizimodu garratza.....	231
Merke saltzen da antxobeak.....	233
Goruntz doa antxobearen saneurria .....	235
Itxasoko arriskuak gitxitu egin bear dira .....	236
Itxasoko ezbearretarako elikoterua .....	238
Besigutea azkanetan.....	240
Arrain merkeak .....	242
Zelan egin bear da arrain saltzea (salketa).....	244
Arraiñari saneurri zuzena zelan ipiñi? .....	245
Arrantzea beti izan da irabazi gitzikoa .....	247
Bajurako itxasontziak gitxitzen .....	250
Irabazi bideak itxas errietan.....	252
Itxasontzien jaubetasuna zabaldu egin bear da.....	253
Arrantzea makaltzeak liorreko lana sortzea eskatzen du .....	255
Koperatiba erako itxasontziak ez dabiltz ondo.....	257
Bakotxaren itxasoak zabaltzen.....	259
Lan egunak geitu egin bear dira?.....	262
<b>DANETIK NASTEAN.....</b>	<b>265</b>
Gaixo etxetik.....	265
Astoa .....	268
Kanpaia .....	270
Apolo'ren iretargira joateaz zerbaít.....	274

Zenbat bidar bizi bear da gizona? .....	277
¿Ba dira aireko ovni orreik?.....	279
Egazkinzaleak eta egazkiñak .....	280
Emakumeen jantzi arifñak.....	282
Gizontzarrak eta gizontxoak .....	285
Lan egunak geitu egin bear dira?.....	287
<b>NEURE ERRIKO KONTUTXUAK.....</b>	<b>291</b>
Ondarru ala Ondarroa. ....	291
Txordo kale garbitzaillea .....	293
Gillermo pelotaria .....	297
Orain 50 urteko Donostia'ko estropadea.....	299
Nire umetako kontua.....	302
Lenengo jaunartzea.....	306
Berriatua'ri egin jakon bidebakokeria.....	308
Ondarru'ko txorizaleak.....	309
Ondarru'ko kukuak.....	313
Olea'ren txoriak.....	316
Olea'ren erantzuna .....	319



## ITZAURREA

*Ez nator esku artean gauza andiren bat dakardalakoan. Iñok baiño obeto dakit idazti onen baliorik eza. Baiña neure bizi guztian izan dodan zaletasunik andiena (zaletasun bakarra be esan neike) euskerea izanik, izkuntza onen literaturan neure idazti bat itxi nai neban eta besterik eziñean, urteak zear an eta emen idatzi dodazan idazlantxoetatik pillo bat aukeratuta, neure nai ori egi biurtzeko ainbat gai ba-daukadala ikusi dot eta emen daukazu irakurle.*

*Egia, beste liburutxo bat, TXOLINTXU be eginda nago; baiña ipuin liburutxo a ez da neure-neurea, andik eta emendik jasotakoak neuk jantzita baiño. Ta nik, neure-neurea nai neban.*

*Ogei urte baiño len asi nintzan euskeraz idazten, EKIN bizkaitarrera Ondarru'ko barriak bialduaz. Orduan ITURRI-ONDO nintzan. Gero, ogei urte ta geiagoko ixil aldia ondoren 1957'an ZERUKO ARGIA'n asi nintzanean, obeto zala ta, ITURRIONDO'ra aldatu neban. Baiña beste batek be izenorde bardiña erabillen eta barrero aldatu bearra izan neban. Ta len iturri baten ondoan bizi nintzalako (San Juan Txurru iturria) ITURRI-ONDO artu neban lez gero Kamiñazpi auzoan bizi nintzanean, inguru aren izena neureganatu neban. Egia, tarteka iñoiz besteren bat edo beste erabilli izan dot.*

*·Ezetara sakontzen ez dakigunok danetan musturra sartu bear izaten dogu zerbait egin nai badogu. Nire idazlanak be olantxe dira, danetarikoak; baiña batzuk garrantziko gaiak ikutu egiten dautsela esaten ausartzen naz. Niretzat bai, beintzat. Bear bada, irakurle batzuentzat ez da olan izango, danok pentsakera bardiña ez daukagu ta.*

*Urte askoren aldea dauke idazlanak eta iñoiz neure eretxiak alkarren aurka egotea be izan leiteke. Esate baterako, len euskera bat egitearen aldekoa nintzan, danok euskera bardiña egitearen aldekoa, eta gero euskera batzeko oiñarriak jarten asi ziranean, orren ia aurka nengoan. Nik, gizajo onek, gure denporako gipuzkerea –edo, onartuko zala orretarako uste neban. Baiña gero erabillezan izkera ta ortografia ezin nituan iruntsi. Ortik geienbat euskera batuarentzako nire etsaikeria.*

*Dana dala, euskera batuak gure berbeta au indartu daijala nai dot eta ori lortzen badau nire txaloak irabaziko ditu. Baiña nik neuk, onezkerok, olan jarraituko dot, bizkaitar naiz gipuzkoar, ikasi dodan euskerean, H barik eta Pello Errota ta Pedro Maria Otaño ta abar idatziaz eta ez Peilo Errota ta Pedro Maria Otaino ta antzekoak. Ez dot uste onetan oker nabillenik.*

*Emengo idazlan batzuk, naikoa, gipuzkeraz argitaratu nituan, baiña liburu baten izkelgi bi ez erabiltearren bizkaieratu egin ditut.*

*«Ditut», «nituan» eta olangoak irakurrita, nire euskerea ez dala bizkaitar jator-jatorra norbaitek uste izan leike. Berba orreik eta euren saillekoak, olantxe edo ia olantxe esaten dira nire errian, Ondarru'n; eta Mogel'en idaztiak irakurten badoguz, Bizkai'ko erri geiagotan be erabilten dirala esan leiteke.*

*Bear bada, aditzetik kanpora be bizkaitarrak ez diran berba batzuk irakurleak arkituko ditu bertan. Baiña edozelan be asko ez dira izango. Geienez be esku bietako atzaparrakaz zenbatzeko ainbat liburu guztian. Beraz liburu onetako euskerea bizkaitar-bizkaitarra dala iñok ez dau ukatuko.*

*Gramatika aldetik begiratuta beste auzi au be argitu nai neuke: Erderazko «tener» ta «estar» zelan euskeratzen diran.*

*«Tener» era bitara euskeratzen da: «euki» ta «izan» (ukan).*

*«Estar» be bitara euskeratzen da: «egon» eta «izan».*

*Lenengo «tener» azaldu daigun. Zerbait gaikiari buruzkoa danean «euki» erabilli bear ei da:*

*«Lau etxe daukadaz.»*

*Ostera zerbait sentimentu azaltzeko «izan» (ukan) erabilli bear ei da:*

*Biotzean min dut, min etsia,  
negar ixilla darion miña.*

*(Lizardi)*

*Bai, jokabide au jatorra izango da baiña gu baiño asko lenagotik be zeatz eroaten ez zana. Idazle zarrak aitaturko gendukez baiña ezer baiño ohea 1808' garren urteko bertso zar batzuen arteko au ipintea dala onena deritxat diñodana egiztatzeko:*

*Biotza «daukat» triste,  
alegratu ezin det;  
motibua zer «dedan»  
deklaratu nai det.  
Kautibaturik «nauka»  
dama polit batek;  
ni atormentatzen nau  
krueldade onek.  
Berak ez «du» kulparik,  
esango det zeñek.*

*Bertso onetan lau bidar ipinten da «tener»en esanaikoa, lauretan sentimentua azaltzeko; baiña beti ez darabil «izan» (ukan) erdietan baiño ta beste erdietan «euki».*

*Berdin jazoten da «estar»egaz be. Bat geldi dagoala esateko «egon» erabilten ei da ta sentimentu egoera azaltzeko «Izan».*

*a) «Gure umea geldik dago.»*

*b) «Gure aita pozik da arrain asko ekarri dabe ta.»*

*Baiña emen be «egon» «izan»en barrutian sartzen da geienetan; au da, beti dago bere tokian eta bestearenean be geienetan.*

*Ta geuk be, diñoezan legeak buruan izan arren, beste askori jarraituaz, «euki» ta «egon» erabili doguz ia beti; bear danean uts barik ta bear ez danean be sarritan.*

*Beraz, nire jokabide au iñok ez daiala eredutzat artu.*

*Bertan darabildan izkereari buruz zerbait geitu bearrean naz.*

*JOAN aditza laburtutako igaroan, «niñoan», «ziñoazan», «joan» eta abar idatzi ditut gramatika baten olantxe ikusita. Baiña azkanengoa, «joan», infinitibuan be olantxe da ta askotan illun geratzen da. Orregaitik, «niñoian», «ziñoiazan», «joian» eta abar ipintea obe izango zan, olan, azkanengoa beintzat, argiago gelditzen da ta. Baiña egiña egiña dago.*

*Ondarrabia 1978' garren urtea  
Etxaburu'tar Jose Mari (Kamiñazpi)*

*Oarra:*

*Beste liburu bi be eginda nago. «Ondarrabia-ko Kondaira» ta «Lau urteko neure ibillerak».*

## ERLEJIÑO ALDERDITIK IKUSIAK

### GURASO BATEN ERETXIA

Katolikotasuna sentiduten dabenak ba-dauko zegaz kezkatu gaur. Protestante saillak Elizatik alde egin ebanean be orain ainbat naste izan ete zan gero?

Kontzilio aurretik Eliza agintarien agindu ta irakatsien aurka bertan erantzunkizunik eukan iñok ez eban barbarik jasoko. Orain, edozein abadek, edozein idazlek Aita Santua aiña ba-dala uste dau. Elizaren irakatsi ta jokabideetan edozer barrikeria sartzea eskatzeko aiña jakitun eta eskubidedun garala danok uste dogu. Aita Santu beraren aginduen errezoia ta indarra ankapera jaurtiteko bat-be bildurrik ez daukagu. Diñogun au, besteak beste, «Humanae Vitae» eskutitza dala-ta ikusi dogu. Katoliku asko izan dira Aita Santuaren eskutitz onen aurka berbea jaso dabeenak.

Elizearen kondairan gaur ontzat ezin emon leitekezan agindu ta jokabideak arkitu geinkez. Baiña orain Elizeak alegiñik naikoa egiten dau ondo ez dagoana zuzentzen. Elizan egin bear diran aldaketak egiteko iñok bultzau bearrik ez dauke gure egunetako Aita Santuak. Baiña Elizeak Kristoren Elizea izaten jarraitu bear badau, zer aldaturik ez dauko oiñarrizko irakatsietan.

Azkenengo bi-iru urtean, jaiotzen neurtzea dala-ta eztabaida naikoa da katolikuan artean. Ta zorioneko (zoritxarreko esango neuke nik) pildorea dala-ta, berba egitera beartua izan da Aita Santua. Emon daben erabagia ez dau itsumustuan artu. ¡Ez orixe! Urtetan egon da jakintsuen eretxiak aztertzen. Zer erabagi emon daben ba-dakigu: gaxena.

Ortxe nabarmentzen da, nire ustez, bere errezoiaeren errezoia andia. Erreztasunerako griñea daukagu danok; eta jendearen zale-tasunari amor emonaz Aita Santuak pildorea ontzat emon baleu, makiñabat txalotuago izango zan izan dan baiño. Ba-ekian ori Aita Santuak. Baiña jokabide ori artzea Jaungoikoaren aginduen aurka joatea zala uste izan dabelako, jende askoren aurrean txarto lagako eban erabagia artu dau.

Zegaitik bada orren asarre elizgizon eta elizgizon ez diran ainbat jende «Humanæ Vitæ» eskutitza dala-ta? Orren burubako jokatatu al dau bada Aita Santuak erabagi ori artzean?

Pildorea erabiltea ondo ikusten dabeenak, ainbat errezoia atara ditue; baiña bat ez besteak sasi-errezoiaek baiño ez dira. Mundua, doan lez joanda, bertako bizilagunentzat txiki egingo dala; auxe bakarrik aintzat artzeko errezoia. Baiña oraindik ez gagoz estura orretan. Munduan, berau bear dan lez antolatuta, makiñabat gei-ago bizi geintekoz. Izkillutan eralgiten diran dirutzak errien onerako balira, gaur gosez bizi diran askok ogia oparo jango leukee. Ta gerokoa, geroak aginduko dau.

Beste errezoia guztiak nasaikeria baiño ez dira. Gure gurasoak guk baiño aukera gitxiagogaz familia ederrak azi zituen. Irabazi urriakaz familia larri-larri aztea zer dan iñok esan bearrrik ez daukat. Ta aingeru papera egitera ez nator. Baiña geure erosotasunagaitik, pekatua pekatu ez dala edo ez litzakeala izan bear esan edo eskátzea, deabrukeria iruditzen jat. Gaiñera, familia bakantzeko bideak ba-dira pildorea ta bidebakokeria barik be. Ala, bide orreik be gitxi ereizten al dautsegu? Katolikuok (eta kristiñau guztiak be bai) Jaungoiko bakoengandik eta jentillengandik zerbait ez gara

berezi bear ezkonduen arteko artu-emonetan? Erlejiñoako agin-  
duen esanetara buru ukatze edo sakrifizio txikienik be egiteko ez  
bagagoz, polita gure erlejiñoa!

Senar emazte askok elizgizonen baimenagaz erabilli ei dabe  
pildorea. ¡Ori da, danak be arinkeriz jokatzea! Aita Santua eraba-  
gia ezin artuta ainbat denporan egoala ikustea, auzia, eurak uste  
eben baizen argi ez egotearen ezaugarria ez al zan bada? Zegaitik  
ez egon Elizako buruaren zain?

Gai oneri lenago be ekinda nago ta ez noa sasi-errezoiak az-  
tertzen astera. Orraitio, azken atara dabeenari ikututxu bat egingo  
dautsagu. Ezkonduen lenengo ardurea ez ei da ondorengoak mun-  
duratzea, alkar maitatzea baiño. Ezer esan nai ez daben olango  
berbak asmauz dana argitzen eta erabagiten dabeela uste dabe  
gaur. Arrautzea ala oilloa lenagokoa zein dan eztabaidan ibiltea  
baizen alperrekoa da esate modu ori. Bai, alkarrenganako maita-  
sunak eroaten ditu ezkontzara neska-mutillak. Baiña ezkontzea,  
berez, ondorengoak sortzeko bidea da. Ta seme-alabak senar-  
emazteen maitasunik ez dabe otzituten, ezta asko izanda be; geitu  
bai. ¡Zenbat senar-emazte alkarregaz konpondu ezinda, umerik  
ezagaitik!

Gai onek zer esan ugari dauko; baiña luzeegi joan barik amaia  
emon bearko dautsagu.

Gure azkenengo berbak biotz-biotzez esandako oneik izan  
beitez ¡Gora Seigarren Paulo Aita Santua!

*ANAITASUNA*

## **UMEEN JAIOTZA NEURTZEA DALA-TA**

Umeen jaiotza ugaritasuna da, munduko gaurko buruausterik  
andienetakoa. Egia esateko, ez ziran geituko jaiotzak; ziurrago,  
apur bat bada be, gitxitu. Baiña sendakintzearen aurrerabideari es-  
kerrak, eriotzak asko urritu dira ta munduan egunetik egunera

neurri andian jendea ugaritzen da. Jakintsuak diñoenez, goazan lez joanda, ikaragarritzko problemak sortuko ditu jende ugaritasun onek emendik urte batzutara. Ez nun sartu ta ez zer jan eukiko ei dau. Ta ori jazo baiño len, gatxaren sendakairik onena umeen jaiotza neurtzea dala diño.

Orain arte jaiotza kontu au sendi edo familia gogoan dogula bakarrik erabilli dogu. Langillearen aloger txatxarragaz ez da errez bear dan lez sendi ugaria aztea. Seme-alaba askoren gurasoak gorriak ikusi bear izaten ditue premiñai arpegirik ezin emonda.

Len, etozan ume guztiak artzen ziran. Baiña orain erri aurreratutako erlejiñoi gitxiko jendeak erosotasunera jo dau. Ez dau nai nekerik artu; ta asko mirriztu dira familiak. Lenengo biak neskea ta mutilla izan ezkeru, ez dabe nai geienetan ume geiago izaterik eta tonk eginda geratzen dira.

Elizeak, seme-alaben aztea guraso langilleai zer astun egiten jaken konturatuta, sendi alogera eskatzen dau eurentzat. Ta bear aiñako laguntza ez bada be, modu batera edo bestera, munduko errialde askotan artzen dabe gurasoak sendi laguntzea.

Baiña ez da dana diru kontua auzi onetan. Jendea, berez be, len baiño milla bidar obeto bizi da gaur, Laterri aurreratuetan beintzat. Alan be, obeto bizi nai dau ta erlejiñorik ia bat-be senti-duten ez dabelako, errezenera jo dau.

Auzi onetan, katolikuok, morala lenengo kontuan auki bear dogu. Elizearen esana gogoan euki. Ta Elizearen esana auxe da: sexu kontuan garbi jokatu ta datorrenari edo etorri leitekeanari ez biderik itxi. Bestea, Elizeak seme-alaba asko eskatzen dauskula, ez da egia.

Ta morala al da bakarrik umeai mundura etortea ez jakela debekau bear esaten daben errezoia? Ezpai barik, umea, txikia danean, kargea da pamiliarako. Baiña lanean asitakoan, lengo okerrak errez zuzentzen ditu. Gizonak, gastau baiño askotaz geiago irabazten dau munduan. Ta beste mundura dirurik iñok ez dau eroa-



ten; geure irabazi guztiak ementxe lagaten doguz. Orregaitik mundua gero-ta aberatsagoa da, aberastasun geiago dago. Ori begien aurrean ikusten dogu Len baiño etxe ederragoak eta geiago dagoz gaur; len baiño lantegi ederragoak eta ugariago, berdin itxasontzi ta edozer gauzatan be ¡Zelango aldea berrogetamar urte oneitan!

Jendea ugaritu ta era berean, askotaz erosoago bizi. Egia, erosotasun au jendea ugaritzeak baiño aurrerapenak geiago ekarriko eban. Baiña baita be egia da eralgiten dabena baiño aberastasun geiago sortzen dabela gizonak bere bizian. Beraz, alde orretatik begiratuta ez dago ume jaiotza zetan neurtu. Ezin dabeen gurasoai bear ainbateko laguntza emon bear leuskioe Laterriak. Ori bai. Ori egiñaz ez dautse eskupekorik emoten. Gero, denporeagaz, umeak berak bateko amarregaz ordainduko dautsan dirua aurreratu besterik ez leuke egingo.

Baiña gaur beste alderdi bat garratzagoa ikusten jako auzi oneri, asierean esan dogunez. Txiki egin bear jaku mundua. Urte-tik urtera milloika arima geiago dagoz lur gaiñean. Gaur gagozan iru milla milloiak beste ainbeste izango ei dira urte asko baiño len.

Auxe da geienbat gaurko buruaustea. Nun sartu ta zelan eratu alango gizaldrak? Gaur bizi garanokaz baztar guztiak betetan doguz, toki guztietan or gabiltz geuretzat aiña tokirik ezin eginda, ukalondoka, ta zelan konpondu, gauzak olan badoaz, emendik eun urtera?

Kezka auxe zabaldu da munduko jakintsu ta agintarien artean; eta Elizeak be auzi garratz au alik ondoen azertu nai dau ta ondo letorkezan erabagiak artu. Orretarako Aita Santuaren aginduz Ottaviani kardenala buru dala Elizako buruak batzarrean dagoz.

Jaungoikoak argitu daizala, gizadiarentzat bide zuzena aukeratu daien.

*GOIZ-ARGI, Dagonilla, 1966*

## KATOLIKUAK ETA DIBORTZIOA

Gure artean ez dauke indarrrik oraindik kristiñau familiaren aurkako oiturak; emen ez dago ezkontza-austerik. Eta sendiak be geienetan, ortik zearko umetxo bigaz geratzeko oiturarik ez dabe eureganatu. Baiña oraindik egiteetan okertu ez bagara be geroago ta naturalago ereizten jaku familiaren aurkako joera ori. Zinea ta artisten eta olangoen goraberazko aldizkariak ikusten eta irakurten aspertzen ez dan gaztediarentzat ez dago txarto ezkontza-austea; askotan ondo dagoan gauzea ei da dibortzioa. Senar-emazteak augaitik edo orregaitik konpondu ezin diranean, bakotxaren bide-tik joatea baiño oberik ez dagoala esaten dabe olangoak.

Auziari azaletik bakarrik begirutzen badautsagu euren dala errezoia dirudi. Baiña azalera barik, olango auzi garrantzitsu baten eskatzen daben lez, mamiñera sakontzen badogu, lengo orren aurka dagozan errezoï andiakoak arkituko doguz. Katolikuok, beste errezoï guztien gaiñetik Jaungoikoaren Aginduak kontuan euki bear gendukez auzi onetan be. Eta Jaungoikoaren aginduetan, bosgarrenak beste indar dauke seigarrenak, zazpigarrenak, amargarrenak edo beste edozeiñek.

Elizearen Aginduak be aintzat artu bear doguz katolikuok; eta Elizeak dibortzioa gaiztetsi egiten dabena danok dakigu. Beraz, gure katolikotasuna izen utsekoa ez bada, eztabaida ta ezpai txiki-nik ez genduke euki bear auzi onezaz. Bai, gure gogai ta gure egiteak Elizearen aginduen arauz moldatu bear gendukez. Baiña gure katolikotasuna tradiziñoz bakarrik gureganatu dogu ta ez gagoz sendo gure erlejiñoaren irakatsietan. Materialismo kutsua ar-tzen asi gara. Ta auzi onetan be, mundutarkeriz errezoïak ikusten doguz.

Ta au olan izanik, mundutar errezoïak auzitara atarako doguz geuk be Elizearen irakatsien errezoia agertzeko.

Egia esateko, iñoiz errezoï andiak egon oi dira senar-emazteen batasunaren aurka. Alan ta be ez da naikoa ezkontza-austea ontzat

emoteko. Dibortzio legea ez dan errialdeetan, betiko batzen diran ustean ezkontzen dira. Gurean beintzat, alan izan da. Orregaitik, geienetan ezerezean geratzen dira ezkonduen arteko eztabaida ta putzak, asarre egonda konturik ez daukena ba-dakie-ta. Ostera, dibortzioa ontzat emonda dagoan errialdeetan, ezerezagaitik banatzen dira maitasun andi itxuran ezkonduetako bikoteak. Eurentzat garrantzi gitxi dauko ezkontzak, tengada txikiagaz eten leitekean katea dana ba-dakie-ta. Atzo ezagutu, gaur ezkondu ta biar edo etzi alkar laga. Orixe da toki askotako ezkontzea.

Ezkontza-auste orrek beste gatzik ekarriko ez baleu gatxerdi, baiña geienetan or geratzen dira umetxoak aita barik edo ama barik, edo ez bategaz eta ez besteagaz, umezurtz lez. Ta au ifiundik ezin leiteke ontzat emon. Euren borondatez ez dira munduratzen umeak, geuk gurasook sortzen doguz. Beraz, euren onari begiratu bear dautsagu geienbat eta ez geure zalekeri ta erosotasunari. Umeentzat ez da ezer gurasoen maitasun eta ondoanaia baiño obarik; eta ba-dauke maitasun eta ondonai orren eskubidea.

Abereak eurak be euren txikitxoak maite-maite izaten ditue. ¿Ta gizonak abereak baiño gitxiago izan bear al dogu? Ezkontza-austeak auxe dakar errietara: sendiak apurtzeko ta umeak guraso barik lagateko erreztasuna. Onetxegatik, ondoren auxe dakarrelako, dibortzioaren aldeko errezoiz guztiak, txiki geratzen dira. Obe da adiskide izaterik ez dauken banakai dibortzioa debekau ta orretarako biderik ifiori ez emotea, errezoiz banatzea legokien senar-emazteen eskubidea ezagutzen daben legea emon eta edozeifleri banatzeko erreztasuna emotea baiño.

Gaiñera, umeentzat daukan ondoren txar au kendu ezkerro, dibortzioak senar-emazteen eztabaida guztiak zuzenez erabagi ta bakea egiten dabenik ez daigun uste izan. Dibortzioa legez ontzat emoten dan errialdeetan gurean baiño asarre ta ilte geiago izaten da senar-emazteen artean.

Makiñabat baketsuago bizi izan dira dibortzioa zer zan be ez ekien gure sukaldeetako senar-emazte zarrak (eta geu be bai! Ze

arraio!), dibortzioa ontzat emoten dan errialde modernuetako jende aurreratua (?) baiño.

Ori bada aurrerapidea, naiago dot, neuk, atzeratua izan.

*GOIZ-ARGI, Garagarrilla, 1966*

## **LEGE BI: EZKONTZA AUSTEA TA UME GALTZEA**

Katoliku edo eskumakotzat agertzen diran alderdietako jendeagaz egindako Gobernuia dabeen Laterri bitan katoliku irakatsien aurkako lege bi oraintsu onartu dituela danok dakigu: Ezkontza austea Italia'n eta jaio bako ume galtzea edo abortoa Prantzia'n. Italia'n aldun edo diputadu batzarrak lenengo onartu eban dibortzio lege ori; ta itxuraz katoliku dan erriak legea txartzat emongo ebalakoan erreferenduna eskatu eben katoliku alderdietako buruzagiak. Baiña gauzak bestera urten eben. Italia'n Batikano'ren usaiñean eliza ta elizgizon asko egon arren, gu lez, katoliku otzak, kontixu. Gaiñera, Jaungoikoagaz sinisten ez dabeen elizgizon batzuk (teologu ta abar euren abadetzea zuritu edo justifikau naian, soillik, gizonaren lurreko bizitzea obetzea elburu egin dabeenak) dibortzioaren alde berbea egiñaz, katoliku asko euren bide okerrera eroango zituen; bada, berez danok errezera ta nasaikeriara joten dogu.

Galtze oneri atxakia atara naian edo, auzia politikatzeak kalte egin ebala izparkariak esan dabe. AGUR onetan be auxe irakurri neban. ¿Orrek kaltea ekarri? ¡Bai zera! Auzia politikatu ez balitz be, ondoren bardiña izango zan. Gaiñera, zeri esaten dautsagu «politikatutea»? Alderdi politikoak euren arazotzat artu ebala auzia? ¡Gauza jakiña! Erriak ain ardura andiz artu eban kontua, ezin eikeen alboan laga alderdi politikoak.

Ez, dibortzio kontuan Italia'n jazo danagaitik, katoliku buruak txarto jokatu dabeela ezin esan daikegu. Ta, katolikotasunak ezer ez dabela galdu esaten ausartzen naz. Katolikotasunak galtzea, berak lege txarra ontzat emotea izango litzake. Ta ori ez dau egin.

Ta onezaz amaitzeko: ijitukeri ori nai izan daben erriari, on dakiola lege aurrerazale (?) orrek. Guk geure lege zarrean naiago dogu.

Baiña Italia'ko katoliku buruai zer esanik ez badago be, Prantzia'koagaitik esan daiteke zerbait. Prantzia'n, Gobernuak alan naita, abortua onartu da. Amaren sabelean ez dakit zenbat denpora baiño geiago ez dabeen umeak jaurti edo il al izateko eskubi-dea.

Mundu guztira zabaldu nai dabe orain, jaio bakoen galtze au. Atxakia zer dan ba-dakigu: Munduko bizilagunak asko ugaritzen dirala ta abiada onetan urte asko baiño len geiegi izango dirala, eurentzat zer janik ezin izango dala sortu-ta. Ez dakit auzi au zelan dan; jakintsu askok diñoen ori egia bada, Elizeak berak be zerbait aldatu bearra izango dau, gauza oneri buruzko bere eretxia edo irakatsia.

Baiña Prantzia'ko gaurko agintariak geroko munduaren kezka ez dabe artu erabagi au. Prantzia'ko agintarien mundua, De Gaulle ta arrezkerokoena baiñepain, Prantzia da bakarrik. Gomutau bestelan, besteak beste, Europa zaintzeko sortu zan O.T.A.N.'etik zelan alde egin eban Prantzia'k. Ta Prantzia'n bizilagun asko izateko bildur andirik ez da. Jaiotza urritze onetan, aspalditik dira maixu prantzesak. Azkenengo gudan Prantzia'ko agintari buru Petain mariskalak alemandarrak burua makurtu bear izan eutsanean, gudea galtzearen errua, besteak beste, ume gitxi jaiotzea zala, esan eban.

Ez dakit Prantzia'ko gaurko jaiotzen zenbakirik, baiña arrezkero be gorakada andia egingo ebal, ez neuke esango. Zer dala ta, beraz, lege ori? Ez dakit. Beti be olango lege bat emotea, irabazi bideak anditzea baiño errezago da ta zerbaitetan nabarmendu nai. Baiña olango legeak sortzeko, gizon andia izan bearrik ez da.

Ta amaitzeko. Ez dakit jaiotzak gaurko abidan joanda zer etorkizun dan munduarentzat. Baiña, orratio, Ipar Ameriketa'n

lango aurrerapenez lurrak lantzen danean ikasiko balebe, makiñatxobat janari geiago izango litzake. Ta ori ez da ezin leitekean kontua.

Beraz, elburu orren atzetik jo bear leuke gizadiak eta ez biziten asi diran izakiai eriotza emoten.

AGUR

## BILBO EGALEKO KONTUAK

«Mundu andian kontu andiak eta geurean andienak.»

Milla bidar entzun dogu esakera au. Ainbat jende errukarri dagoan Bilbo andi orretan be makiñatxobat kontu samingarri izango da. Ta eurak damotsoen atsekabeak eraginda edo, Z... euskal idazleak kontu orrein zauri gordiña agirian ipinten dauku. Azkenengo kontua, niri gaur berba oneik idaztera bultzau nabon «Emakume Amorostua» idazlana da. Kontu au egia dan ala ez ezin igarri izan dot. Egia bada be, ipuin itxura naikoa ba-dau. Dana dala, Z...’k agertzen dituan kontuetan abade ta eliztar jendea lurra baiño berago geratzen da.

Igalietatik ezagutuko genduala zugatza, Jesukristo’k esan eban. Kristiñauon eta katolikuon egintzak danak txarrak badira, gure erlejiñoa ezin daiteke egiazkoa edo zuzena izan. Beraz, katolikotasunari ezetz emotea izango litzake jokabiderik zuzenena. Baiña ez; egia, katoliku dirala diñoen askok txarkeria ugari egiten dabe ta jokabide orregaz Elizeari kalte naikoa egin be bai. Baiña baita be egia da Eliza Katolikuak eta Elizearen izenean lanean diarduen askok on ugari egiten dabeela mundu zabalean. Bilbo’ko konturik nik ez dakit baiña Bilbo’n bertan be makiñabat errukarrik izango dabe eliz bazkunen laguntza.

Nik ez dakit Z...’k zer asmogaz kontu orreik era orretan idazten dituan. Bear bada, katolikua izango da ta Elizeari ondo egin naian akatsak agirian ipintea jokabiderik onena dalakoan egongo

da. Baiña nik ez dot ikusi komunistarik edo erregetarrik edo beste iñungo alderdikorik euren agintariak modu orretan lurperatzen erriaren aurrean. Norbere erlejiñoaren, nai alderdi politikoaren ona billatzen dabenak, bertako akatsak beste era batera zuzendu nai izaten ditu. Ta oneri lagata berak kontauten daben jazoereari eldu deiodan.

Emakume beartsu bat gaztetan emagaldu biurtu zan. Gero zartzen joala konturarik, gizon bategaz alkartu ta senar-emazte bitzitea egiten joan ziran. Iru ume izan zituen eta zarrena, alabea, ezkontzeko jarri zan. Ezkontzan, alabearen ama bera izan zan amabitxi. Ta abadeak ezkonbarri biai eta aitabitxiari Gure Jauna emonda gero amari ukatu egin eutsan danen aurrean, berea ez zan gizon bategaz alkartuta egoalako. Ta andre arek, artu eban lotsariagaz, iñun diranak esan eutsazan abadeari.

Emakume a zein dan nik ez dakit. Gaiñera, ziur, ANAITASUNA ez dau irakurriko. Beraz, Z... jaunari erantzutea bardin izango da, naita edestuten daben jazoerearen gaiñean bere eretxirik esan ez. Z... 'k ba-daki, katolikua bada beintzat, pekatuan ezin daitekeala Gure Jauna artu, ori egiten dabenak sakrilejioa egiten dabela. Ta elizaz ezkondu barik bizi dana, pekatuan bizi da. Beraz, zuzen jokatu eban abadeak. Gitxiagogaitik Gure Jauna ukatzen ikusi izan dogu.

Ta goazen aurrera. Ama a, ziur, itxurea egitearren joan zan Gure Jauna artzera, ezkontzetako oiturak betetera. Bestelan, lenago joan izan balitz, lenago ukatuko eutsoen eta orduan ez zan joango.

Baiña laga daigun kontu au eliztar modura aztertzea. Andragizonen artean beste andra edo gizonik ez dau aitatzan, au da, gizona ezkondua zan ala ez. Beraz, tartean beste iñor ez baegoan, zegaitik ezkondu ez alkarregaz? Ezkondu barik alkar maiteago izaten al da? Alkarren eskubideak, edo obeto esanda, baktxaren eskubideak obeto zaintzen al dira ijituen moduko alkartze orreikaz?

Aoan darabilgun kontu au ez dakit jazotakoa ala ipuiña dan. Baiña nik ondoren diñodana egi-egia da. Gudea zalata al zan to- kian al zan eran bizi giñan aldi aretan, ezkondu barik alkartuta bi- zi ziran andre-gizon bi ezagutu nituan neure erritik urrun. Gizona gaztelarra zan eta andrea bizkaitarra. Ez euken umerik. Igali den- dea euken. Biak lan egiten eben; andreak geiago egiten ebala, esango neuke. Andik urte batzutara euren itauna egin neban; ea areik zelan bizi ziran. Ta auxe izan neban erantzuna: «Andrea gai- xotu egin zala ta banatu egin zirala, dendeagaz gizona geratuaz.»

Andrea lanerako gauza zan artean, ederto; gero gaixotu zane- an txakur zar bat bailitzan, etxetik kanpora. ¡Ez ziran senar-emaz- teak eta!

¿Modu orretariko alkartzea katoliku ezkontzea baiño obe al da?

Ta amaitzeko: Modu orretara idatzitako kontuak zelan ekarri leitekez katoliku deitzen diran aldizkariak? Ori da ainbat aitutzen dan alkar izketea, dialogua? Alkar izketea ori bada, ni orren aurka nago. Baiña ori ez da alkar izketea, ez da okerrak zuzendu nai iza- tea. Ori beste zerbait da.

Ta naikoa da onenbestegaz.

*ANAITASUNA, 6-9-1967*

## **ELIZA KATOLIKUA TA MUNDUA**

Dana ez da garia Eliza katolikuaren kondairan. Lastoa bere arkitu geinkio. Baiña nire ustez bere alderdi ona askotaz andiagoa da.

Gaur, Elizeari akatsak soillik ikusten dautsoez. Ez nabil orain katolikuak ez diranakaz; onein esanak ez nabe arritzen. Ez, orain Elizeari akatsak arpegira botatea, katolikuak dirala diñoen askok gogotsu egiten dabeen lana da.



Au be dana txarto dagoala ez neuke esango. Geure utsak geuk ikusi bear gendukez iñok baiño lenago ta zuzendu, kanpokoak zerbait esateko zain egon barik. Baiña akatsak billatu ta zuzendutea asmo onez egin bear da, guraso onak euren seme-alaben utsakaz jokutzen dabeen lez. Gure arteko salatzaileen egitekoa edo egiten diarduena dana, asmo onez al da? Ezetzean nago.

Katoliku narruz jantzita Eliza Katolikuaren ondamendia pozik ikusiko leukeen gitxi ez dagoz orain. Besteak beste, ara Elizeari egiten dautsoen salakuntzea: Zera, ilda geroko bizitzeagaz baka-riik arduratzen dala, lurreko bizitzeagaz ez dala arduratzen. Eurai entzunda, gu katolikuok, danok, mundua lagata basamortura joan garala, bedarra janaz, bizia otoitzean igarotzeko asmoz, esan dai-teke, edo etxetzarretan sartuta kartujoen bizitza egiñaz bizia igaro nai dogula.

Baiña zorionez edo zoritxarrez, guztiz bestera dira gauzak. Gu katolikuok, katoliku epelak, (katolikutasunean epelak esan nai ne-ban) geienok, ilda geroko beste munduagaz baiño oiñakaz zapal-tzen dogun onegaz geiago arduratzen gara. Alik ondoen ementxe nai genduke izan eta orretara alegintzen gara. Beste edozeiñek baizen gogotsu lan egiten dogu; lanari irabazi ona atarateko nun-dik edo zelan jokatu arduratzen gara edo dira, negoziuetan sartuta dagozanak. Katoliku jendea, munduko beste edozein lez ikasketak egiten alegintzen da. Kulturaz jaubetuteko ardurea dauko. Ta iñok ez bei esan, bakotxa bere buruagaz arduratzen garala baiña ez munduagaz, bada, orixe da mundutar geienon jokabidea.

Gaiñera guk katolikuok munduaren onerako egin geinkeana ez da soillik bakotxak geure buruaren alde egiñaz egin doguna. Kul-turearen abia izan da beti Elizea. Gaur egunean millaka asko dira mundu zabalean katolikuen ikastolak eta milloika lagun eurentan ikasketak egiten diarduenak. Ta baita be ba-dira katolikuen ardu-rapean unibersidade, obserbatorio ta olangoak. Ta misifioetan elizgizonak egin izan dabeen eta egiten diarduen lana be orixe da asko, munduko bizitza obetzen alegintzea.

Gaiñera, munduko bizitzea obetuteko, danetik asko sortu edo produzitzea ez da guztia, ta orretara eroaten gaituan tenikea edo jakintzea be ez. Munduko bizitzea obetzeko guztia tenikea ta produziñoa balitz, bake-bakean biziko giñazke, tenikea ta produziñoa goi-goian arkitzen dira-ta. Baiña ba-dakigu gauzak zelan diran. Mundua gero ta aurreratuago ta iñun bakerik ez, zuzentasunik ez; gero ta asarre, ezin ikusi ta guda geiago dagoala esan daiteke.

Ez, tenikea ta aurrerabidea ez dira bakarrik munduak bear dabena; oraindik bearrago dabena beste au da: Jendea sentimentu onez jaubetzea. Gizadia ohea izan daiteala. Ta au lortu naian beste iñok baiño geiago egiten dau Elizeak.

Munduari beste ezek baiño moral irakatsiak geiago palta egiten dautsoe. Ta orretan alegintzen dana, danadalakoa, munduko bizitzea obetze lanean diardu. Eliza Katolikua, onetan, lenengoa da.

*AGUR, Lotazilla, 1971*

## **ELIZEA TA MISIÑOAK**

Aize barriak eldu ez diran bizi mailla ta erarik ez dago. Len norbere asmo ta eretxietako aldizkari ta izparringietan atsegin ez jakun ezer ez genduan arkitzen. Gaur, barriz, lautik irutan, sabeleko miñez lagaten gaituen esanez beterik elduten jakuz gutartzat daukaguzan aldizkariak. Oraingo katoliku aldizkarietan argitaratzen diran zenbait idazlan orain ogetamar urte argitaratu balira, lur ikareak baiño ezin egon andiagoa sortuko eben. Orain barriz, Elizea be barriztaten dan atxakiagaz, edo alkar izketa aldian gagozala-ta, edozer idazteko ausardia dau edonok. Elizearen jokabidea ta zenbait auzitako irakatsiak ederto astintzen dira gaur.

Katoliku aldizkarietako idazlan batzuen gure ustezko eretxi oker guztiai aurka urtengo bageuntse, aldizkarien orriak gitxi izango litzakez guretzat. Baiña, noizik bein bada ba urtetea kome-ni da, okerrai indarra artzen laga barik.

Idazlan orreik, asko, asmorik onenagaz egindakoak dirana ez da ezpairik, baiña kaltegarriak dira gure ustez. Oraintsu euskal aldizkari baten, Elizearen misioetako lanari akatsak ataraten eutsazan «Eliza Auzipean» izeneko artikulua irakurri genduan. Kristiñau misioñolariak, beartsuakaz gogoratu barik, aberatsen inguruan bizi zirala, aberatskumeai jakintzea sartzen, esan ei dau inditar jakintsu batek. Obe ei leukee kristiñau misioñolariak jakintzeagaz gitxiago gogoratu ta beartsuen alde maitasun geiago agertu. Ta euskal idazleak, inditar orren berbak bereganatuaz, gure misioñolarien lana oiñazpiratu egiten dau.

Nik neuk misioetako barri zeatz ta ugaririk ezin emon daiket, ango kontuak, edozeiñek dakiazanak baiño besterik ez dakidazda.

Baiña nire eretxia idazlan ori egin dabenangandik guztiz bestera da. Ango barri emon oi dauskuen aldizkarietatik ataraten danez, gure misioñolariak, geienak, erri txikietan eta basoan bizi dira jende beartsuagaz. Beartsuai erlejiñoa irakatsiaz gaiñera eskola emon, zauri ta miñak osatu, lanean irakatsi ta beste milla egite onetan arduratuaz. Ta guztia eurentzat erosotasun gitxigaz, gorriak ikusita.

Ta ori ez da paperetako kontua bakarrik, Asko ta asko dira euskaldun misioñolariak ogetamar edo berrogei urte misioetan igarota zartzaroan euren errialdera biurtu diranak. Aretxei itandu bear geunskioe ea aberatsen ondoan gozoro biziaz misioetako denporea igaro dabeen ala beartsuai laguntzen indarrak joan jakezan. Rios'era joanda daukaguzan euskaldun misioñolariak be unibersidadeetan sartuta aberatskumeai jakintzea azalduten al dabiltz bada?

An urrunean idazlan ori irakurtera elduten badira ¡zelango atsekabea eurena, katolikutasunaren izenean euren lana loitu egiten dabeela ikusita!

Gu emen aukera gustiakaz bizi garanok, guztia lagata urruneratu ziranen lan eta nekeak ezereztuten.

Ta zelan diran gauzak! Aurregunean irakurritako artikulua orren esanak buruan nerabiltzala, biaramonean, misañoetatik bialdutako eskutitz bat ekarren Donostia'ko eguneroko batek. Aurreguneko idazlanarentzat erantzun egoki-egokia. Aita Galdos'ek idatzitako eskutitza zan. Ta bertan, emendik eroandako diruagaz jende beartsuentzat egindako lan andiaren barri emoten eban.

Ez noa orain eskutitzaren esanak berresatera. Len irakurri ez eban iñok irakurri nai badau, noiz eta nun agertu zan esango dot: DIARIO VASCO (22-8-67).

Egia, eskutitz aretan ez dago beste munduko gauzarik. Alango kontuak milla bidar irakurri izan doguz. Baiña au idaztera bultzau naben idazlanari ezetz biribilla emoteko, naikoa ta geiegi be bada ta orretxegaitik aitatzen dot.

Elizeak bere kondairan akatsik izan ez dabenik eta zenbait gauza aldatu bearrean egon garanik edo gagozanik ez dot ukatuko, baiña ain zuzen be gure Elizearen lanik goragarrienetakoa ain zentzun gitxigaz oiñazpiratzea, parkatu eziñeko arinkeria da.

Elizea jarri dogu auzipean edo bankilloan. Baiña, gu geu gara, asko, auzipean larri ibilliko giñakeanak.

¡Eta ez gitxien aldizkari katolikoetako zuzendariak!

*GOIZ-ARGI Urrilla, 1967*

## **ERLEJIÑO A TA POLITIKEA**

Auzi desbardintzat daukaguz danok erlejiñoa ta politikea ta orregaitik nastau bear ez diranak. Beste munduko kontua da geienbat erlejiñoa, bizitza onen ondoren dagoan beste bizitzarako gizona zuzendutea bere ardurarik nagusia. Politikea oster, gizonaren lurreko bizitza eratzeko da. Bearrekoa da onetarako politikea; beraz, zuzena, bere oiñarri asmoa.

Baiña askotan, gizonaren edo gizartearen ona lortzeko ez da jokutzen politikan, txikikeriakaitik baiño. Kepa edo Joseba errege

izan ardura gitxiko kontua da, erregetzea biak antzera egingo badabe. Politikeria utsa, oneri esango geunskio. Ta baita be ardura gitxiko kontua da errialde baten erregetzea edo errepublikea egon, erregek be errepublikeak lez erriaren borondatea ontzat emoten badau. Zegaitik dan ez dakigula kasketaldiak eraginda lez, aren edo onen alde ibiltea, politika izenik merezi ez daben politikeria da. Ta ezin ukatu, auxe izaten dala askotan politikea.

Jakiña, politikea benetako politikea danean, ori baiño ganorazkoagoa da; ekonomia, askatasuna edo menpetasuna, irakaskintzea, gudea edo bakea ta abar, politikea dira. Alan da be Elizeak ez dauko gai onezazko eztabaidetan zetan sartu, moralari ikuturik egiten ez dautsoen artean. Baiña geiegitan Elizearen irakatsien aurka egon oi dira Gobernuen legeak. Ta ez da ori bakarrik alderdi bien artean egon leitekean konpondu eziña. Gobernuen eskutan dago Elizeak bere egitekoa egin al izan edo ez. Batzuk aske izten dautsoe Elizeari; beste Gobernu batzuk menpean euki nai izaten dabe ta ba-dira Elizea edo erlejiñoa ondatzen alegintzen diran Gobernuak be.

Diñodan guztia egia bada eta alantxe da, ¿politikan jazoten dan guztiak Elizeari bat-be ardurarik ez dautsala izan bear, nok esan daike?

Aurten baten, gai oneri ekiten eutsan izparringiz euskal intelektual batek. Politikan beti izan dabela eragiña erlejiñoak esaten eban. Egia andia auxe. Baiña emen gauza bat da benetan ardura andikoa. ¿Zelango asmoak eroan dabe Elizea, politika utsak eraginda ala erlejiñoaren irakatsiak indartu naiak? Ba-dakigu Elizeak kondaira zear politika uts-utsak eraginda jokatu izan dabela sarritan. Jakiña, jokabide au guk ez dogu ontzat emongo. Gaur, beste baten aoz diño berak, Elizea ez ei da sartzen, len beste, auteskun-deetan.

Bada, guk, ez orain eta ez len be alderdi edo partidurik ez dautsagu ezagutu Elizeari, Eliza Katolikuari. Erlejiño errezoiak gogoan genduzala jokatzeko besterik ez dausku agindu izan lengo

denporetan be. Geienez, katoliku alderdian indartsuena zanari autarkia emoteke esan izan dau. Ta au be ez beti, auteskundeak erlejiñoarentzat zer ikusi andia eukela uste zanean baiño. Nik uste dot, iñoiz auteskunderik izaten badogu, Elizearen lengo agindu oneik baliokoak izango dirala.

Ezpai barik, gaur egunean erlejiñoa baiño politikea indar andiagokoa da gizarte bizitzan. Laterri bateko gorabera guztiai Gobernua berak ipinten dautsaz lege ta mugak; Elizeak bere zeregiña beteteko erreztasuna izan edo ez izan Gobernuen eskutan izaten da. Beraz, Elizearen etorkizuna auteskundeetan jokatzen bada sarritan, politikako gure jokabidean, beste errezoï batzuen artean erlejiño errezoïak be kontuan doguzala jokatu bear dogula zentzuak eskatzen dau.

Ta jendeak gaur be olantxe jokatzen dabela dirudi. Lendakaritzarako Prantzia'n egin diran auteskundeetan erlejiñoaren errezoïen eragiñez katolikuak emon ei dautsoe euren autarkia De Gaulle'ri. Dalako jaun orreri au ez jakola atsegín izan dirudi. Estrutura sozialetan edo gizarte oiñarri legeetan ezelango aldakuntzarik ez dogula nai adierazoten ei dau Prantzia'ko katolikuen jokabide orrek.

Benetan, ez dot ulertzen jaun orren esanaia. Nik neuk be ez dot begikoa De Gaulle. Ta ba-dakit beste katoliku bat agertu zana lendakaritzarako auteskundeetan, Lecanuet. Ziur, bere eretxiakaz De Gaulle'renakaz baiño urreago egongo naz. Prantzitar katolikuak jaun bi orrein artean Lecanuet'en alde agertu balira, Elizearen gaurko irakatsiai jarraitzen dautseen ezaugarri ohea izango zala esatea ondo dago, baiña De Gaulle ta erlejiño bako baten artean beste onen alde katolikuak agertu bear zirala esatea geiegi esatea be ba-dala deritxat.

Katolikua ta katolikua ez dan jaun biren artean katolikuak katolikua aukeratzeak, bearrekoa dan estrutura-aldakuntzarik katolikuak ez dabeela nai ez dau nai esan, danen gaiñetik erlejiñoak ardurazen dituala baiño.

Jakiña, «Jauna, jauna» esatea ez da erlejiñoa, Jaunaren borondatea egitea baiño. Ta Jaunaren borondatea, zuzentzea da, bakea, beartsuai laguntzea, iñor ez menperatzea, kulturea danontzat eta abar. Baiña orrein alde jokatzeko, erlejiñoa alde batean laga bearrrik ez dago.

Norbaitek esan dabenez, Mitterrand'en ezkertar izakerea Elizearen gaurko irakatsien urreago dago De Gaulle'ren eskumatar izakerea baiño. Ez dakit. Ez baten eta ez bestearen auteskunde egitaraurik ez dot irakurri. Baiña auteskunde aurrean egiten diran egitarau ta eskeintzak gero erdira jatsiten dirana bai ba-dakit. Mitterrand'ek agintari lez zelan jokatu eban ez dakigu, baiña bere alderdiko lagunak Prantzia'ko agintaritzea eskuan ainbat bidar euki arren besteak ez lango trebetasunik ez dabe erakutsi izan.

Edonun be komunistak dira bakarrik benetako aldakuntzak egiten dituenak; besteak, ainbatean jokutzen dabe ekonomi kontuan.

Ez dot uste gizartearen onak eskatzen dituan aldaketen aurka dagoanik katoliku erria. Katoliku jendea, langille maillakoa bada beintzat, beretzat ona dan aldakuntzeak ez dau atzeratuko, aldakuntza orrek erlejiño ta bakearen kaltez ezer ez badakar.

Gaur munduak eskatzen daben aldakuntzetara eroango gaituan politika alderdirik katolikuok ez badaukagu, ez da katoliku erriaren errua intelektual edo goi maillako politikuena baiño. Erriari bideak zabaldu bear jakoz eta jarraituko dautso bear dan bideari. Betoz bide ta mobimentu orreik.

Idazlan au amaitu baiño len, auziaren beste alderdi bateri buruz iru-lau berbatxu esan nai neukez. Orain arte, politika kontuan katolikuok erlejiñoaren izatea ta irakatsiak aztu edo baztatu bearrrik ez daukagula agertu nai izan dot. Orain geu katolikuon politika eztabaidaz eta Elizeaz zerbait.

Elizeak politikan zetan sartu ez daukela esaten dogu. Danon esakerea da au; baiña min puntakoa bakarrik. Bere berba egitea

gure politikearen sendogarri dala uste dogunean, egin daiala eskatzen dautsagu. Egia, berba egin bearra daukanean egin egin (sic) bear dau; baiña ezin daiteke edozer txikikeritan sartu, bada Elizeak politika asmo barik berba egin arren Gobernuaren edo politika alderdiren baten egitadaren bat aitutzen badau goratu nai beratzeko, alderdi batekoak edo bestekoak politikatzat artu ta aietuko dabe. Ta uts ta okerrak, andiangoak edo txikiangoak, edozein margotako Gobernuetan arkitu leitekezalako billa asi ezkeru, guztiak gaiztetsiten berba egin bear badau, beti politikan sartutan ibilli bear dau.

Egiz sentiduta, barru-barrutik esan bear genduke Elizea politikan ez dala sartu bear. Ta ori olan izan daitean, berari lagundu politikatzat artuko dan ezer esatera beartu barik.

Jokabide au litzake bai Elizearen eta bai politikearen alde artu geinkean jokabiderik onena.

*ANAITASUNA 144' garren zenbakia*

## **ELIZEA TA AURRERAPENA**

Eleizeak edo erlejiñoak (biak gauza bat) beti euki izan ditu arerioak. Beti berba egin izan da Elizearen irakatsien aurka. Baiña len Jaungoiko bakoak, sinismenik ez ebenak izaten ziran olan jarduten ebenak. Euren esanak ez ginduezan poztuten baiña asko atsekabetu be ez. Berezko gauzea ereizten jakun ori, gauza naturala. ¡Zer esango eben bada Jaungoikoagan sinisten ez ebenak! Baiña orain sinismendunak artu dabe zeregin ori. Ta gogotsu artu be. Asko dira gaur Elizeari erruki barik egurra emoten diarduen katolikuak, elizgizon eta laikuak. Aberatsen aldekoa dala Elizea, langilleak beti azpiratuak izan daitezcan nagusiakaz alkartzen dala, beste munduko bizitzeagaz bakarrik arduratzen irakatsi dabela lurreko bizitza baztartuta, ta antzekoak esan edo idatziaz.



Beste esanak alboan itxita, azkenengoari eldu nai dausat, Orixe zan marxistak be kristiñau sinismendunogaitik esaten ebena, zera, gu, zeruagaz bakarrik kezkatzen giñala, lurreko bizitzeak kezka txikienik be ez euskula emoten. Ta orren aurka, «zerua» ta zeruko karameluak aingeruentzat laga ta mundua zeru biurtzen alegindu bear giñakeala aldarrikatzen eben.

Lengo baten, orreitxen antzeko eretxi batzuk irakurri nituan gure asteroko baten, marxisten irakatsi orrein bardin samarrak.

«Beartsuak, Jaungoikoak ala nai zualako beartsu jaio zenez, etzezakean aberats maillarekin amets egin, Egillearen asmoen kontra joan nai ez bazuan.»

«Eta orrela bizitzeko agintzen zitzaigun, estu ta larri, baiña, geroko zeru baten itxaropenean.»

«Agindu izan zaigun zeru ori, emen lur ontan dago eta ez odei gaiñeko izarretan.»

Au danau Jaungoiko bakoak idatzia izan balitz, ez giñan minduko; baiña geure alderdikoengandik urtendakoa dala ikusita, ezin ixilik geratu izan gara. Elizeak, danen gaiñetik Jaungoikoa maitatutea ta zerua irabazi bearra irakatsi dausku, arimea betiko galdutea nai ez badogu. Baiña lurreko bizitza onek ez gaituala arduratu bear ez dausku irakatsi. Komentuko lau ormen artera joan ez diran edo ez garan guztiok, danok, ondo bizi nai dogu; len eta orain. Ta orretarako bidea, dirua da ta, danok izan dogu irabazi geiagoren naia. Jakiña, len atzeratuago bizi giñan; irabazi bide on gitxi zan eta ezin gora egin. ¡Zenbat euskaldun mutil Ameriketara joan izan dira, bizimodua obetu naia beste ames barik!

Emen bertan, alogerekoa baiño zerbait geiago izan naian, lan-tegitxu bategaz edo beste irabazi bideren bategaz jaubetzeko erea izan dabeenak ez dira lo egon. Ez, erlejiñoa ez da izan freno aurrerabidearentzat. Argi dago au itsua izan nai ez dabenarentzat. Munduari osotara begiratuta kristiñau ez diran erriak baiño kristiñau diranak (edo izan diranak beintzat) asko aurreratuago dagoza-

la ikusiko dogu; ta emen gure artera begiratuta be bardin: Euskal Erria inguruko erriak baiño katolikuago ta aldi berean asko abertsagoa da, euskaldunon lanari eskerrak.

Gure erria eliztarra izan da bai, iñor izan bada, baiña beti buruz bera egon dana ez; elizatik kanpora, burua goian, zirt edo zart, jan eta edan, jolastu, dantzatu ta lan egin. Zerua irabaztearren bitzta txiroa pozik laztanduaz ez da bizi izan.

*EL DIARIO VASCO, 18-7-1976*

## **IKASTOLAK ETA KRISTIÑAU IKASBIDEA**

Beti doaz gauzak aldatzen munduan. Denporeagaz beti aldatu izan da edozer gauza gitxi bada be. Baiña errez ez genduan sinistuko orain iru-lau urte gabetik goizera olango aldakuntzak ikusi bear genduzanik erlejiñoagaz zer ikusia dauken gauzetan.

Errepublika denporetan ikastoletatik gurutzea kendu ta Kristiñau ikasbidea irakastea debekau ebenean, Eusko Abertzale Alderdiko aldun edo diputaduak, euren artean gero gure aberriko lendarikari izan zan Agirre aurretik zala, barrio España'ko ikastoletan erlejiñoako irakaspenak emoteko lege-aurrekoa aurkeztu eben Madrid'ko aldun etxean.

Gaur, gure ikastolak sortzen asi garanean, Jaungoikoaren izenik be euretan aitatzerik ez dabe nai orretan arduratuta dagozan askok; ez dabe nai gure erlejiñoako gauzarik irakasterik. Kontu au negargarria ez balitz, barregarriak izango litzakez orretarako ataraten dituen errezoiak. Andereiñoak orretarako ez ei dagoz gertuak. Au atxakia dala ondo dakigu. Edozelan be, andereiñoak erlejiñoako irakaspenak ez emon arren, orretarako aukerakoak diranai lagako baleutsee ezer esaterik ez litzake izango. Baiña euskal ikastola batzutan abadeai sartzea debekau dautseen barri ba-dogu.

Beraz, ez da andereiñoak orretarako gauza ez diralako. Zer, bada, teolojia ta olangoetan sakonduaz berba egin bear al dautsee umeai? Bear bada, matematika, astronomia, geometria ta abarretan be ez dira jakintsuak izango gure andereiñoak. Baiña bear be ez euren zeregiña ondo beteko.

Gurasoak irakatsi bear dautseela umeai Jaungoiko bidea? Ori bai; baiña eziera osoa emon nai jaken tokia ikastolea da ta erlejiño gai au emoteko gurasorik geienak baiño andereiñoak gertuago egongo dira ziur. Umeai eziera ona emon nai jake; gizartean bear dan lez jokatu daien jakitez eta sentimentu onez ornitu nai dira ta orretarako moralidadearen oiñarria dan Jaungoikoaz ez dautsee nai barbarik egin. Jesukristo'ren irakatsi ederrak eskutau egin nai dautseez. ¡Bapo zuek!

Guri irakatsi euskuen Kristiñau Ikasbidea, irakaspen geiago emon ezik, gauza gitxi dala autortzen dogu; askatasuna, zuzentasuna, alkarrenganako maitasuna, ta alkarrei lagundu bearra ta olango kontuak sentidu eragiteko eran umeak ezi bear dirala geuk be esaten dogu, baiña orretarako erlejiñoa baztatu bearrik ez da, erlejiñoaren egiak ondo irakatsi bai.

Nik ez dot ikaste andirik (eta txikirik be ez) egin, baiña ikusten diranak ikusita, ainbat ikaste egin dabeenen jokabidea ikusita, gauza andirik ez dodala galdu esango neuke. Eztabaidarako ondo gertuak dagozala dirudie oraingo gazte askok, baiña begien aurrean dagozan egiak ikusteko bururik ez dauke. Nik neuretik ataraten ditut kontuak; nik ezer onik badot, neure sinismenari dausat sor oso-osorik.

Ez dira emengo kontuak bakarrik. Gai au aztertzen daben lan bat irakurten egon naz erdal aldizkari baten. Orretarako egin barria dan batzar baten barri emoten eban eta bertako geienen ertxia zera ei zan..., katekesisa ez dala ikastolen zeregiña.

Eliztarrak ziran au ziñoenak. Beraz argi dago, gu, edo obeto esan, ni atzeratua nazala. Baiña aldizkari bertan etorren beste idazlan batek ekarren eztabaida onen erantzuna:

Legeak ori ontzat emon daben lenengo bederatzii illebeteetan zenbat ume galtze edo aborto Ingalaterra'n izan ziran esaten eban. 23.642 ume galtze izan ei dira ta euretatik 543 amasei urtetik berako neskatxetan. Iru neskato amaika urtekoak, sei amabi urtekoak, ogetabat amairukoak eta eun eta berrogetamar amalau urtekoak umeak galdu dituenen artean.

Zer, neskato orreik ikastoletan Kristiñau Ikasbidea ikasi ta erlejiñoko irakatsietan ezierea artutakoak al dira? Ez neuke ori esango.

Orraxe goaz bada, iñok ez bei ezpairik izan. Jaungoikoa bazartu nai da ta bazartu dabe, baiña munduak era berean ontasunean aurrea egin dabenik iñok ez dau esango. Jaungoikoa bazartu ta txarkeria ugaritu. Ni neu Jaungoiko bakoa banintz be, erri agintaria nazala, erlejiñoko irakatsietan umeai ezierea emotea nai izan-go neuke, (gurasoak aurka ez dagozala), mundu onetarako be irakabide oberik ezin daitekealako.

Jaungoiko ezak orraxe garoaz, Ingalaterra'ko txarrikeria orretara, alkarrei andrak trukatera, drogetan murgiltzera, Manson'en eta lagunen ezin esanalangoak egitera.

Izan be Jaungoiko barik abereak baiño ez gara; abere jakintuenak, baiña abereak soillik.

Ez gaitzean itsuak izan; ikastoletan erlejiñoko irakatsiak irakasteko bildurrik ez daigun izan, ortik, erlejiñoa ondo ikastetik, gure umeai ta aldi berean gure erriari ona baiño besterik ez jake etorriko ta.

*GOIZ-ARGI, Ilbeltza, 1971*

## **NORA DOA GAZTEDIA?**

Ludiko erri aurreratuenetara begiratu daigun, batez be Europa iparreko gorengo maillan dagozan Laterrietara. Aukera guztiakaz

bizi da jendea euretan, lurtar atsegiñetan murgilduta. Baiña ezin ase. Ondo bizi ta obeto nai. Ez daigun uste izan, beraz, aukera guztiak daukezala ta Jaungoikoari eskerrak emoteko dagozanik. ¡Bai zera! Oso-osorik bestera jokutzen dabe. Eroso egin jake bizi-modua ta aurrerantzean oraindik errezago ikusten dabeelako, Jaungoikoaren premiñarik ez dabe sentiduten eta baztarrera itxi dabe. Lurkoi uts biurtu dira.

Gogoangarriak dira Alemania'ko buru dan Adenauer zarrak gai oneri buruz esan dituan itzak:

«Alemandarrak –diño– iñor baiño aseगतखगो dira. Beti geiago ta geiago nai dabe. Ni, alemandarren ezin asetze onek itzaldu egiten nau. Lurreko ondasunen atzetik amorrus joanaz gaiñera, familiarik be ez dabe euki nai. Aleman erriak bide onetan badi-rau, emendik ogetamar urtera zarren erri biurtuko da ta Europa'ko beste erriak, aberri bizitza, askotaz indartsuagoa eukiko dabe.»

Auxe da oso-osorik aurrerapenaren jaube egin diran erri guztietako jokoa. Ezetariko buruauste ta Jaungoiko barik, lurtar bizitzako atsegiñak miaskau. Auxe da gaurko gaztediaren elburua.

¿Ezer onik itxaro ete geinke olango gizarteagaz?

Geroko bizitzea gertuteko edo irabazteko bakarrik ez da premiñazkoa Jaungoikoa; mundu onetarako be bearrekoa da, ez da eragozpidea. Kristiñautasunak, egiazko kristiñautasunak beintzat, alkarrenganako maitasuna ta lotsea dakar eta gizarteagaz daukaguzan bearkunak betetera bultzaten gaitu.

Egia esan, Europa'ko gaztedi barriak askatasuna ta bakotxaren eskubideak ezagutzen ditu, baiña gizartearen alde nekerik txikienik be ez dau nai leporatu. Ta aukera-maukerako bizitza orrek ez dautsala luzaro iraungo uste izatekoa da, kondaireari begiratzen badautsagu. Pekatuzko bizitzan jausi ziran erriak ondatu egin ziran, nekeari arpegi emoteko bildurrik ez eukenen menpean.

Komunismua da gaur adore ikaragarriagaz erriak iruntsi bear dituana. Beroneri, egiazko kristiñautasunak bakarrik arresiak jarri lekiaz.

*KARMEL, Ilbeltza, Otsaila, 1961.*

## **GAZTEENGAN EZ DAIGUN NASTERIK SORTU.**

Orain berrogei urte inguru 1928'garren urteko ARGIAREN EGUTEGIA'k (amalau urtegaraz lenengo erosi neban liburua) sari-keta bat ipiñi eban. «Zentzunduna, osasuntsua, aberatsa, Jaungoikozalea, apala zintzoa, errikoa, kristaua, langillea, buru azkarra, indartsua, ederra, aundia, maitagarria ta ertilaria» izakeren artean, gizon zentzuneko batek zein lenen, zein bigarren, zein irugarren eta abar ipiñi bear edo nai izan bear leukezan zan sariketean. ZINTZOA izatea lenengo iruren artean jarri ebalu uste dot erabagia emon bear ebanak. Izan be, zintzotasuna, gizonaren izakeretik goragarrienatarikoa da, ezelango atxakirik ez daben tasun edo kualidadea.

Baiña zintzoa izaten irakasten ez ei gara alegindu, gure seme-alabak txintxoak izan daitezkan bakarrik ardurea ipiñi ei dogu. Olan irakurten genduan GOIZ ARGI'n aurten baten agertu zan TXINTXOAK ALA KONTESTALARIAK NAIAGO? idazlanean. Ta txintxoak, danari bai esaten baiño ez dakian peplea ei da.

Guk bizkaitarrok txintxoak berbea ez dogu erabilten ta bere esanaiaren barri zeatzik ez dakit. Gure artean, gizona zintzoa izango da edo ez da izango, baiña txintxoak iñor be ez da.

Idazlan orren egilleak txintxoari lur jo eragin naia nundik datorren ba-dakigula uste dot. Danok, atzeratutzat joko gaituen bildur gara, aurrerapen bidean sartuta gagozala agertu nai dogu, progresistatzat agertu nai dogu ta modako izan nai onek, gazte protestalari edo kontestalariei eskua luzatu ta laguntza emotera bultza dau idazle ori. Orren antzeko asko irakurten da gaur.

Konparaziñoak gorrotagarri dirala norbaitek esan eban. Ez dakit beti olan danik, baiña TXINTXOAK ALA KONTESTALARIAK? itauna egin bearrekoa ez dala, bai, esango dot. Txintxoa izatea beeragarri edo ezezgarri izango da kontixu, baiña kontestalariai goratu al izateko, ezezgarri diranen ondoan ipiñi bearra, eurak be guztiz goragarriak ez diran zantzua da nire ustez. Gizakia, andia dala erakutsi naian txikiaren ondoan nabarmenduten dana, bera be andi-andia ez dan bildur da.

Dalako idazlanak diñoanari begiratuta bakarrik itaun orreri erantzun bear bageuntso, ez legoke ezpairik aukeratzeko, txintxoak oiñazpiratzen dituan neurrian kontestalariai jasoten ditu-ta.

Baiña ez dira olan gauzak. Zeri protestau bear asko da zoritxareez munduan, baiña gaurko protestalarien jokabidea, ezer berezi barik on eta txar, dagoan guztia lurreratu nai izatea, ez da jokabide zuzena. Ez da urrik emon be. Gaiñera, txarra eratzi nai izatea bakarrik ez da naikoa; mundu ohea izan daitean be alegindu egin bear dogu, zerbait on jasoten be nekatu egin bear dogu.

Gazteengan naste edo konfuziñorik sortzeko erakorik ez daigun esan edo idatzi. Gaztedia berez joan oi da biurrikeri ta gogorkerietara, orretara iñok bultzau barik be. Gazteen elbururik ez daigun nastau; elburu ta jokabide argi ta baliotsuak aurrean ipiñi deioguzan. Txintxoa izatea peplea izatea bada zintzoak izaten irakatsi deiogun gure semeai. Asarrea agertu bear danean asarrea agertu ta protestea egin bear danean alan egiteko adorea izan daiela.

Baiña euren alderdi on guztia ori ez daiteala izan bakarrik. Oso-osorik zintzoak izan daitezala, langilleak, arrokeri bakoak, ezer alperrik ondatzen ez dabeenak, beartsuen laguntzailleak, oitura onekoak eta abar.

Jende' protestalaria eukiteak gitxi balioko dautso erri bateri, jende ori aitatu doguzan beste gauzetan atzeratua bada, auzka zalea, alperra, ondatzaillea ta abar.

Dalako konparaziñorik ez daigun egin, txintxo peplea ta kon-  
testalarien artean nai ta nai ez aukeratu bearrean ez daiguzan jarri  
gazteak.

*GOIZ ARGI, Loreilla, 1969*

## **ZARRAK EUREN BURUAK GARBITZEN**

Ezetariko mobimendurik ez da sortzen berez, errian. Ez erleji-  
ñoko, ez abertzaletasuneko, ez sozial ta ez beste ezetariko ezer.  
Gitxi batzuk erabilten dabe erria, minoriak zirkin eragiten dautsoe  
erriari.

Gaurko gazteen errebeldia ta ezin egonaz be orixe esango gen-  
duke: gitxi batzuen kontuak dirala, minori eskolatu baten kon-  
tuak. Gaztediari buruko min gitxi emoten dautsoe munduko gaur-  
ko problema ta buruausteak. Gaztediaren kezka ta zaletasunak  
zeintzuk diran jakin nai badogu, nundik nora dabillen begiratu  
daigun. Ardanegi, ostiko zelai, dantza toki ta olangoetan alkarrei  
tokirik ezin eginda gazte aldra andiak ikusiko doguz. Euskal esa-  
kera zar batek diñoan lez: Nun nire gogo, an nire zankoa.

Egia, ez da au gaurko gaztediari bakarrik ezarteko pekatua.  
Gaztea beti gazte; orain eta len.

Baiña beintzat, gaurko gazteak ez dira iñor zarrak arpegira ezer  
jaurtiteko, ezetan be zarrak baiño obeak ez diralako.

Geu be izan giñan gazteak. Baiña geuri sortzea emon euskun  
aurreko belaundiagaz ezetariko eztabaidarik ez genduan erabili.  
Ez geunkan ezetan gaurko gazteak baiño askatasun geiago. Gi-  
txiagi bai, geure ibillera ta jolasetan. Alan be gugaz txarto jokat-  
zen eben zalakuntzarik ez geuntsen egiten geure gurasoai. Zaldi  
biurri bateri bere urduritasunean ez egitekorik egin ez daian ipin-  
ten jakon lez lokarriren bat edo mugaren bat ipinten baeuskuen,  
errezoizkoa ereizten jakun euren jokabidea. Matxino lez, errebel-



de lez agertu nai dau gaurko gaztediak. Gauza anditzat dauke euren izakera ori. Izan be, txarto dagozan gauzen aurka agertzea txalogarri da. Baiña munduko oker eta zuzentza bakotasunaren aurka jokatzea baiño geiagoko barik errebelde agertzea naiago ete daben bildur naz.

Gure egiteak txarrak dira danak eta eurenak danak onak edo beintzat, polito estaltzen ditue euren akatsak; zelango lapikoa, alango estalkia arkituko dabe. Jantzi zarpaillez eta anarkiarik andienean bizi diran ortik zearko gazte aldren ijitu bizimodua be gaurko gizartearen oker eta zuzentza bakotasunaren aurkako osten-tasun edo protestea ei da.

Ederto! Zer, gazte orreik artu dabeen jokabidetik al dator, bada gizadiaren ona?

Gogor salatu ta astintzen gaitue gazteak. Diranak eta ez diranak geuri arpegira jaurtiteko bildur andirik ez dauke. Guk eratu dogun munduan guda, gosea, zuzentasunik eza, azpikeria ta abar okerra besterik ez ei dago. Gaztedia ez ei dogu ezagutzen, lotu nai ei dogu, gaurkorako ez dan geure pentsakeran moldau nai ei dogu, gizarte eratze lanetan itzik ez ei dauko.

¡Ez da salakuntza makala, Jaungoiko maitea! Nik uste dot, lotsearen lotsaz burua lurpean eskutau bearrean arkitzen garala zarrok. Baiña ez; itza ta pitza besterik ez da or.

Egia, guda ikaragarri birek mundua sutu dau gure denporetan. Ta egia baita be munduan txarkeria asko dagoana. Baiña gaurko gatxak ez dira guk sortutakoak, geienak aurrekoengandik artu doguz. Ezin izan doguzala zuzendu oker orreik, oker orreik zuzentzeko ez garala izan gauza. Orixe gure obenik andiena.

Baiña, gure denporetan milla eratara munduak onera egin dau. Orain berrogetamar urte baiño milla bidar obeto, edo erosoago bizi da mundua, edo munduko alderdi andi bat beintzat. Askoz obeto jan, askoz obeto jantzi, etxe ederrago ta traste ta tresnaz obeto gertutakoetan bizi, askoz geiago jolastu, sendakintza ohea, jendea

eskolatuago, langilleak len baiño eskubide geiago ta lan orduak gitxiago ta olantxe dana.

Baiña ez gara gu okerrak besteen lepora jaurti ta on egite guztien egille lez agertzen dakienak. Ba-dakigu gaurko munduaren ondasun asko, menderik mende gizadiak egindako lanen ondorena dana. Utsetik asita oneraiño ez giñala igoko. Beste zalakuntzea, gazteak zapaldu eta baztatu egiten doguzala be, ez da ukatu eziña. Gazteak askatasun osoz jokatu daikee literatura, arte kontu ta beste zenbait gauzetan; nai dabeena idatzi daikee, nai dabeen lez margoztu. Politikan be zearo baztartuta dagozala ez genduke esango. Unibersidadeetan-da ataraten dituen zalapartakaz, ederto agertzen dautsoez mundu osoari euren nai ta asmoak. Politika alderdietan be sartu daitekez eta bertan eragin. Erri agintaritza lanean asteko ulea zuritu arte itxaron bearrik ez dauke. Ogetiru urte naikoa dira, edo gitxiago lurralde batzutan, politika eskubide osoen jaube izateko.

Politikan zerbait izatera eltzeko, orretarako zaletasuna izanaz gaiñera, gaitasuna erakutsi bear da, gaillendu egin bear da. Ta nabarmentzeko, denporea bear.

Auxe da gazteentzat dagoan eragozpena, berezkoa, iñok ipiña ez. Orregatik gazte gitxi ikusten da erri agintaritza zeregiñetan.

Baiña ez dauke zegaitik estutu. Lagako dogu guk lur au ta orduan euren gain geratuko da politika zeregiña; ta euren asmoen arauz mundua zuzenduko dabe. Euren asmoak zuzenak badira, baliotsuak badira, emendik ogei urtera be kontuan artzekoak izango dira.

Ez nago gazteen aurka, ezta urrik emon be. Eurak geuri egiten dauskuezan salakuntzen indarrik eza agertu nai izan dot; geure burua garbitu.

Ortik kanpora, euskaldun gazte intelektualak utskeriak alde batera lagata gauza baliotsuen alde jokatzekeo erakusten dabeen kezka ta zaletasuna poztutekoa da. Jakifña, kezka, zaletasun eta lana

egitea be ez da dana; orreik danok gitxi balioko leuke zuzen jokatu ezik. Ta auxe opa dautsegu gure gazteai: zuzen jokatzeko izan daitezala euren alegin guztiak.

Jaungoiko ta Euskal Erria elburu izan daiela. Elburu orren barruan gauza zuzen guztiak dauke tokia-ta.

*GOIZ ARGI Urrilla, 1966*

## **ABADEAK LANERA**

Eliza Katolikuak bere barruan zer aldatu ba-ebala ez dago ukatzerik. Egon ez balitz II Batikano Kontzilioa ez zan ospatuko. Jakiña, aldatu bearrean dagoana aldatu egin bear da, baiña ez gaurko askok nai dabeen lez, guztia azpikoz gora ipiñi.

Elizgizonen irabazi bideari be aldakuntzak ipiñi naian berbak entzun dira. Abadeen irabaziak zelan diran ba-dakigu: Euren eguneroko meza dabe irabazi ziurra, gero illetak eta abar. Euren lanokaitik erriarengandik jasoten dabeenaren gaiñera, Gobernuak emoten dautsen saria dauke. Azkenengo au izaten da zer esan geien emoten dabena. Latterria, katoliku ta katoliku ez diranak osatzen dogu ta guztiak ontzat emongo ez dabeen diru emote au ez ei da ondo. Abadeen artean be ba-dira Gobernuaren sari ori txarto ikusten dabeenak. Oraindik oraintsu, irurogei abade inguruk euren irabazi ori laga nai dabeela Gobernuari idatzi dautsoe. Baiña beste asko, abade ta ez diranak, oraindik aurrerago doaz. Elizgizonak elizako euren lanagaitik ez leukeela dirurik jaso bear diño; ez meza, ez illeta ta ez beste ezegaitik.

Elizgizonak gizonak dira ta gaiñontzekoon premiñak daukez. Beraz, irabazi guztiak lagata ¿zelan bizi bear dira? Itaun au erantzun barik ez dabe lagako batzuk: Lan egin daiela abadeak be ta kito! Dakien edo al dabeen lez lan egiñaz ogia irabazi daiela.

Ez dira eretxi zuzenak oneik gure ustez. Munduan abadeen be-arrrik badago, ez da beargin lez lantegian, edo ofizinan, edo solo-

an, edo itxasoan lan egiñaz bizia igaro daien. Orretarako ez lego-ke abade bearrik.

Bai, abadeak be lan egin daiela, lan asko egin daiela, baiña eurai dagokien zeregiñetan. Lenengo arimako edo erlejiñoko gauzetan eta urren jendeari kulturea emon eta bizimodua obetuko leu-keen erakundeak sortzen lagundu langille jendeari. Lan egin nai daberen elizgizonak, atarako gauza bada beintzat, izango dau burua zetan nekatu, eskuetan «llabe inglesa» edo atxurra artu barik be. Gaiñera, emendik aurrera abadeak beste edozein amaren semek lez lan egiñaz ogia irabazi bear badabe, abade izateko egin bear dituen ikasketaz gaiñera bizimodurako lanen bat edo karreraren bat ikasi bearrean arkituko dira: Mekaniko, osagille, legegizon, gudari edo arrantzale. Ikasi bear geiegi ipintea ez litzake izango ori, gero?

Elizgizonak lan egin eta ortik bizimodua atarateko dagozan errezoiak, iñoren kontura ez daitezala bizi ta Jesukristo'ren testiantzea emotea ei dira. Ez dira errezoi makalak. Baiña bere zeregiña ondo beteten daberen abadeak, esku lanetan edo beste edozer irabazi bide diranetan asi barik be, erakusbide ona emoten dau. Ta bestalde, jendearen erlejiñoa sentidutea ez dago elizgizonak olangoak edo alangoak izatean, Jaungoiko ta geroko bizitzeagaz sinistu edo ez sinistean baiño. Egia, elizgizonak bear diran modukoak izateak kalte baiño mesede geiago egindo dautso erlejiñoari. Esan bearrik be ez da au. Baiña buru apur bat daberen edozeiñentzat, baliu gitxiko kontua da elizgizonen izate modua edo beintzat, ez da aurrenengoa erlejiñoagaz ausnartzean.

Abadeak, nik uste dodan lez mundutar lanetan ez badabe jardun bear ¿orain arteko irabazi bide guztiak laga egin bear al ditue? Laterria, katoliku ez diranakaz be osatua izanik, oneik nai ez daberen Elizeari egiten jakon laguntzea, txarto ei dago. Olango kontuetan alderdi bietakoak dakiez errezoiak ataraten. Orain Elizeari emoten jakona, arako Mendizabal ministrak Eliza berari kendu eutsazan ondasunen ordaiña besterik ez ei da batzuk diño-

nez. Ta nik neure aldetik, beste au esango neuke: Gobernuak olango edo alango laguntza asko egiten ditu jendearen naia dan edo ez dan jakin barik. Esate baterako, asko dira España'n kirol edo deportegaitik ardurarik ez dautsenak, baiña makiñabat milloer emoten ditu orretarako, urtean.

Nik neuk be naiago neuke abadeak Gobernutik dirurik jasoko ez balabe ta bere serbitsuagaitik eliztarrai ezer kenduko ez baleutse. Baiña elizgizonak irabazi bide guztiak lagako balebez, gu eliztarrok euren premiña guztiak betetera elduko ete giñake? Errepublikak, Elizeari ta ta elizgizonai ordurarte Gobernuak emoten eutsen laguntzea kendu eutsenean, «Culto y Clero» izeneko diru laguntzea sortu zan, eta illeko erreal bat edo bi edo laurlekoa zan jendeak emoten ebana. Gaur be diru aren balioa baiño geiago emongo leuke?

Bear bada, gure errietako abadeak goseak ez leukez ilgo, baiña erdal errietako eliza ta elizgizonak bear leukeen laguntzea izango ete leukee?

*GOIZ-ARGI, Garagarrilla, 1969*

## ZIRI TA MIRI

¡Auxe da Elizearen, edo obeto esanda, elizgizonen aldaketa!

Oraindik urte gitxi dala abadeak emon eben lenengo zer esana euren jantzia dala-ta izan zan. Sotanea kendu ta galtzakaz gaiñontzeko gizonon erara agertu naia erakutsi ebenean (abade gazteak geienetan), eliztar asko ta asko eskuak burura jasota arriturik geratu ziran.

Gaur, abadeen sotana edo galtza kontua, antxiñako kontua bailitzan, zearo aztuta daukagu. Orain beste kontua, a baiño milla bidadar garrantzitsuagoa azaleratu da: Abadeen ezkontzea. Orain amar urte auzi au iñori ez jakon bururatuko ta gitxiago oraindik aitatzen ausartu. Baiña orain danon ao miñean dabil; batek ziri ta besteak miri.

Eskerrak Jaungoikoari, ekatx aldi onetan Eliz ontzia zuzen eta ziur eroango daben itxasontzi buru adoretzua ba-dogula. Aldi bateko Pilatos'en antzera errezoï bako ojuari jaramon egiñaz, lenengo jaiotzak neurtzeko edo galdueragiteko pildoren kontuan eta orain abadeen ezkonbakotasunarenean amor egin baleu ¿zer indar izango eban Paulo VI Aita Santuak ondoren agertu eitekazan barrikeriai langea ipintako? Elizearen ondamendia izango zan.

Abadeak be gizonak dira ta gaiñontzeko gizonon alderdi onagaz baliatu nai izatea ez da arritzekoa. Baiña abade ezkonduakoa itxuragokoa dala, bere zeregiñetarako egokiagoa dala, iñok ez dausku ukatuko.

Abadea gizona da, baiña bere egitekoa, santua. Ta erriak abade santuak nai leukez, abade jainkotiarak, bera baiño goragoko maillan dagozanak, mundukeriak menperaturik ez daukazanak, Jaungoikoaren erreñua munduan zabaltzea asmo nagusia dabee-nak.

Andra-gizonak bata bestearentzat Jaungoikoak egin zituan. Baiña ezkonduak gara ta ori zer dan ba-dakigu ta abadeak goragotik ibiltan ikusi nai gendukez. Alan be, ori ez da auziaren gorabera guztia. Abade ezkonduak familia sortzean bere jainkotiar egitekoagaz zer ikusirik ez daben zama andia leporatzen dau. Sendiko premiñen kezkea izango dau ta orretarako bear dabena batzen alegindu bear izango da. Jaungoiko arazoaz arduratzeko len beste askatasun eta astirik ez dau izango.

Ni neu be kontu onetan baikor ez nago. Gaurko munduko giroak aldatzerik ez badau, ez da erreza izango abade barriak sortzea. Ta denporeagaz, elizea, abadeen ezkonduakoa izan bear legea aldatu bearrean arkitu leiteke. Baiña abadetzarako obe dalako ez litzake izango ori, munduan erlejiñoak atzera egin dabelako baiño, erderaz esanda, «como mal menor».

Amaitzera noa. Naiago neban kontu onezaz ezer ez idatzi, baiña katoliko irakatsi oiñarrizkoak eta oitura onenak kilin-kolon ja-

rrri bear dituela ikusita, konfusiñoa, nastea ta ezbaia ereiten diarduela ikusita, orretara beartuak dagozanak be Aita Santuaren auzi onezazko irakatsi eder eta sakonak ixillean euki nai dituela ikusita, ezin ixillik egon izan naz.

Bear bada, batzutan gordiñegi berba egin dot; baiña gaur danean nastea sortzen diardugun aldi onetan, argi ta garbi berba egin bearra dago.

*GOIZ-ARGI, Dagonilla, 1970*

Oarra: Idazlan onen idazburua ez da nik jarritakoa aldizkari-koak baiño. Idazlanetik be zerbait kendu egin ebela esan eusten, gordiñegia zala-ta.

## **SASI-KONPESIÑO**

Guk, elizgizon ez garan eliztarrok, abadeen esanai «bai, bai» esaten besterik ez ei dogu jakin. Beraz, gure lengo jokabide ori zuzena izan ez bada, gaurko nire urteera au ontzat emotekoa izango da. Ta itzaurreko onen ostean mamiñean sartu naitean.

Aldatu bearreko gauza bat baiño geiago egozan Elizan. Ta azken urteotan egin diran aldaketa batzuk, geienok ontzat emoten doguz. Baiña gauza guztiak, on eta txar, danak azpikoz gora ipiñi nai izatea, ez da ondo. Ortik ez dator ezer onik erlejiñoarentzat.

Azkenengo aldakuntzea, konpesiñoi edo autortzeagaz izan da. Egia esateko, teoriz edo legez ez da aldatu; lengoa orniu edo konpletu bakarrik. Baiña egitez, pratikaz, makal-makal ebillen autortzeari, puntilla emon dautso:

Makal-makal ebillela esan dot; eta alantxe da. Ta au, asko, abadeen erruz. Len abadeak autortzera bultzaten eben jendea, konpesiñoa asko aitatuaz edo kongregaziñoak jarri ta illeroko jaunartzeak, urteko lenengo bederatzi bariakuak, San Jose'ren zazpi domekak eta abar eragiñaz. Orain orreik guztiok ainkaz gora joan

dira; jendea olango kontuetan beti atzerakorra izaten da ta abadeak gauza oneizaz ez dirala arduratzen ikusita, danai laga dautso ta len esan dodana, eriotzea emon dautso autortzeari.

Bear bada toki batzutan autortzea len lez geratu da, baiña beste erri batzutan, oraingo lege barriakaz, kendu egin bailitzan jendea geratu da. Nik entzun dodan elizan beintzat, lengo konpesiñoa bearrekoa edo obligaziñokoa ez bailitzan elizgizonak berba egin dabe ta jendeak, askok, alantxe ulertu dau.

Ori oker jokatzeta da, jokabide txarra da ori. Elizeak lege barriakaz lengo autortzea ez dau kendu, orniu baiño, gorago esan dodan lez. Asmo orregaz ondo da. Ta lengo lege ta aginduak, Elizearenak, olan esaten eban: «Urtean bein gitzienez autortzea eta orrezaz gaiñera, ilteko arriskoan eta Jauna artzerakoan, oben egin ezkeru.»

Elizeak bere agindu au kendu dabenik ez daust iñok esango. Ta guazen aurrera. Zein autortza era da ohea, lengoa ala alkartasuneko autortza barria? Lengo autortzea txarto jarri naian, erlejiñoaren arerioen berbak eureganatuaz, «konfesanario illunetara joan eta pekatuak autortu ta bereala lengo pekatuetan jausten ei giñan» batzuk diñoenez. Ain zuzen, autortza era barria lenengo aldiz egin zan elizkizunean entzun nituan berba orreik. Ta autortzea, ori baiño geiago ei da, geiago izan bear ei dau.

Egia, gizarteko problema batzukaz bear zan beste ez giñan arduratuko. Baiña autortzeko area aldatuaz len baiño obeak ezetan be ez gara izango. Egia da baita be lengo pekatuetara joten doguna; baiña autortza era barriagaz autortuta, beste ainbeste ez al da jazoko?

Baiña baita be egia da ta andia gaiñera, lengo autortzea oraingoa baiño milla bidar ohea dala. Lengo eran, asko kostauten jaku geure utsak iñori azaltzea, lotsatu egiten gara askotan eta orretxe-gaitik, beti ez bada be, atzera egiten dogu, ez dogu nai izaten txarto ereizten jakun gauza a egitea. Bai, lengo autortza area frenua da askotan. Oraingoa barriz, ezer be ez. Denporagaz, beste edo-



zein elizkizun baiño geiagotzat jendeak ez dau artuko; beixperak, bederatziaurrenak eta olangoaxeak lez izango da. Lengo gure damua egiatzkoa ez bazan, bildurra edo lotsea bada be izaten genduan; oraingoagaz, iñori ez bajako autortu bear, ez bildurrik ez lotsarik uts egiteko. Ta beste itaun bat emen egin nai genduke; bat gaixoa ilteko dagonean be ez dauko autortu bearrik?

Lengo eran autortu nai dabeenak oraingo konfesanarioetan baiño toki egoki edo eratsuagoetan egingo ei dabe. ¡Tira, tira! Autortzera joan nai dogunok lengo eran edo tokietan egitea naiago izango dogula uste dot. Beraz, guk nai doguna izan bear da. Gu zarrok ez gara urte askotarako ta gerokoak nai dabeena egin daie-la. (Amaia)

Oarra (aldizkariarena)

Ondo diño «Kamiñazpi gure idazleak, autortzea ez da legez aldatu; lengoa orniu baiño.

Orregaitik, lana bear dan lez egiten bada, ez jako «autortzeari puntillea» emongo, eta era barri onetan, autortzak obeak izango dira.

Zer aldatu dan? Azterketa egiteko erea, damua sortzeko erea, azkezpena emoteko berbak.

Baiña autortza lanak egitea ez da kendu, Autorlekuan edo beste leku egokiago baten, bakoitzak aukeratu beariko dau.

Elizan autortzea kendu egiten dala, iñor esan edo entzun ba'dau, txarto esan edo entzun izana ledike.

Ez aitzu, orregaitiño, ez len ez orain, ez daukala autortu bearrik, oben astunik egiten ez dauanak, eta Sarri, meza guztietan al ba'da, Jauna artzea ondo dagoala.

*AGUR*

*AGUR, 137' garren zenbakia*

## EUROPA TA GU EUSKALDUNOK

Gaurko euskal idazle gazteak diñoenez, europartu bearra ei daukagu euskaldunok. Len be, aprikatar edo asiatar izakerarik daukagunik ez dogu uste. Beraz, europarrak ez bagara, zer gara bada? Iretargikoak edo izango gara kontixu, iretargian bizi garanak. Baiña iretargikoak izatea ez da gaur atzeratua izatea. Beintzat, munduko aurreratuenak or dabiltz alegiñean iretargira zein lenago eldu.

Nik uste dot europartu bear garala txilioka dabiltzan orreik, argiago, zeatzago izan bear litzakezala euren esanetan.

Europa'k arpegi edo alderdi bat baiño geiago daukaz; batzuk onak izango dira ta besteak ez. Ta itsu-itsuan bere alderdi guztiak, on eta txar, ez doguz geureganatuko.

Gure erriak europartu bear badau, Europa'ren ona ta txarra zer diran jakin bearrean gagoz ta bere onerako izango dana bakarrik artu ta ez ondamendira eroango dabena be.

Aurrerapenean sartu bear ei gara, kulturaz jantzi bearra ei dauko gure erriak. Ederto auxe. Emen ez da eztabaidarik. Gaurko jantzi egoki ta apaiñak ta beribil ederrak baztatuaz, len kendu genduzan brus, abarka ta gurdiagaz jazteko ta asteko gogoa dabenik nik ez dot ikusten iñor. Gure errietan ikastolen egarria bada. Langilleen ume asko dira gaur Euskal Erria'n batxillerra ikasten dabeenak. Nik Ondarru'ko kontua dakit; arrantzale umeen artean be pilloa da ori ikasten dabilzananak.

Jakiña, eskolan ikastea bakarrik ez dala kulturea norbaitek edo askok esango dabe. Bai, neuk be orixe diñot. Kultureak alderdi bat baiño geiago daukazala. Gure bizitzeari erosotasuna ekarriko dautsan tenika jakintzea kulturea da; kulturea baita bere espirituaren janari diran gogai edo ideak, literatura, edertia ta abar. Baiña baita lotsea, morala be kulturea da.

Lenengo aitatu dogun kultura orren billa ba-gabiltz euskaldunak, len esan dodan lez. Jakiña, eroso bizi naiak bagarabiltz bakarrik, zer goragarri gitxi eukiko genduke.

Gu ez gara ain beartsuak, baiña gosez bizi dan erriarentzat gogoaren atsegiñerako dan kultura utsa baiño aurreragokoa da tenika kulturea. Baiña au esan arren iñok ez bedi uste izan gogoarentzat dan kultura orren arerioa nazanik. Eskola bakua nazan arren kultura usaiñeko edozer jat atsegin, nai ta ulertu ez askotan. Ta onetxegaitik kultura jatorra dan alderdi onezaz ez dot nai ezer geiāgo esan eta aurrerago joanaz, lotsa edo moralari eldu deiodan.

Aurrerapena ta kulturea ez dira bakarrik aintzat artu bear doguzan alderdi onak. Erri baten izate modua, oiturak be kontuan izatekoak dira. ¿Ta moral kontuan guri zer irakatsirik ba-dauko Europa'k?

Egia esan, gu geu be ez gagoz akats barik. Gure edan bearra, gure aposturako griña, belauñ koskorrak agirian dituela peloteari ostikoka dabiltzanen aruntz-onuntzak gauza anditzat artu ta geure kezka nagusienetakoa izatea ta abarrek ez gaitu poztuten. Baiña geure akats ta guzti be erri gitxi gu langorik moral alderditik begiratuta. Oraindik gure artean sendo dirau familiak. Emengo senar-emazteen alkarganako zintzotasun ta sendi osoaren alkarrentzako maitasuna ez dira edonun arkitzen. Mundu zear ibilliaz erriak eza-gutzeko zoria izan dabeenak esango dauskue au ondo.

Zoritxarrez ez gagoz geu be lenean; gure oiturak aldatzen dozaz, gure pentsakerea aldatzen. Zoritxarrez, Europa'ko erriai jarraitu naian asi gara, ez jarraitzea obe litzakigun oitura zikiñetako bi-deetan.

Ez genduke nai Europa'ko errien maillara jatsi alderdi onetatik begiratuta. Ortik zearko (Europa'ko) erri aurreratu baten itxasoan ibilli dan arrantzale bateri entzuna emen ipintea ondo deritxat. Bere ontzi lagunak, amabosten bat gizon, eurak itxasoan dagozan artean emazteak eurai begira ez dagozala ziur-ziur ei dagoz.

¿Onetan be jarraitu egin bear dautsegu europarrai?

Ondamendi orretara eroan gindeikezan edozeri begi txarrez begiratuko dautsagu.

Aspaldixotik munduko gizabidearen sorterrria da Europa ta guk europarrok ez genduke nai, ez genduke nai izan bear etxean arrotz geratzea; ta bere alderdi on guztiak geureganatuten alegindu bearra daukagu. ¡Bai orixe!

Baiña kontuz! Lengoa diñot; Europa'n be dana ez da ona. Ortik zearko gangarkeri ta zantarkeriak gauza on gitxi ekarriko leuskioe Euskal Erria'ri.

*ZERUKO ARGIA, 5-12-1965*

## **SEIGARRENA DALA TA**

Aurten baten ZERUKO ARGIA'n irakurri neban SEIGARRENA idazburua eukan artikulua arrituta laga ninduan. Jaungoiko bakoen edo erlejiñoaren arerio lez agertzen dan aldizkari baten bera irakurri baneu, irribarretxu bat egin eta buruari apur bat eragiñaz, olantxe atzipetuten ditue oneik euron irakurleak, neure bos-tian esango neban eta alantxe amaituko zan. Baiña bera gure aldizkarian ikusteak, sutan laga ninduan. Ta merezi daben aiñako gogortasunez erantzungo dautsat.

Iñor ez bedi emen asi «itz egiteko askatasuna», «alkar izketa», «goi maitasuna» ta olangoakaz. Artikulu asko guri aurreratuegiak iruditu arren, gordiñegiak izan arren, gizadiari edo beartsuai dautsen maitasunak eraginda izan leitekez eta askotan alan dira. Baiña artikulu orretan olango asmorik iñok ezin susmau daike, lizunkeriari ateak zabaldu naia besterik ez dago or. Olangoetan ixillik geratzea izango litzake obenik andiena.

Idazleari lenengo oartzen dautsaguna, elizgizonenganako lot-sarik eza da. «Lepondo oneko gizon batzuk...» esaten dau berak.

Au irakurtean, aldi bateko FRAI LAZO aldizkaria etorri jat burura; antxe ikusten ziran lertu bearreko prailleak. Ta gaiñera ez da egia. Abadeak, gaiñontzeko gizonak lez, danetarikoak dira gorputzez: Lodiak eta zistriñak, lepondo ederrekoak eta eskumuturra baiño sama lodiagoa ez daukenak.

Berak diñoanez, gaurko sermoietan seigarrena beste agindurik ez dabe erabilten. Nik, barriz, bestera dala esango neuke; gitxien erabilten dan gaia dala. Urteroko gogo jardunetatik kanpora, udearen asieran plaiatz berba egitean bakarrik seigarren aginduaz jarduten dabeela esango neuke. Ortik kanpora entzuten dodanik, ez naz gogoratzen. Ez dot orrenbesteko lanik artu nai, baiña diñodana ez dala egia uste dabenak urte guztiko sermoien kontua artu daijala ta seigarrena beste edo geiago edozein agindu ta gai erabilten dituela ikusiko dau.

Izan leiteke berak diñoan «...ordaintzen ez ditugun kontribuzioak eta...» zeatz-zeatz ez aitatzea, gai guztiak bere izenez ez aitatzea, gomutaten ez diralako edo danadalakoagaitik. Baiña aitatzea merezi daben zer bait ixillik daukela uste badogu, bear dan lez lotzaz egin bear da eskabide ori, katolikuak bagara beintzat. Ara emen bere esan aldi bat:

«Ba-dakizu emakume, ta gizon, zer egin bear genduken ez erortzeko? Etxean egon. Gure larruak ez eguzkiratu, gure gorputzak ez garbitu itxas ta ibaietako ur me ta goxoakin. Nolaz? Bai, an bai ditugu obenerako bide erosoan. Garbiak izan bear bai degu arimaz, naiz ta izerdi usaiak aldamenekoa uxatu.»

Nola idatzi leitekez egiatik ain urrun dagozan berba onei, abadeak eurak be igarira ta ondartzara joaten asi diran denpora oneitan?

Gizon: Igari egin edo gorputz garbiagaz ibilteko erdi billotsik eta lotsa barik nai ta nai ez ibilli bear dala uste dabeen orretarikoa al zaitugu? Zeuretzat zeure izate modua. Ez uste izan sakristian sartuta dagoan batek aurka urten dautsunik. Ondartzea atsegín ja-

ku ta an igaroten doguz pozik udako jaietako ordu asko. Baiña abadeen esanak egiazat daukaguz.

Gaurko ondartzetako lotsarik eza ikusten ez dabena ondo itsu dago. Erlejiñoaren kezka andirik ez dabela olangoak, esan leiteke.

Aginduak, mandamentuak, danak dira kontuan izatekoak; irugarrena, laugarrena, bosgarrena, seigarrena, zazpigarrena ta abar. Seigarrena ez besteak baiño gitxiago. Ete da, gero, beste agindu bat errezago jausten garanik, beraz kontu geiago ipiñi bear dogunik?

Goazan martxan joaten bagara, emendik berrogetamar urtera ez dakit zer estalduta eukiko dabeen gure emakumeak. Orduan, bear bada, gaur itxurabakotzat doguzan igarirako jantziak, itxurazkotzat, lotsakotzat artuko dira. Baiña onek gauza bat adierazoko dau: Gizadia basati biurtu dala. Gizona, antxiña, billotxik edo erdi billotsik ibilliko zan. Gero, jendea ezitzen, zibilizatzen joan danean, abereak baiño geiago garala ta jantzi egin da. Zibilizatze-ra eldu ez diran erriak dagoz, oraindik, gorputzak estaldutera eldu barik, erdi billotsik. Orain geuk be euren oituretara biurtu nai badogu, alderdi onetatik begiratuta eurak baiño geiago ez garala garbi ikusten da.

Oitura loiari, lizunkeriarri mugak ipiñi nai izatea zentzunez jokatzea da. Moral freno barik, gizona, abereak eurak baiño abereago biurtuko litzakeelako. Escandinavia alde orretan gizonak gizon lez eta andreak andra lez pekatu egiten aspertuta irugarren sexua sortu nai ei dabe.

Gu baiño obeto bizi dirala? Arein ondo bizitzeari zera... egiten dautsat nik.

Ta amaitzeko. Orretariko idazlan lizunak ez leukee tokirik izan bear aldizkari katolikuetan.

*ANAITASUNA, Dagonilla-Iraila 1965*

OARRA; Or aitatzen dodan Escandinavia'ko irugarren sexua, adiskide bateri entzundako kontua, ori zer zan geroago itandu neutsanean, ez ekiala erantzun eustan. ¡Polita kontua!

Danen gaiñetik egia izan bear dalako, egiten dot oar au.

## **ELIZGIZONAK ETA EUSKERIA**

Aurreragoko idazlan baten, euskereari buruz jardunda, elizgizonak goratzen nituan. Baiña aregaitik ez bedi iñok uste izan elizgizonak aldeztuteko ustez bakarrik ibilli nazanik. Beste askori lez, elizgizonai be geiago eskatu bear dautsegu euskerearen alde. Edo iñori baiño geiago, diranak diralako.

Zuzentasunak eta erri maitasunak eskatzen daben guztia eskatu bear dautsegu gure arimen ardurea dabeen elizgizonai. Eta ez eskatu bakarrik, baita beartu be geure eskutan izan geinkean indarrez. Euskerearen berakada onetan beste erri guztiagaz batera errudun izan barik, gaiñontzekoon argi ta eredu izan daitezala Jaungoikoak euskalduntasunaren oiñarriztat ipiñi dauskun berbeta au indartzeko lanetan.

Nik neuk ez dot ain argi ikusten euskerea erlejiñoaren onerako bearrekoa danaren auzi ori. Kardaberaz'ek ziñoana dot buruan. Baiña errezoi ori barik be elizgizonak beragaz arduratzeko zio andia ba-da; norbere erri maitasuna. Elizea, edonun eta beti, lenengo maillan agertu izan da erri maitasunean. Ez, Elizeak ez dauko lelokeriatzat errimiña, aintzat artu bear ez dogun sentimentutzat ez dauko, gizonok aurrerengoetan euki bear dogun maitasuntzat baiño.

Orregaitik euskaldun Elizeak be gure berbetearen ardurea izan bear leuke. Lenago lez orain be euskaldun umeai Kristiñau Ikasbidea euskeraz irakatsi bear leuskioe. Elizkizun eta eleiz batzarretan, erdere bearrekoa ez dan guztietan, Euskal Erria'k berez be rea daben berbetea, gure euskerea erabilli bear litzake. Batez be

apaiztegieta indartsu sartu daiteala euskerea. Biotzez eta jakitez euskaldun diran abadeak bertatik urteten ikusi gura gendukez; Elizearen irakatsiak gure berbetan egoki baizen errez azalduko gauza izan daitezala.

Lotsagarria be ba-deritxat umetan euskera besterik jakin ez dabeen abade asko, ainbat urte ikasketak egiten jardun ondoren euren berbetan sermoitarako ain baldar egotea. Eta besteak, euskera ez dakienak be, -askotxo dira eurok, zoritxarrez, Bizkaia'n ia geienak- ikasi egin bear leukee, irakatsi egin bear litzakioe.

Gurari oneik errezoizkoak dira. Orregaitik egia izatera biurtu daitezcan aletin egin bear dogu euskaltzaleok. Gure gurari oneik jakin eragin bear dautseguz elizagintariari; dagokien lotseagaz baiña adore guztiz. Guztion izenean Euskaltzaindiak egin bear leukez eskabide orreik. Eta asko lortuko leukeela uste dot bere izena goi-goian dago-ta.

Euskeraren alde ekiteko ausardi apurra bearrekoa jaku danoi.

*KARMEL, 1961, Azilla-Lotazilla.*

## **INESA GAXEN'GO TA SORGINKERIAK**

Donostia'ko zinema bateri INESA DE GAXEN izena ipiñi dautsoe. Mojen (mojaren) baten izen abizenak ete diran batek baiño geiagok uste izan leiteke.

Neuri be orain urtebete izen orrek ez eustan ezer esango. Baiña orain, azaletik bada be Ondarrabia'ko kondairea jakin bearrean arkitu izan naz eta izen ori ezaguna egin jat.

Inesa Gaxen'go, aldi bateko Ondarrabia'ko kontuetan entzuetetsua da. Orain iru-lau mende edonun egoan zabaldua sorginkeria ta ez gitxien Euskal Erria'n. Danak edo ia danak sorginkerietan sinisten eben, erriak lez eskolatuak be. Jakiña, sorgiñik ez zan izango; izuzkia artu ta «sasi guztien gaiñetik eta odei guztien az-



pitik» joango ziran edo katu nai txarri itxurea artu eikean sorgiñik ez zan izango, baiña sorginkerietan sartuta diabruzko batzarretan eta jolas lizunetan ebiltzanak bai.

Bidasoa beste aldeko Euskal Erria'n sorginkeriak indar andia artu ebalta ta debekau naian, Prantzia'ko errege Enrike IV'k bialduta, Pierre de Lancre jauna bertara etorri zan XVII mendean. Bere zeregiñean lau illabete besterik egin ez bazituan be, zoritxarra ugari sortu eban; seireun lagun ingururi sutako eriotz gogorra emon eutsala esaten da-ta.

Ondarrabia'n geratu ziran bere bildurrez andik igesitako asko. Aldi aretan sorgiñen bildurrez bizi zan jendea, itxasoko nai legorreko ezbear asko euren egiteak zirala uste eben-da. Orregaitik, Bidasoa beste aldean sorgiñai emon jaken astiñaldiagaz ausarturik, erri bertako sorgintzakoak (eta orduan bertan egozanak) zigortuak izan eitezala eskatzen jagi ziran ondarrabitarrak. Ta orduko Ondarrabia'ko alkate ziran Ubilla'tar Santxo ta Abadea'tar Gabriel jaunak auziari asierea emon eutsoen. Eta zortzi urtetik amalau urte bitarteko neskatxen salakuntzaz baliaturik, iru-lau andra auzipean artu zituen. Andreetako bat Inesa Gaxen'go zan. Neskatxoak danak antzeko autormenak egin zituen: Lo egozala, sorgiñak, oetik atarata, etxeakoak konturatu ez eitezan orde z euren antzeko irudiak ipiñiaz, airez akelarre lekuetara eroaten zituela. Batek au esan eban: Bein gau baten Inesa Gaxen'gok Pasaia'ra eroan ebalta, aize oialez etorren itxasontzi andi bat ondatzera ta oillotegi bateko oillarrak kukurru egin ebalako itxasontzia ondatzeko asti barik Ondarrabia'ra biurtu zirala.

Lenengoan, sorgintzakoak, ukatu egin zituen salatzen eutsezan txarkeriak eta espetxean sartu zituen. Abendaño'tar Migel Ondarrabia'ko artxiprestea, auziaren arduradun burua, ara joan jaken. Elizgizon onek, bere ustez txarkerietan ebiltzan andrak bide onera ekarri nai zituan eta euren okerra autortzen baeben ez jakela ezer txarrik jasoko esan eutsen. Ori entzunda bat ez besteak euren buerak errudun autortu zituen. Inesa Gaxen'gok ez. Bera ez zala

sorgiña ziñoan eta guzurretan salatzen ebela. Errudun autortzea norbere burua salbatzea zan eta errubakoa zala esaten irautea, eriotzea bereganatzea, ziurren. Baiña emakume a ez eben aldatzen artxiprestearen alegiñak, arrenak eta malkoak; eta bere oiñetan ipiñi eutsan kurutzea eskuetan artu ta laztanduaz, gogor ukatzen eban egiten eutsen salakuntzea. Ta barriro espetxean sartu eben.

Andra au umea zala sorgin kontuetan nastau zan eta gero, umetako kontu orrek ez eutsan mesederik egingo.

Logroño'ko Inkizisioaren eskutan geratu zan auzia ta berak, guztiak ao zabalik utzirik, danak aske laga zituen. Prantzia aldeko euskaldunak Bidasoa beste aldera bialdu zituen ontzi baten sartuta. Inera Gaxen'go joan zan ala ez ez dakit. Beste aldeko euskalduna izan arren ondarrabitar bategaz ezkondata egoan.

Dana dala, emakume adoretsua izan zan orain Donostia'n bere izena zinema bateri jarri dautsena.

*GOIZ-ARGI, Epaila, 1969*

## **BATZARRAREN OIARTZUNAK**

GOIZ-ARGI ta AGUR'ekoak Loiola'n egin genduan batzarrean ango batek egin eban eskariak emon daust idazlan onen gaia. Bere eskaria: Goian aitatzen ziran aldizkari biak argi ta garbi agertu bear zituela euren oiñarri elburuak. Ori esaten asi zanean alperrekoa iruditu jatan bere eskaria, GOIZ-ARGI ta AGUR'en elburuak erlejiño katolikua ta euskaltzaletasuna dirana itsuak be ba-dakie ta. Bere eskaria oiñarrituteko, euskal aldizkari batzukaz jazo dana gomutau eragin euskun, zera, euretan genbiltzan guztiok eretxi edo ideoloji batekoak giñalakoan, alkarrengandik ezinda urrunagoko elburuen atzetik genbilzanak giñala.

¡Izan be gogorra jazo da emen! Euskaltzaletasunagaz batera kristiñau irakatsiak zabaltzeko urtendako aldizkarietan, Jaungoiko

bakoak nagusitu! Baiña aldizkari orreik euren elburuak agirian agertu ez dituelako ez da ori jazo euren erlejiñoan kilin-kolon egozanak zuzendari jarri ziralako baiño.

Egia, euskal aldizkariak euskereagaitik sortu dira geienbat, euskera alde zerbait egin naian. Euskera auziak ardurarik izan ez baleusku, erlejiñoa bakarrik izan balitz euren sortzailleen kezkea, erderaz argitaratuko ziran. Bai, ezpai barik euskereari lagundu naiak atara zituan euskal aldizkariak. Baiña euren sortzailleak katolikoak izanik, elizgizonak ziran da, euskereagaz batera erlejiñoaren alde jokatzea izan da oraintsu arte euskal aldizkarien jokabide nagusia.

Emen gure errian, zoritxarrez azken urteok arte, katolikoak izan dira bakarrik euskaltzale; ezkertarrak edo Jaungoiko bakoak, edo dana dalakoak, urrunera begira egon izan diran eskumatarrak baizen euskerearen arerio izan dira. Euskerea, baiña, euskaldun guztien berbetea izanik, ezkertar edo eskumatar, Jaungoiko zale ta Jaungoiko bakoen, euskaldun guztien laguntasun bearrean arkitzen da. Orregaitik, katoliku ez diranen artean be euskaltzaleak ba-dirala jakiteak asko poztuten gaitu. Baiña euskerearen izenean datorkigun guztia iruntsiteko ez gagoz. Euskerearen kezkea besterik ez dabenik iñor ez da emen. Danok euskereagaz gain, beste kezka ta zaletasunak doguz. Beraz, argi ta garbi jokatu daigun. Zein zein dan erriak ezagutzeko eran agertu gaitzean. Zuria dana zuri, gorria dana gorri ta oria dana ori. Eretxi zabalekoak edo neutralak edo olango izena aurrean jarrita iñor ez daigun nastau, atzipetu. Gaztelar agertzen diran izparringi ta aldizkari guztiak ez dira neutralak, ez dira Jaungoikoa ta deabrua, demokrazia ta fazismoa, langilledia ta kapitalismoa, lizunkeria ta lotsea neurri bardiñean artzen dituenak, guztiai ateak bardin zabaltzen dautseenak. Ba-dira bai, Jaungoikoari ta deabruari kandlea biztuten daki-enak, baiña baita be ba-dira elburu jakiña izanik, elburu orrei zuzen jarraitzen dautsoenak. Gure aldizkariak be olantxe izan be ar litzakez.

Ez dot esan nai onegaz alkarregaz auzkan ibilli bear dogunik. Niri neuri euskaldunon gaurko eztabaida ta asarreak poz gitxi emoten dauste. Baiña bakearen izenean edo bakea galdu ez daitean edozer bidebakokeria ezin ontzat emon daiteke. Ta ontzat emon ezin daitekezan jokabideen aurka jagiten diranak, txalogarri dira. Guk olangoei auxe eskatuko geunskioe. Benetan aurka egitea merezi dabeen auziak bakarrik autura atarateko, bear dan baiño gogorrago ez jarduteko, borondate onekoakaz borondate onez jokatzeko.

Gure GOIZ-ARGI eta AGUR'ek euren elburuari zuzen jarraituko dautsoen ezbairik ez dogu. Zuzendaritza tuntunez, «al tuntun», emona izan jaken orretarikoen eskuan ez dago, euren erretxietan sendo dagozanenean baiño.

Katoliku irakatsi ta euskaltzaletasun elburuai sendo ez jarraitzekotan ez egoan euren premiñarik. Duda-mudakoak lendik bere ba-ziran.

*GOIZ-ARGI, 168' garren zenbakia*

## ABERTZALE USAIÑEKOAK

### BERE BURU JAUBE IZAN DA EUSKAL ERRIA

Aurten baten auxe irakurri genduan:

«Euskal Erria sekula ez da izan bere buru jaube (beste berba bategaz) ta izan be ez da egingo.»

Biaramonean zer egualdi egin leitekean esaten sekula ausartu ez banaz, erri baten geroa zelan izango dan errez ez neuke igarriko. Ta edozeiñek be iragarri bai baiña igarri nekez egingo dau, guk amesik be egingo ez gendukezan gorabera ta aldakuntzak munduan sarri jazo oi dira-ta.

Euskal Erria'ren geroa Jaungoikoak bakarrik daki. Gaiñera, Europa'ren batasuna lortuteko laterriak euren buru jaubetasuna galdu barik eskubide batzuk lagateko gertu badagoz, geu be euren narruan gagozala, beste ainbeste egiteko gertu egongo giñake. Ta Europa'gaz izan geinkezan borondatezko loturak iñogaz baiño lenago España'gaz izan bearko gendukezala deritxat. Kondaireak eta batez be geografiak alan agintzen dauskulako.

Ez noa geiago luzatzera Euskal Erria'ren geroagaz. Baiña antxina izan eban edo izan ez eban bere buru jaubetasunaz bai zerbait esan nai neuke.

Lenengo ta gauzak obeto argitzeko; batzuk emoten dautsoen arako «Vascongadas» izeneko erkiak bakarrik ez dabeela Euskal Erria egiten buruan izan daigun. Euskal Erria, zazpi erki edo probintzia dira, danok dakigun lez; iru Bidasoa andikoak eta lau emendikoak, Bizkaia, Gipuzkoa, Araba ta Naparroa. Bidasoa andikoaz ez noa ezer esatera, euren kondairearen barririk ez dakit-eta. Bidasoa emendikoaz zerbait bai.

Naparroa bere buru jaubetasun osoa izan eban erreñua izan zala esaten asi bearrik ez daukat, danok dakigun gauzea da-ta. Antxiña aroan eta erdi aroan be bai, nazio arteko politikan naikoa jardun eban Naparroa'k. Gudak be egin zituan, batzutan espñaia-rrakaz alkaturik eta iñoiz (noizbait) Espñaia'ren aurka be bai prantzesakaz lagun eginda.

Ain zuzen, Naparroa izan zan Gaztela'gaz azken batu zan erreñu edo Laterria. Eta Naparroa Euskal Erria da, gaur be Araba baiño askotaz euskaldunago. Orain bosteun edo milla urte be geiago izango zan. Logroño-ta, Huesca-ta, osorik ez bada be euskaldunak baziran, makiñabat euskaldunago izango zan orduan Naparroa gaur baiño. Ta Naparroa ez da ta ez zan lurralde txiki ezereza; ta Euskal Erria'ren alderdi andi bat bere buru jaube izan zala ukatu eziña bada, orixe da naikoa, Euskal Erria, antxiña, bere buru jaube izan zala baieztuteko.

Baiña Naparroa bakarrik izan zala bere buru jaube ta besteak beti iñoren menpeko izan zirala ez daigun uste izan. Euskal Erria, Bidasoa andikoak itxita, Naparroa'k gaiñera Bizkaia'k, Gipuzkoa'k eta Araba'k osatzen dabe, guztiok dakigun lez; eta danak jatorri bera izanik, antxiñako aldietan, Naparroa'k eban askatasuna izango ebela beste probintziak be lojikiak esaten dau.

Baiña errezoi oneri batzuk zer erantzungo dautsoen ba-dakigu. Erriak tribu antzera bizi ziran denpora atzeratu areitako buru jau-

betasuna ez dala aintzat artzekoa, Euskal Erria'ren zati andi diran Bizkaia, Gipuzkoa ta Araba gizabide edo zibilizaziñoan sartu ez-keru beti besteen kerizpean bizi izan dirala-ta.

Ba-dakigu, Euskal Erria'ren beste zati andi bategaitik, Napa-roagaitik, ezelan be ori ezin esan daitekeala. Ta beste probintzia-gaitik esatea be ez da gauza zuzena. Bizkaia, Gipuzkoa ta Araba errialde txikiak izanik, batzutan Naparroa'ko erregeen babesean eta urrengoan Gaztela'koenean jarrita bizi izan ziran; baiña aren eta onen babesean jarte ori, ain zuzen, Fueroak zaintzeko bidea izan eitean izaten zan.

Borondatez nai derriorrez Gaztela'ko erregeakaz alkartu (da-netariko alkartzeak izan zirala autortu bear da) euren lege zar edo fueroak gordeaz biziteko baldintzeagaz egin zituen alkartze areik euskaldun probintziak. Errege areik Gaztela'ko errege lez emen ez ziran ezagutzen, Gipuzkoa'ko ta Araba'ko errege ta Bizkai'ko Jaun lez baiño. Gaiñera gure Fueroak gordeko zituela zin egin be-arra euken Gaztela edo España'ko erregeak. Ta Euskal Erria'k bere gobernurako aspalditik oituraz eukazan eta geroago idatzi egin ziran legeak ez ziran bakarrik Fueroak, baita lege orreik eta bear ziranak egiteko berez beti izan eban eskubidea be. Ez da au alango edo olango margokoak asmautako ipuiña. Ikusi daigun au-zi onezaz zer ziñoan guda aurretik Donostia'n-edo ataraten eben karlisten asteroko EL FUERISTA izanekoak:

«Esos Fueros académicos no son los Fueros Vascos, que no se componen de privilegios concedidos por nadie, sino que han sido la obra social, íntima, laboriosa y eminentemente práctica y espontanea, creada a través de más de cuarenta siglos y modificada según las necesidades de los tiempos por la voluntad libérrima del pueblo euskaldun.»

Egia, erregeak beti ez eben Fueroak zainduko zituen ziña egin eta bein baiño geiagotan euskaldunen eskubideak zapaldu be bai. Ta euskaldunak geienetan erregeai arpegi emoteko adorerik ez eben izan, burua makurtu eutseen. Ori danori, Gaztela'ko errege-

en babesean jaratearen ondorena zan, jokabide ori euskalduntasuna galtzeko bidean sartzea zan-da.

Baiña antxiñako euskaldunak bere erriari egokion lez jokatu ez ebelako, geroko Euskal Erria'k bere eskubiderik ez dabela galdu uste dot.

Euskal Erria (ez Naparroa ta ez beste iñor) bere buru jaube sekula izan ez balitz be, orretarako eskubidea ba-dabela esan daiteke, bardiñik bako bere etnia nortasuna kontuan izanik. Erriak, guztiak dabe bere buru jaube izateko eskubidea; ta erri izena iñok baiño mereziago dau gureak, euskereak eta gure odolak agertzen dabeenez iñor baiño bereziago garalako beste erriakaz.

Amaitu daidan luzeegi urten daben idazlan au, agertu dodazan errezoien ondoren idazburutzat ipiñitako berbak eurak barriz-tauaz:

Euskal Erria, bere buru jaube izan da.

*AGUR, 110' garren zenbakia*

## ¿ZEIN DA EUSKAL ERRIA?

Lasa'tar Jose jaunari

«Bere buru jaube izan da Euskal Erria» izeneko nire idazlanak atsegin jatzun auzi edo gai bateri buruz idazteko bidea emon dau-tsula uste dot. Gaurko Euskal Erria'ren inguruan diran errialde batzuk, euren artean Logroño, len euskaldun zirala uste dozu. Euskal Erria, beti aitatu doguzan zazpi erkiak osatzen dabeena baiño geiago dala.

Ez dakit alan dan ala ez; baiña neuk be gure erria andiagoa izatea naiago neuke ta zeuk diñozun lez gauzak izateak poztu egingo ninduke. Idazlan a egitean zuk bein baiño geiagotan aitatu izan dozun Logroño lurraldea jatorriz euskalduna dala auzia, go-goan be ez neukan.



Itaun batzuk egiten dozuz zure idazlanean.

«Zer da Euskal Erria?» Auxe, zure lenengo itauna. Nire moduko eskola gitxikoak erantzun egokirik ezin emon ain itaun garantzitsuari. Zerbait esaten asteko, gaur zer dan barik, zer izan zan esango dot. Euskal Erria, etnia aldetik begiratuta, beste edozein errirek baiño nortasun andiagoa izan eban erria da. Senide ezagunik ez daben berbetea da Euskal Erria'rena; odolez be zerbait berezirik daben erririk iñun bada, erri ori au da edo izan da.

Baiña denporeagaz Euskal Erria'ren nortasuna asko makaldu da, berbetea ia illean daukagu, bere izakerak be ez dira antxiña baizen nabarmentzen, gure erria atzerritarrez bete da. Gure erriak, Naparroa'k izan ezik, bere buru jaubetasuna ez dau bear aiñean maitatu ta zaintzen be ez dau jakin. Berba baten esateko, Euskal Erri'ko alderdi batzuk euskalduntasuna galduaz, erdal erri geiago dirudie.

Baiña ez dogu nai gure erri onek bere euskal izatea osorik galtzerik eta geratzen jakona oiñarritzat artu ta zainduaz, erri bizitzea egitera eldu daitean eratu nai genduke; baiña ez gaur euskaldun irauten dabeen lurraldeakaz bakarrik, kondaira zear Euskal Erria'ren zatitzat ezagutu izan diran guztiakaz baiño.

Zegaitik Araba euskal erkitzat artzen dodan itauntzen daustazu ta ez Logroño, Auñamendi emendikaldean Huesca'ko Aran ibarreraiño dagozan Garai erritxoa, Kalahorra ta Prantzia'ko Akitania'runtz Bordeleko atariraiño lurralde ta abar.

Erantzuna: Nik olango kontuetan edozein erritarrek dakiana baiño geiago ez dakit. Ez naz kondairea ikasten jardundakoa. Errialde orreik euskaldunak izan badira, euren euskalduntasuna lurpean ondo eskutauta dago ta kondairea atxurtzen dakianak agirira atara leikean kontua da.

Araba'z berba egiteko, batez be azken aldietako Araba'z, edozein da gauza. Beste erri orreitakoak ez daukez euskalduntzat euren buruak; Araba'koak bai, euskalduntzat edo baskotzat edo bas-

kongadotzat, beñiepein. Politikoan Araba'ren jokabidea, Bizkaia, Gipuzkoa ta Nafarroa'ren bardiña izan da geienetan. Araba'k Gaztela'ko erregeaz batu zan ezker, Bizkaia, Gipuzkoa ta Nafarroa'ko probintziak izan eben artu-emon bardiña izan eban ango errege edo Gobernuakaz.

Bere Fueroak beste euskal probintziakaz batera galdu zituan. Beste probintzietan lez Arana Goiri'ren abertzaletasuna eratu zan Araba'n eta geiago edo gitxiago, alderdi orretako gizonak be urte-ten eben agintaritzarako. Korteetarako be aldun euskaldun zaleak bertatik urten izan dabe. Beintzat, Landaburu aldun eusko abertzaleak Araba'tik urten ebana gogoan daukat. Bizkaia'k eta Gipuzkoa'k lez Euskal Estatutoa eskatu eban. Ta gaur be, euskalduntasuna indartzeko zerbait egiten da Araba'n: Euskerea irakatsi, euskal abesti jaiak ospatu, espatadantzari aldreak sortu, txistulariak eta abar. Beste euskal probintzietan baiño gitxiago egingo da bear bada, baiña zerbait bai beintzat.

Araba'ren euskaldun izateaz esan dogun aña esan ete leiteke Logroño eta beste orreizaz? Naiago neuke esan al balitz.

«Utikan arako: Zazpiak bat. Zazpiak eta osterantzekoak gaiñera», diñozu, Ederto, Baiña «Zazpiak bat» deia ez da baztartzekoa, ez da kaltegarritzat artzekoa, munduaren aurrean euskaldunon egia bat eta nai bat agertzen dabena baiño; Geu banatzeko ipiñi eben mugea gora-bera, Bidasoa alde bietakoak anaiak garala, erri bat garala.

*AGUR, 118' garren zenbakia*

## **GERNIKA'REN SEIREUNGARREN URTEA TA BIZKAIA'REN ESKUBIDEAK**

Gernika erria sortu zanetik seireun urte dirala ta Edesti Akademiako Calle Iturrino jaunak Bizkai'ren edestiaz luze idatzi dau izparringian.

Bizkaia, sekula, edo erromatarrak España'tik bialdu ezkeru beintzat, ez ei da aske izan.

Gai oneri ekiteko gu baiño jakitunagoa izan bear da. Baiña zeregin onetarako gauza diranak, bear bada gaurko giroan aoa ezin zabalduta, ixillik jarraitzea naiago izan leikee. Guk zer galdurik ez daukagunok, geure jakiñeza aurrean ipiñi ta ridikulorik egiteko bildurrik ez daukagu ta geure eran zerbait esaten aleginduko gara.

Bizkaia ez da bakarrik Euskal Erria. Ta Bizkaia'k, berez, beste euskal probintziak aiña eskubide dauko. Bizkaia ta Euskal Erria ez dira erromatarrak ezkeru sortuak.

Euskal Erriak edo euskera egiten daberen edo egiten eban erriak iru-lau milla urte gitxienez ba-dituala, danak ao batez diñoie. Europa'ko alderdi onetako erriaren orduko bizimoduaren barririk ia ezer be ez dago. Ez dakigu politika modura zer eralguntza euker. Ziurrena tribu antzeko bizimodua. Gaurko moduko Laterri andietan eralduta ez zirala egongo uste dogu. Baiña gauza bat da ukatu eziña: Euskal Erria etnia modura erri berezia izan dala ta oraindik dala. Ta erri berezia, bere nortasun osoko erria izan bada, gitxienez lengo denporetan aske biziko zan, bada, beti besteen menpean izan balitz ez zan etnia berezitasun ori sortu ta sendotuko.

Alderdi onetako kondairea erromatarren denporetatik asten da. Aldi aretan erromatarrak menpean artu eban Europa'ko alderdi au, danok dakigun lez, España, Prantzia, Italia ta abar. Edestiak jazoten dau au. Baiña jazo ez baleu be, or dagoz lekuko berbetak. Euren berbetea, latiña, laga eban erromatarrak, azpiratuta euki zituan errialdeetan. Ta danok dakigu berbeta aretatik sortu zirana gaurko ainbeste berbeta. Gaztelera, prantzesa, katalana, italiarra ta abar erromatarrak laga eban latin berbetearen ondorengoak dira. Ta berbeta orreik, danak, aldi baten lurralde orreitan erromatarrak nagusi izan zirala agertzen dabe. Europa beko alde onetan lurralde txiki bat bakarrik geratu zan erromatarren berbetea egiten ez ebana: Euskal Erria.

Onek au diñosku: Erromatarrak ez ebela gure lurraldea menperatu, edo beintzat, Euskal Erria'k ez ebala besteak aiñako menpetasun osorik igaro. Bada, alan izan balitz, emen bere latiña nagusituko zan denpora areitan, gure euskerea galduaz.

Moruak ia España osoagaz jaubetu ziranean be iparraldea (Asturias eta Euskal Erria) ez ebela menperatu esaten da.

Gero, euskal probintziak, batzutan alkartuta eta beste batzutan alkarrei lepoa (bizkarra) emonda errege onen edo jaun aren babes edo ardurapean bizi izateak, bere buru jaubetasunerako eskubiderik ez dautso galtzen.

Ba-dira kontuan artzeko zer ikusi andiagoa dauken errezoiak; ta beste errezoiak onetxek dira.

a) Euskal Erria'k nortasun osoa dauko etnia modura; danean berezia izan da auzo lurraldetatik eta baita be beste erri guztien-gandik.

b) Sortzez aske izan zan.

d) Eta batzutan gogoz eta beste batzutan beartuta egin dabean erri politikea, kaltegarri izan jako bere nortasunarentzat, olan, bere eskubideak galdu ta bere berbetea be azkenetara eroan dabela-ko. Beraz, euskalduntasunaren izenean ontzat ezin emon daitekean erri politikea egin dau.

Gaurko Laterri andiak, España, Prantzia, Italia, Ingalaterra ta abar, danak antzera egin edo sortuak dira: Berbeta ta izakera desbardiñeko ainbat errien batasunagaz osatu dira. Geienetan indarrez lortutako batasuna izan da, indartsuagoa dan erri batek bere al eta berbetea gogorrean zabalduta. España'n Gaztela erria nagusitu zan lez besteetan be euren arteko erri bat nagusitu zan bes-teen gaiñetik.

Danean egin dan Laterri andi orrein sortzea, bear bada, aurka egin eziñekoa da, denporeagazko gauzen aldatze edo eboluziñoa, berezko aldatzea, izan leitekealako.

Baiña ez dogu uste Laterri orreik bizi al izateko eurak osatzen zituen erri txikien nortasunaren eriotzea bearrekoa ebenik. Gaur Europa andiagaz ames egiten dogu. Baiña bera osatu edo egingo dabeen errien kulturak ez dabe ezer galduko. Izkuntzak eta erriai nortasuna damotsen berezitasunak zaindu egingo dira.

Olangorik ez da izan lenago sortu ziran Laterrietan.

Gizonak beti dauko eskubidea egia, edo bere ustez egia dana esateko. Baiña garaian garaikoa. Ta nik, orretarako gauza izan bantintz, Gernika sortu zaneko seigarren eunurtegarrena ospatzen gabilzan aldi onetan, berari mundu osoan entzutea emon dautsan Arbola Santuaren azpian egindako legien askatasun eta demokrazitasuna agertzen eta goraten idatziko neban.

Gernika, mundu osoan, orixe da: Askatasunaren ikur edo sinbolua.

*ANAITASUNA, Iraila-Urria, 1965*

## **EUSKAL ENDEA DALA TA**

Euskal nortasuna, geienbat, euskereak agertzen dabela esatera ez nator orain; ezta geure berbeta oneri eutsi egin bear dautsagula esaten be, Euskal Erria'k benetako euskaldun erri izaten jarraitzekotan. Oneik gauzok danok dakiguz eta onetan danok batera gagoz. Baiña Euskal Erria egiten dabeen gure izakera batzuzaz tar-teka-marteka an edo emen irakurten ditudan guztiakaz ez nago batera.

Lengoak lengo, Maiatzeko ANAITASUNA aldizkari onetan gai onezaz irakurri nebanak au egitera ipiñi nau. Ara emen Joan Mari Torrealdei'k NORA GOAZ izeneko idazlanaren asieran esaten dituan berbak: «Gure enda edo arraza galtzen doa.

Naiz-ta askok alan uste, gure arrazaren problema ez da alboko endakin naasten doala, eta orretxegaitik, galtzen. Naaste ori be-

rezkoa da, ukaeziña dan neurri berean. Gaiñera, gaurko mundua-  
ren billakaera edo eboluziñoan, zentzundun batek ezin leike kon-  
trakorik defenditu, egunean eztagolako «gheto» edo mundu aparte  
bat egiterik. Idigiak izan bear gara.

Ta bein da betirako ondo buruan artu daigun: Euskaldunak  
izango bagara, ez da izango odola olakoa edo alakoa dogulako,  
euskeraz berba egingo dogulako baiño.»

Orain arte bere berbak.

Idazlan orretan, geroke bere berbetan ikusten danez, euskaldu-  
non edari zaletasunaren aurka berba egitea izan da bere asmo na-  
gusia. Baiña bide batez (ta nire ustez bat-bete premiña barik bere  
gaia azaltzeko) eusko abendazko eretxi orreik jaurtiten ditu.

Enda kontu onetan, nai ta berba bardiñak erabilli, bata bestea-  
gaz zer ikusirik ez daukan eta iñok nastauten ez dituan alderdi bi  
dagoz. Euskal Erri miñak jota, gure endea galtzen doala esatean,  
ia beti, beste erriakaz nastauten doala esan nai izaten dogu. Jaki-  
ña, beste enda galtze ori be, ardua andiko kontua da. Baiña eus-  
kal enda jatortasunagaz zer ikusi bakoa. Aitatu dodan idazti orren  
egilleari euskal endea besteakaz nastauta ondatzeak buruko min  
gitxi damotsala dirudi. Beintzat, berari irakurrita, euskal endearen  
etorkizunaren kezkarik iñori ez jako jaioko. Egia, gaur ez dago  
norbere endea besteakaz bat-be nastau barik eukiterik. Baiña gure  
egoeran, gure zirkunstatzietan, gatx onen kezka ta tamala eukitea  
ez da zentzunbakoa izatea.

Erri baten nortasuna osatzeko berbeteak daukan garrantzia nik  
ez dot ukatuko. Baiña errien nortasuna berbetan ez dago bakarrik.  
Erri bat izakera askok osatu edo egiten dabe; zenbat-eta izakere-  
tan bereziagoa ta erri orren nortasuna nabarmenago agertuko da.  
Euskal Erria'ren nortasunaren oiñarriak euskereagaz batera, en-  
dea, lengo aldietako bere buru jaubetasuna, oiturak eta abar dira.  
Bai, endea be Euskal Erria'ren oiñarria da ta sendoenetarikoa.

Nik neuk auzi onetan ezer ez dakit, gai onezaz ezer ganorazkorik sekula ez dot irakurri. Baiña ba-dakit Arantzadi, Caro Baroja ta gai onetako beste jakintsu batzuk gure endearen berezitasunak agertu izan dituela. Nire esanen sendogarri, besterik eziñean, orain ogeiren bat urte izparringiak ekarri eben albista bat agertuko dot, anedota bat.

Ego Ameriketako kontua zan. Gaixoren batentzako alango edo olango odola bear zan eta ez euken bear eben odola; baiña orretariko odola euskal endeak eukala jakiñik, irrati bidez estu-estu euskaldunai deika asi ziran eta euskaldun praille bat bertan agertu zan eta bere odolagaz gaixo a osatu bidean jarri zan.

Ez gara endakeria-zaleak. Besteak baiño goragoko maillako endea garanik ez dogu uste, aldi baten Hitler'ek alemandar endaz uste eban lez. Baiña ainbeste kanpotar gure errietan geratzen dirala ikusteak atsekabetzea razistea izatea bada, razistea gara. Ez dogu lotsarik ori autortzeko. Ta gure pentsakerea zuzenago ta lojikoagotzat daukagu, erdal erri guztia gure erriratzek be ez dauskula ardurarik izan bear diñoen euskaltzaleena baiño. Danen gaiñetik euskerearen iraupen eta indartzea nai ta aldi berean euskereari kalterik geien dakartson amaibako kanpotarren etorte onek miñik emon ez!

Euskal Erria noizbait bere bizitzea egitera eldu bear bada, orretarako eskubidea ba-dabela agertzeko, bere nortasuna nabarmentzen dabeen izakerak galdu ez daitezcan arduratu bearra daukagu. Ta gure endea euskal izatearen alderdi garrantzitsua dalako, alik gitxien nastauta irautea, Euskal Erria'ren nortasunari eustea izango litzake. Baiña ez endea endeagaitik bakarrik. Kanpotik zenbat-eta jende geiago gure erriratu ta euskerea, oitura ta beste izakera guztiak galduago egingo dira. Ukatu eziñekoa da au.

Ez dogu ezin ikusirik kanpotarrentzat. Gure katoliku pentsakeran ez dago tokirik gorrotoarentzat. Errukia bai sarritan eurai, euren txirotasuna dala-ta. Gaiñera, lantegietako lagun, edo auzoko

ezagun edo senidetzan sartu jakuzalako, euretako askoren adiskide gara edonor.

Alan be ezin dogu begi onez ikusi beste errialdetako gizon ujola gure errira etorten. ¿Ta nok ikusiko leuke gure egoeran? ¿Pozik geratuko litzakez espaiñiarrak ogetabost edo ogetamar milloe prantzitar betiko España'n sartuko balira? ¿Ta zer abegi egingo leuskiee errusitarrak euren erriratzen diranai berreun milloe txinatar edo inditar lanera sartuko balitzakiez? Bada neurri orretantxe dator jendea gure errira erdal erritik.

Au euskalduntasunaren ondamendia dan arren, euren aurka ez dogu ezer eskatzen.

Baiña obe litzake bai eurentzat eta bai euskaldunontzat, jaioterria laga bear barik eroso izateko aiñako bizimodua euren lurraldean eratuko baleutsee erdaldunai.

*ANAITASUNA, 8-8-1966*

## **GU TA KANPOTARRAK**

Gu ta kanpotarrak gailzat artuta idazlan bana argitaratu dabe «Zeruko Argia» eta «Karmel» aldizkariak.

Ez ei dogu kristiñau lez jokatzen irabaztera datozen erdaldu-nakaz.

Aitatutako idazlan bietan errezoiak esaten dirala ezin ukatu, baiña auziaren alderdi batetik ikusten diran errezoiak. Orregaitik, beste alderditik ikusten diran errezoiak be agertu egin bear dirala deritxat, erriak auzi onetan eretxi zuzenak euki daizan.

Banaka batzuk ba-dira bai, gure artean, kanpotarrai gorrotoa dautsenak, beintzat, irri dagitsenak, beragoko maillako gizonak bailiran; baiña geienok ez daukagu eurentzat ezin ikusirik. Eta ez daukagu zetan euki be. Ezer baiño lenago katolikuak gara, kristiñauak. Beraz, ezin daikegu iñundik iñora txarto nai izan iñori.



Gaiñera, ez datoz gure errietara eurak nai dabeelako bakarrik; geuk bear doguzulako be ba-datoz. Eurak barik ez zirakean egingo gure errietan egin diran lan asko. Esate baterako, galiziar barik Pasaia ta Ondarru'ko arrasteru itxasontziak ez litzakez ibilli al izango gizonik ezagaitik. Beraz, emen lan egiten dabeenak badauke bertakoen antzera biziteko eskubidea.

Alan be, kanpotarrak Euskal Erria'ren izakereari kalte andia dakartsoenik ezin ukatu daikegu. Euskaldunok milloika asko baiña, millaka kanpotar batzukaitik ez giñake kezkatuko; baiña ez da orrelan. Gitxi gara ta geroago ta gitxiagotzen goaz, geure erosotasunagaitik, zabarkeriagaitik, ondo bizi naiagaitik. Euskal Erria txikia da ta millaka asko bertara bizitera datozen erdaldu-nak. ¿Eta ez al daukagu geure nortasuna zainduteko eskubiderik? Ba-daukagula iñok ezin ukatu daike. Eskubidea ta bearkuna be bai. Jakiña, errezoi andiago batzuen ondoan eskubide orreik indarra galdu leikee.

Nik ez diñot kanpotarrai atea itxi bear dautsegunik, baiña naiago neuke euren premiñarik ez bagendu ta iñor be etorriko ez balitz. Bakotxa bere errian ondoen konpontzen da, bai gorputzez ta bai arimaz.

Iñoiz irri egiten dautseela batzuk? Txarto dago au. Nik neuk euretako gizajo askorei errukia izaten dautset, eta lagundu bere bai al dodan neurrian. Baiña euren artean be ba-dira geuri min emoten dauskuenak, geure errietan lortu dabeen bizitza obeaz az-tuta. Guk euskeraz jardutean, esate baterako, sarri erakutsi oi dabe bai berbaz eta bai egitez euren guganako amorrua. Ta au be ez da ondo.

Bakotxari bere eskubideak ezagutu ta alkar maitatuaz bizi bea-rra daukagu.

*KARMEL, 1960, Irailla-Urrilla*

## EUSKAL ABIZENAREN ESANAIA

Aurten baten au entzun genduan kurtsillo baten asieran egin zan berbalditxoan: Len, euskal abizenari garrantzi andia emoten jakola baiña orain kontu ori «superauta» egoala.

Ba-dakigu gazteak gure eretxi ta elburuak baztartu egin ditue-na; baiña guztiak «superauta» dagozala ez da egia. Ta abizenaren kontu au be ez. Ikusi daigun.

Etnia modura ez da bardiña erri guztien nortasuna. Alde onetatik begiratuta, erri batzuk nortasun andikoak dira ta beste batzuk guztiz gitxikoak. Ipar Amerika berak, etnia modura, ez dauko ezer bererik. Erri andia, kanpotik joandakoz betea. Alan be, baltzak indartzen edo geitzen doazala-ta kezka apur bat ba-dauko. Erri txikiak diranak ez dagoz kanpoko jendea neurri barik sartzten lagateko, ori euren nortasuna galtzeko bidean jartea izan leitekeala-ta. Baiña ez da etnia aldetik bakarrik kaltegarri kanpoko jendea errian sartzea; baita politika modura be, buru jaubetasuna galduta dauken errietara bere zapaltzaillea dan erritik jendetza andia sartzten bada. Ara or Irlanda. Lortu eban askatasuna, baiña ez erri osoak. Goiko aldekoak, Ingalaterra'tik joandakoak geienak, oneri lotuta iraun nai dabe ta alantxe diraue. Bertako irlandarrak euren aberri askatuagaz batu nai dabe ta orretarako alegin naikoa egin be bai, baiña ezin, kanpotik sartutakoak geiago dirata.

Euskal Erria'n be olango zerbait jazo leiteke. Euskal Erria'k, etnia modura, iñok baiño nortasun geiago euki dau. Len ba-eban eskubidea erriaren gobernurako legeak egiteko. Senide ezagun bako berbetea dauko. Geure-geure jolas eta oiturak ba-daukaguz. Eta endaz edo arrazaz be beste guztiakandik bereziak gara. Berba baten esateko, gaur gure izakerak galtzen badoaz be, jatorriz, erri baten nortasuna, beste iñok baiño nabarmenago izan dogu.

Iñogaz nastau barik garbi dirauen erririk ez da, erri aurreraturik beintzat. Orregaitik, kanpotik sartzten diranak asko izan ezik,

ez da iñor gora-goraka jarriko. Baiña gure erriratuak geiegi izatera elduko diran bildur naz. Len, etorten ziran apurrak geureganatu egiten genduzan, «asimilau». Baiña orain lez, geu garan baiño kanpotar geiago badatorkiguz, kalte andia egingo dautsoe Euskal Erria'ren nortasunari.

Euskereari eutsi ezkerro beste guztiak garrantzirik ez daukela uste dabe batzuk. Egia, gure erriaren nortasuna geien nabarmentzen dabena euskerea da, baiña gure beste izakerak galtzen badira, euskerarik ez da salbauko.

Zenbat-eta kanpotar geiago gure errira etorri, ta euskerea makalago, gure oiturak indar gitxiago, gure buru jaubetasunaren egarri gitxiago, berba baten, Euskal Erria'ren nortasuna illunago.

Abizen edo apellidu kontua «superauta» dagoala? ¡Bai zera!

Euskal abizenak gitxitzen joan edo geitzen joan, ez da bardin gure erriaren etorkizunerako.

*GOIZ-ARGI, 8-6-1976*

## **NAI TA NAI EZ ERROMATAR**

Bidasoa inguruetan erromatarren aztarrenak arkitu naian azkenengo urteetan diarduezan alegiñak ikusirik, Kantiñflas'en arako «Torero a la fuerza» datorkit burura. Bai, zezenketarako gauza ez zala, alan bearrez, zezenkari egin zan lez, emen be derriorrean erromatarren aztarrenak arkitu bear ditue. Orretarako, besterik ezean, txirla oskol bi ta iru plater zati lurpean, edo itxasoan kate zati zar bat arkitzea naikoa dira.

Orain urte batzuk Ondarrabia'ko itxas ertzean ez dakit zer arkitu ebela barria zabaldu zan. Geroago, orain iru-lau urte, Irun'go eliza nagusi aurrean erromatar aztarrenak arkitu ziralta ta izparringietan naikoa idatzi zan. Ez dakit bai batean ta bai bestean ezer baliokorik arkitu ete zan. Beintzat, gauzea bertan bera amaitu zan.

Baiña Bidasoa alderdi onetan erromatarrak egon zirala adierazoteko aztarren ganorazkoagoak arkitu bear ziran eta oraingoan zerbait arkitu dabeela dirudi. Irun'go Ama Santalen eliza zarrean erromatar denporetako il erria arkitu ei dabe ta bertan orduko gauza batzuk. Dirudianez, orain arteko erromatar aztarren arkitze baliotsuena izan da Bidasoa inguruan. Ta jakiña, asko, ezin geiagotan poztu ditu jazoera onek. Dirudianez, erromatar kutsua da askorentzat, errien maillea goratzen dabena.

Niri neuri poz andirik ez daust emon arkitze orrek; jateko gogorik kendu be ez. Euskal Erria antxiñako denporetan iñok ez ebala menperatu irakatsi euskuen eta erromatarrak emen izan zirala adierazteak, guk ikasitakoa ukatu egiten dabela dirudi.

Jakiña, besteen menpean aldi baten egoteak, bere buruaren jaube izateko eskubiderik ez dautso ukatzen iñungo erriri.

Baiña Euskal Erria erromatarren menpean egon zala agertu edo erakusteko, Irun'en arkitu diran aztarrenak baiño esan nai andiagokoak bearke dira. Lurpeko ta noizkoak eta zeñenak diran ezpaian artu leitekezan aztarrenak baiño balio andiagokoa dogu agiri-agirian bestera uste izateko: euskera zarra. Europa'ko egosartaldeko berbeta guztiak latiñetik sortuak dira, erromatarrak euren menpean erri orreik euki zituanean lagatako latiñetik. Gure erria be beste erri orreik lez erromatarren menpean egon izan baltz, orreik aiñako menpetasuna jasan izan baleu beintzat, orduantxe ilgo zan euskerea.

Europa'ko alderdi onetan geuk bakarrik berba egiten dogu erromatarrengandik etorri ez dan eta erromatarren denporea baiño lenagokoa dan berbetea.

¿Zer, errezoi au ez al da kontuan izatekoa?

Baiña amaitu baiño len, Irun'go aztarrenaz zerbait esan daigun. Olango gauzak atsegin izaten jataz eta Ama Santalen'go elizatxoan zer ikusiko urreratu nintzan bertara San Martzial egunean onen elizatzotik jatsita. Elizea itxita egoan eta barruan zer egon

eitekean ez dakit, baiña guztia kanpoko langoa bada iñor ez etorri Irun aldera erromatar aztarren baliotsurik ikusiko dozuelakoan. Jasotako gauzak ez dakit zer diran eta ez dot ukatuko, baiña orkanpoan egin diran zuloak, edozein solo baztarretan egin leitekezan zuloak dira. Zulo orreitan nik ez dot ezer ikusten.

¡Bazterren baten erromatar «nekropolois» bikaiñagorik, jaskaogorik izango da!

### *AGUR, 56' garren zenbakia*

Oraingo oarra 1991'garren urtekoa: Idazlan au 1972'ean egin neban. Bein, Ama Shantalengo elizan zertzuk arkitu ete zituen jakin naian bertara urreratu nintzanean atea itxita egoan eta ez neban ezer ikusteko aukerarik izan. Eta balioko ezer egongo ez zala koan, ara joateko ustean egozanan ez joanda be ez ebela asko galduko, esaten neban.

Baiña 1991'garren urtean barriro joan naz bertara, seme batek eroanda ta lengo esan batzuk aldatu bearrean arkitzen naz.

Ama Shantalen elizaren azpian antxiñako eraikuntza baten aztarrenak agirian ipiñi zituen eta ontzi zati ta olakoak be bai. Ta lanak ondo egiñaz, aztarrenok ederto ikusteko eran ipiñi ditue, azalpenak argi ta apain jarriaz.

Gaur, Ama Shantalen elizea museo baliotsua biurtuta dago.

## **LENEAN IRAUN BEAR DAU EUSKO ALDERDI JELTZALEAK**

Berrogei urte luzean politikan jarduteko askatasun barik egon ostean, demokraziaren egun sentia ozta-ozta agertu danean, basoan perretxikoak baiño politika alderdi geiago sortu dira. Demokrazia-zale itxuran agertzen diran askok, jolastzat artu dabeela dirudi politika era au; edozein lagun taldetxok politika alderdi bat sortu ta indartu eragiteko aiña ba-dala uste dau, kontixu. Taldeak alkartu ta gitxiten joango dirala uste dogu ta bear be bai, bestelan,

barregarria izango litzake España'ko ta bere menpeko lurraldetako demokrazia.

Guda aurretik ziran iru-lau alderdi politikoak, emeak izan-edo, bakotxak partidu mordoak sortu dabe. Eusko Alderdi Jeltzalea'ren barruan be besteetan lez, naikoa eztabaida ta ezin egon ei dago. Ni olango kontuetatik zearo kanpuan nago, baiña nire belarrietara eldu diran zurrumurruak ez nabe asko poztu.

Eusko abertzale mobimentua, Arana Goiri'ri ta berak sortutako Eusko Alderdi Jeltzalea'ri zor jako oso-osorik. Sabin eta bere alderdia izan ez balira, gaur ez zan euskera aldeko lanik, ez Fuego edo bere eskubideen egarririk. Eusko Alderdi Jeltzalea'k beste ezer onik egin ez baleu be, auxe litzake naikoa euskalduntasuna barrutik sentiduten dabeen guztien esker ona izateko. Baiña ez. Bein be ezer egin ez dabeen askok lotsa gitxigaz iñun diranak arpegira botaten diardue eusko abertzaletasunaren ama dan alderdiari.

Baiña olangoai arpegia emon bear dautsedala ta ez naz asi. Ez; gure etxe barruko kontuak argitu nai neukez.

Eusko Alderdi Jeltzalea'ren elburua zer dan danok dakigu: Jaungoikoa ta Lagi Zarra. Au da, Euskal Erria'ren nortasuna zainduaz bere buru jaubetasuna edo len zituen eskubideak lortu ta Erlejiño Katolikuak ontzat emoten daben eran gure lege ta bizimodu eratu. Abando'ko gure maixua, katoliku oso-oso zan; gizona ta erriak ondo joateko biderik onena erlejiñoa zintzo betetea zala ba-ekian. Gaiñera, erriaren tradiziñoa ta orduko erriaren sentimenduak katolikuak ziran. Ta geroko denporetan be, eusko abertzaletasunari, katoliku izateak kalterik ez dautso ekarri.

Gaur ostera, Alderdi barruko batzuk Erlejiñoa edo bere elburuko Jaungoikoa baztartu egin nai dabe. Gauza bigaitik izan leiteke au. Jaungoikotasunik sentiduten ez dabeelako edo orretara jokatuz Alderdi Jeltzalea indartsuago izango litzakean ustean. Baiña errezoi biak be ez dira naikoa aldaketa ori egiteko; ez orreik eta ez asmau daitekezan beste edozer errezoi be.

Edozein politiku alderdirek ezin leike lengo alderdia izaten jarraitu bere elburutik oiñarri bat kenduta. Bere elburu oiñarrietatik erdia kentzen daben alderdia, beste alderdi bat biurtzen da ta beste izan barri bat artzea dagokio, zintzo ta onrradu jokatu nai badau. Gaiñera, Eusko Alderdi Jeltzalea'ren aldaketa andi au egin nai dabeenak, ez lengo alderdi barruan egotea dagokie ta ez beste barri bat sortu daikee alderdiari emon nai dautseen elburu edo jitea emotekotan. Orreik orain egin nai dabeena, len egin zan Eusko Alderdi Jeltzalea'n; Alderdiaren Erlejiño autortzea edo konfesionalidadeagaz konprome ez ziranak bertatik urten eta Acción Vasca edo Eusko Ekintza sortu eben, bere elburutzat Euzkadi bakarrik ebela, Jaungoikoa barik.

Orain Eusko Alderdi Jeltzalea'n egin nai dan aldaketeagaz Eusko Ekintza'ren alderdi bardiña laga nai dabe. ¿Zertarako bada, len dagoan beste alderdi bat langoa gure alderdia biurtu? ¿Izen desbardiñak baiña elburu bera dabeen alderdi bi, zegaitik izan bear dira? Katoliku batzuk erlejiño ta politikeagaz zer ikusia dabeen eretxiak ezin-ta okerragoak dira. Erlejiñoa ta politikea gauza bi zeoro desbardiñak ei dira ta beraz, alkarregaz zer ikusi txikienik bere ez dabeenak. Orregaitik katolikuak erlejiñorik ez bailitzan jokatu bear ei dau, erlejiñoaz oso-osorik aztu bear ei da. Egia, erlejiñoa ta politikea gauza bi dira ta auzi batzutan guztiz desbardiñak; erlejiñoak geienbat ilda geroko mundua dau gogoan eta politikeak lurreko bizitzea eratzea beste asmorik ez dauko. Baiña bien artean zer ikusi andia dago; beste munduko bizitzea ementxe irabazten da, zuzen jokatuaz. Lurrerako txarra dan guztia, erlejiñoak gaitetsi egiten dau; lapurretea, iñor oiñazpiratzea, gogorkeria, zuzentzarik eza ta abar, munduko legeak lez erlejiñoak be txartzat emoten ditu.

Beste jokabide ta oitura batzuk, munduko legeak ontzat emoten baditue be, katolikuak ezin daikez ontzat emon. Munduko gorabera guztiak politikeak zuzentzen ditu. Laterri baktxean gauza guztientzat dira legeak; ekonomia, jolasa, erlejiñoa ta abarrek

arau batzuen barruan jokatu bear dabe. Ta legeak, demokrazia dan Laterrietan, erriak aukeratutako aldunak egin edo sortzen ditue.

¡Zenbat lan, zenbat eztabaida ta auzka, zelako berbaldiak egin zituen euskaldun aldunak Madrid'ko aldun etze edo Korteetan, Errepublika denporan legedi barria egiterakoan, Agirre ta Pildain (au gero gotzain izan zana) buru zirala, erlejiñoaren aurka izango ziran legeak galerazo naian!

Katoliku izatea ez da Jaungoikoagaz bakarka artu-emonu eukitea bakarrik, ez. Katolikuak, gizadia obeto joan daitean erriko auzietan sartu bear dau, erlejiñoaren eragiña legeetan eta erri bizitzan sentidu daitean alegindu bear dau. Berba baten, katolikuak politikan sartu bear dau ta katoliku lez jokatu.

Olan jokatzeta atzerapena danik ez daigun uste izan. Europa'ko erri demokrata aurrerengoetan Kristau Demokrazia izeneko alderdia dagoana danok dakigu; ta alderdi indartsua gaiñera. Ta guk emen, Euzkadi'n alderdi orren antzeko bat izatea txarto dala nok esan daike?

Ta Eusko Alderdi Jeltzalea bere oiñarrian aldatzen bada, gure erri onetan euskaldun-zale katoliku alderdirik ez da izango. Euskaldun-zale ez dan alderdi katolikuren bat sortuko dan ezpairik ez dogu, baiña euskotar katoliku alderdi barik gure erria izan daitean lan egiñaz datozela batzuk dirudi. ¡Ederra lana!

Danen gaiñetik euren buruak katoliku sentiduten dabeen asko dagoz oraindik Euzkadi'n; eta orreik guztiok alderdi erdaldun zaletara bultzau bear al doguz?

¡Gazte ta zarrak, buru argiz jokatu daigun une garrantzitsu onetan!

*EL DIARIO VASCO, 28-11-1976*



## EUSKO IKURRIÑAZ

Arana Goiri'tar Sabin'ek sortutako gorri, zuri ta orlegi ikurriña ez zala eusko ikurriña esaten eban idazlana irakurri neban lengo baten, ikurrin au Bizkai'rako sortua izan zala-ta. Ta aste batzuk lenago napar batek idatzitako beste idazlana, Arana Goiri'k asmau ta zabaldu eban ikurriñak naparrentzat sentidurik ez ebala esaten ebana.

Beraz, euskaldun ikurriña aizetara zabaltzeko baimena laster izango dogulako, kontu onen gaiñean berba egin bearra dagoala uste dot.

Eusko abertzale ikurriña lenengoz Kastejon'en zabaldu ebala Arana Goiri'k, sarritan irakurri ta entzun dogu, Baiña Sabin'en anaia Luis'ek bere «Formulario de...» liburuan diñoanez, bestelan dira gauzak. An, Gamazada izenez ezagutzen dan naparrak euren eskubide aldeko batzarra Kastejon'en egin ebenean (18-2-1894) Arana Goiri anaiak aizetara zabaldu eben ikurriña olangoa zan: Zuria Deun Ander'en gurutze gorriagaz eta berba oneik, «Jaungoikoa ta Lagi Zarra. Bizkaitarrak agur egiten deutse Naparrerri. Dios y Ley Vieja. Vizcaya abraza a Navarra».

Ikurrin au egun aretarako bakarrik egin zan eta geiago ez zan iñun agertu. Zeatzago esateko, ez zan ikurriña estandartea baiño. Bestea, gaurko eusko ikurrintzakoa, urrengo urteko garagarrillaren (ustailaren) 14'an lenengoz agertu zan, Bilbo'ko "Euskaldun Batzokija" izeneko lenengo batzokia zabaldu zanean. Gorria ondoan, Bizkai'ko eskudian lez; gaiñean, albokera, gurutze zuria, gure erlejiñoaren ikurra. Ikurrin au Bizkai'rako bakarrik egin eban Arana Goiri'tar Sabin'ek. Geroago, Sabin il ta iru-lau urtera, beste ikurrin bat egin eban Euzkadi guztirako bere anaia Luis'ek. Bizkai'koa lez gorria gurutz zuriagaz, baiña Deun Ander'en gurutz orlegiaren orde z sei marra orlegi zabaleran, sei euskal probintzien sinbolu lez.

Bizkai'rako bizkaitarrak asmau eben lez, beste euskal probintziak be, euren izate ta edestiaren arauz eurena asmau eiela nai

eban eta Euzkadi'ko ikurriñaren goi aldeko ezkerrean probintzi bakotxarena sartu.

Baiña, axe, Bizkaia'rentzat egindakoa onartu eben Euzkadi osoko eusko abertzaleak. Gernika'ko Arbola Bizkaia'ren eskubideen sinbolua izan arren, Euskal Erri guztiak bere eskubideen agergarritzat artu dau. Gipuzkoarra izan zan, Iparragirre, gure abesti ospetsu au sortu ebana:

Gernika'ko Arbola  
da bedeinkatua;  
euskaldunen artean  
gutziz maitatua.

Euskal Erria'k ez dau izan ikurriñik eta gaur be ofizialki artutakorik ez dauko. Baiña erriak, Arana Goiri'k eusko abertzaletasunarentzat sortu ebana ezagutu dau eusko ikurrintzat. Beste alderdi edo mobimentuen ikurriñak ez ziran euskaldunak. Bai gorria, bai errepublikanoa ta bai gaurko españiar ofiziala be Euskal Erri'tik kanpokoak be ba-ziran. Ostera Sabin'ek sortutakoa, Euskal Erri'koa bakarrik, eta mundu zear zabaldutako euskaldunak be Euskal Erri'ko lez ezagutzen dabeena. Bidasoa andiko euskaldunak beste ikurriñik ez dabe ataraten euskaldun lez agertzeko.

Euskal Erria'k beretzat zein ikurrin artu daben argi dago. Sabin'en ikurriña, gorria, zuria ta orlegia. Gaur eguneko jazoera biurrietan be beste ikurriñik ez da ikusten.

Beraz, Sabin'en ikurriña eusko ikurrintzat ofizialki artua izan daitean alegindu bear gara euskaldunok, askatasun osoagaz geure eretxiak agertu al izan daiguzanean.

*EL DIARIO VASCO, 8-8-1976*

## **POLITIKEA BAI BAIÑA POLITIKERIARIK EZ**

Bearrekoa dala politikea lenago idatzi genduan. Izan be alantxe da. Gobernatu bearra dabe erriak, lege ta agintariak bear

erriak. Orixe da jatorriz politikea; ta iñor ez dago politikearen izate onen aurka anarkistak-edo izan ezik.

Baiña beste alderdi bat be ba-dauko politikeak: Gobernatzeko moduazko eretxi desbardiñak. Danok nai dogu erriak ondo gobernatuak izan daitezcan, baiña ori lortu al izateko, bide desbardiñak aukeratzen doguz. Jakiña, obe litzake eztabaida barik danok eretxi batekoak bagiña erriak gobernatze zeregiñean. Baiña ori sekula ez da jazoko ta eretxi desbardintasuna gizadiarean kalterako izan ez daitean alegindu bear genduke.

Politikan gizontasunez jokatu ezkerro, eretxi desbardintasun au kaltegarri barik onerako be izan leiteke. Demokrazia ondo eroaten dakien errialde aurreratuetan, Gobernuaren lana aztertzeo, ondo izaten dira beste alderdiak. Baiña politikea bearrekoa izan arren, alderdi politikoak askotan lan ona egin arren ¡zenbat txarkeria mundu zabalean politikearen erruz, zenbat gorroto, zenbat gose ta miseri politikea dala-ta bide!

Asko, ez doaz asmo onez politikara; erriaren onaren billa bearean euren buruaren alde jokatu naiak eroaten ditu zeregin orretara. Ta, asmo onez asten diranetatik asko, politika ekiñak berak okertzen ditu.

Politikea, geienetan, ekonomiaren eragiñaz dabillega ezin ukatu daiteke, edo ta abertzaletasun, erlejiño ta abarrenaz. Baiña, askotan, politikea, politika uts-utsa dala be egia da. Danok ikusi dogu au gure errietan; karlista ta liberalak zirala, edo Rodas eta Aznar jaunak diputadu izan nai ebela, edo Patxi ta Peru'k biak alkate izan nai dabeela ¡zenbat gorroto erlejiño ta mailla bardifñeko gizonen artean!

Gizadiaren ona billatu naiak bakarrik eroan bear gindukez politikara. Ondo egiten dana, edozeiñek egiten badau be, politikako gure arerioak egiten badau be, ontzat emon, ondo artu.

Politika alderdiak, beraz, erriaren ona billatzeko bideak izan daitezcan sortu bear litzakez. Baiña gauzak ez dira olan jazoten sa-

rritan. Gure arerioa (beste eretxietakoa esan nai dot) agintzen badago, gauzak txarto joan daitezala nai izaten dogu, erria ondamedira eroan daiala nai izaten dogu, bere jaustea gure jagitea dala-ta agintaritzatik baztartua izan daitean. Partiduak, bidetzat barik, elburutzat artzen doguz. Ez; politikan ez dogu zintzo jokatzeko, politikeria geiegi egiten dogu.

Munduak erregetzea bearrekoa dabela ez daigun uste izan; edo ta ezta, geu errepublika zaleak bagara, errepublika barik munduak konpontzerik ez daukala, edo komunistak bagara ez daigun uste izan komunismuak bakarrik mundura zoriona ekarri daikeala, ez daigun uste izan fatxismua langorik ez dagoala mundua ondo jarteko. Ez dauko munduak nai ta nai ez olango edo alango irakatsien bearrik; munduak bakea, aurrerabidea, zuzentasuna ta askatasuna bear ditu. Ta oneik gauzok, edozer koloregaz etorrita be, onak dira. Egin daigun kontu, nik gizartea eratzeaz eretxi edo nai batzuk ditudala ta nire gogaien areriotzat neukan alderdi batek, gobernuratu danean, nire nai ta eretxi orrek mamindu egin dituala. Olangorik jazo ezkerok, poztu egin bear giñake, nai gendua egia biurtu dala-ta. Baiña ez, ez gara poztuten, atsekabetu bai, besteak egin dabeena geuk egitea nai izaten dogu-ta.

Egia, nire barruan olango politikaririk edo politikeriarik ez da sartzen.

Modu batera edo bestera, erriak alik zer ikusi geien izan daiala gobernatze kontuan ondo baiño obeto dago. Ta orretarako, gobernatze arazoan erriak esku artzeko alderdi politikuak baiño beste biderik ez bada, ondo artzen doguz alderdi politikuak.

Baiña Jaungoikoarren, uxatu daiguzan ezin ikusi ta gorrotoak. Ogeigarren mendean, zenbait gauzatan ainbeste aurreratu garanean, basatiak lez ez daigun jokatu politikan. Gizontasunez jokatu daigun.

*ANAITASUNA 6-6-1966*

## PREMIÑA BAKO EZTABAIDARIK EZ

Gitxitan izaten dira gizonak eretxi batekoak. Nai erlejiño, nai politika, nai erti, nai jolasetan, biren eretxiak bardiañak badira, irugarrenaren eretxia guztiz desbardiaña izango da. Milla auzitan eretxi desbardiañak ez dakarre oker txikienik; baiña beste batzutan ezin da andiagoak ekarri izan dautsez gizadiari. ¡Zenbat asarre, iskamilla ta guda mende zear gizonen eretxi desbardiañagaitik!

Baiña danok beti ta danean eretxi batekoak izatea be ez dakit ona izango ete litzakean. Dana dala, orra bein be ez gara elduko.

Iñun erri osoa eretxi batekoa agertzen bada, batasun ori ez da berezkoa, ori ditadura batek ipiñitakoa izango da. Ta olango batasunak on gitxi ekarriko dau iñora. Gu, beintzat, ez gara olango batasunaren zale.

Baiña eztabaida ta asarre zale be ez gara. Egia, egundokorik, zaillena da gaur euskaldunok bakean bizitea. Ardura andia dauskuen auzien etorkizuna jokutzen da gaur: Erlejiñoa, askatasuna, euskerea ta abar. Ain garrantzitsu diran auzietan eretxi guztiz desbardiañak daukaguz euskaldunok. Orregaitik, zuzenean nai zearka auzi onei ikutu egiten dautsoen kontuetan eztabaida ta asarreak izatea ez da arritzekoa.

Anaia arteko asarreak min emoten dauskue; baiña asarrerik ez izateagaitik beti ixillik egotea ez da bidezkoa. Batzutan arpegi emon bearra be izaten da.

Olangoetan, auzi garrantzitsuetan, kezkatu rik eztabaidea mai gaiñeratzen dabeenak txalogarriak dira. Orregaitik, emendik txalotu egiten dot aita Intza agurgarria, urte pillo andiaren zama aztuna lepo gaiñean eroan arren, Lasarte'ko ikastoleari buruz erakutsi daben erlejiñoaren kezka ta aldeztuteko adoreagaitik. Onegaz, Lasarte'ko ikastolea erlejiñoaren aurka dagoala ez diñot.

Baiña eztabaida asko premiña bakoak dira; uskeriak askotan. Uskeriagaitik baita be, bata besteari gizontasuna ukatzen. Onetan

alderdi guztietakoak gara errudun. Gure taldekoak be bai. Gure taldeari aintza gitxi ekarriko dautsan eztabaida bat baiño geiago sortu izan da gure asterokoetan eta gero, larri, norbere errezoiak zutiñik ezin eukita.

Erlejiñoaren, askatasunaren, euskerearen eta abarren etorkizuna jokutzen dan aldi onetan uskeriagaitik eztabaidan asi barik be, ba-dauko zer astindu orretarako gogoia ta adorea dabenak.

*AGUR 164' garren zenbakia*

## **EZ GARA EUSKALDUNOK ORREN ASTAKIRTENAK**

Aresti jaunaren idazlanak «sin pena ni gloria» irakurten diran orretarikoak ez dira. Diranak eta ez diranak esanaz, zer pentsau, zer esan eta eztabaida ugari baztarretan lagaten dabe geienetan.

Ez diñot Aresti jaunak ez dan gauzarik esaten dabenik; «diranak eta ez diranak», esakera bat besterik ez da. Baiña ez dan gauzarik esaten ez badau be, auzia, edozer auzi, margo bizi biziakaz margotu bai. ¡Ezagun da, bai, antzezgille ta olerkari ona dana Aresti!

Ni neu be gauzak argi ta garbi esatekoaren aldekoa naz, orretarako premiña ederra dago egon be-ta; ta ez gure puntako idazle askok egiten dabeen jokabide erreza artu, zauri ta eztabaidarik sortzen ez dabeen autuetan sartu bakarrik, gauza politak esan. Berba baten esateko, danakaz adiskide izan.

Danoi atsegin izaten jaku au. Baiña ez dakit era orretan euske-reari indarrrik emongo ete dautsagun. Bai, egia argi ta garbi esateko aldian gagoz. Baiña egia argi ta garbi esateko, ez dogu uste edozer txikikeria dramatizau bearrik daukagunik. Ala, erriari zirkin eragiteko demagogia egin bearra al dago? Tamalgarria izango litzake au olan izatea; bada, gizona dagokion duintasunaren jaube ikusi nai genduke ta era orretan ez da elduko duintasun orretara. Beti berbeta puztu bategaz erriarengana zuzentzen bagara, gauzak

diran lez ikustera sekula ez da elduko, gauzak ondo bereizten ez dau ikasiko. Au danau «Asto ta astakeriak» izeneko bere idazlanak esan eragin daust.

Gure aberrian ortik zear egin diran asto lasterrak bere onetik atara ei dabe jaunen bat, eta Aresti jaunak be beretzat egiten ditu beste aren gure erri onengaitiko esate gogorrek. Dalako jaun aren eta Aresti'ren esanakaz bakarrik gure erria ezagutuko bagendu Aprika'ko erririk atzeratuenaren pare dalakoan egongo giñake. Kapre ta mau-mautarrak baiño basatiagoak garala esango genduke. Ortxe da euren esanen okerra, geiegikerian.

Asto lasterketa (aringa-aringa) gitxi izaten da Euskal Erria'n. Lur ikara edo olango bakan izaten diran gauzen antzera. Nik, bizarra zuritzen asita daukat, baiña egundo ez dot ikusi asto lasterrik. Ta euskaldun geienak nire eran arkituko dirala, daukadan guztia jokatuko neuke.

Baiña asto aringa-aringa asko edo gitxi egin, ez daukat ori astakeriatzat. Zaldi aringa-aringak aberatzen kontuak diralako, edo zezenketea edo fubola astakeriak ez badira, gure baserritarren jolas asto lasterrak be ez dira. Geienez be umekeria dirala esango dogu. Baiña olan begiratu ezkerero, jolas guztiak dira umekeriak.

Berak Aresti'k aitatzen dituan gure beste akatsen neurria be ez da orrenbestekoa. Guk ezpatadantzeaz eta irrintziaz eta olangoakaz daukagun eretxia edonungo errietan euki oi dabe euren gauza zarrakaz. Gauza zarrak, gauza zar lez dira dirana; aldatuta ezer ez dira. Irrintzia be olantxe erakusten dogu, antxiñako gauzea lez, folklore lez. Len, antxiña, bearrekoa izango zan, kontixu, irrintzia, deitzeko. Gaur ez da bearrekoa. Baiña iñor ez da ikaratzen irrintzia entzutean, ez da urrunetik etorritako turisteia be, irrintzilaria erdi gizon eta erdi abere dalakoan. Pozik entzun bai, alaitu bai.

Baiña irrintzika bakarrik ez dogu bizia igaroten. Abestuten be ederto dakigu. Abots eta belarri ederrekorik ba-da euskaldunen artean!

«Euskaldun fededun» eslogana ez da izan kristiñau federik ez dabeen euskaldunak ez dirala euskaltzaleak edo ez litzakezala izan bear agertzeko. Aita Kardaberaz'ek erlejiñoaren kontuaz euskereari lagundu egin nai izan eutsan. Ez dakigu bere jokabidea, onetan, zuzena izan zan ala ez, baiña euskerearen onerako borondatez egindakoa izan zala bai.

Len, katolikuak ziran bakarrik euskaltzaleak, katoliku guztiak ez. Gaur, tarteka, kristiñau federik ez dabeenak be bai. Asko poz-tuten gaitu onek, berbetak erlejiñoagaz zer ikusirik ez dabeelako. Emen, oso-osoan, batera gagoz Aresti jaunagaz. Erri baten berbe-tea bere seme guztiena da, fededun eta fede bakoena, aberats eta beartsuena, zuri ta gorriena.

Ta goazen aurrera. Ez gagoz gure erri au akatsik bakoa dala-koan. Ez gara euskaldunak ezetan be beste erriak baiño obeak. Baiña txarragoak be ez gara. Gure auzo erriak baiño ez beintzat. Urruneko errien konturik ez dakigu.

Arazo onetan gure gatxak era bitakoak dira ta bata besteagan-dik berezi bearrekoak:

- a) Bear aiña ez gara aurreratu kulturaren.
- b) Euskal nortasuna ia osorik galdu dogu.

Alderdi bi oneik banatu bearrekoak dirala esan dot. Ara zegai-tik: Euskal nortasuna galdu ta erdereagaz munduko erririk aurre-ratuenaren pare kulturaz jarten garala kontu egin daigun. Alan be, gurea jokabide zuzena izan dala ezin esan izango genduke.

Olan bada, oneik alderdi biok bakarka aztertu bear dira.

Naikoa kulturarik badogula ta geiagoren bearrik ez dogula esaten ez gatoz. Baiña ¡Jaungoikoarren! Aprika'ko baltz edo Ego Ameriketako indioak baiñiñan geure burua artzea ez da ondo. Gu-re auzo erriak aiña ba-gara kulturaz eta ba-goaz aurrera. Ikaraga-rrizko aurrerakadea egin dogu azkenengo urteetan, nire ume den-poretatik ona, beintzat. Orduan, batez beste urtean batxiller bat ez



zan egiten Ondarru'n. Ta orduan be bost milla bizi lagun ba-ziran gure errian.

Euskal Erria, makiñabat lege-gizon, osagille, industrialari, margolari, eskultore, ereslari, itxastar, misiñolari ta abarren sorlekua izan da. Ta ez dirudi orain artekoakaz dana agortu danik.

Jakiña, oraindik asko bearrean gagoz kultura kontuan; erria jakintzaz jantzi bear dogu ta orretarako, lo-zorrotik esnatu daitean akulua zorrotz erabilli bear da. Baiña gauzak diran lez esanda.

Bigarren kontuan, euskaldun lez, bai, asko galdu dogu.

Buru jabetasuna kendu euskuen, azkenetan daukagu euskerea, beste erriagaz edo erriakaz nastau gara; berba baten esateko, gure nortasuna ia ezereztu egin da.

Euskaldun lez gure izateari eutsi al bageunskio, euskerea indartu ta kanpotarrakaz asko nastau barik irau, biar edo etzi eraldu leitekean Europa alkartuan beste errien eskubide bardiñakaz izan geintekoz. Ostera, gure izakerak galtzen badoguz, euskal nortasuna galtzen badogu, ez eskubiderik eta ez gogorik ez dogu izango Europa'ko errien artean Euskal Erri lez agertu ta berba egiteko.

Aresti jaunak, Euskal Erria'ren aurrerapide ezaugarritzat, euskal antzezleriak New York, Londres edo Mosku'ra deituak izatea, Nobel Saria irabaztea, gure abesti diskoak Europa zear zabaltzea ta antzekoak ipinten ditu.

¡Ez, ez litzake txarto izango orixe! Baiña, ainbat garaitza barik be ondo samar joan geintekoz. Gure langille erriaren premiñak ase daiguzan, kulturaz jantzi daigun berau, gure erriko gizarte mailletan ez bedi alde andirik egon, danen eskubideak ezagutu daiguzan, askatasun osoan bizi gaitezcan, bakea maitatu daigun.

Ara or elburu ederra. Bide orreitan zear aurrera egiten badogu, Nobel Saria barik be ez gara txarto izango.

*GOIZ-ARGI, Garagarrilla, 1967*

## ZER DA POLITIKEA?

Berba au sarri ao miñean erabili arren, politikea zer dan ia ez dakigu. Denpora igarogarri dan zaletasun alperrekoa dala uste dogu politikea, batez be odol berokoak diranen aututarako gai bat. Orregaitik, askok entzun be ez dabe nai izaten politika konturik.

Ta ez; politikea ez da utskeria, politikea bearrekoa da gizartearentzat, gizonarentzat airea baizen bearrekoa. Gizona, antxiña, abere antzera bizi zanean, besteakaz alkartu barik bizi al izango zan; ardi naruz jantzi, eizean artzen ebana jan eta atx zuloetan bizi. Bizitza ori eroan al izateko beste gizonekazko artu-emonik ez eban premiñazkoa. Baiña denporeagaz aurreratzen joan danean, gizonen arteko artu-emonak geitzen joan dira.

Gaur ezin daiteke bakarka bizi gizona. Danok bata besteen premiñan bizi gara. Neu be izerdia jaurti barik ez naz bizi, baiña jaten dodan eta jazten dodan guztia besteak egiña edo sortua izaten da ta bardin nire etxe ta biziteko bear doguzan tresna guztiak be. Gaurko bizimoduak gizona gizartean eratzea eskatzen dau; derriorrekoa da Laterri edo Estaduen eralguntzea. Milla gauza dira Laterriaren zeregiñak diranak. Ara batzuk adibidez:

Bide zabal edo kamiñoak premiñazkoak dira. Bideak ezin daitekez arenak edo onenak izan, bideak danontzat izan bear dira. Beraz, bide orreik egiteko bearrekoa da Laterria.

Diru barik be gaur ez dago biziterik. Danok ez gara zerbaiten jaube geuk bear dogunaren ordaiñez trukateko. Gaiñera, danok zerbaiten jaube bagiña be makiñabat errezagoa da saldu-erosi guztia diru bitartez egitea. Ta danontzat balio daben dirua egiteko be Laterria bear.

Bakotxaren eskubideak zainduteko ta txarkeriak albaitean debekauteko errizaiñak bear diranik iñok ezin ukatu daike, bada danok ez daukagu txarra arpegi emoteko bear aiña indar eta adorerik.

Edo txarto egiñak zuzendu bearra izaten da ta orretarako be epailleak bear dira. Ta orreik guztiok Estaduaren zeregiñak dira; ta beste milla kontutan be Laterria bearrekoa da.

Bai, erriak zuzendu edo gobernau egin bear dira. Ta zeregin oneri ¿zer izen dagokio? Jolasa ez, ertia be ez ta ez beste ezer be politikea baiño. Erriak zuzentzeko zeregin onen izena politikea da. Iztegiak be orixe dala esaten dau politika berbearen esanaia.

Gizonona da politika zeregiña, ez aingeruena edo makiñena. Geu gizonok arduratu bear gara politikeaz. Egia, danok ez gara erri agintari izango, baiña erriari ikutu egiten dautsoen auzietan bai danok arduratu bear genduke.

Asko dira politikeak ez dautsela ardurarik esaten dabeenak. Baiña olangoak be egia osoa ez dabe esaten. Danoi izaten dausku ardurea, semeak soldadutzan denpora asko edo gitxi egin, geure erria gudan sartu edo ez, gasoliña merke edo garesti izan, Estaduak erlejiñoari askatasuna emon edo makillaka erabilli. Ta olan, milla auzitan ontzat emoten dogu edo txarto iruditzen jaku Late-riaren jokabidea.

Beraz, kontu orreik eta orrelangoak arduratzen dituan guztiai (ta nor ez da arduratzen?) politikeak ardurea dautse nai ta eurak ez uste izan. Bada, orixe da politikea jatorriz; erriko problemakaz arduratu, gizarteko buruauste ta goraberakaz arduratu.

Ta politikearen ondorenak danok arduratzen bagaitu, politika auziari lepoa (bizkarra) jaso ta iges egin nai izatea baiño zentzu-nagokoa da arpegi emon eta erriko goraberak alik ondoen kon-pondu daitezkan geure alegiña egitea, berba baten, politikan sar-zea.

Egia, politikea berez zeregin bearrekoa ta danon egitekoa izan arren, bere alderdi guztiak ez dira txalogarri. Makiñabat asarre, gorroto, ta odol ixurtzeren sortzaille be izan da politikea!

Bai, alan da zoritxarrez; baiña ori ta guzti be baztatu eziñe-koa.

*ANAITASUNA 30-5-1966*

## **EUSKERIA TA POLITIKEA**

Berbetak eta politikeak ezetara be alkarregaz zer ikusirik ez dabeenik ez genduke esango. Erriak aske izan edo besteen menpear egon izaten diran goraberek dabeen izena be orixe da, politikea. Olango politikearen bidez berbeta bat baiño geiago il izan dira eta baita indartu be. Ia illean arkitzen ziran berbeta batzuk indar barritu egin izan dira euren erriak buru jaubetasunera eldu diranean. Bat aitatzeko, orra or txekera.

Alan be politikeagaz ez dala nastau bear berbetea esango dogu, alderdi politikuen zoriagaz ez beintzat.

Gure errian, Euskal Erria'n euskerea galtzen joala ikusirik, euskaldun geienon alderdia, E.A.J., berau indartu naian aleginduzan berak al eban eran. Gero zer jazo dan danok dakigu. Euskerea be politika kontu bat bailitzan azpiratua izan da.

Gaur, zorionez, euskerea ez da politikatzat artzen eta bear be ez. Ta aurrerantzean be politikako ekatx eta goraberetatik aske izan daitean alegindu bear gara. Guk olan uste dogu, itxurazko gauzea dalako ta berbeta beraren onerako be obeto dala deritxagulako.

Baiña auzi onetan danok eretxi bardiñekoak ez garala esan leiteke. Gazteak, guri sekula bururatu be egin ez jakun alderditik ikusten asi dira euskerearen arazoa. Euskereari garrantzi geiegi emoten ei dautsagu; euskereak bakarrik ez ei gaitu arduratu bear. Azkenetan daukagu euskerea; euskaldun geienoi ez jaku bat be ardurarik gure berbeteagaitik. Ta au egia izanik, euskera aldeko lanak euskaltzaleak geiegitzat artzea, asmau ezin daitekeana da.

Egia, euskereagaitik bakarrik ez gara arduratu bear. Gure erriari era guztietako askatasunagaz batera aurrerabidea ta gizarte zuzentzea emoten alegindu bear gara. Baiña orretarako, euskerea- ren problemea bere bidetik atara bearrik ez da.

Bere ardura ta alegin guztiak euskereagan bakarrik ipinten dituean iñor nik ez dot ezagutzen. ¿Zein da gure artean, danik euskaltzaleena izanda be, esate baterako, bere sendiko goraberak arduratzen ez dabena? Ta bardin erriko problemaz be. Gaiñera, beste problema guztiak baiño euskerearena larriagoa da. Beste auzi guztiak, gaur konpontzen ez badoguz, biar edo etzi konpondu geinkez. Azken bakoa da etorkizuna denpora modura. Ostera, euskerea, oraintxe indartzen ez badogu, il egingo jaku. Gizon modura auzi bat baiño geiagoren kezkea ta ardurea daukagu, baiña euskaldun modura bere nortasuna sendotzea bakarrik, au da, euskerea, geienbat.

Burges xistimeak euskerea ez dabela indartuko ta proletarizau egin bear dala ta olangoak irakurri doguz. Ez gagoz batera ori diñoenakaz. Berbetak eta politikeak ba-dabeela zer ikusia askotan ba-dakigu. Baiña alderdi edo partiduen politikea beste kontua da ta politika ori ez jako erantzi bear euskereari. Euskera indartze kontua ez da alderdi bateko euskaldunen zeregiña izan bear euskaldun guztiona baiño. Euren buruak euskalduntzat daukezan gizaki ta politika guztiak euskerea indartzearen alde agertu bear litzakez. Ba-dau bai, euskereak, berezko zer ikusia politikeagaz. Euskerea sendotzea gure erriaren nortasuna sendotzea, bere esku-bideak sendotzea da. Berezkoa daben politikeagazko zer ikusi au baiño beste politikarik ez deiogun lotu euskereari.

Gaztelereak, prantzesak eta beste berbetak ez dabe zer ikusirik politikeagaz. Mailla guztietako gaztelarren berbetea da gaztelerea, au da, aberats eta beartsuena; prantzesa be bardin, prantzes guztiena. Euskerea be olantxe izan bear da, euskaldun guztiona. Beraz danona dan izkuntzeari, euskereari, politikeria ta alderdikeria usaifnik zetan emon ez daukagu.

Euskerearen onerako sortzen asi dan mobimentu au ez daigun okertu. Ez gaitazan euskereagaz baliâu beste asmo ta naiâi indarra emoteko, nai ta asmo orreik zuzenak izan.

Era guztietara gure erria jasoten alegindu gaitazan, baiña euskerea politikeagaz nastau barik.

*GOIZ-ARGI*

## **LENGO EUSKALTZALEAK**

Sarri izaten dira eztabaidak idazleen artean. Baiña eztabaidak asmo onez be izan leitekez eta orduan kaltea baiño ona geiago ekarten dabe, argi egiten dabe-ta.

Orain, Zabala Arana zanaz iru-lau idazlan argitaratu dira, Urrutia'tar Gotzon'ek, X'ek, Amale'k be baietz uste dot eta neuk idatzita. Danok idazlan bana eginda autua amaituko zalakoan nengoan; baiña X'ek barriro egin dautso, neuk orretarako aukerako bidea emon da, kontixu. Ta berak egin dabena neuk be egin bear. Baiña au nire azkena izatea nai neuke.

Nire lengo esanak zutiñik geratu dira. Zabala Arana'ren gramatika X'ek ez ebala ezagutuko esan neban; eta umetatik ondo ezagutzen ebala erakutsi dau berak. Ondo da. Baiña Zabala Arana'k gramatika bat soillik idatzi badau, gramatika orren aurka iñok ezin esan daike ezer, iñungo akatsik ez dauko-ta. Bere beste lan batzutan euskera ulertu zailla erabilten ebala, neuk be esaten neban.

Baiña X aldi aretakoa izan balitz, aren idazlanak ulertuko zituân, orain AGUR'en argitaratu dituan atalak bai, beintzat. Baiña oraingo X euskaltzalea da ta euskeraz irakurten dau. Bere aitik euskerea ez ebala irakurten esango neuke, euskereak ez ebala asko kezkatuten; beintzat, ori esan daiteke orduko euskal aldizkarietan argitaratuten ziran errietako barriak ulertu gatxak zirala esaten daben edozeiñegaitik.

Baiña gaur idaztera bultzau nabena, berak X'ek diñoan ondorengo au izan da: «Euskerea politika baten laguntzaille izan zan.»

Berba orreik edo antzekoak sarritan entzun eta irakurri izan doguz azken urteotan: Abertzaleak politikeagaz nastau ebela euskerea, euren politikeari indarra emoteko erabilli ebela ta abar.

Ez da egia au, ezta urrik emon be! Arana Goiri jaio baiño len Euskal Erria, euskaldun erri lez, ilten joan; bere buru jaube izatea galduta, euskerea alderdi askotan ilda ta beste ainbat alderditan ilteko arriskoa; endaz izan daben berezitasun arrigarria dana nastautau kanpotik etorren jende ujolagaz, bere oiturak ta ainbat berezitasun ondatuta edo azkenetan; berba baten, Europa'ko alderdi onetan etniko modura nortasunik nabarmenena izan daben erria ilten, erri lez. Ta Abando'ko semeak Euskal Erria ondamentitik salbau naian, euskal alderdi politikua sortu eban. Ta emen dator nire itauna: Euskal Erria'ren nortasunaren atal edo zati nagusientakoa euskerea izanda, txarto egin eban alderdi arek gure berbetaren alde jokatzear?

Orduan politika alderdi naikoa ba-ziran Euskal Erria'n eta abandotarrak sortutakoa izan ezik, iñor ez zan arduratzen ezer Euskal Erria'ren nortasuna zaintzen; euskerearen kezka txikienik be ez euken, euskerearen alde ezer ez eben egiten. Madrid'era begira jarduten eben alderdi politiko areik euskerea politikan nastau ebenik iñok ez dau esango, euskerea zanik be ez baekien lez bizi ziran da. ¿Ta areina al zan jokabide zuzena? ¿Euskaldun alderdiak be beste alderdiak lez euskereari lepoa emon bear al eutsan? ¿Euskera alde ez al eban lanik egin bear?

Emen ez da iñor dana ondo egiten dabenik, ta euskal partidu arek be zerbait oker egin eikean. Ta Zabala Arana ta lagunene euskereazko jokabidea zuzena izan ez bazan be, geure berbeta onenganako maitasunak eraginda lan ugari egin ebela ukatu eziña da. Gaiñera, Zabala Arana'ren aurka jagi zan Altube be Arana Goiri'ren jarraitzaillea zan, politikan; eta euskeraren auzian Altu-

be'ren eretxiak zituen beste asko be abertzaleak ziran, abandotarraren jarraitzaileak.

Beraz, gaurko euskaltzaleak euskerearen izenean lengo abertzaleen aurka ibiltea, bidebakokeria andiena da. Gaurko euskaltzale gazteak ez beie aztu au: euren gurasoak euskaltzaleak izan badira, Arana Goiri'ren jarraitzaileak izan diralako izan da. Ta aranataarrak izan ez badira, euskaltzaleak be ez dira izan. Beraz, azkenengo onei, euskaltzaleak izan ez diranai, aurka egin deioela baiña ez euren euskaltzaletasunaren oiñarria izan diranai aurka.

Egiari amor emoten ikasi daigun. Autortzen dot nik langilleen alde geien sozialismuak egin dabena. Olantxe, euskera alde, lengo denporetan, abertzaleak bakarrik egin ebela, gazteak be autortu daiela.

X'ek, bere kezkek agertuko ei dauskuz niri ta besteai. Ez dakit nundik joko daben berak. Euskaltzalea, eskolatua ta gaztea da ta euskera soloan lan asko egingo dabela esango neuke, gora elduko dala. Baiña lengo euskaltzale talde bat erriaren aurrean txarto ipinten alegintzea, euskerearen onerako lana danik ez dot uste. Arek, lengo euskaltzaleak, joan ziran; orain geu gagoz emen eta euskereari bizitza indartuko dautsan bidea billatu ta jo ta kei egin bear dogu, batez be zuek gazteok.

Euskaltzaleon artean len be asarre ta nasterik bada ta eztabaida bide barririk ez daigun sortu.

*AGUR, 1972' garrengo Garagarrilla*

## AUZO ALKARTEAK

Auzo Alkartek sortzeko joera andia dago gaur. Ainbat urtean politikarako alkarterik ezin sortu izan da ta orretarako zaletasuna dabeenak, besterik eziñean, Auzo Alkartek sortzen asi dira. Nai dana ezin danean, al dana egiten da. Auzo Alkartekaz be zerbait



politika egin daiteke ta batzuen jokabideari olango usain apurra artzea ez da arritzekoa.

Lenagotik politika askatasunik izan balitz ¿sortuko ete ziran Auzo Alkarteak? Ez dakit; ezetz esango neuke.

Errietan, konpondu bearreko auzi asko dagoz. Baiña errietan beti izan dira zer konponduak eta aurrerantzean be beti izango dira. Ta len, politika askatasun osoagaz bizi giñanean Auzo Alkarteen premiñarik iñok ez eban ikusten; olango alkarteak sortzea iñori ez jakon bururutzen.

Erri gobernurako, beste egiteko barik sortutako alkarteak beti izan dira: Udalak. Jakiña, sortzen diran auzi guztiai erabagi zuzena emotea ez da erreza. Geienetan, erriko arazoan konponketea dirua izaten da. ¿Ta nun izaten da bear aiña diru? Ez dago erriko problemakaz ardurutzen ez dan udalik; danak izango dabe borondatea baiña eziña nagusi, danean.

Orain arteko udalak akats bat izan dabe. Erriak askatasun osoagaz aukeratutako gizonak ez dira izan; goitik ipiñitakoak dira alkateak. Laster gauzak aldatuta ikusiko doguzan ustea dogu. Erri agintariak, erriak berak aukeratutakoak izango dira; alan nai genduke beintzat. Erriko auziai arpegi emoteko gauza diran gizonak aukeratu al izango doguz.

Baiña orduan be Auzo Alkarteak lan ona egin leikee. Bakotxaren auzoetan diran problemak argitara atara ta konponketea zer izan leitekean eretxiak azaldu. Baiña zaletasunez itxaroten dogun aldi barri orretan ez dakit alkarte erreik iraun al izango dabeen. Orduan, politika alderdiak sortzen diranean, erriko, nai auzoetako jendea, bakotxaren gogokoen diran alderdietara zuzenduaz, banatu egingo da-ta.

*EL DIARIO VASCO 11-7-1976*

## EUSKO ALDERDI JELTZALEAREN ELBURUAZ

Berrogei urteko ditadura ostean alderdi politikoak plazaratu diranean, lengo alderdi batzuk naikoa aldatuta agertu dira. Ba-dira euren sortuerako elburuak oso-osorik aldatu dituenak be.

Baiña beste alderdiak izan dabən edo izan ez dabən aldakuntzak ez nau asko arduratzen. Nik, gure alderdiaren, (nire lengoa) Eusko Alderdi Jeltzalearen jokabidea aztertu nai neuke, gai-gaiñetik bada be.

Jeltzale alderdia bere sortzetik oraintsu arte alderdi katolikua izan da izenez eta izatez. Bere elburua, danok dakigun lez, Jaungoikoa eta Lagi Zarra izan da. Eusko Abendaren Ereserkiak agertzen dau ederto berba gitxitan Eusko Alderdi Jeltzaleak erlejiñoa zenbateraiño aintzat artzen eban

Gora ta gora Euzkadi  
aintza ta aintza  
bere goiko Jaun onari

\*\*\*

Aritz gañian dogu  
Gurutza Deuna  
beti gure goiburu.

Lengorik ezagutu ez dabeen gaurko katoliku abertzaleak auzi onetan eusko abertzaletasuna zer izan dan jakin daien gure aldunak, batez be Agirre andiak, Parlamentuan egindako itzaldi ta lanak agertuko leukezan liburu bat norbaitek eratuko baleu lan eder eta mesedegarria egingo leuke.

Gaur, ordea, Eusko Alderdi Jeltzaleak bere elburutik baztatu egin dau, Jaungoikoa. Iruña'n ospatutako batzarrean, gaur gizartean aitatzen diran auzi ta problema guztietaz berba egin zan baiña Jaungoikoa ta erlejiñoaz ez; beintzat an artutako erabagi ta elburuen barri emoten dabən agiriak berbatxo batik be ez dakar Jaungoikoaz edo erlejiñoaz. Auteskundeak dirala-ta egin diran mi-

tiñetan be bardin. ¡Zelango aldea guda aurreko itzaldietatik gaurkoetara! Orduan erlejiño auzia edo erlejiñoak zer ikusi euken auziak aurre-aurrean ipinten ziran.

Ordutik ona berrogei ta geiago urte igaro dirala esango dauskue Eusko Alderdi Jeltzalearen aldakuntza ondo ikusten dabeenak. Baiña len lez orain be, txarra txarra da ta ona ona.

Erlejiñoak politikeagaz zer ikusirik ez baileukean baztartu egin dau Eusko Alderdi Jeltzaleak. Baiña nai ta be baztartu ezin daitekean kontua da erlejiñoa. Denpora asko baiño len, nai ta nai ez, zuzenean edo zearka, tope egingo dogu erlejiñoagaz politikan. Erlejiñoagaz zer ikusi andia dauken auziak mai gaiñeratuko jakuz laster. Besteak beste dibortzioa dala, abortoa dala ta irakaskintza dala eztabaida andiak izango dira. Orduan, Eusko Alderdi Jeltzaleak alde batera edo bestera jo bearko dau. Parlamentoan auzi orreiaz jokabide zuzen eta ziurra artu bearra izango dau.

Bere elburutan Jaungoiko zale edo Jaungoikoaren arerio garbi agertzen dan alderdi politikorik gaur bear bada ez da izango España'n, baiña auzi orreiaz erabagia artu bear danean alderdi geienen jokabidea ezpairik bakoa izango da, ziurra. Alderdi osoak batera edo bestera joko dabe. Alderdietako aldunak bakotxak nai dabeen eran ez dabe jokatu. Geure aldunak be ez kontixu. ¿Ta gure alderdiko aldunak zein aldetara joko dabe? ¿Elizearen irakatsiai jarraituaz ala lepoa emonaz jardungo dabe?

Eusko Alderdi Jeltzalearen gaurko elburu edo zuzenbidea baztarraren naia izan ei da, demokraziarik jatorrenez artuteko erabagia ei da. Auxe ei da ain zuzen eusko alderdirik antxiñakoenak arro-arro esan daikeana: Bere elburu, ibillera ta jokabidea erriak markatzen dabela, alderdikideak nai dabeen zuzenbidean jokatzin dabela ta ez jaun batzuen esanetara. Baiña ni demokrazia zalea izan arren errezoi orreik ez nabe beteten. Politika alderdiak gizon batek edo gizon batzuk sortzen ditue. Esate baterako, politikarako gauza dan gizon batek erria ondo joateko olango edo alango bideak bear litzakezala uste dau ta bere eretxietan oiñarritutako

alderdia sortzen dau ta errian agertu. Gero erriak jarraituko dautso edo ez dautso jarraituko. Baiña alderdi ori indartzen bada, nai ta bere alderdikide geienak alan nai izan, bere oiñarri diran elburuetan ezin aldatu daiteke. Ezta alderdiaren sortzailleak nai badau be.

Oiñarri ez diran milla kontutan alderdikideak nai dabeena egingo da ta ondo egiña izango da. Esate baterako, bere elburuan erregetzarik ez daben alderdi baten erregetza ontzat artu edo ez alderdikideen kontua izango da; baiña alderdi monarkiko bat erregetzearen aurka ezin joan daiteke, nai ta alderdikide guztiak alan nai izan. Erregetzearen aurka agertuko litzakean alderdi monarkikoak une aretatik alderdi monarkikoa izatea laga egingo leuke.

Neure eretxi oneik lenago ez ditut nai izan agertu, E.A.J.ri kalterik txikienik be ez neutsan nai egin auteskundeetan da. Orain, auzi au argitu bearrekoa dalako, neure aletxoak ekarri dot. Alderdi politikoak geienak izenez konfesional agertu nai ez dabeen aldi onetan Eusko Alderdi Jeltzalea'k be itxi egin dau konfesionala izatea lenago esan dogun lez. Baiña izenez ez bada be izatez lengo bideari jarraituko dautsala uste dot eta nai neuke. Ta erlejiñoagaz zer ikusia dauken auzietan, gure alduinak, Agirre ta bere lagunnen urratsai jarraituaz katoliku agertuko dirala uste dot, eurai autarkia emon dautseen geienen edo guztien naia alan izango dalako.

Orduan, Eusko Alderdi Jeltzalea ez dala aldatu, errezoiazgaz esan al izango dogu.

Alan izan daiteala.

*DIARIO VASCO 24-7-1977*

## **KONTU ZARRAKAZ**

Gizonak beti aurrera begiratu bear dabela esaten dogu, bein be ez atzera. Baiña noizik beinka bada be atzera begiratzea ondo dago, daroagun bidea zuzena ete dan ikusteko. Edozetan au, politi-

kan be bai. Demokraziara eldu garanean, ona ekarri gaituan bidean zelan jokatu dogun aztertzeak kalterik ez dausku egingo.

España'ko Demokrazia barriaren oiñarria Erreforma izenez ezagutua izan dan legea edo lege sailla izan da. Gure errialdera Demokrazia bakean ekarteko lege ori onartzea bearrekoa zan. Lege ori onartu ezik, Demokrazia bidea pakean egiterik ez egoan. Lege ori onartu ez balitz, Suarez'ek ez eban zer egiñik Gobernuan. Zer egin bear zan, Demokraziara bakean eroango ginduzana jaurti eta Arias edo Giron edo olango batek Gobernuko agintea artu eiala?

Alan be Erreforma legea onartu edo ez jokatzen zan Erreferendunari Euskal Erri'ko alderdi politiku askok lepoa emon eutsoen; demokrazia-zale ziran alderdi ta gizon askok ez eben onartu lege ori.

Orduan Erreferendunari ezetza emon eutsoen batzuk, gitxik, orain be Korte ta Senadurako gizonak aukeratzeko izan diran auteskundeari ezetza emon dautsoe. Eurak jakingo dabe zegaitik. Baiña euren jokabidea lojikoa izan da; beraz, euren eretxiakaz zuzen jokatu dabe. Baiña len Erreferendunari ezetza emon eutsoen alderdi ta gizon askok oraingo auteskundeari baietza emon dautsoe ta zaletasun andienagaz alegindu dira euren alderdien garaitzaren billa. ¡Aldrebeskeria andiagorik, etxea jaso nai ta zimentarrik ipiñi nai ez!

Len Erreferenduna onartu ez balitz oraingo auteskunderik ez zan izango. Olan jokatu dabenai kostauko jake euren jokabidea zuzena izan zala erakutsi leitekean errezoirik emotea.

¿Espetxean egozan mutillak kaleratzeko Gobernuari gogor egin bear jakola? Bai ta alantxe egin be egin jakon, opor, manifestaziño ta abarregaz. Baiña geure buruari arrika egin ez. Erreforma edo Aldátzea ez zan Gobernuari egiten geuntsan esku-erakutsia, erregalua, geuk nai genduan Demokraziarentzat atea zabaltzea baiño. Espania'k Demokrazia barik aurrera egin al izan baleu,

Gobernuko jendea ez zan Erreformeagaz gogoratuko, berez demokrazia zale ez ziran da. Geu izan gara beti lengo erregimena baztatu ta Demokrazia nagusi ikusi nai izan dogunak. Orretxegaitik gau giñan Erreforma aurrera ataraten geien alegindu bear giñanak.

Egia, danak ez egozan Erreferendunaren aurka. Zatarain'dar Ambrosio'k idazlan bat edo bi argitaratu zituan bera onartzen. Nik neuk be zerbait egin neban Erreferendunaren alde. Amute'n auteskunde onen, au da, Erreferendunaren aurka jendea ipiñi naian egin zan batzar baten, nik, alde berba egin neban, idazlan bat irakurriaz. Jakiña, danak neure aurka jagi ziran. Arein orduko sasi-errezoiak indar andirik ez dauke gaur!

Gure edo nire orduko jokabidearen errezoia agertu naiak ez nakar au idaztera. Auxe esan nai neuke bakarrik: Demagojia nagusitzen dala askotan gure artean. Bein baiño geiagotan, erriaren aurrean makal ez agertzeko, geuk nai genduken lez ez dogu jokatzen; korrenteari jarraitzen dautsagu. Ta au ez! Danen gaiñetik egia dago. Ta egia bear dan lez agertzen badogu ondo erantzungo dau erriak.

*DIARIO VASCO 3-7-1977*

## **UNAMUNO ALA LOROÑO LENAGO?**

«Unamuno ala Loroño. Nor ote lenago?» idazpuruagaz S. Martin jaunak idatzitako artikulua gaia oraindik ez dala agortu uste dot eta aldizkari onen zuzendariari auziari geiegi eragitea dala ez baderitxo, iru-lau berbatxu bada be idatziko neukez.

Ni ez naz gauza filosofia ta filosofu gaiaz berba egiteko, baiña auzi au ez da filosofia kontua bakarrik eta edozeiñek zerbait esan leikeala uste dot.

Idazki aren izenburua irakurrita, aldi baten Jesus edo Barrabas aukeratu bearra judegu erriak izan eban lez euskaldunok be Unamuno edo Loroño aukeratu bearra izan dogula dirudi.

Ta ez da egon olango konturik. Askok, neuk lez, jakin be ez eben egingo Unamuno'ri monumentua egitea erabagi ebenik. Gero, oroitarri ori egitea debekau badabe, ez zan izango Unamuno'ren jakituria ukatzen dabeelako, aren erlejiñorik eza gaurko agintaritzak ontzat ezin emon dabeelako baiño. Baiña euskaldun erriak orretan ez dau euki zer ikusirik.

Debeku orrezaz ez giñala ixildu bear? ¡Ori baiño berba egin bearreko aurreragokorik ba-dago bost!

Unamuno ta Loroño'ren artean ez dago konparaziñorik. Unamuno'ri oroitarria ukatzeak ez dau esan nai a baiño gitxiago diran guztiai ukatu bear jakenik. Loroño'k oroitarria merezi daben ala ez Unamuno'gaz zer ikusirik ez daben beste kontua da.

Auzi onezaz berba egitean lagun batek olango au esan eustan: «Nik ez dakit txirrindulari batek oroitarririk merezi daben ala ez, baiña iñungo txirrindulariren batek merezi badau, Loroño'k, bes-terik ezean, zurezkoa bada be merezi dau; baiña Unamuno'k Euskal Erria'n ez dau merezi. Ortik zear, bear bada Japon'en egin deioela gizon argi bat goratu naian, baiña gure errian ez, euskotar txar bat izan da-ta.»

Nik ez dot sekula Unamuno'ren ezer irakurri, nik berazaz ez dakit ezer besteak esandakoa izan ezik. Ta beste orreik, katoliku euskotarrak, katolikotasun eta euskalduntasunaren aurkakotzat ipiñi dauste Unamuno.

Orratio, bere gauzatxo bategaz gomutaten naz. Errepublika denporea zan eta uste dot (ez nago ziur) Estatutoagazko eztabai-dea zala Madrid'ko aldun-etxean. Unamuno'k, bere ustez euskera garbizaleak oker erabilten eben berba bat oiñarritzat arturik, euskerearen aurkako berbaldi luzea egin eban antxe aldun-etxean, euskerea begi txarrez ikusten eben guztien txaloak irabaziaz.

Unamuno gizon argia izango zan kontixu, baiña neuk be ogerleko bat ez neuke emongo berari monumentua jasoteko. Ez katoliku modura ta ez euskaldun modura.

Ta Unamuno'gaz amaituta guazen aurrera. Beste edozein filosofo edo gizon argiri oroitarria ukatu ta kirolzale bateri erriak jasoko baleuskio be iñor ez daiteala gora-goraka jarri, iñor ez daiteala eskandalizau. Geu ta intelektualak be bai, bizi gaitezau, gazte-gaztetik lanari eldu bearra izaten dogun erriak kultura gizon eta kultura konturik gitxi jakiten dogu ta jakiten ez dan gauzarik ez da ezagutzen eta ezagutzen ez dan gauzarik ez da maitatzen.

Daneko kontua da ori. Erririk aurreratuenetan be nire ustez, sportman entzutetsu bat obeto ikusten da jakituri andiko beste gizon bat baiño.

Au ez dagoala ondo neuk be esaten dot. Fleming'en ondoan munduan izan diran kirolzale guztiak batera be ez dira ezer. Baiña baita, jakituria utsa ez dala ezer be egia da, jakituria ori gizadiaren onerako ez bada.

Ainbeste aldezlari sutsu daukazan Unamuno'ren irakatsiak bateri baiño geiagori on egingo eutsean, kontixu.

*ZERUKO ARGIA 8-9-1963*



## **EUSKERA**

### **EUTSI EUSKEREARI**

Lotsagarria da aspaldiko urteetan euskaldunok geure izkuntzeagaz, daukagun ardurarik eza. Egunetik egunera gitxiago berba egiten dala ikusi, olan jarraitzen badogu luzaro baiña len betiko galduko dala jakin, eta ezer be ez dogu egiten bere alde. Euskera alde egiteko girorik ez dagoala ta ¡Kito!

Euskerearen ondamendira joate onen errua besteai emon eta buruauste bat, zeregin bat kentzen dogu. ¡Ara or ederto! Baiña ez; gauzak diran moduan esan bear doguz. Euskerearen alde egiteko azkenengo urte oneik onenak izan ez badira be, egiten dogun baiña milla bidar geiago egin geinkean.

Euskerea galduko ete da gero? bear bada norbaitek esango dau. Aspaldi asi ei giñan euskerea galtzen doala esaten baiña oraindik bizirik dirauala ta galdu be ez dala egingo, bein baiña sarrigotan entzun izan dogu. Ez dagoz zuzen au diñoenak. Orain

ogei urte euskeraz bakarrik egiten zan erri askotan, gaur gazteak erderea besterik ez darabille ezpanetan. Ostera, len euskerarik egin ez eta gaur egiten dan erri bat ez dogu ikusi. Gaiñera, lengo konturik ez dago orain. Len erririk geienetan euskaldun utsak bizi giñan. Irakurri be gitxi egiten zan. Ez egoan ez irrati ta ez zinerik. Berba baten: Erdaldun eta erdera barik bizi giñan.

Gaur, ostera, eguneroko ogi billa etorrita, Euskal Erri guztia erdaldunez bete jaku. Izparringi, zine ta gaiñerako guztia nai ta nai ez erdera utsean iruntsi eragiten dauskue. Orregaitik, gaur, sekula baiño bizkorrago doa eriotzako bidean euskerea.

Ba-dira ostera, eriotzara eroango daben gatzak jota dagoala euskerea ta berari indarra emoten jardutea alperreko lana dala diñoenak, luzaro baiño len il egingo dala-ta. Oneik be oker dagoz. Egia esan, munduko beste gauza guztiak lez berbetak be il egiten dira; batzutan, il ez, aldatu baiño. Beintzat, il edo aldatu, lenago egiten ziran berbeta asko gaur ez dira berba egiten. Baiña berbetak ez dauke munduko beste gauza askok lez il bearrik onenbeste denpora barru. Gizonak geienez eun eta ogei urtean biziko da; abere mota bakotxa be onenbeste edo arenbeste ta bardin zugatz eta gaiñerako mendiko izaki guztiak be. Baiña berbetak ez; berbetak geienetan politikeari lotuta dagoz. Esate baterako, gaur ludi guztian ain zabal eta indartsu dagoan ingles berbetea larri arkituko litzake, Errusi'k Amerika zapalduko baleu. Ez dau, bada, euskereak nai ta nai ez il bearrik. Baiña ilgo balitz, geuk euskaldunok alan nai izan dogulako izango litzake.

Zer egin dau aspaldi onetan bere burua euskaltzaletzat daben erriak? Askotan, ikastoletan Aita Gurea erderaz irakasten dautsee-la ta etxean euskeraz irakasteko be ez dira izan.

Ta zer egin dabe ta egiten dabe euskera kontuko jakintsuak? Euskerearen aztarrenak eta, ezin atarata or dabiltz burua austen, ta bitartean, bera berbetea, noiz ilgo. ¡Bost ardura euskereari ta geuri be bai, bere sortzea Kaukaso'n nai Korea'n izan, laster il bear ba-dau!

Euskera aldeko lanik bearrekoena, lenengoa, euskaldunai euren berbetearenganako maitasuna sortzea da. Aren ondoren ondo dira beste auzi guztien azterketak, bai euskerea nundik datorren eta gaiñontzeko kontu guztiak.

¡Esnatu gaitez euskaldunok! Millaka urtetan gure erriak berba egin daben berbeteari ez deiogun eriotzarik emon gaurko euskaldunok. Dana izan da euskerea guretzat. Euskereak emon dauskuz ain arro agertzen doguzan abizenak. Euskeratik artu ditue euren izenak gure erri, mendi ta bazterrak. Ta baita (au andiena) euskaldun izena bera be euskeratik artu dogu.

Beraz, euskaldun izate guztia euskereari zor badautsagu, ezin deikiogu ezelan, berari, galtzen itxi. Ta geuk nai ez badogu, ez da ilgo euskerea, indartu egingo da, Europa bertan erri bat baiño geiagotan noiz ilgo egozan berbetak indar barriakaz euren burua jaso dabe, bertakoak benetako maitasunez berbetearen alde asi diranean. Ara or txekera ta turkera. Geuk be beste ainbeste egin daikegu.

Barriro be ba-diñot: ¡Esnatu gaitez euskaldunok! Ta geroko itxi barik, danok, gagozan maillan al dogun guztia egin daigun asabengandik artu dogun berbetearen alde. Milla modutara lan egin geinke euskerea indartzeko; baiña batez be izparringi bitartez. Askok ogia baizen bearrekoa dau eguneroko izparringia. Ta bertan irakurten dabeen asmoetara apurka euren gogoak jarten dira.

Gaurko gazteen euskalduntasuna ez dago galduta lotan baiño. Loroño ta Atletik'en egitadak, oneik biok euskaldunak diralako, arro ta pozik goratzen dituan gaztediak, euskerea be maitatuko leuke, geuretzat berau zer dan baleki. Ta auxe irakatsi bear jako izparringi bitartez.

Euskereagaitik milla egi esan leitekez, gazteen biotzak bera maitatzen ipiñiko leukezan milla egi. Orretara zuzendu beiez bada euren idazkiak gure idazleak gazte ta umeengan euskereaganako

maitasun bizia sortu daitean, gero ta indartsuago ta gero ta beroa-  
goa izan daitean euren euskaltzaletasuna.

### *ZERUKO ARGIA 1957'ko Loreilla ta Bagilla*

OARRA:

Ogei urte inguruan ixilik egon eta gero lenengo egin neban  
idazlana da au.

### **EZ DEIOGUN LAGA ILTEN EUSKEREARI**

Geure maitasunen artean euskereaganakoa aurrenetakoa  
dogunok, miñez irakurriko genduzala uste dot, azkenengo ZERU-  
KO ARGIA'k euskerearen atzerakadeaz dakarzan albista edo ba-  
rriak.

Nik neuk euskereak atzerakada gogorra daroala jakiteko iñok  
esan bearrik ez daukadan arren berau zenbakitan ikusi dodanean,  
arrituta geratu naz. Ogei urtean 100.000 euskaldunek euskeraz  
berba egiteari laga ei dautsoe. Ta 500.000 baiño besterik ez ei ga-  
ra geratzen euskeraz berba egiten dogunok.

Ara or, euskerea maite dogunoi loa kentzeko lain diran zenba-  
kiak. Eta gero, euskerea ez dala galduko ta berari ariñegi illetak  
abestuten diarduela batzuk, sarritan entzuten dogu, Arantzazu'n  
egin diran euskal batzar bietan be euskerea ez dala ilgo, batek bai-  
ño geiagok esan dau.

Euskerearen etorkizunaren barri Jaungoikoak bakarrik daki.  
Beraz, ezin esan ilgo danik edo ilgo ez danik; baiña il leitekeala,  
bai; ta bere alde orain arte baiño geiago ez egitekotan, ilgo dala be  
bai. Edestiak diñozkunez, berbeta asko betiko galdu dira, aztarre-  
nik be itxi barik.

Ni ez nator euskerearen illetarik abestuten. Ain zuzen be, eus-  
kerearen eriotzeak min andia emoten daustalako, euskerearen ille-

tarik entzun gura ez dodalako, nire egite guztia arazo onetan, nik al dodan guztia, berari indarra emon eta zabaltzeko izaten da.

Orregaitik egiten dot gaurko didar au be ta ZERUKO AR-GIA'ren irakurle guztien barruan durundi zaratatsu bat egin daiala nai neuke. ¡Euskerea ia illean dago! Euskaldunoi geure izakerea emon dauskun berbeta maite au ba-doakigu ta belaundi gitxi barru joan be, bere alde bide barriak artzen ez badoguz.

Euskerea maite izan edo maite dogula esan bai, baiña bere alde nekerik artzeko gogorik euki ez dogulako atxaki politagaz baliu izan gara orain arte. Zera, orretarako ez dala girorik egon, lanik egiteko ez dogula erreztasunik euki. Baiña ori erdiz besterik ez da egia. Orain ogei edo ogetabost urte euskaldun uts ziran erri askotan, gaur, gazteak ez dakie euskeraz edo jakinda be ez dabe berbarik egiten. Orduan politika kontuan euskaldun on lez agertzen ziran gurasoak egiz euskaldun onak izan balira, euskeraz berba egingo leukee gaur euren seme-alabak, norbere umeai sendi barruan euskeraz berba egin eta euren biotzetan euskereaganako maitasuna ereiten iñok ez dau debekau-ta.

Gaur, giroa obetu dalako edo bildurrak uxatu doguzalako, lan geiago egiten dogu. Alan be ori ez da ezer, dagigun guztia, nai olerki batzaldiak dirala, nai antzerki sari sariketak dirala, nai beste edozer olango, geure kolkorako, euskaltzaleon barrutian geratzeko egiten doguz-da. Gure lanen oiartzunik ez da erriarengana el-tzen. Beraz euskerea gaizkatu nai badogu, orain arte baiño gogotsuago ekin bear dautsagu bere alde. Legepean baiña burutsu ta ausarditsu.

Arantzazu'n ikusi zanez, jendea, euskal idazle jendea, irakiten dago ia illean dagoan gure berbeta zar eta maite onen alde jokatze-ko.

Euskerearen alde milla modutara lan egin daikegu. Baiña da-gigunik geiena erriarengana zuzendutako lana izan bear da. Be-raz, lo dagoan erria esnatzeko zarata geiago atara bear dogu eus-kerearen alde.

Euskaltzaindiko ta edozer arazotan goian arkitzen diran eta gaurko agintariakaz ondo dagozan euskaltzale guztiak, au da euskaltzale intelektualak, agintariakana zuzendu bediz eta euskerearentzat erreztasunak eta eskubideak eskatzeko ausardia izan begie. Olan jokatuta ez letorkee ezetariko kalterik eta ba-leiteke euskerearentzat onura asko lortzea.

Euskaltzale guztiak gaurtik asi gaitezana bakotxa bere maillan euskerearen alde al dogun guztia egiten. Ez laga biarko, ori beranduegi izango litzake-ta.

*ZERUKO ARGIA, 1957'ko Garagarrilla*

## **¿ZEGAITIK MAITATU BEAR DOGU EUSKEREAA?**

Berbaldi bateri buruz

Aurten baten gazte baten euskera aldeko berbaldia entzuteko aukerea izan neban. Euskereari elduten eutsoen bere esanetatik eunekok larogetamar ontzat emon nituan. Baiña bere esate batzuk, eta garrantzitsuenak gaiñera, ezin ontzat emon daitezkez.

Berbetea ez ei da norbere gogamenak azaltzeko tresna bakarrik; berbeteak emoten ei dautso gizonari bere nortasuna, berbeteak eratzen ei dau gizona.

Ara bere berba batzuk:

«Sartre'k esaten du, NI NAIZ NIK ESATEN DEDANA. Onek esaten du izkuntza baten bidez pentsatzen degula. Orduan ez da izkuntza pentsatuta gero guk pentsatzen deguna beste bateri esateko tresna. Ala balitz, izkuntzak pentsatzen dedanarekin zer ikusirik ez balu, berdin litzakit euskeraz edo erderaz esan, frantzes esan edo alemanez esan.

Nik pentsatzen dedanak nola zer ikusirik ez dakan itz egiten dedan izkuntzarekin, nik itz egingo det edozein izkuntzetan. Ori

ola balitz noski euskera utziko nuke alde batera eta asiko nintzake gaur bertan izkuntza zabalagoa egiten, erdera, gaztelania, inglesa.

Izkuntzak garrantzia du, gizonarentzat duelako. Gizonagandik aparte, izkuntza batere ez zaigu interesatzen. Guri interesatzen zaiguna azkenera begira ez da euskera ta ez ezer, ezta Euskal Erria ere; guri interesatzen zaiguna da gizona. Euskal Erria interesatzen zaigu Euskal Errian bizi dan gizonarentzat bearrezkoa iduritzen zaigulako.»

Oneraiño bere berbak.

Berbetearen balio garrantzitsu agirikoa, pentsamentuen adierazi tresna izatea da. Au iñok ezin ukatu leike. Bestea, gizonari nortasuna emoten dautsala, berbeteak gizona eratu egiten dabela, eztabaida asko sortu leikean kontua da. Alan bada, euskereak euskaldun gizonari gizon izakerea emoten badautso, izakera ori onerakoa ala txarrerakoa dan da garrantzizko kontua. Itauñ auxe berai egin neutsan, baiña ez ekian zer erantzun.

Orduan euskereak gizon modura kaxkarrak egingo baginduz be, ¿bere alde jokatu bear ete genduke bada?

Euskal Erri'ko gizonarentzat bearrekoa dala euskerea? ¿Zetarako? Gaur, beintzat, ogia irabazteko ez. Ezta kulturea bereganatzeko be. Gaur euskaldunik geienak erdera artu dabe euren berbetatzat. Ta ez daigun aztu, zera, Unamuno'k, ain zuzen kulturearen izenean, euskerea baztartzeko eskatzen euskula euskaldunoi.

Euskereak gure gizontasunean zer eragipen izan daikean ez dakit. Baiña argi ta garbi ikusten doguna beste au da: Zera, euskera barik ez garala euskaldun osoak, euskereak egiten gaituala euskaldun, euskerea bearrekoa dogula euskaldun izateko.

Naikoa errezoi ba-dala uste dot bere ona nai izateko.

Gazte arek ziñoan: «Gizonagandik aparte izkuntza batere ez zaigu interesatzen.»

Nai doguzan eretxiak esateko eskubidea dogu guztiok, baiña euren buruak euskaltzaletzat dituenen eretxiak dirala orreik ezin ulertu dogu ez da errez ulertzekoa be-ta. Edozein lurraldetan, berbetegaz gaiñera euronak diran oitura, eresi ta abar maite izaten ditue. Orixe, eurenak diralako ta beste barik. Gure artean be bardin jazoten da; euskal dantza, abesti, jolas, bertsolariketa ta abar maite-maite doguz euskaldunok, euskalduntasuna sentiduten dogunok beiñepein. Ez, orreik gure gizon izateari zerbait erantsiten dautsoelakoan, geureak diralako baiña, euskaldun nortasunaren atalak diralako.

Beraz, gauza guzti orreik, geureak diralako ta beste barik begi onez ikusten badoguz, milla bidar errezoi geiagogaz euskerea aldeztu bear dogu, euskalduntasunaren oiñarria da-ta.

Ara onezaz izlari berak zer esan eban:

«Euskal Erria izateko daukagun berezitasun inportanteena berbetea da. Euskerea galduta be bear bada erri aurreratua izango giñake, baño erri euskaldun ez.»

Ikusten danez esaldi onetan gugaz batera dago. ¿Orduan zer sentidu dauke aurrerago ipiñi doguzan bere esanak eta esan zituan olango beste berba askok?

Euskera alde jarduteko errezoi jatorren ordez duda-mudako barriak maira atara bearrik ez dago, olangoak euskereari lagun barririk ez dautsoe irabazten-da ta lendik euskaltzale diran entzuleak otz-otz laga.

*GOIZ ARGI, Loreilla, 1971*

## **EUSKEREAREN ZABALKUNDEA EGITEKO DA**

Arenaza'tar Josu'ren «Euskera sartu adi etxera» idazlanak bultz egin daust lenagotik egin naian nenbillen au egitera.

Ez dakit salbauko ete dogun euskerea. Orain artean lez aurrantzean be etorri ta etorri badatoz erdaldunak gure Euskal



Erri'ra, aukera guztiak eskuratzen doguzala be errez ez da izango. Ziur dakidana beste au da: Zera, orain arteko jokabideakaz, au da, lengoen gaiñera beste bide batzuk urratzen ez badoguz, euskereak bururik ez dabela jasoko, il egingo jakula.

Gaur, jendearen itxaropen guztiak ikastoletan ipiñita dagoz. Euskaldunak ikastola arazoan egiten diardugun lanak bardiñik ez dauko barruan gaukazan España Lateralako beste errialdeetan.

Izan be, ikastolak bearrekoak dira edozein berbeta aurrera atarateko. Ikastoletan erabilten ez diran berbetak ezin daikee luzarotan bizirik iraun erri aurreratuetan. Euskerea antxiñatik ikastolan erabili izan balitz edozetarako gauza izango zan eta danean erabiliko zan eta ez zan gaurko egoera larrian arkituko.

Baiña ikastolak bakarrik ez dautsoe indarra ekarriko euskereari; euskal ikastolak askotaz ugariago zabalduta be orregaz bakarrik ez dogu salbauko euskerea. Umeak, ikastolan euskerea ikasi arren gero etxe ta kaleko erdal giroak erderara ipiñiko ditu.

Bai, sinisgatxa badirudi be, umeak ikastolara bialtzen dituen etxe askotan erdere besterik ez da berbarik egiten. Euren burua euskaltzaletzat eukita be, euskeraz berba egitea baiño matraillekoa artzea naiago dabeen guraso askori ederto etorri jake euskal ikastolea. Illeko laurleko batzuen truke euskereari zearo lepoa emoteko eskubidea lortu dabeela uste dabe. Beste guraso askok berba egingo dautsee euskeraz umeai, baiña orixe, umeai soillik eta euren aurrean alkarregaz erderaz jardungo dabe.

Bai, euskeraz berba egiteko jakin egin bear da, baiña orregaz ez da dana egiten. Euskerea dakien asko dira oraindik Bizkaia ta Gipuzkoa'n, baiña berba egin, gitxik; gazteen artean beintzat.

Auxe da lenengoa, ikastolak eurak baiño lenagokoa; euskeraz dakienak berba egin daien alegintzea. Gurasoak etxean irakatsi deioela euren umeai. Ta dakien guztiak, gazteak eta danak euskeraz berba daiela etxean eta kalean.

Gauza edo errezoï askogaitik jendeak ez dau euskeraz berba egiten: Euskaltzaletasunik sentiduten ez dabelako, irabazteko baliio ez dabelako, ta berba egiteko doguzan errezoïak ezagutzen ez ditualako. Amar euskaldunetatik bederatzik euskera aldeko berba bakar bat sekula ez eben entzungo.

Erakutsi deioguzan euskeraz berba egiteko doguzan errezoïak. Euskera barrutian doguzan auzi guztien artean auxe lenen ipiñi bear dogu, euskerearen alde doguzan errezoïak erri osoari jakin eragitea. Elburu au izango leuken zabalkundea eratu bear dogu.

Euskaltzaindiak edo Euskerazaleak edo olangoren batek zabalkunde onen ardurea artuko baleu obe; baiña goikoak zer egin edo zer aginduko dauskuen zain denporea galdu barik, asi lanean guztiok, geure kalean, geure errian, geure indarrez edo alez eldu geïntekezan toki danetan. Erri askotan dira euskera aldeko taldeak ikastola auziari arpegia emonda dabiltzanak. Oneitxek artu bear leukee euren gain arazo au. Ganoraz egin ezkeru ezer be ez mese-degarriaririk euskerearentzat.

Zabalkunde au euskera alderako izan daiteala bakarrik eta ez orren izenean edo atxakiagaz berorregaz zer ikusirik ez dabeen beste kontu batzuei indarra emoteko. Olan egin ezik, ona bearrean kaltea besterik ez geunskio ekarriko.

Euskera zaletasuna erriari sartzeko era askotara lan egin leiteke, baiña erarik onena, idazki bidez euskerearen alde berba egiten etxeetara ta, joatea izango litzake. Itzaldietara ta, lau katu besterik ez dira joaten, eta eurak lendik euskaltzale diranak. Euskerea maitte ez dabenengana, jakinda be berba egiten ez dabenengana eldu bear gara geure idazkiakaz. Alik berbarik gitxienakaz alik gauza geien esanaz; biotzetan ikutu egiteko modura. Ta iñor ez arritu diñodanaz: erderaz idatzita. Euskeraz idatzita geienak ez leuskigu irakurriko-ta.

Lenengo euren euskaldun izatea zirikatatu ta al bada biztu. Euskereagaitik garala euskaldun, euskerea sekula izan ez balitz ez giñala euskaldunak izango ta euskerea jakin eta berba egiten ez da-

beenak euskaldun txarrak dirala, euren erriaren saltzailleak. Gaur gure errian bearrekoa dan erdera jakiteko euskerea baztatu bearrik ez dagoala, euskaldun askok dakiguzan lez biak jakin leitekezala-ta. Andi ustein euskerea baztatu, jakin eta berba ez egin eta norbere seme-alabai ez irakastea barregarrikeriarik andiena dala. (Negargarria be bai, ¡Bai orixe!) Karrerako gizon askok dakiela euskeraz berba egiten eta orrek ez dautsela kalterik egin euren ikasketak ondo egiteko. Ta edozer gauzetan be, jakitea, kultura geiagokoa izatea dala ez jakitea baiño; ta euskera kontuan be bardin. Mundu zabaleko jakintsu askok ardura ta zaletasun andiagaz euskereari begiratzen dautsoela, Europa'ko berbeta zarrena izanik antxiñako bizitzako kontu asko argitzeko beste berbetak baiño geiago balio dabela-ta. Izan be, gure euskerea benetan dala antxiñakoa, bada, gaztelerak, prantzesak, italiarrak eta emen inguruko beste berbeta guztiak milla urte inguru baiño geiago ez dituela ta euskereak gitxienez lau milla urte ba-dituala. Jesukristo munduan bizi izan zanean ez zirala oraindik berbeta orreik eta orduko zarra zala euskerea, antxiñakoa zala.

Olantxe, euskerearen alde esan leitekezan errezoiak ipiñita idazkiak egin eta etxeetara eroan. Baiña ez umeen eskuz, jaboï auts zabalkundeko paperak edo antzekoak bailitzan ate azpitik-eta, sartuaz. Ez, pertsona nagusiak biñako taldeka-edo, atea jo ta etxeetako nagusiai eskuetara emonaz, gauzeari garrantzia emoteko.

Jakiña, era geiago be ba-dagoz euskerearen zabalkundea egiteko; egunerokoetan idatzi, esloganak ipiñi ta abar. Baiña orixe, egoki idatzitako idazkiak etxeetara zabaltzea onena nire ustez.

Ta amaitzeko. Euskalerritasunak salbau bear dau euskerea edo bestelan il egingo da. Alan be asko euskereari begira ipinteko, ogia irabazteko be balio daiala lortu bear dogu. Jendeari atsegin jakozan zeregin edo joango litzakean lan tokietan euskerea eskatu daiela. Auxe, balio au; emotea guztiz ondo etorriko litzakio euskereari.

Beraz, berandu izan baiño len oraintxe alegindu gaitazan euskereari indarra emon eikioen zabalkunde lanetan.

*GOIZ-ARGI, Lotzaila, 1971*

## **EUSKEREAREN ALDE ERRIAI ZUZENEAN BERBA EGIN DEIOGUN**

Laspiur'ek baten ZERUKO ARGIA'n asierea emon eutsan gaiari jarraitzera joala ta aita Agirretxe'k GOIZ-ARGIn (172zenbakian) aitaturten eban gaiari ekin nai neuskio, lenago be sarritan egin izan dautsadan lez.

Orain arte egundo egin ez dan aiña lan egiten da gaur euskal kulturearen alde. Danen gaiñetik or da euskal ikastolearen lana, ta ortik kanpora, edozer gaitaz argitaratuten diran idazti sail ugaria, aldizkariak, abesti jaiak eta diskoak, itzaldiak eta dantzak; lanean Euskaltzaindia, bardin Euskerazaleak eta baita alde bitan banatu garan euskal idazleak be.

Alan be euskerea beruntz eta abiada bizian gaiñera. Il zorian, agonian sartu dala esan daiteke. Euskerearen berakada onen errua gauza askori egotzi geinkioe, baiña danen gaiñetik euskaldunon euskaltzaletasunik ezari, edo errizaletasunik ezari.

Euskaldunok ez dogu maite gure erria. Txoritxiki (txakurtxiki) bat balio ez dabeen gauzetan euskalerrizale andi agertzen gara. Loroño edo Athletic edo Urtain'en alde auzkan be asiko giñake, baiña gure erriaren nortasuna osotzen dabeen izakerak galdu arren ez dausku ardurarik. Kezka gitxi emoten dausku geienoi euskerearen etorkizun baltzak. Gure erriaren buru jaubetasun barik zer egiñik ez ei daukagu auzi onetan. Euskerearen alde nekatzeko gogorik ez dabeenen aitzakia da ori.

Egia, edozein errik be, bere buru jaube dala lan geiago egin al izango dau bere berbetearen alde. Txekoak-eta, bizitasun gogorra emon dautsoe euren berbeteari askatasuna lortu ebenetik. Baiña

alango edo onango goraberetan egingo gendukeanaren kezkarik ez daigun izan, gaur egin geinkeanarena baiño. Bai, nai dogun guztia ezin egin izango dogu gaur euskerearen alde, baiña egiten dogun baiño geiago bai. Ez diñot ezer egin barik gagozanik; ma-kiñabat gauza egiten dira gaur, baiña orain arteko lanakaz gauza on gitxi atara badogu, lengoez gain beste bide barriak artu bear doguz.

Legeak ezetarako ez dabeela aintzat artzen euskerea ikusirik, bizitzako gorabera guztietatik baztartua dala ikusirik, errizaletasunik ez daben euskaldun sail andiak lepoa emon dautsoe; ez dau maite.

Beraz, ementxe daukagu egiteko garrantzitsua; zuzenean joan gaitez an erriarengana euskerearen alde berba egiten.

Gure aldizkarietan-da, egiten dala lan au esango dabe irakurle askok. Bai, alantxe da, ondo edo ez ain ondo, zerbait egiten da. Baiña euskal aldizkaririk egundo eskuetan artu ez dabeenak asko ta asko dira gure errian, geienak. Orreikana eldu bear gara bada, gure berbetearan alde burutsu berba egiñaz, orri, eslogan eta abarren bitartez erriaren euskaldun izatea zirikatatu ta biztutera.

Aita Agirretxe'ren ondorengo berbak bultzauta asi naz gaurko au egiten:

«Donibane Loitzun'en ikusi barriak ditut egun batez millatik gora dantzari, euskal festa egiten. An itzaldi sutsu bat faltatu zan, an bildu zan jendetzari euskera geiago biziki eskatzeko.»

Auxe da euskera aldeko lanetan lenengoa, euskerearen alde diran errezoien barri erriari emon, euskeraz berba egiteko diran errezoiak jakin eragin.

Euskerearen aldeko beste bide ona, berari balioa emotea izango litzake, ogia irabazteko premiñazkoa izan daiteala euskerea. Alan izan ezkerro, gaur baztartuta dauken askok be egingo leukee euskeraz berba, aleginduko litzakez euren umeak ikasi daien.

Au danau lortu al izateko, elburu batera joten dabeen bide bietan ganoraz edo pulamentuz lana egiteko eralguntza on bat bearko litzake.

Or diardugu AGUR eta GOIZ-ARGI'koak euskera aldeko lanetarako bideak zabaldu naian. Ona emen zeregin bikaiña, bikaiñik bada. Asmo oneik egi biurtzen alegindu gaitezana, elburu au geuretzat egin daigun. Baiña ez taldekeriarik sortzeko eran.

Gure taldekoak ez diranak be egiteko onen alderdi ona ikusirik eurak be arazoari ekin deioela, al bada onetan guztiok alkar-tuaz, edo beintzat ez arerio lez.

*GOIZ-ARGI 175' garren zenbakia*

## **EUSKEREAREN ZABALKUNDEA EGIN DAIGUN**

Euskereari kaltea dakartsoenak gauza asko dira, baiña kaltegarriena gure beraganako maitasunik eza. Euskaldunok, gitxi batzuk kenduta, ez dogu maite gure berbetarik, eta askok iguin edo ezin ikusia be ba-dautsoe. Euskaldun geienontzat euskereak ez dau ezer esan nai, ez dauko baliorik.

Guzti au gure errizaletasunik ezaren ondorena da. Izan be, Euskal Erria Euskal Erria lez maite ez badogu, Euskal Erria'ren nortasun eta berezitasunak ardurarik ez badauskue, zegaitik arduratu ogia irabazteko balio ez daben eta kulturarako be erderak baiño askotaz gitxiago balio daben berbetaegaz?

Ni ez naz itxaropentsu euskerearen etorkizunagaz. Ta au, batez be, euskera aldeko mobimentua sortzeko gauza ez garalako, orretarako gizonik gure artean agertzen ez dalako.

Egia, Europa'n biztu diran berbeta bakanak erri orreik euren buru jaube izatera eldu diralako izan da, erri agintea eskuetaratu izan dabeenean euren berbetentzat egoki diran erabagiak artu al izan dituelako. Ta, ez gagoz era bardiñean eurak eta gu. Baiña

egin doguna baiño geiago egin eitekean. Israel'ek askatasuna lortu baiño lenagotik bere berbetea sendabidean sartuta egoan. Geienbat gizon baten lana izan zan israeldar berbetearen indar barritzea: Eliezer Ben Yehuda jaun aren izena. Baiña Yehuda'ren alegiñak ondoren andirik ez eban izango, mundu zabalean zabaldu euzan judeguak euren aberri miña izan ez balebe.

Euskereak, burua jasoteko, derrior Ben Yehuda lango gizona edo gizonak bearrekoak dituala esaten ez nator. Alango gizonak munduan noizik bein bakarrik jaioten dira. Baiña, orratio, euskera alde ainbat urtean jardun eta aurrerakada andiangoa egin eikean gure berbetea onek!

Egia, ez da lan txikia jendeak euskal ikastoleari buruz egiten diarduana. Alan be ori ez da naikoa euskereari bizirik iraun eragiteko; ezta lau bidar euskal ikastola geiago ipiñita be.

Euskerea jakitea ez da naikoa. Bizkaia'n eta Gipuzkoa'n, jakin, askok dakigu, baiña berba egin, gitxik. Euskeraz dakien guztiak berba egingo balebe ta euren seme-alabai irakatsi, galtzeko arriskurik ez leuke izango gure berbeteak. Baiña jendeak ez dau maite euskerea; askok, gazte jendeak batez be, gitxitzat dauko, atzerabidetzat, eta ez dau nai berbarik egin.

Jendearen pentsa modu au aldatuteko, erriari euskereaganako maitasuna sartzeko, ez da ezer egiten. Iñok ez dau ezer egiten; ez Euskaltzaindiak, ez Euskerazaleak, ez Principe de Viana'koak eta ez beste iñok. Azkenengo oneik bioen alfabetatze edo euskera irakaste lana txalogarria da ta baita Gipuzkoa'ko talde batzuk egiten diarduena be; baiña jendeari euskera zaletasuna sartzen ezer egin bear danik iñori ez jako bururatzen.

Nik kontu onezaz ara ta ona, ari ta oneri asko idatzi izan dau-tset, baiña nire esanak zoroen esantzat artuak izan dirala uste dot, beintzat, geienetan erantzunik be ez dot izan.

Askoren euskereagazko arduratze au jolasa, denpora igarogarrria ete dan be bein baiño geiagotan egon izan naz.

Era onetan alperrik gabiltz. Euskereak bizirik irautea nai badogu, bere aldeko zabalkundea egin bear da. Bere alde diran erre-zoiak jendeari jakin eragin bear dautsaguz, bere aurka esaten diranak ukatzen alegindu gaitezana, euskalduntasuna sentidu daiala. Euskeraz nai euskerearen gaiñean egiten diran egintzak, geienetan geuretzat, lendik euskaltzale garanontzat izaten dira bakarrik, geure barrutian geratzen dira. Euskal antzerkia ikustera, esate baterako, euskerea baztatu dabeen gitxi ikusten ditut nik. Ta olan-txe beste euskal jaietara be. Euskerea baztatu dabenengana ez da ezer elduten.

Euskerea jakinda be egin nai ez dabeen askok eta askok, bear bada, euskerearen aldeko berba bakartxo bat be sekula ez eben entzungo. Joan gaitezana bada eurakana, eurak euskerearentzat irabazten alegindu gaitezana. Euskera aldeko zabalkundea era askotara egin leiteke: Egunerokoetan idatziaz, itzaldiak emonda, esloganak jarririk eta abar. Baiña batez be etxeetara idatzita edo orriak zabalduaz. jendeak irakurteko eran idatzia izan daitezala: Gauza asko berba gitxitan esanaz edo errez ulertzeko eran, erderaz, euskeraz idatzitakoa baiño erderazkoa ziurrago irakurriko dabe-ta. Ta al bada, errian itzal andia dabeenak orriak zabaldu daiezala.

Euskera aldeko zabalkunde onek politikeagaz zer ikusirik ez daiala izan, eta obe erri agintarien laguntzea izango baleu. bai, gaurkoena ta bai biar edo etzi orduan izan leitekezanena be. Orretarako ez dogu geure politika sentimenturik saldu edo ukatu bearrik.

Beste goraberak gaur ezin badira, biar edo etzi izan leitekez; euskereak osteraz ezin itxaro daike. Zerbait biztugarri asmaten ez badogu, il egingo da euskerea ta ildakoan, guztia amaituta izango da berarentzat.

Lan onetan Euskaltzaindia'k artu bear leuke lemea. Beste iñok baiño lenago lortuko leuke orretarako erri agintarien baimena.



Euskera batasun kontuak sortu dabean asarre ta eztabaidarik orretatik ez litzake etorriko. Ta arazo onetan zerbait egiteko gauza diran guztiak, ekin bakotxak bere barrutian, bere errian edo bere kalean.

Euskera zabalkunde onek alderdi bi izan bear ditu. Bat, esan dogun lez, jendeari euskera maitasuna sartzen alegindu. Ta bestea euskereari balioa emon. Ez diñot balio literarioa, (jakiña, au bere opa dautsagu gure berbeteari) ogia irabaztekoa baiño. Orain gure errian euskerearen bear txikienik be ez dago. Erderea bear danerako. Gaztela'tik edo Andaluzia'tik etorten diranak be euren errian arkituko bailiran egoten dira Euskal Erria'n.

Beraz, bearreko egin daigun euskerea. Gitxienez, jendeari gogoko jakozan lan tokietan euskerea jakitea bearreko izan daitean eskatu daigun. Erri-etxe, aldundi, diru-etxe, komertzio ta abarretan lan egin nai dabeenak nai ta nai ez jakin bear dabeela euskerea. Jakiña, ez gabetik goizera lege ori ipiñi, urte batzutarako epea emonaz baiño, jendeak ikasi daien. Esate baterako, emendik bost urtera. Au lortu al balitz, euskerearen onerako ezer baiño ohea izango litzake. Prantzez ingelez, eta abar ikasten ikastoletan alegintzen diran gazteak be ori, bizimodurako onurakorra izan leitekioelako egiten dabe geienbat.

Euskerearen alde milla eratara lan egin leiteke, ta lenengoa ikastolak dira. Baiña dakien jendeak berba egin daien alegintzen ez bagara ta jakiteak be zerbait onura ekarri deigula lortzen ez badogu, alper-alperrik gabiltz. Urte batzutan eztabaidarako gaia izango da ta gero ezetarako be ez. Il egingo da.

Nik ba-dakit onetan lan egiteko gauza diran asko euskerearen etorkizunagaz kezkatuta dagozala. Berandu izan baiño len lan oneri eldu deigula arren dagitset eurai.

*GOIZ-ARGI, Garagarrilla (Uztailla), 1971*

## ZABALDU PAN PIN

Ez dakit euskal aldizkari kontuan ondo jokutzen ete dogun. Lau katu gara irakurleak eta aldizkariak ugari. Ta or gabiltz danetara ezin elduta. ¿Ez litzake obe, aldizkari gitxi ta eurak onak eukitea? Ez dot ukatzen danak euskera alde jokatu naiak ataratzen dituana. Baiña geienak bizitza erkiña daroena agirian dago.

Nik uste dot barria ataraten asi barik, lengoari indarra emoten alegindu bear giñakeala.

Nire ustez zeintzuk ederragoak eta zeintzuk exkasagoak diran esaten aстера ez noa. Baiña kultura kontua alde batera lagata, erriarentzat danetatik lenengoak, ZERUKO ARGIA ta PAN PIN dirala esango neuke.

Gaurko onetan PAN PIN'en gaiñean berba egin nai neuke. Umeen aldizkari oneri merezi daben arrerarik ez dautsagu egin, bear daben garrantzirik ez dautsagu emon. Euskerazko tebeo bakarra da berau ta ozta-ozta bizi da. Batzukandik laguntza bereziak artu ez balitu aspaldi egoan ilda. Ta otztasun au ez da erri soillarena bakarrik, ez. Euskera soloan gorago dagozan askorentzat be PAN PIN'ek gitxi esan nai dau. Ori olan dala jakiteko aukerea euki dot, bere bizkaitar orria egiteko lanean jardun nazanean.

Ta ez; PAN PIN baiño garrantzitsuagorik gitxi euskal aldizkariarten artean. Umeak euskaltzaletzea edo euskaraz berba egiten ipintea ezer baiño aurreragoko lana da. Umeak dira euskeraz berba egiteari lenengo lagaten dautsoenak. Ta euskerearen etorkizuna be eurengan dago. Beraz, eurak euskerea aintzat artu daien alegindu bear gara; euskeraz irakurri daiela. Ta ori lortu nai badogu, tebeoa kontuan euki bear dogu, umeak berez, iñok orretara bultzau barik, irakurten dabeen bakarra tebeoa da-ta. Aldizkari guztiak ezin izango doguz artu, baiña euskerearen kezkarik badaukagu, geure buruak euskaltzaletzat badaukaguz, beintzat, bat edo beste bai gitxienez; eta umeak dagozan etxeetan aurrenengoa PAN PIN izan bear litzake.

PAN PIN umeentzat egiten bada be umekeria danik ez daigun uste izan. PAN PIN'ek erderazko onenen antzekoa atara al izateko bear leuken laguntzea baleuko ta berau zaintzen aleginduko bagiña, euskerearen aldeko lan ederra egingo genduke.

Lagundu deiogun bada PAN PIN'eri, batez be zabaldu daigun. Dei au geienbat bizkaitar anaiari egiten dautset. Lotsagarria da tebeo onegaz Bizkaia'n jazoten dana. Ondarru ta Bilbo kenduta eun ez dira saltzen danetara. Jakiña, lanik egin ez dalako dala norbaitesango dau, bear dan zabalkunderik ez dala egin. Baiña ¿nok egin bear dau zabalkunde ori? ¿Danon zeregiña ez al da bada, gi-xienez geugaz artu-emonu daukenai jakin eragitea?

Ea emendik aurrera arazo oni buruz pozik idazten dogun.

Euskera kontuan illetea jotea baiño barri pozgarriak emotea atsegingarriago jat.

*ZERUKO ARGIA 59' garren zenbakia*

## **EUSKEREAREN BATASUNA**

Euskerearen batasunari buruz sekula baiño gogotsuago asteko dirala dirudi oraintxe.

Ezin ukatu garrantzi andiko auzia dana. Lenago be, kontu au dala-ta makiñabat berba esan eta batez be idatzi izan da, ta ezta-baida garratzik ibilli be.

Gaur egunean danok eretxi batekoak garala dirudi. Gai onezaz aoa zabaldu dabeen guztiak, nik dakidanez beintzat, batasuna eskatzeko egin dabe. Alan be, eztabaidarik ez dala paltako esango neuke.

Izan be, gogorra da euskerearen kontu au. Mendi andi baten tontoretik begiratuaz ia dana begien aurrean artzen dan lurralde kaxkar onetan milla modutako berbeta darabilgu. Lau katu baiño

ez gara ta alan be izan leitekean berbete modurik desbardiñena daukagu.

Auziari azaletik bakarrik begiratzen badautsagu, euskerea bat izatera eldu daitean, danok alegindu bear giñakeala, esango dogu, edozein berbete be modu batera berba egitea itxurazkoagoa eta obe dalako. Baiña geure azterketea sakontzen badogu, eretxi ori itsu-itsuan aurrera eroatekoa danik ez dogu esango; beste alderako errezoiak be ba-dagozala konturatuko gara.

Niri beintzat auxe jazo jat. Len euskera batuaren aldeko itsua nintzan; eta orain gauzeari buru geiagogaz begiratzen ikasi dodanean, galdu egin jat lengo eretxien berotasuna.

Egia, obe genduan euskera bat bakarra gure egunetara eldu baltzakigu. Beste errezoirik ez balego be euskaltzaleok bananduteko zio bat gitxiago izango genduke. Baiña geienetan guk nai dogun lez ez dira etorten gauzak eta datozen modura artu bear. Ta kontu onetan be bai. Euskera bat, euskera bardiña nai izango gendukean, baiña guztiz desbardiña eldu jaku; alderdi baktotxean euren erara berba egiten dabe.

Euskerearen desbardintasun onetan guk, gaurko euskaldunok, ez daukagu errurik. Bear bada lengoak be ez, bere antxiñatasunaren kontua bakarrik izan leiteke-ta.

Euskereari jazo jakona berbete guztiai jazoten jake. Antxiñako berbete guztiak, denpora askoren buruan aldakuntza andiak izaten ditue, ta desbardintasun nabarmenak sortu izan jakez. Orra or latiña. Erromatarrak nagusi ziran denporetan, euren berbetea sartu eben menperatuta eukezan erri askotan. Orain bi milla urte, erri guzti orreitako latiña modu batekoa izango zan kontixu. Ta danok dakigu latiñetik zenbat berbete sortu diran.

Bere desbardintasun guztiakaz be, euskerea berbete bat dala esaten dogu. Eta ez diñot ez danik. Baiña esate baterako, Bizkai'ko euskalkiak eta Zuberoa'koak ia gaztelar eta katalan berbetak ainbat desbardintasun dauke. Euskeraz irakurteko oiturarik ez

daukan bermeotar arrantzale batek eta zuberotar baserritar batek alkarrei gitxi ulertuko dautsoe; ulertu ezinik ibilliko dira.

Bizkaitarrok eta zuberotarrak modu batera berba egitera etorteko, bien euskalkietatik gauza asko bazartu bearko dira.

Batasun au literaturarako bakarrik eskatzen dala esango dauskue, bear bada. Baiña ori ezin leiteke. Euskerea il egingo da edo bizirik irauten badau, denporeagaz, literaturan erabilten dan berbeta modua egingo dau erriak.

Euskereak bizirik irauteko bearrekoa da ikastoletan irakastea. Ta literaturarako bada be euskera batuaren billa jo bear badogu, ikastoletan modu batera irakatsi bear izango da, danean gramatika bardiña erabilliaz. Ta jokabide orretatik danok euskera bat egitera etorriko giñake denporeagaz.

Euskal dialetuen eriotzea lekarkean euskera batasuna eskatzeko andi-andiak izan bearko litzakez orretara bultzaten gaituen errezoiak. Batasun barik euskereak derriorez il bear badau eta batasuna, barriz, bere sendotze ta bizia ziur-ziur bada, ez dago eztabaidarik; batu daigun euskerea.

Baiña, olan da?

Nire ustez, euskerearen egoera larri au ez da bere desbardintanaren ondorena. Euskaldun guztiok modu batera berba eginda be, ikastoletan irakatsi ez eta legeak ezetarako aintzat artu ezik, euskerea, orain lez, makal elduko zan gure egunetara. Ta aurretantzean be, literaturan euskera bardiña erabilli arren legeak ezetarako aintzat artzen ez badau eta ikastoletan, danak, euskaldunak eta erdaldunak, ikastera beartzen ez badira, gure berbeteak ez dau bururik jasoko.

Amaitu baiño len itaun bat egin gura dot: Orain arte lez iru-lau dialetutan egin arren, euskerea ikastoletan sartu ta ofizialtzat artuaz sendotu al balitz, obe litzake euskerearen batasuna, dialetuen berezitasun guztien amaia izan arren?

Ez dakit. Alan bada ta danen gaiñetik batasunaren errezoiak andiagoak badira, neuk be onartuko dot. Gure berbetearen onerako litzakeana edozeiñek baizen gartsuki nai dot.

Baiña orixe nai dot: Euskerearen batasunaren errezoiak jakin. Bakotxari apetak alan emoten dauskulako ez daigun au edo bestea eskatu garrantzi andiko auzi onetan; eta ezta be modea dalako ta beste barik ez deiogun modeari jarraitu.

Idazlan au eginda bialtzeko nengoala, ANAITASUNA artu dot. Bertan, «Euskera batu baten alde» idazpuruagaz X. G.'ren idazlana dator. Uste dot gure berbetearen batasunak an agertzen diran errezoiak baiño obeak izango dituala. Bestelan. Ienean jarraitzea obe dogu.

*ANAITASUNA 15-5-1968*

## **EUSKEREAREN BATASUNA**

Auzi au dala-ta asko idatzi da; baiña asmo onez jardutekotan, ba-da oraindik zer esana. Auxe da bear dana, asmo onez aztertu daiguzala batasunaren alderdi guztiak.

Nik, idazlan onetan, alik geien esatearren, telegrafiako berbeta modua erabilliko dot.

Errialde bakotxean berbeta bat guztiak era batera berba egitea obe da; berbetak era batera berba egiteko diralako ta era desbardiñez eginda eragozpenak sorten diralako. Beraz, obe zan euskera bardiña eldu balitzakigu. Baiña antxiñakoa dalako eta ez ikastolan irakasteko ta ez beste ezetarako legeak aintzat artu dabelako guztiz desbardiña eldu da gure egunotara.

Euskerea makaltzea bere desbardintasunak ez dau ekarri. Euskerea bardiña izan balitz be olantxe elduko zan gure egunetara, len esan dodan lez, legeak aintzat artu ez eta ikastoletan irakatsi ez dalako. Ta euskerearen batasuna lortzen bada be orregaitik bakarrik ez da salbauko.

Euskera indartzeko bideak dira:

Euskaltzaletasuna errian zabaldu, ogia irabazteko balio daitea-  
la ta oneikaz batera (oneik baiño lenagokoa ez da) euskerea ikas-  
toletan sartu. (Batasun kontua maira atara baiño len errezoi oneik  
esanaz bear dan tokira zuzendu izan naz).

Noiz ilgo da euskerea ta orregaitik beretzako osagaia, oraingo  
balio dabena izan bear da. Ta batasuna ez da euskereak gaur-gaur  
bear daben osagaia, euskereari arnasea biurtzeko oxijenoa. Euske-  
reak oraingo antzean beste berrogetamar edo irurogetamar urtean  
bizirik iraungo baleu, batasunak on egin leikio. Baiña oraingo  
itxuran emendik borrogetamar urtera euskera gitxi entzungo da;  
berez, batasuna ta bapez, bardin samar.

Euskerearen batasunari eragozpen gitxiago ipinteko, izkera  
idatziaren batasuna billatzen dala esaten asi ziran batasun zaleak,  
berba egiteko izkelgirik ez zala galdu nai. Euskera idatziaren ba-  
tasuna bearrekoa bada, aozko berbetearen batasuna ez da gitxiago  
bearrekoa nire ustez. Ta euskera idatziaren batasunak aozko ber-  
betearen batasuna ekarriko dau, (ori lortu baiño len ilten ez bada)  
idazkera batasunak ikastoletarako gramatika bat bardiña eskatzen  
dau-ta.

España'n idazteko gaztelera batua egon arren, berba egiteko  
bizirik ei dagoz dialetuak. Bai alan da, baiña gaztelar berbetako  
izkelgiak ez dabe alkarregaz euskerazko dialetuak alkarregaz da-  
been ainbateko desbardintasunik. Ta gaiñera kulturadun guztiak,  
nai asturiarra nai andaluzitarra izan, gaztelar bardiña berba egiten  
dabe. Ta denporagaz España guztian gaztelar bardiña berba egin-  
go da. Jendea eskolatzen joan-ala, gaztelar berbetea bardintzen jo-  
ango da espaiñiar guztien artean.

Kataluña'n berbetea idatziaren batasuna egin dala esaten da.  
Egia, baiña ilten egoan berbetea salbau bearrean ez da egin ori,  
katalandar berbetea ilteko arriskoan ez egoan da. Gure auzia ez da  
oso-osorik bardiña arenagaz.

Orain arte literatureak ez dau eragiñik izan gure erri berbetan; euskeraz sekula ezer idatzi ez balitz be bardin berba egingo zan orain Euskal Erria'n, ez geiago ta ez gitxiago, ez desbardiñago ta ez bardiñago, ez txartoago ta ez obeto. Amar berba barri ez ditu bereganatu erriak, amar neologismo ez ditu buruz ikasi, edo ez ditu erabilten beintzat.

Gure literatureak , txiroa izan dalako, ez dau eragiñik izan erri, berbetan, baiña aberastu ezkeru, sendotu ezkeru, izan leiteke ta izan bear leuke. Batzuen ustez izkelgiak, dialetuak, sendotzea euskerea indartzeko bidea izango litzake. Jakiña; Pero Grullo'ren esate ori esan bearrik ez dago, euskerea dialetuak osatzen dabe-ta. Baiña ¿ba al dogu izkelgiak sendotzeko biderik?

Bestalde, euskera batuak oraingoz kalte egin leikio bere izate-ari, au da euskera berari. Ara zegaitik: Erriak berba egiten daben berbetea, bere erriko edo ingurukoa ta beko maillakoa ta mordoi-loa izaten da. Euskera ori ezin izan daiteke literaturakoa, onetarako apur bat bada be jasoagoa izan bear dau nai ta nai ez; eta erria, ikastolan euskera ikasi ez dabelako, ez da irakurten oituta ta idatzitako guztia zail egiten jako, bai irakurteko ta baita irakurten dautsoena ulertzeko be. Esate baterako, edonok, beti euskeraz berba egiten dogunok be erderazko mezea errezago ulertzen dogu euskerazkoa baiño. Ango eliztarrai itaun batzuk egiteko Ondarria'ko Santiagotxo ermitara joan bearra izan genduan baten meza denporan, eta baserritarrentzat bakarrik zan mezea erderez zala ikusirik arrituta nengoala (meza emaillea erdalduna zan), berak erderazko mezea obeto ulertzen ebala esan eustan irurogei urtetik gorako euskaldun baserritar batek. Au nundik datorren ba-dakigu: Euskera idatzia ta sermoetan erabilten dana beti erritar izkerea baiño jasoagoa izaten dalako.

Euskal ikastoletan dabiltzan umeak geienak guraso euskaldunen semeak dira ta geiago edo gitxiago, etxean euskerea entzuten dabeenak. Ez deritxat euskerearentzat mesedegarria danik eurak gitxi ulertzen dabeen euskera moduan irakaskintza emotea.



Euskera batua berbeta berau sendotzeko bide ziurra dala era-kusten bada, joan gaitezana batasun orren billa. Baiña, ¿nun oiña-ritu bear izango litzake batasuna? ¿Zein izkelgitan?

Erriak berak berez egingo dabela batasuna uste izatea uste okerra da. Erriak ba-daki berbeta bat laga ta beste bat artzen, Pili-pinas ugarteetan gaztelera laga ta ingelesa artu daben lez, edo gu-re artean orain euskerea laga ta erdereana nagusitzen doan modura. Euskaldunok euskerea bakarrik berba egingo bagendu, au da, emengo berbeta auzkea edo burrukea euskal dialetuen artekoa ba-karrik balitz, ziur, denporeagaz euretako bat nagusituko litzake, besteak galduaz. Baiña emengo berbeta auzkea ez da euskal izkel-gien artekoa, euskereak eta erdereak alkarregaz diarduenana baiña. Erriak bardindu ez dau egiten berbetarik; desbardindu bai.

Euskerearen batasuna komeni bada, erria orretara zuzendu daigun. Ori ez da ditadurea. Baiña erria euskera batura zuzentze ori, presaka ez daigun egin.

Euskaldun guztiok errez ulertu geinkean euskera baturik ezin aukeratu edo eratu leiteke ta ori eziñean geienak ulertuko leukee-na izan bear litzake. Auxe da euskerearen batasuna egiteko erre-zoirik indartsuena. Ta geien egiten dan eta geien ulertzen dan eta berbeta modura erdi inguruan dagoana, gipuzkerea da. Nik neuk, onartuko neuke aita Villasante'k bere «Jainkoa» liburuan darabi-llen eta esaten daben gipuzkera apur bat eguteratua.

Lapurtar izkelgiak literario tradizio andiagoa dabela edo ez dakit zein izkelgi antxiñagokoa dala, ez dira aintzat artzeko erre-zoiak beste orrein ondoan. Euskal izkelgi guztiak balio bardiña dabe literaturarako. Lapurtar izkelgiak berez lortu izan baleu na-gusitasuna, iñor ez zan joango nagusitasun orren aurka. Ez dago antxiñagoko dialeturik. Berbetak aldatzen joaten dira. Gaiñera, euskerea zelangoa zan antxiña iñok ez daki ta jakin be ezin leite-ke. Esate baterako, Lapurdi'n eta Naparroa'n euskerea egiten zan antxiñako denporetan, Bizkaia'n eta Gipuzkoa'n be ez zan beste berbetarik egingo. Berbeta guztiak aldatzen joaten dirala ta gure

izkelgi guztiak zugatz bateko adarrak dirala jakiñik, au edo beste izkelgia zarragoa dala, ezin esan daiteke.

Len Azkue'k-eta, gipuzkera osotuagaz euskera batua egin nai izan eben. Euren naia aurrera atara ez baeben, izkelgi orrek orretarako baliorik ez dabelako ez da izan, bere aldezeleak bear ainbat indar ez ebelako ta euskerearen aurkako denporak eldu ziralako baiño. Gipuzkerearen errezoiairen indarrrik ez da galdu.

Batasunerako iztegia egiterakoan beste kontu au gogoan izan bear da: Erdal jatorrizko itzai baiño euskal jatorrizkoai balio andiagoa emon bear jakela, nai ta euskerazko orreik orain indar gixiago izan. Illen izenak euskeratzeko artu zan jokabiderik orain ez daiteala barriztau. Amabi berba soillik aukeratu bear eta Epaila, Dagonilla ta abar itxita, Martxua, Abustua ta abar artu, orain erriaren aotan oneik indar geiago dabeela-ta. Beste errezoiak alde batean lagata gogoratu daigun, zera, euskeraz eskutitzak egiteko oiturea izan dogunok, euneko larogetamabostek, Epaila ta abar idatzi izan doguzula urteetan eta urteetan.

Ta onegaz amaitzera noa. Euskaltzaliok batzeko modua egin bear dogu. Ta euskera batuagaz edo desbardiñagaz, askotaz lan geiago egin bear da euskera il ez daitean nai badogu. Orain baiño amar bidar ikastola geiago ipiñi arren jendeari euskaltzaletasuna sartzen alegintzen ez bagara ta euskerea ogia irabazteko bearrekoa egiten ez bada, alperrik diardugu.

Euskerea ez dakienak ikasi daien ainbeste alegintzen gara, ikastolak-eta ipiñiaz, ta jakinda egiten ez dabeenak egin daien eta euren seme-alabai etxean irakatsi daien, ezer ez da egiten.

Euskaltzaindia'k euskerea zabaltzeko sekula ezer ez dau egin. (Zabalkunde edo propagandarik esan nai dot.) Alfabetatze apur bat eta andik kanpora, gauza gitxi.

Ta euskal ikastolen arerjioa nazanik iñok ez daijala uste izan. Euskal ikastolen alde neure alegintxoia beti egin dot. Arazo onek

orain daben girorik ez eban denporetatik, kontu onetan neure errian umezurtz bainintzan ibilten nintzan denporetatik.

*GOIZ-ARGI Jorrailla-1971*

## **ZEINTZUK DIRA EUSKAL ITZAK**

Gaur egunean euskereagaz daukagun zeregiñik lenengoena, eriotzara daroan gatxetik ataratea da, bera indartu ta zabaldeuta.

Beste ardura andiko kontu bi be ba-daukaguz: Izkuntzearen batasuna ta garbi zale ta errez zaleen auziak. Baiña auzi bi oneik aurretiaz erabagitea ez da bearrekoa lenengoa dogun arloari ekiteko. Orain lez iru-lau eratara eta loiago edo garbiago berba egin daikegu eta denpora berean, daukan baiño indar geiago euskereari emon. Baiña nire ustez au olan bada be, ez dago ondo, lau katu baiño ez garanok, iru-lau eratara berba egin eta askotan alkarrerri ezin ulertuta ibiltea. Ortik, euskerearentzat kaltea baiño ezin etorri leitekeala, agirian dago. Beraz, auzi oneri arpegia emon bear dautsagu, gogo onez aztertu ta erabagia emoten alegindu.

Nire gaurko idazlan onetan, 1958'ko Abenduan Euskaltzaindiak Bilbo'n egindako batzarrean Mitxelena jaunak erabilli eban gaiaz jardungo naz, azaletik bada be.

Bere ustez, berba bat euskal berbea dan edo ez dan ikusteko, berba orrek izkuntzan daukan indarrari begiratu bear jako, nai ta beste batzuen eretxian (ta onetako bat Azkue) etorkun edo etimologia kontuan artuta erabagitekoa izan.

Olango kontuetan jakitunak diranak diñoenez, berbeta bakar bat-be ez da oso-osorik garbia, bat-be ez beste izkuntzetatik itz geiago edo gitxiago artu ez dabenik. Euskerea be ez; euskereak be antxiña-antxiñatik artu ei ditu itzak beste izkuntzetatik, eta guk euskal jatortzat daukaguzan makiñatxobat itzek beste izkuntzetan ei dauke euren jatorria.

Ori olan bada, zorakeria be ba-da kanpotar berba guztiak euskeratik jaurti nai izatea; lendik be alderdi onetatik txiro daukagun berbeta bearreko dituan itzik barik laga geinke-ta.

Orratio, oneraiño aitatu doguzan errez zaleen eretxi orrei aurkako zerbait ipiñi leitekioela-ta nago. Batzuen ustez, arrotz berbakaz usain txikienik badauko euskal berba batek, geu izan gara beti beste berbetatik artu izan doguna. ¿Zuzena da eretxi au? ¡Ez daki-gu bada! Baiña beste erara esan nai dabenak be, besteak euskera-tik artu dabeela esango leukeenak be, ainbat errezoi daukeela uste dot. Lenago euskerearen mugak zabalagoak baziran, ¿zegaitik be-raz, besteak euskeratik artu ez, euskeratik edo antxiña euskerea-ren senide izan eitekeanen batetik?

Mitxelena jaunaren eretxiz, «santu», «bedeinkatu», «inpernu», «zeru» ta olangoak euskal berbak dira, euren esanaiko besterik ez egoala erriak sortu ta euskerean erroturik dagozalako. Ostera «deun», «donoki», «onetsi», «gaiztoki» ta antzekoak ez, eurak esan nai dabeen euskal berbak lenagotik egoazala asmatutakoak diralako. Nik neuk Mitxelena jaunaren eretxi onen aurka ez daukat errezoirik. Beraz, besteren batek azpiratzen ez baditu, ontzat emoten ditut.

Auzi onetan beste batzuk oraindik aurrerago doaz; erriak darabilzan berba guztiak ontzat emon bear ei gendukez. Ni neu bestera nago. Erriak darabiltzala-ta beste barik ezin daikeguz ontzat emon. Ez dauke indar bardiña, nire ustez, alde batetik «zerua», «bedeinkatu» ta antzekoak eta bestetik «kaballua», «azula» ta abarrek. Lenengoak, asmo ta konzepto barrien esanaia agertzeko barbarik euskereak lendik ez eukazala asmatutakoak dira. Bigarrenak ostera, euskerazko berba jatorrak alboan itxi ta bat-be premiña barik, ardura bakokeriz, geure berbetan sartu doguzanak.

Onetarikoak dira euskeran sartu diran berba asko. Belaundi edo jeneraziño bakoetak ezin zenbatu ala berba mordoillo euskeratzen ditu. Ni gaztea nintzanean, orain ogetabost urte inguru ta lenago, «avaro» berbea ez genduan erabilten Ondarru'n eus-

kerazko jardunean, zer esan gura eban be ia ez genkian-da. Gero-  
ra oster, iru-lau urte kanpoan egonda erriratu giñanean, gazte  
guztiak «zeken» berbearen ordezt erabilten. Orain, adiñean aurrera  
doazanak kenduta, «avaru» gora ta «avaru» bera besterik ez dakie  
esaten.

Askotan, berba bat, batzutan euskeraz eta beste batzutan erde-  
raz erabilten dogu. Bardin jaku «alde» edo «fabore» esan, bardin  
«askatu» edo «solta», «amaitu» edo «akaba», «eztarria» edo «gar-  
gantia», «iruntsi» edo «tragau», «egala» edo «eskiñia», «aurrera-  
tu» edo «adelanta» ta eundaka olango. Geienetan gazte ta umeak  
erderazkoaren aldera jausten dira. Beste batzutan, zarrak erabilten  
dituen berba asko, gu gazteagoak garanok, ulertzen doguzan  
arren, ez doguz erabilten eta gazteak eta umeak ulertu be ez.  
Oraindik oraintsu Ondarru'n umeentzat egindako gogo-jardunetan  
jazotakoa nire amaika urteko alabeak esan eustanez: Sermolariak  
«zutik» jarteko agindu ta umeak ulertu ez eta jarrita (jezarrita)  
geldirik, eta abadeak igarri «zutik» berbea ez ebela ulertzen eta  
erderaz agindu bear, «de pie» jarteko esan bear, umeak zutiñik  
ikusit nai bazituan.

Ara emen beste jazoera bat, erriaren aotan euskerea zenbat  
galtzen dan erakusgarri. Ba-genbiltzan lagun batzuk jardunean,  
batek au ta besteak a. Ez dakit zer zan jardun gaia. Alango baten,  
«atsua» berbea esan neban. Nire ondoko lagunak, ogetamar urte  
ingurukoa bera, ez ekian berba orrek zer esan nai eban. Ta arritu  
egin nintzala ikusita, berba orrek zer esan nai eban bere adiñeko  
iñok Ondarru'n ezetz jakin, esan eustan. Ta ari ta oneri itaunka asi  
giñan, baiña «atsua» itzagaz aoa zabalik geratzen ziran gazte guz-  
tiak. Iñok ez ekian zer esan nai daben.

Gurea baiño zabarkeri andiagorik ezin izan daiteke berbeta  
kontuan. Gaztelanian emengo amarretik bat jazoko balitz !zelan-  
go karraziak egingo leukeez izkuntza orretako jendeak! Erdaldun  
batek «acaba» ta «garganta»ren ordezt «amaitu» ta «eztarri»  
berbak erabiliko balitu, zorotzat joko leukee. Nok esan daike, ol-  
getan izan ezik, «se ha amaitu la misa» ta «me duele la eztarri»?

Ostera, olaakoxea da dana euskerazko jarduna. Alan be, lotsagarrikeria oneri ondo deritxoe batzuk, geure berbetearen gaitasun edo kualidade on bat dala-ta.

Ez dago emen gaitasunik. Emen zer jazoten dan danok dakigu: Lenengo, erdal berbea, ezaguna jakulako, ez jaku arrotz egiten euskerazko jardunean premiña barik sartuta be. Bigarren, emen ez daukagu euskal ikastolarik ondo berba egiten irakasteko.

Batzuen ustez, erri euskera auxe erabili bear genduke, ederragorik ezin leitekeala-ta. Egia, euskereak ederrik ezer badauko, erriari zor jako, berak sortu, berak moldatu ta berak irauin eragin dautsalako. Baiña orain erriak ez dau berbetarik obetuten, edertuten alperrik galdu baiño. Ez dakit nik, berbetak itxasoko mariak lez gorakorik eta berakorik izaten ete dabeen; gaiña alan bada, euskereak, orain beintzat, beruntzko aldia dau.

Orain lengo berba asko ez doguz erabilten, aditzeko fleziño asko galdu egin dira, euskerearen lege asko aldrebestu. Ondarru'n nire gurasoen euskeratik nire umeen euskerara alde ederra dago! Gure gurasoak erabilten zituen aditzeko zenbait flexiño ez doguz erabilten. Ara gazteen aldrabezkeria batzuk, azken-azkenengoak:

«Guazen» esateko «Guazen gaitin»; «Zein ete dan» esateko «Zein dalakoan» (dalakun); ta «gu, geu, guk, geuk» esateko beti «guek».

Ez da au ondarrutarron gatxa bakarrik, danekoa baiño. Edonun entzututen dira orrenbesteko utsak edo andiagoak.

Oneik olan badira ta olan dirana iñok ezin ukatu daike, ez dogu uste gaurko erritar euskerea ontzat emon daikegunik edonundik begiratuta be. Beraz, zer egin bear dogu euskerearen berba eskasia, berba urritasuna konpontzeko?

Neologismoak arerio gogorak daukez gure artean. Neuk be lengo berba zarrik badago, txarto deritxat barria asmautea. Baiña euskerak bear dan berba zarrik ez daukanean, ondo baiño obeto dago neologismoa sortutea. Turkiarren izkuntzazko jokabidea go-

gora ekarri daigun. Jakintza gaietarako ez zan gauza turkerea. Gaiñera, alderdi bateko turkiarrak ia ez eutsen ulertzen beste alderdikoai. Ta berbizkunde aizeak aberriko gorabera guztiak zuzpertzituanean, baserriarrena oiñarriztat arturik, berbeta indartzen gogor asi ziran. Ara kontu onezazko barriak 1943'garrengo Urrillaren amarreko MUNDO erdal aldizkaritik jasota:

«Kemal Ataturk decidió abandonar el osmalí y tomar como base de enseñanza el turco hablado popular. Pero como a ese idioma habían comenzado a llegar infiltraciones extranjeras y además se había empobrecido por el poco uso, se le añadieron las palabras necesarias para sustituir las ajenas o para llenar huecos o deficiencias. Esto se hizo unas veces inventando nuevas palabras por derivación de raíces de otras palabras turcas antiguas y buscando en viejos manuscritos vocablos turcos desconocidos. Otras veces se intercalaron modismos regionales de dialectos turcos hablados en comarcas lejanas. No faltó el caso de que al no encontrar palabras turcas que expresasen ideas modernas tomase del francés y dijeran «ekselans» (excelencia), «fuar» (feria), etc.

Geia esateko, erdal aldizkariaren berba orreitan ikusten danez, turkiarrak arrotz berbak be eureganatu ditue. Baiña bertan geien nabarmentzen dana, berbetan «laboratorio» lana egin ebela da. Niri neuri, ezin da obeto iruditzen jat turkiarren jokabide ori. Erriak alan edo olan berba egin arren, izkuntzea ondamentira badao, berari ondoen letorkion bidea artu ta nai ta nai ezko legeak erriari goitik emon. Gaur sendotuta dago turkerea ta gudaren baktek edo erri ori sakabanatzen ez badau, gaizkatu dabeela berbeta esan daiteke.

Geuk be jarraitu egin bear geunskio turkiarren bideari; bear diran berbak sortzeko ez gara nagi izan bear. Jakiña, bear doguzan berba guztiak asmau bearrrik ez daukagu. Berba internazionalak, erri guztiak darabillezan berbak geuk be erabilli geinkez. Nik neuk beintzat, «pelizinina» ta olango berbak nasai erabilliko neukez, erabilli bear banitu. Ta erabilten ditut. Baiña bestek, erri ba-

kotxaren berbak ez. Bestelan guk ez daukaguzan eta gaztelaniak eta prantzesak daukezan berba guztiak euskal berbak izan leitekez.

Beiñola, nire illobea dan neskatilla batek «atolondradia» zala esan eustan beste bategaitik. Orduan, euskeraz lenengo aldiz berba a entzun nebanean, ¡Jesus! esanaz, zer esan nai eban itaundu neutsan, lendik be ba-nekian arren; ta bere erantzuna auxe izan zan: «despistadia».

Berba mordoillo orreik nire ama zarrarentzat, bere billobeak baiño euskeraz asko obeto dakianarentzat, ez dira euskal berbak, zer esan nai dabeen be ez daki-ta. ¿Zer diño onezaz mordoillo zaleak, edo mordoillokeriari txarto ez deritxoenak?

Gaurko euskaldun gazteak eskolatuago izanaz gaiñera euren kulturea erderatik artutakoa dabe ta lenago erriak erabilten ez zitan berba askoren premiña izaten dabe euren oldozpena azaltzeko, ta jakiña, erderazko berbak parra-parra sartzen ditue euskeraz jardutean, bear bada gure berbetan sekula entzun ez diranak. Beraz, itaunka nator barrero, ¿euskerazko berbak dira erdal berba orreik? Orduan, euskeratzen ez dakiguzan erdal berba guztiak euskal berbak izan leitekez. Erdal iztegia edozein orritan iragi ta eretxira artu berba bat, bear bada erderaz be sekula entzun ez doguna ta axe be euskal berbea izango da, guretako batek euskeraz diardugula bera erabilli bearra izaten badau. Jakiña, berba orrek, bat be premiña barik euskeran sartu diran beste berba areik baiño errezo andiagoa izango leuke. Baiña alan da guztiz be ez dogu ontzat emoten ori. Nire ustez, «despistadia», «atolondradia» ta antzekoak baiño euskeragoak dira euskal berben sustraiz ta legez egindako neologismuak.

Ori bai, ez dira edozelan sortu bear neologismuak. Lenago asmau izan diran askori akats galantak billatu izan dautsez. Beraz, ardura andiagaz egin bear da lan au. Neologismo bat egokia dan ala ez, Euskaltzaindiak erabagi bear leuke, itz orren alde ta aurka



agertu, leitekezan errezoiak aztertu ta gero. Ta gaiñontzekooi, aren erabagia betetea baiño ez legokigu.

Itz barriak erriak ez dituala ulertzen? Erriak ez dauskula ardurarik ez bedi iñok uste izan. ¿Zetarako nai dogu bada euskerea, liburuetan gordeta eukiteko edo aingeruak berba egin daien? Ez, euskera ederra ta edozetarako gauza dana egin nai badogu be, erriarentzat egin nai dogu. Erri barik ez dago inkuntzarik, ez dago euskerarik. Baiña auzi onetan ezin daikegu erriari jarraitu, erriagaz batera ibilli, bere aurrean jarri ta bideak zabaldu baiño, tiraka gure atzetik ekarri baiño.

Euskerea ez da indartuko gauza guztietan orain arte lez jarraitzen badogu. Euskerearen onak, bide barriak artu daiguzala eskatzen dau. (Ez diñot «bide barriak», gramatika ta itzen kontua buruan ditudala)

Ikastoletan-da irakatsi barik munduko izkuntzarik ez da indartu. Umeai legearen indarrez ikastoletan irakasten asten ez garan artean, euskerea amaitzen joango da. Ostera, bein euskerea ikastoletan irakasten asi ezkeru, umeak errez ikasiko dabe itz barrien esanaia, errez ulertuko ditue neologismuak.

Askok, errezoi andirik agertu barik, garbizaleai jaurti dautsee euskeraz irakurteko euskaldunen zaletasunik eza. Len geiago irakurten zala? Ez dakigu. Orain eun urte ez egoan euskal aldizkari ta izparringirik. Ez dakigu ziur baiña liburuak be orain baiño gixiagi argitaratuko zirala jokatu genduke, eliz liburuak kendu ezkeru. Alan be, orain baiño geiago irakurten zala euskeraz kontu egin daigun. ¿Ta zer? Orain eun urte Gipuzkoa'ko geienak eta Bizkai'ko askok be erderaz ez ekien; beraz irakurten eben apurra nai ta nai ez euskeraz izan bear. Gaur ostera, euskaldunik geienak erdere darabile euren jardunean eta euskerea berba egiten dabenak be erdere bakarrik ikastolan ikasten dabe eta ez dauke gogorik eta erreztasunik gure izkuntzan irakurteko.

Askotan Bidasoa andiko euskal idazleak ipiñi dauskuez eredutatz; areik ez ei dira emengoak lez garbizaleak. Areik bildur ba-

rik sartzen ei ditue erdal itzak euren idazkietan. ¿Eta zer? Orregaz ezer ez dauskue esaten. Ango idazleen jokabide ori gora-bera, an be galtzen doa euskerea, an be emen baiño etorkizun ohea ez dau-gure izkuntza zarrak.

Amaitzeko, neure ustez euskal itzak zeintzuk diran laburki azalduko dot; edo beintzat zeintzuk erabilli bear gendukezan eta zeintzuk ez.

Erabilli geinkez Mitxelena'k aitatu dituan «zeru», «bedeinkatu», ta antzekoak.

«Kaballua», «azula», «progresua» ta euskeraz garbi esan geinkezanak, iñoiz be ez.

Gauza ta asmo barrientzat itz barriak sortu bear doguz, erri guztiak darabillezan internazionalak orretarako ez diranean. Jakiña, itz internazionalak erabilli geinkez, baiña orduan be euskal itz errez eta egokirik asmau al danean egin egin (sic) bear litzakez. Gauza ta asmo barrientzat, itz internazionalak orretarako naikoa ez diranean eta neologismorik be ez badaukagu, erdal itza erabilli geinke.

Itz zarrak, nai ta erriak aztuta euki, alangoan bearrean baga-go, argitara atera bear dira, biztu egin bear dira.

*YAKIN 13-1960*

## **BATU IZKELGI BAKOTXA**

Euskerearen makaltzea desbardin berba egitetik ez dator. Milla bidar esan dot au. Orregaitik, batzeak edo batua egiteak beste barik ez dau indartuko. Baiña bat-batean, gabetik goizerako euskerea batu naia onartzen ez badogu be, geu be bide orretan zerbait egiten asi bear giñake.

Guk, AGUR'en; GOIZ-ARGI'n eta antzekoetan idazten dogu-nok, desbardin egiten dogu. Oartu gaitezana gipuzkoarrakaz. Ba-

tzuk NUEN, ZUEN eta abar eta beste batzuk NUAN, ZUAN eta abar idazten dabe.

Lekuona, Zatarain, Baztarrrika, Etxaniz, Arrinda, Labayen, Uxola ta beste batzuk NUAN idazten dabe ta Akesolo, Oñatibia, Estornes Lasa, Arozamena, J. Lasa, Basarri eta beste batzuk NUEN. Nik, gipuzkeraz egitean, NUAN idazten neban Intxausti'tar Joseba'ren «Euskal Aditza»ri jarraituaz. Gure taldekooi, batera edo bestera egin bardin bajaku, auzi oneri erabagia emonaz NUEN erabiltea onartu dabena jarraitu naiago dot, Euskaltzaindiari jarraituaz aditz au erabili. Ta alantxe, len NUAN eta bere saillekoak idatzita neukazanak kendu ta NUEN ta lagunak ipiñi ditut eginda daukadan lan baten. Jakiña, aldaketa au Lekuona'tar On Manuel'ek gai onezaz argitaratu dabena irakurri baiño len.

Bizkaitarrok be zer batu edo bardindu ba-daukagu. DAU-TSO=DEUTSO, JAT=YAT, DAUZ=DITU ta orrein saillekoak astekeo.

Bear bada, batzutan gure eretxietan amor emoteko ez gara egongo, baiña askotan, laster batera etorriko giñakeala uste dot. Beraz, ¿zegaitik desbardintasun txiki oneik kentzen alegindu ez?

Erri euskerea darabilgula esaten dogu ta auzi au erriak berak denporeagaz zuzenduko dabela, erriari berari laga bear jakola izkelgi bat, dialeto bat nagusiten. Okerra da eretxi au. Erritar-erritarrez iñok ez dogu idazten; nik neuk ez beintzat. Erritarrez idaztea, ondarrutarrok ondarrutarrez, markiñarrak markiñarrez eta bermeotarrak bermeotarrez idaztea da. Ez da ori geienon jokabidea; bakoxtaren erritik asko urrundu barik bizkaitar osotua deitu leitekiona egiten alegintzen gara. Atsegiñez irakurten dira bai, tarteka, agertzen diran erritarrez idatzitako Markiña'ko Arrizabalaga'renak langoak. Baiña idazle guztiok bide orri ez dautsagu jarraituko. Obe dogu, esate baterako, Markiña'ko Kirkillak egiten dabeen euskera ederra bizkaitar idazle guztiok geuretzat artu.

Erri euskerea oiñarriztat artzea, zabalagoko esanaian ulertu bear da; berbetea batua nai osatua, erririk geienaren urrekoena, erririk geienak ulertzeko erakoa izan bear dabela. Errezoi au go-goan dogula, bizkaitarrok geure dialetua batu edo bardindu egin bear genduke ta gipuzkoarrak be bai eurena. Orretara eltzeko gauza andirik laga bearrrik ez genduke izango.

Beste errezoia, denporegaz erria bera euskera bat berba egitera elduko dala, ez dot ontzat artzen. Erriak berbetea bat laga ta beste artu bai egiten dau, baiña desbardiña dana berdindu edo batu ez. Berbetea batek bide au edo bestea artzea nai bada, eroan egin bear da erria bide orretara. Jakiña, itsumustuan ez, astiro ta errezoiak kontuan izanaz baiño.

Izkelgi bakotxa batze arazoari eldu egin bear geunskiola asmorik onenagaz, nik uste got. Gure taldean, au da, AGUR'en, GOIZ-ARGI'n, DIARIO VASCO'n eta antzekoetan idazten dabeenen artean ba-dira euskerea errotik ezagutzen dabeenak. KAR-DABERAZ BAZKUNA'k eroan leike ederto arazo au.

Nik neure aldetik gauza bat bakarrik esango dot: Itz bat era batera edo bestera esan erdi bardin danean, bietara errezoiak erdi bardin dagozanean, Euskaltzaindiak onartuta daukana geuk be onartu bear gendukeala. Olan, geure borondate ona erakutsiko dogu mundu guztiaren aurrean.

*AGUR 8-6-1974, 140' gn zenbakia*

## **EUSKERA ERREZA TA EUSKERA ZAILLA**

Lenago be gai oneri buruz makiñatxobat idatzi izan da. Geienetan buruari baiño biotzari jaramon geiago egiñaz berba egiten dogu. Len garbizale ta errez zaleen artean izaten zan ezta-baidea.

Garbizaleak jatorriz euskaldunak ez diran berbak alik gitxien erabilten zituen. Euskereak, jatorriz, oraingo emen inguruko ber-

betakaz zer ikusirik ez badauko, aurrerantzean be jatortasun ori nabarmen jarraitu daiala ta orregaitik edo elburu orren atzetik joanaz bear zituen neologismo guztiak sartuko zituen. Errez zaleak ostera, erriak ulertzeko eran egin naian, edozer erdal berba erabilten eben, askotan erritar euskaldunak baztartuta.

Gaur kontu au gurutzetu egin da, nastau. Izenez lengoa bada be izatez beste eretxiak dabilz jokoan. Gaurko euskera zailla ez da garbitasunaren ondorena. Ta euskera errezean diarduenak mordoi-llokeria gitxi erabilten dabe.

Nik neuk ez dot gogoko euskera zaillik edo zuzenago esanaz, idazti zaillik. Ni idazle bat baiño geiagoren lanai albokera begiratzan dautset; ulertu zailla ete dan begiratu ta alan baderitxat, bereala itxi. Egia, ba-dira erdirik irakurten ez ditudan euskal aldizkariak.

Auzi au idazle guztiak kontuan izango dabela uste dot nik; aingeruak irakurteko iñok ez dau idazten-da, gizonentzat baiño. ¿Zelan dira beraz, idazti zaillak? Ba-dira bai, idazkera errezagoo edo zaillagoa dabeenak. Baiña idaztiaren zailtasuna batez be gaiak emon oi dabena izaten da. Gaiak izaten dira zaillak eta errezak; goi maillako gaiak eta gai errikoiak. Erritar euskerea urria da, berba gitxikoa gaurko erriaren aotan beintzat, gitxi landua ta goi maillako gaiak ezin daitekez erritar berbakaz bakarrik adierazo.

Baiña ba-dago gaurko idazle askoren idazlanak zaillago egiten dituan beste errezoia: Euskerearen batasuna lortu naian idazten dabeenen euskerea. Olan, guretzat arrotza dan berbeta modu orretan idatzitakoa gai intelektuala bada, izerdia ataraten dogu laurdentxoa ulertzeko. Gauza bera bizkaieraz edo gipuzkeraz idatzita emongo baleuskue errezagoo izango litzakigu.

Baiña errezoii oneik gogoan eukita be, lengoa diñogu; gaia da-la askotan idazlana zaillagoa egiten dabena. Gure aldizkarietan orain argitaratzen diran idazlan batzuk erderaz be ez litzakez errezak izango guretzat.

Ta au olan izanik, auziari erantzun zuzena emoteko, itaun oneik egin nai neukez: Euskerea, gai ta kontu errez ta errikoietan soillik erabilli bear da? Ala, gauza guztietarako balio daian alegindu bear gara? Danerako izan bear da euskerea nire ustez, go-rengo maillako gaiak erabilteko be gauza izan daiteala nai izan bear dogu, maite dogun edozer gorengoi maillan ikusi nai gendukean lez.

Berbeta txiroa, bigarren edo irugarren maillakoa izaten beti ez daiala jarraitu.

Orretara alegindu bear gara, edozer gaietan musturra sartu daiala; gai sakonetan be idatzi egin bear da. Ta ementxe dago ul-tzea. Erriari, beragandik urrun dagoan izkera zaillik ez jako emon bear, larritu edo naskauko daben eran ez jako idatzi bear, ori, bera euskerea irakurtetik urrundutea izango litzake-ta.

Ta, alkarren aurka dagozan errezoi biok ¿zelan uztartu? Bada, jokera biotako aldizkariak sortuaz. Inteletualak eurenak, eurentzako erakoak izan daiezala, len diranak gitxi baditue barriak sortuaz. Ta erriarentzat sortu ziran aldizkariak erritar izaten jarraitu daiela ta intelektualak erriari zerbait irakatsi deikioela uste badabe, erri maillara jatsiaz berba egin daiela.

Ba-dakit gure erririk geiena guztiz edo oso-osorik ez jakiña dana euskerazkoa irakurri ta ulertzeko, orretarako oiturarik ez da-belako. Baiña orreikaz gomutauta goiko ori ez dot idatzi; orreintzat errezena be zailla izango litzake. Ez, besteak izan ditut gogooan, euskal aldizkariak artu ta idazlan batzuk irakurri barik gelditzen diranak, ulergaitzak diralako.

*GOIZ-ARGI*

## **JATOR JOKATU DAIGUN**

Euskerea dala-ta era askotako eztabaidak dira. Euren artean bat, erreza ala jatorra izan bear daben euskera idatziak. Nire ustez

al dan ainbatean alderdi biak izan bear ditu euskereak; erreza ta jatorra biak batera. Baiña beti biak batera ezin badira, euskereak jatorra izan bear dau beste errezoï guztien gaiñetik; euskereak euskerea izan bear dau lenengo.

Euskera idatziaren zailtasuna bitatik etorri daiteke; idazle be-ragandik eta gaiarengandik. Ba-dira arazorik apalenaz jarduteko be iñungo idazkerarik zaillena erabilten dabeenak, aparra ta bitsa besterik ez dabeenak. Andi naikoak diralako edo euskeraz ondo ez dakielako. Baiña ba-dira gai zaillak be, gure berbetan gitxi jo-rratuak, eta olangoetan nai ta be ezin ulerterrez idatzi. Baiña ez da ezpairik; alik ulerterrezen beti idatzi bear da, euskaldunik geienak euskeraz irakurten analfabetoak dira-ta.

Alan be, euskera erreza idatzi bear dala ta ortik zearko jokabi-de guztiak ez dira onartzekoak. Euskerea erreztuteko, besteak beste, subjuntibuak kendu egin bear litzakezala eskatu dabeenak izan dira. «Zu osatu zaitez an bederatziurrena egin bear dogu» idatzi bearrean «Zu osatzeko bederatziurrena egin bear dogu» ida-tzi bear ei da. Jakiña, jokabide au tarteka artuagaitik iñor ez gara gora-goraka asiko. Baiña sistemaz ori artu, ez. Orduan errezagoa dala-ta zinean aberatzen etxeetako morroi balzak erabilli oi dabe-en antzeko berbeta modua geureganatu bearko dogu. «El señor decir ir al monte» ta olangoak.

Baiña oraindik askotaz kaltegarriagoa izango litzakeana eska-tzen dabeenak be ba-dira. Aldizkari onetan gramatika barri baten albistea emoten ebanak arrituta laga ninduan. Oarrrik ez neban ja-so ta ezin ango barbarik ona ekarri, baiña aren antzeko zerbait as-mauko dot. Zera...

«Liburua ekarri dizut.»

«Liburua ekarri diot aitari.» ta antzera esan bearrean beste era onetan egozan:

«Liburua ekarri dot zuri.»

«Liburua ekarri dot aitari.»

Jokabide au iñundik iñora ezin daiteke onartu. Gaur txartzat aitatzen doguzan euskera zatar guztien artean au izango litzake zatarrena. Gaiñera, ortik ezetariko onik euskereari ez litzakio etorriko.

Ez da zailla euskerea. Erdaldun umeak euren erdere baizen arin ikasi genduan umetaz berba egiten ikasi genduan. Umeentzat euskereak ez dauko ezetariko zailtasunik; ta orretxei, umeai irakatsi bear jake euskerea guraso ta ikastolen bidez. Euskerea indartuko bada, umeengan indarra artu bear dau.

Zailla dalako, gatxa dalako ez doa galtzen euskerea, euskaldunok erri maitasunik ez eta ezetarako aintzat artu ez dogulako baiño. Beraz, erreztasun billa ez deiogun jatortasunik euskereari galdu, ez daigun txiroagotu. Euskerea, len be, aditza beintzat, ezin da txiroagoa da erriaren aotan, irakurteagaz-edo, bere berbetea obetu ez dabenen aotan. Lau, bost urteko edozein ume erdaldunek erderaz errez esango leukezan esaldi asko esateko ez da gauza, erri euskerea baiño geiago ez dakian euskaldun nagusia.

Irakurle: onetan oker nagoala uste badozu, ondorengo erdal esaldiak euskeratzeko esan eiozu, euskeraz irakurteko oiturarik ez dabene edozein euskalduneri ta aditz kontuan gaurko erri euskerea zelango txiroa dan zeuk ikusiko dozu.

«¿A dónde me llevas? Tú me mojaste. ¿Qué nos dijiste ayer? Nos trajistes cosas que nada valían. Si me hubieras enviado el pescado que te pedí mucho te habría agradecido. Me viene dolor de cabeza. ¿Por cuánto dinero me llevarías a Madrid? Aunque toda la vida no hablara el vascuence no se me olvidará. Si se me cayera el pelo andaría con boina. Ya me podrías llevar en tu coche a mi casa.»

Euskal irakurleak zailtasunik arkitu ez daian alik errezen idazten alegintzen diranak txalogarri dira ta danok jokabide orri jarraitu bear geunskio. Baiña erreza idazte ori euskerearen jatortasuna-



ren aurka ez da joan bear. Euskerea da indartu bear doguna ta ez euskera izeneko edozer arlotekeria.

AGUR 9-6-1973

## EZ DAIGUN TXIROTU EUSKEREAA

Udako oporrak artu doguzanean egun batzuk igarotera neure errira, Ondarru'ra, joanda gengoazala, adiskide bat urreratu jatan, AGUR'en batek astiñaldi ederra emoten eustala esaten. Aren esan-bearrak benetan kezkatu ninduan, ni orrenbeste makillatzeko biderik iñori emon ez dautsadalako ta an joan nintzan norbaiteri aldizkari au kentzera zer eta nok esandakoa zan jakin naian. Ta asterokoa eskuetan artu ta irakurri nebanean, aregaitik oporrak nasaai igaroko nituala ikusi neban. Puxana'k anaikero erantzuten eustan; eta lenengoan kontu oneri geiago ez eragitea be pentsau neban arren idazle au aintzat artzen dodala agertzeko, azkenengo aldiz zerbait geituko dot.

Euskerea erreztu naian sasi euskerarik ez dogula onartu bear esatea zan nire idazlan aren esan nai nagusia. Onetan batera egongo garala uste dot. Gero, erriaren aotan aditza txiroa dala agertu naian, bost urteko ume erdaldunak erderaz obeto berba egiten dabela emen nagusiak euskeraz baiño esatean , bear bada, aoa geiegi zabaldu neban.

Puxana'k niri erantzutean, Añibarro'ren «Gramatica Bascongada»ri begiratuaz, ordutik ona aditz asko galdu dirala diño. Nik ez dot ikusi gramatika ori ta ez nire lengo idazlan a egiteko bidea emon eustan bestea be. Baiña nire gurasoen euskeratik nire umeenekora gure berbeteak asko galdu dabena ba-dakit. Ta Ondarru'ko antzera jazoten dala uste dot orain bizi nazan Ondarrabia'n be. Euskeraz errez berba egiten eben ondarrabitar gazteakaz ibillita nago gabetan euskal ikastolan eta emen be bardin jazoten zan; erderaz errez esaten diran esaldi asko ezin jator euskeratu, aditza.

ondo ez ekielako. ¿Zer, ain zuzen ni bizi izan nazan errietakoa al da bakarrik erriaren ezin ori?

Neuri jazotakoa esango dot. Kamiñazpi'n balkoitik begira nengoala, lagun bigaz igaro zan motorra jausi zan geure begien aurrean. Gizonak ez eben okerrik izan baiña atzean joanak, berak egindako belako itxasontzi bat eroan eskuetan, elizetan goitik dindilizka egoten diran orretarikoa ta naikoa apurtu jakon.

Gizon a nire senidea (aideia) be ba-zan eta etxetik jatsi ta beragaz berbetan asi nintzan. Ta beste gauza batzuen artean, ondorengo itaun au egin nai izan neutsan, jakiña, euskeraz:

— ¿A dónde lo llevabas?

Baiña ez eustan urteten. Nik, bizkaieraz, «¿Nora zeroan?» edo antzeko bat esango neban, baiña Ondarru'n sekula entzun ez neban aditz ori arrotz egiten jatan eta besteari be alan egingo jakola ta azkenean be beste era desegoki onetan egin neutsan:

— ¿Nora eroatera zijoazan ontzia?

Naiago neuke oker banengo onetan, nik uste dodan baiño obeto berba egingo baleu erriak; benetan diñot.

Edozelan be, lenera noa ni. Errezago ipiñi naian sasi-euskera-rik ez daigun sartu. «Astiro itz egingo dot eurai.» ta olangorik iñundik iñora ezin ontzat emon daiteke. Olan egundo ez dau berba egin euskaldunak. Ori egitea, ezin esan ainbatean euskerea txiro-tzea izango litzake.

Beste batzuk, asmo beragaz, au da, euskera erreztu naian, subjuntibuak aditz joko barik «teko» atzizkia daroenak erabiltea eskatu dabe. «Zeuk konpondu daizun ekarri dot» esan bearrean, «Zeuk konpontzeko ekarri dot» eta antzera. Egia, joera au be erri-tarra da ta tarteka egitearen aurka iñor ez dago. Idazten be onen-beste sarritan egiten dogu. Baiña legetzat artzeko jokerak ez dira. Ume bateri, bere amak, iñoiz, «Kendu emendik» esango dautso ta urrengoan «Kendu zaitez emendik». Lenengoa ez dago txarto bai-

ña bigarrena obeto; ta lenengoa baizen errez esaten da bigarrena. Erderaz be «Quita de aquí» esaten dogu batzutan, baiña baita «Quitade de aquí» be. Ta lenengoa errezagoa dala ta bigarren au baztatu egin bear dala oraindik iñok ez dau esan.

Subjuntibuetan «teko» atzizkiagaz eratutako aditzak erabilteko oiturea aspaldikoa da. Azkue'k bere «Morfología Vasca»n esaten daben kontua da. «Amak jan daian dakart arrain au» esan bearean «Amak jateko dakart arrain au» esan oi dogu.

Baiña ez da ezpairik; jokera au euskerearen berakadearen zantzu edo agerkai bat besterik ez da, gitxiago berba egitearen anaia bikia. Tarteka erabilli daiteke, baiña olango asko esatea edo idaztea, euskereak asko galdu daben zantzua da. Idaztean beintzat, olango asko ez erabilteko eskatuko neuskio edozeñeri.

Euskereak, bizirik irauten badau, gero ta geiago ikastoletan erabilliko da. Ta ikastoletan erabilten bada, ez da zail izango ondo ikastea.

Ikastolan ainbat urtean ikasi ta erabilli daben ikasleak, euskere, bere aditz ta guzti, ondo berba egin al izango dau. Onetan ez daukagu ezpairik. Beraz, oneikaz gogoratuta euskerea erreztu egin bear dogula ta asi bearrik ez dago. Ta besteakaz, ikastoletarako baiño nagusiagoak diranakaz gogoratuta be ez kontixu, edozelan be nagusiakaz on gitxi ataraten da-ta.

Ezegaitik be ez daigun txirotu euskerea.

*AGUR 22-9-1973, 103' gn zenbakia*

## **¿ZEGAITIK EZ EUSKAL ORTOGRAFIA?**

Dana aldatu nai da gaur. Txarto dagoana ta ez dagoana. Euskera kontuan be bai. Txarto dagoana aldatzea ondo dago. Baiña txarto ez dagoana ¿zegaitik aldatu bear da?

Zegaitik? Bada, euskaltzaleon artean len eztabaida gitxi dabilela ta geiago ipinteko, dirudianez.

Berba internazionalak zirala ta artikulua bat ekarren lengoan aldizkari onek. Auzi onezaz egilleak diñoana gaur geienok ontzat artuko dogula deritxat; baiña berak darabiltzan berba asko ez. Bere berbeta erea da bera modukoen aurkako errezoirik andiena.

Berba internazionalak erabiltea euren esangurakorik euskereak ez daukanean gauza bat da, eta beste bat, euskereak aspalditik daukazan berbak baztartuta, ardurabakokeriz erderazkoak artzea.

Euskeraz argi ta garbi idazten ¿zegaitik ez gara arduratu bear? Auzi onetan gauza polita asmau eben, zera, euskera garbia egitea baiño joskereak, sintaxisak, geiago balio ebala. Baiña geienetan, nok, euskera loia darabiltenak baiño joskera traketsagorik? Arpegia bear da ori esateko!

Orain beste errezoik bat asmau dabe ta estropozu barik berba bi esateko erreztasunik ez daukan edozein asi da bera aitatzen. Errezoi edo deserrezoi orreri be erantzuna emongo geunskio; baiña bere asmatzailleagaz eztabaida ta asarrerik ez dogu nai ta ez aitatzea obe.

Idazlan au egiteko bidea emon daustan idazlanaren egilleak, berba internazionalak dirala ta berba egiten asita ortografiara salto egiten dau. Olan bada, geuk be jarraitu egin bear. Izan be, auzi au dala-ta asi naz idazten, geienbat.

Idazlan orren egilleak itaun batzuk egiten ditu:

«Baiña zegaitik ez «humiltasuna», «humorea» ta abar, H'gaz?»

Nire erantzuna: Bada, «apaltasun» eta «aldarte» berbak gure artean beintzat, bein be H'rik eroan ez dabeelako.

Zer errezoik dago, euskal berba jator orreik ez erabilteko?

Baiña berben kontua laga ta ortografiari eldu deiogun.

«Zegaitik ez v'gaz 'universidadea', 'errevoluziñoa', 'votoa', 'televisiñoa' ta karta onetan agertzen diran itz batzuek?» –jarraitzen dau idazleak.

Zegaitik v'gaz idatzi ez, «vertsoa», «virjiñea», «vorondatea» ta abar? –itaunduten dot nik– berba orrein jatorria be erderazkoa da-ta.

Eta zegaitik c erabilli ez gaurko idazle punterengoetako bat erabilten asi dan lez? Zegaitik ch erabilli ez, antxiñakoak egiten eben antzera? Zegaitik ez «choria», «quendu» ta abar idatzi len olan egiten bazan?

Jolasak alde batera lagata, neuk erantzungo dautset neure ta bere itaun bardiñai. Zegaitik ez? Bada, euskal literaturea koskortzen joala, euskal idazleak eurak izki orreik euskeratik jaurtiten asi ziralako; eta Euskaltzaindiak, lenengo aldiz euskal ortografiaren legeak emon zituanean, izki orreik eskubide osoagaz bazartu zitualako.

Orra or errezoi osoa, nagusia, bakarra. Txarto al da, Euskaltzaindiak erabagi ori artzea? Izkuntza bakoetak bere ortografia daukan lez euskereak be ezin al daike bere ortografia euki?

Orrexegaitik da txarto «votoa», «vertsoa» ta abar idaztea. Erantzuna argi dagoala uste dot.

Olango edo alango ortografia erabilteak garrantzi txikia dauko berbeta baten bizitzarako. Euskaltzaindiak lenengoan v nai b erabilteko agindu eta «choria» nai «txoria» idatzi bear zala esan baleu, ardura gitxi izango eustan orrek. Baiña agindua aginduta dago. Ta ortik euskereari kalterik txikienik be ez datorkiola uste dot.

Eta orregaitik, bat be premiña barik aldaketak egin naian astea kaltegarritzat daukat, ortik asarrea ta nastea bakarrik sortzen dala-ko.

*ANAITASUNA Garagarrilla, 1968 gn urtea*

## IZEN ABIZENAK

Ez dakit beti baten dagoan ezer munduan ete dan. Ezer balego be beintzat, berbetak ez dira orretarikoak. Bosteun urteren buruan ez ezagunak izateraiño aldatzen dirala berbetak, irakurrita nago. Bear bada a idatzi ebanak geitxo zabaldu eban aoa. Gaiñera, gramatika ta ikastolakaz, orain ainbesteko aldakuntzarik ez izatea ziurragoa izan leiteke.

Era bitakoak izaten dirala aldakuntzak esango genduke: Alde batetik berba ta erak okertu ta bestetik, berba ta era batzuk aztu ta barriak sortu. Aldakuntza oneik geienetan erriak denporeagaz egin oi ditu; baiña sarritan idazleak be zer ikusi andia izaten dabe arazo onetan.

Euskeraz be beste gauza barri batzuen artean TAR atzizkia abizenari atzean ipinteko oiturea sortu zan mende onen asiera inguruan. Olantxe: Anakabe'tar Pedro.

Bere sortzaillea nor izan zan ziur ez dakit, baiña Arana Goiri'tar Sabin izan zala uste dot. Era barri au guztiz indartu zan mende onen asieran. Arrezkero euskeraz idazten eben geienak erabilli izan dabe; euneko larogetamabostek bai gitxienez. Eta ez lengo denporetan bakarrik, oraintsu arte baiño. Orain zortzi-amar urteko ZERUKO ARGIA ta YAKIN aldizkariak eskuetan artzen badoguz, gaur olangorik entzun be egin nai ez dabeen gazterik geienak era orretan izenpetuten ebela ikusiko dogu. Len, euskalduntasunak bakarrik eraginda euskal solora lanera etozan guztien jokabidea orixe zan; gure eskutitzak euskeraz egiteko oiturea dogun ia danok olan izanpetuten genduan.

Baiña orain aldatzen doaz gauzak eta besteak beste, gure taldekoen artean be izen abizenak ipinteko era au makaldu egin da. Au dala-ta gora-goraka ez gara asiko. Nai dabenak nai daben era izenpetuteko eskubidearen aurka ez gara jagiko. Baiña, geienbat abertzaletasunaren eragizñez zabaldu zan izenpetuteko euskaldun erea txarto dagoala ta baztartu dabela iñok ez daijala esan. Zer txarto? Garaialde'tar Joxan-da esatea, txarto?

Egia da, aldi baten, orain iru-lau mende ta onuntzago be bai bear bada, beste era onetan deitzen zala:

Matxin Ganboako, Andre Otxanda Gabiolako, Peru Abendaño ta abar. Jakiña, euren jaiotetxeak Ganboa, Gabiola, Abendaño ta abar baziran, bidezkoa zan olan deitzea. Gaur be or zear diran Etxaburu izeneko baserrietan edo torrean jaiotakoen artean Jose Mari izenekorik badago, Jose Mari axe edo aretxek izango dira Jose Mari Etxaburuko. Baiña ni izenez Jose Mari ta abizenez Etxaburu nazan au ez naz ezelan be Jose Mari Etxaburuko. Nire aurrekoak Etxaburu izeneko baserriren batekoak izan baziran, ni, Etxaburutarra izango naz, ez Etxaburukoa.

Gaiñera Matxin Ganboako-ta deitzea erdaldunengandik artutako oiturea dirudi. Daroen joskera okerrak zillegi egiten dau olan uste izatea; euskal sintaxisez, Ganboako Matxin esan bear litzaketa. Erderan oiñarritutako esakera bat baiño geiago dagoz euskeraz; ta orretako bat izan leiteke au.

Asko ez bada be erabilten dau erriak TAR au askokoan edo pluralean. Larogei urtetik gorako bateri olan entzun neutsan Ondarrabia'n: «Izatarrak santu emailleak (eramailleak) dira.»

EUSKAL PINTURAREN SORRERA TA EBOLUZIOA idazten olan diño Ugalde'tar Mikel'ek:

«1913 urtean, euskal artisten erakusketa bat prestatu zuen, Zubiaurretarrak, Zuloaga, Salaberria, Uranga eta tartean zirelarik.»

«Familia bateko batzuk arte eta letra landan ezagunak izatea sarritan gertatzen da, Barojatarrak eta Maezturrak, adibidez. Baina lau anaia izanik arte sailean laurak ospetsu izatea, besterik da; nekez eta noiz beinka bakarrik egokitzen dan zerbait baita. Hauxe da, bada, Arruetarrekin gertatzen dana.»

Ta Euskaltzaindiak berak illero zabaltzen daben orrian (batzar agiria) olan idatzi eban (11-XI-1973):

«L. Villasante euskaltzainburu jaunak agurrezko itzak, Azkue-tarrak eta Eusebio Erkiaga lekeitiarren gorasarrez.»

Ikusten danez, TAR atzizkia askokoan ondo badago, bakarreoan erabiltea be ez da txarto egongo. Txarto? ¡Bai zera! ¡Ondondo! Ni esate baterako Kizkitza baserrian jaioa banintz, Kizkitza'ko Etxaburu'tar Jose Mari izango nintzake. Toki baten jaioa izatea ta bertan jaioa izan barik jatorria an izatea gauza bi dira, ta ori ondo bereizteko lenengoan KO ta bigarreanean TAR erabiltea da zuzenena.

Ez dirudi txarto gabiltzanik geure izen abizenak TAR tartean dala idazten dogunok. Olantxe izenpetuten ditu bere idazkirik geienak Lekuona'tar Manuel jaun abade agurgarriak be. Orretarako diran errezoiakaz konturatzeko gauza ez diranak auxe dabe naikoa errezoi. On Manuel'ek ba-daki esku artean zer darabilten eta jarraibide ederra emoten dautse modeari jarraituaz batzutan olan eta bestetan bestelan dabilzanai.

Nik, oker nabillenean, bide okerra laga ta bide zuzenera joteko bildurrik ez daukat, baiña zuzen nabillenean neure bidean azkenerrate jarraitzeko be ez.

*AGUR 20-7-1974, 146' gn zenbakia*

## **LOIOLA'KO BATZAR OSTEAN**

AGUR eta GOIZ-ARGI'ko idazleen Loiola'ko batzarra demokraziarik andienean ospatu zan. Arazo batzutan danak ez egozan batera baiña berba egin eben guztiai lotzaz entzun jaken. Euren artean, urte askoan Ameriketean egon ondoren bere aberriratu danean gaurko euskaldunon auzka ta asarreak atsekabeturik, alderdi bien artean zubiak jaso nai zituan bat. Egoki ta ausarditsu berba egin eban aldi baten Ondarru'n gazte ospatsua zan Kirru'k, Urresti'k. Nik uste dot beste aldekoen batzarretara joango balitz be bardin berba egingo leukeela. Bere asmoa ta naia ezin txaloga-



rriagoa. Izan be gure erriarentzat onurakorragoa izango litzake euskaldunok euskera auzian alkatu ta erlejiño-politika auzian be alkarrenganako lotsarik andianean jokatu bagendu. Baiña ez da erreza auxe. Beste bateri erantzunaz, «Zeintzuk dira onenak?» edo antzeko itauna egin eban Kirru'k, bere alderdi edo taldea ohea zala iñok ezin esan eikeala esan naian lez.

Ez adiskide, geu onak eta besteak txarrak dirala ez dogu esango. Ori xalokeria edo sinplekeria andia izango litzake. Auzia beste era batera mai gaiñeratu bear da. Gure erria katolikua izan da beti; bere Lege Zarrak eta bere edestia katolikotasunean oiñarritutakoak dira. Ta noiz ilgo arkitu eban Euskal Errizaletasuna biztuteko Abando'ko arranoa jagi zanean jaso nai ebanaren oiñarri, erlejiñoa ipiñi eban. Alantxe, AGUR eta GOIZ-ARGI'koak, euskaltzale izanaz gaiñera katolikuak be ba-dira, adar biko elburu onen atzetik jokatu nai dabe ta onetxegaitik, katolikotasunari lur jo eragin naian egiten diran egitadak ezin doguz ontzat artu. Nai dabena, nai dabena izan daiteala, baiña auzi onetan gure erriak kondaira zear eroan daben bideari jarraitu nai dautsagu.

Erlejiño-politika auzian eretxi desbardiñak izan arren, euskalduntasunean batu egin bear giñakeala? Gaur auzi biak askotan nastau egiten dira, esate baterako ikastoletan. Euskal ikastoletan erlejiñoa irakatsi daiela nai dogu guk. Besteak ostera Jaungoikoaren izenik aitatu be ez dabe nai ikastoletan. ¿Zelan batu geinkez auzi onetan?

Egia, euskera utsa dan auzian be ez gara konpontzen. Nok errua? Ez dakit. Asarre guztiak edo geienak Arantzazu'n euskerearen batasuna dala ta egin zan bätzarra ezkerokoak dira.

Euskaldun guztion euskerea bardiña izan balitz obe. Baiña guztiz desbardin eldu jaku gure egunetara; Desbardiña ta makala, noiz ilgo. Ta sendotzeko, bardintzea edo bat egitea bearrekoa al da? Euskerearen sendogarria oraintxe aldi laburrean ondo egingo dautsana izan bear da. Euskerak epe motxean ilteko arriskurik ez baleuko batasuna mesedegarri izango litzakio ziur, luzarora begi-

ra. Baiña denpora gitxi barru il ez daitean, oraintxe ainbat lasterren bear daben laguntzea batasuna al da? Nik ba-dakit literatura idatzirik ez dabeen berbetak luzarorako bizirik ez dabeena. Baiña gaur euskerea indartzeko literaturea baiño lenago erriari euskaltzaletasuna zuzenean sartzen eta bizimodurako, gure berbeta au, premiñazko egiten alegintzea milla bidar obe da. Edozelan be, batu bear bada euskerea, erririk geienari ulerterrezena izango litzakiona aukeratu ta eratu bear da.

Ortografia kontuan batasuna eginda egoan Bidasoa emendiko alderdian, au da Euskal Erri'ko bostetik lautan edo geiagotan. Nik len, «mendija» ta olan idazten neban eta «r» ta «l» kapeladunak erabilli; baita «t» be kapelduna «maite» ta olangoetan. Jakiña, aurreko «i» barik. Orreik danok alde batera laga genduzan batasunagaitik. Ta oneik olan dirala, batasuna egin bear zala-ta askok begi txarrez ikusten genduan «h» zer dala-ta derriorrean sartu? Auxe izan da euskal idazleen artean asarrerik geien sortu ebana.

Gure arteko asarre oneik poz gitxi emoten dauskue. Nik neuk naiago neuke, nai ta beti batera ez etorri, alkar ondo artuko bagendu. Baiña ondo konpondu nai izateak edozer gauzari burua markurtuta «bai, bai» esan bear dautsagula ez dau esan nai. Gure erriari ta euskereari kaltea ekarri deikioela uste dogunari «ezetz» esan bearko dautsagu.

*AGUR 7-7-1973, 95' gn zenbakia*

## ABERRIEN ARTEKO POLITIKEA

### GUDARIK EZ!

Aspaldian gudea edo gerrea dala-ta ugari dago zer esana. Azkenengo Europa'ko gudea baiño andiago laster izango dala diñoenak ez dira gitxi. Beste batzuk barriz, ez dagoala bildurrik esaten dabe. Gaur nai ta ez etorri bear dala esango dabe ta biar, ostera, ez dagoala arriskurik.

Oraintsu, Europa'ko Laterri nagusienetako agintariak egin zituena batzarrakaz bakea eskiertuta egoala ta pozik geratu giñan. ¡Baiña bai aldi gitxirako! Alemania'k artu daben erabagiak ikararuta itxi dau Europa geiena. Azkenengo guda ostean Versalles'en egin eben itunbenari jaramon egin barik, danentzat nai ta nai ezko soldadutzea ipiñi dau. Eta askoren ustez, Alemania'ren egitada orrek bakea ausita laga dau, gitxien uste danean Laterrien arteko guda baltza sortu eragingo daben bidea ei da-ta. Geuk be olan uste dogu. Laterri orrek baiño zaletasun geiago ez dau ipiñi azken urteotan beste erriak beraganatu naian. Aor Austria, Hitler Alemania'ko nagusi dan ezkeru. Laterri orren erpetatik bere burua ezin zaindurik. ¡Eskerrak Laterri indartsuen laguntzeari, bestelan, txarto bear eban!

Ba-dira, Alemania'ren ori, txartzat barik ontzat emoten dabee-nak be; danak indar bardiña badauke, alkarrei itzal andiagoa izan-go dautseela'ta. Eretxi orretakoak guztiz oker dagozala-ta ez ga-goz, bada, Prantzia ta beste Laterri batzuk karrazika asi badira be, gizajoak ez dagoz esku utsik.

Gaiñera Alemania azkenengo gudan galtzaille izan zanez, aren ordaiña atara naian egon leiteke. Guda arek era guztitara zapaldu-ta laga eban eta burua jaso nai, indartu nai.

Dana dala, idazten jarri nazanean artu dodan asmoari jarrai-tuaz gudearen aurka zerbait esan daigun. Gizonen zitalkeria norai-ñokoa dan argiro ikusten da emen. Azkenengo gudeagaz gomu-tautean ikaraz jarten gara. Milloika izan ziran bada illak eta zaurituak geiago. Beste bein alango gudara joango ziranik ez zan uste orduan. Baiña gaur eguneko erri agintariak abereak-edo dira-ta len baiño itzelago izango litzakean gudeari aurrerakadak emo-ten diardue.

Gizonen biziak ardurarik ez dautsela emoten esan daikegu. Baiña zer diñot? Gizonen biziak ludi guztiak baiño geiago balio daben arren gudeagaz euren Laterrien ona ikusiko balebe ¡tira! ¡baiña lengoak iñori mesederik ekarri eutsanik bakar batek be ez dauku esango, Laterri guztiak kalte andiak izan zituen-da. Orain-go lanik eza be gudearen ondorena dala diñoenak ez dira gitxi.

Orduan ¿zegaitik gudea? Ez dakigu bada. Paraguay eta Boli-bia'ren arteko gudeak zio andirik ez ebalira irakurten genduan orain aldi luzea ez dala, baiña izkillu jaubeak euren tresnak saldu guraz aretaraxe berotzen zituela.

Edozein dirala be, kristiñau maitasun andirik ez daukenak di-rela esan daikegu.

Ez da denpora asko gudazaleen aurkako berba garratzak Doi-puruak esan dituala. Eta gai beraz idazki andi bat gertuten dagoala entzun dogu. Izan be, indar guztiakaz gudearen aurka jagi bear gi-

ñake kristiñauok, Jaungoikoaren lege nagusien au apurtzen dau-  
ta: Zeure lagun urkoa zeure burua lez maitatuko dozu.

Gaiñera, kristiñau lez ez gara bakarrik gudearen aurka baita  
euskotar garan aldetik be. Gudarik baletor beste Laterrietakoak  
euren aberria aldeztuko leukee baiña guk atzerria.

Orregaitik bada, kristiñau eta euskotar garan aldetik didar au-  
xe egiten dogu.

Gudarik ez!

### *EUZKADI*

Oraingo oarra: España'ko guda aurretik, mutil gaztia nintzala  
idazten asi nintzanean egindako lenengoetako idazlana da au,  
1933'garren urte ingurukoa.

### **GUDA BILDURRA**

Azkenengo gudea amaituta laster, ordukoan alkarren lagun  
izan ziran Errusi ta Ipar Amerika, baktotxa bere naiera jokutzen asi  
ziranetik, len baiño andiangoaren bildurrean bizi gara mundu guz-  
tia. Izan be bildur izatekoa da, gaur egunean olango guda batek  
ekarriko leukezan zoritxarrak ikaratzekoak izango litzakez-da.

Baiña mailla orretariko gudarik iñok biztu daike? Munduko  
gudea sortzeko al eta nai izan bear da. Ta gaur Laterri bi dira ba-  
karrik munduan olango gudea ekarri al dabeenak. Biar edo etzi  
Txina'k be orrenbeste indar euki leiteke, baiña orain Errusi ta Ipar  
Amerika dira bakarrik orretarako gauza diranak.

Errusi'k eta Ipar Amerika'k benetan nai ez badabe ez da mun-  
duko gudarik. Ta an eta emen sortzen diran guda txikiagoak be lu-  
zaro baiño len amaituko litzakez andiok nai izan ezkeru.

Ta Errusi'k eta Ipar Amerika'k gudarik nai dabe? Munduko  
irugarren gudea sortzeko errezo andiak euki izan bearko leukeez.

Etxe barruan edo kanpuan larri egon eta sortu leitekean gudeak euren buruari kalte andirik ekarri barik arerioa menperatzeko ziurtasuna.

Ta olango errezoi ta ziurtasunik iñok ez dauko. Bai batak eta bai besteak izango ditue buruaustek etxe barruan baiña edozelan be munduko jaunak dira. Ta guda andi baten batak bestea errez azpiratzerik ez da. Iñok baiño obeto dakie, euren artean gudea sortu ezkeru bientzat zelango ondamendia izango litzakean.

Euren ziurtasunagaitik inguruko lurraldeak zaindu bearra dabe Laterri andiak. Muga arein barruan iñor ezin sartu daiteke edo sartzen bada urten egin bearke dau gudarik nai ez badau. Hungria ta Checoslovaquia'n izan ziran matxinadetan Ipar-Amerika ango komunisten arerioai laguntzera ez joateak arritu egin zituan asko. Baiña an ez egoan ezer arritzekorik, Ipar Amerika'k ango matxinadetan musturra sartzea bera ta Errusi'ren artean gudea astea izango zan da. Ostera, Kruschef Cuba'n misillak sartzen asi zanean Kennedy'k gogor berba egitea naikoa izan zan, errusitarrai etorri ziran bidetik joan eragiteko.

Euren babesa diran lurraldeetatik kanpora al dabenak al dabena egingo dau; alkarrei tantoak irabazi naian aleginduko dira, baiña bien artean gudarik ez izateko modura. Iñungo gudaren baten bat sartzen bada, bestea aurka ez jako gogortuko.

Errusi'k eta Ipar Amerika'k alkarregaz gudatu nai ez badabe beste txikiagoak sortutakoagaitik ez dira auzkan asiko.

Gaur egunean Israel eta arabeen arteko eztabaida ta asarreak dira munduko kezkea. Ta arrolioaren auzia tartekoa dala ikusirik, geiago oraindik. Ipar Amerika arrolioagaitik gudan sartzen bada Errusi bere lagun arabeen alde amerikatarrai izkilluz arpegai emotera joango al da? Ez nire ustez. Errusi'k or ez dau ezer galtzen. Ez da Amerika'gaz gudea egitera beartuko leukean errezoia. ¡Ezta iñundik be!

Gudea gaiñean dogula diñoenak, euren eretxiari indarra emoteko, azkenengo guda aurreko antza daukala gaurko egoereak diño. Ta beste errezoiak beste, Paulo VI aita santuak oraintsu gudea dala-ta egin daberen berbaldia orduko aita santu Pio XI'ak egin ebanagaz bardindu dabe.

Bai, mundua larri dago, batez be arrolioaren gorakadearen ondorenagaitik, baiña orduko arriskurik ez dago orain. Orduan gizon arro bat zan, Hitler, aurreko gudan galtzaille geratutako Alemania'ko buruzagi ta beste Laterriai izkillu gertuten aurea artuta, gudeak euren aldera joko eban ziurtasunagaz Europa guztiari ikareta sartu eutsan bidea artu eban. Lenengo, gudea galdu ebanetik gudarostea eukitea debekauta eukan Prantzia'gaz mugea egiten eban alderdira, Sarre'ra, gudariak bialdu zituan. Gero, bere jaioterri Austria (alemandarra berbetaz) azpiratu eban. Urrengo Checoslovaquia erdia artu eban, an be berbetaz alemandarrak ba-egozan atxakiagaz, orretarako Chanberlain ingalatar eta Daladier prantzes jaun buruzagiai burua makurtu eragiñaz, Musolini lagun ebala Munich'en egin eben batzarrean. Egia, guztiak tiro bat jaurti barik artu zituan, Ingalaterra'k eta Prantzia'k, gudarik ez izatearren, amor emoten eutsen-da.

Alemania'ren geiago naiak ez eukan amairik. Lengoak ozta-ozta iruntsi orduko beste barriai erpeak jaurtiteko gertuketak egiten ikusten zan. Hitler'en jokabide arei langea ipintea nai ta nai ezkoa zan.

Gaurko Laterri andien jokabidea ta orduko alemandarrena ezetan ez dira bardinduten.

Ez, gudarik ezin leitekeanik ez diñogu, olangorik ez dogu esan nai. Suagaz diardue ta erretea izan leiteke. Baiña lojikaz ez da guda nagusirik.

Ez genduke nai. ¡Ez orixe!

*AGUR 173' garren zenbakia*

## TXIKIEN ZAINDARI

Lenago be egon izan naz gaurko gai au arturik idazteko, baiña orain beintzat, irakurri dodan idazlan batek bultzau nau neure au egitera.

Ameriketarrak Vietnam'en gudan sartzeko eskubiderik ez da-beela erakutsi naian, Italia barruko Laterri txiki San Marino'k be Actlantico beste aldeko Laterri andi orrek aiña eskubide ba-dabe-la diño.

Ez noa orain guda au dala ta ezer idaztera; nire asmoa itaun au egiñaz agertuko dot: Edozein Laterri barruan gogorkeria ta anai arteko gudak diranean, ba-dabe kanpokoak, alde batekoari edo bestekoari lagunduaz naste areitan sartzeko eskubiderik?

Irakurleen erantzuna, ao batez, ezetzkoa izango da: Iñok ez dabela eskubiderik besteen gauzetan sartzeko. Zentzunekoa danak beste erantzunik ezin emon daikeala dirudi.

Nik ostera, ez dot uste erantzun ori soillik errezoizkoa danik. Kanean gizon bi auzkan ikusten diranean, batez be alkarrei min andia emoteko edo egiteko itxuran badabiltz, alkarrengandik banatzen alegintzen gara. Gaiñera, asarre orretan batek besteari zuzenbakokeriz min dagiola ikusten badogu, oraindik gogotsuago bertan sartzen gara, azpiratua danari laguntzen edo min geiago artu ez daian. ¿Ta gizonakaz egiten dan au ondo badago, txarto dago erriakaz beste ainbeste egitea?

¿Beste errien autuetan sartzeko eskubiderik iñok ez dabela? Nik bestelan esango neuke: Orretarako gauza diranak, edonungo asarre, gogorkeria, ta zuzenbakokeriai amaia emoten alegintzea beartuak dagozala. Orain bertan Errusi'k eta Ipar Amerika'k alkar artuta Sortalde Erdiko auzian Israel, Ejipto ta abar bake zuzena egitera beartuak izango balira, txarto egiña izango litzake?

Baiña zoritxarrez, askotan, Laterri andiak bake ta zuzentasun naiak eraginda ez dira sartzen Laterri txikiagoen asarre ta naste-



tan, eurentzat obeto datorrenari indarra emon guraz baiño. Orre-  
gaitik ikusten da begi txarrez sarritan Laterri andien txikiakaz  
sartzea.

Ta orain idazle orrek esan dabela ta gorago idatzi dodanari zu-  
zenean erantzun deiodan.

Aldi guztietan egon dira, munduan edo munduko alderdietan  
eragiña izan dabeen Laterriak. Denpora baten España bera be  
zerbait ba-zan; bere lurretan eguzkirik ez zala gordeten edo esku-  
taten esaten dan denpora areitan edonun musturra sartzen eban.  
Prantzia, Aprika'ko geienaren jaube zan azkenengo gudate arte.  
Ingalaterra'k izen bategaz edo besteagaz, modu batera edo beste-  
ra, mundu erdia bere menpean euki izan dau orain gizaldi laurden  
bat arte.

Orain Errusi ta Ipar Amerika'ren txandea da. Ta aurrerantzean  
be norbait nagusituko da Laterrien artean. Beraz, berezkoa dan  
(bear bada bearrekoa be bai) Laterrien arteko gidaritzaz orren aur-  
ka ez gara asiko. Gaiñera Laterrien artean aurrenetakoa izatea beti  
ez da gozoa izaten, iñoiz zama astuna be izan oi da. Munduan go-  
raberera andiak jokatzen diranean olango Laterriak nai ta be besoak  
gurutzetuta ezin egon daitekez. Azkenengo gudan, Europa guztia  
alemandarren menpean jausi zanean, fazismoaren arerioak ziran  
danen itxaropena Ipar Amerika zan eta lenengoan orretarako ez  
egoan gertuta, baiña gero sartu egin bear izan eban.

Baiña beste aldetako auziak lagata Asia'ko Sortalde Ego'koari  
begiratu deiogun, berbatxu bi bada be esateko. Vietnan'go auzian  
ezetan sartzeko kanpoko iñok eskubiderik badauko, ori Ipar Ame-  
rika da, Indotxina ta abar japonsarren menpetik askatzea oso-oso-  
rik berari bakarrik zor jako-ta. San Marino'k be Ipar Amerika'k  
beste eskubide dabela an eurak nai ez daben gobernu modurik ez  
onartzeko? Ez onartzeko izango dau, baiña an musturra sartzeko,  
ez.

*AGUR 46' garren zenbakia*

## ZER JAZO DA VIETNAM'EN

Ipar-Amerika'ko auteskunde egun aurreko asteetan, mundu guztia poztu ginduan barria zabaldu zan: Vietnam'go gudea amaitzen zala; ainbat urtetako odol ixurtze ondoren bakea ebela vietnamdar errukarriak.

Baiña bereala Nixon'en jokabidea burura etorri jakun. Orain ain errez gabetik goizera eratu dan bakea ¿zelan ez dau egin lenago? Orain Kissinger'ek iru-lau eguneko jardunagaz konpondu eikuan gudeak ¿zelan irauan dau orain arte? Ala, auteskundeak irabazi al izateko edozelango bakea egiteko gertu al egoan bera? Urruneko gudea bere lepotik jaurti nai daben erriaren gogoa irabazi naian edozelango amaia emoteko gertu al egoan?

Une batetik bestera bakea egingo zala zirudian; bear bada iru-lau ordu barru izenpetuko zala be esan eben barri emoleak aldi baten. Ipar Vietnam prest egoan orretarako. Prest baiño prestago be bai; amorratzen. ¡Beretzat baldintza oneko bakea izan kontixu!

Baiña Kissinger'ek bear ziran guztiakaz kontau barik eratutako bakea zan zirudianez, zer ikusi asko eukan Ego Vietnam'egaz kontau barik. Eta onek ezetz biribilla emon dau bere lendakari Van Thieu'n aoz. Iñok aintzat artzen ez eban agintari makalak zerbait ba-dala erakutsi dau.

Jazo dana ikusirik, beste itaun au neure buruari egiten asi naz: Ipar Amerika'k eta Ipar Vietnam'ek eratu dabeen eta izenpetzeko gertu egozala zirudian bakea, benetan nai izan ete dau Nixon'ek? Nixon jaunak bakea nai dabena ez dago ezpairik. Vietnamdarrak kenduta munduko beste iñok baiño naiago izango dabela esango neuke. Errezoi askogaitik, eta bat, ori lortuta bere erriaren aurrean andi-andi geratuko litzakealako. Ta bake billa iñoizkorik sutsuen ibilliko zan auteskunde aurrean. Baiña Ipar Vietnam'egaz lortu daben akordua, nai ta itxurak bestera egin, ez ebala gogokoa dirudi. Gogokoa izan balitzakio, Thieu'k burua makurtzea lortuko eban.

Lentxoago ia eskuan eukan txoriak iges egin dabela dirudi. Geienez be bi edo iru egun barru izenpetuko zala esaten zan bakea urruneratu egin da. Orain, Gabonetarako-edo, lortuko dala Vietnam'go bakea irakurri dogu. ¿Zer gertau da? Ez dakigu. Bear bada, egunen baten jakingo doguz orain eztabaidatu diran kon-  
tuak.

Andoni deuna baiño mirari egilleagoa zirudian Kissinger'ek ez dau miraririk egin. Bada, miraririk mirariena zan, ainbat urtean ezer konpondu ezin izan dan auzian, iru-lau eguneko jardunagaz bi aldekoentzat okerrik ez ekarren bakea lortutea.

Orain Vietnam'go gudeak aurrera jarraituko dau, noi arte izan-  
go dan itxura barik.

¡Laster amaituko al da!

*AGUR 9-12-1972*

## **AMAITU DAN VIETNAM'GO GUDEAREN GAIÑEAN**

Amaitu da ainbat zer esan eta buruauste munduari emon dautsan Vietnam'go gudea. Egia esateko, orain dala urte bi amaitu zan paperean, Kissinger'ek eta orain bere izenagaz gomutauten ez nazan ango ordezkariak bakea izenpetu ebanean. Baiña orduko bakea itxura utsa zala laster ikusi zan, batez be Kissinger'egaz batera Nobel saria (bake saria) irabazi ebanak berea biurtu ebanean.

Izan be, euren gurendea beste azkenik gudeak ez ebala izango esaten aspertu barik jardun eben komunistak pakea izenpetutea ez sinistekoa zan.

Baiña ba-ekien komunistak zetan ziarduen. Bein aldi batera eldu ziranean andik alde egitea beste asmorik ez eukan ameriketa-  
rrak; munduaren aurrean lotsagarri ez geratzeko, «bakea» izeneko edozer itunben ontzat emoteko egozan eta ori ikusirik, komedian

tarteko izateko errenkura edo eskrupulorik ez eben izan komunis-  
tak.

Orain, bat-batera amaitu da gudea, ia auzka barik. Ipar Ameri-  
karrengandiko laguntasunak amaiera laster izango ebala ikusirik,  
bertan bera laga dabe Ego Vietnam'ekoak. Oraindik izkillu urrita-  
sunik ez euken, baiña gero be galtzaille izatekotan, obe zenbat-eta  
lenago gudeari amaiera emon.

Vietnam'go guda onetan arrigarria izan da komunisten adorea;  
Bildurgarriak izan dira Ipar Amerikarrengandik jasan dituzten  
bonbardeoak, baiña arei burua makurtzekorik ez egoan. Ainbeste  
zaletasunagaz burrukatzen daben gudarostea, nai ta nai ez garaille  
atara bear.

Alan be Vietnam'en Ipar Amerika azpiratua izan danik ezin  
esan daiteke. Vietnam baiño askotaz altsuago zan Japon azpiratze-  
ko ipiñi ebanaren indar laurdenik ez dau ipiñi guda onetan Ipar  
Amerika'k; ta ori atomika lerkia kontuan artu barik. Orko gude-  
aren amaia, azken aldian bertan izan diran burrukak ez dabe eka-  
rri. Ipar Amerika guda onek aspertu egin dau ta etxe barruko poli-  
tika urak euren alderdira erroteko, kontserbadorioak, eurak nagusi  
diran aldun batzarretik langak ipiñi dautsoez beste alderdikoa dan  
Laterri lendakariari. Nixon kontserbadoria izan balitz, nai zituan  
erreztasun guztiak izango zituan aldun batzarrarengandik. Baiña  
askoren politika jokabidea orixe izaten da: Aberriaren ona baiño  
alderdiaren ona lenago billatzea; agintzen dagozanean era batera  
ta Gobernutik kanpora dagozanean beste erara jokatzea.

Guda au alperrekoa izan dala esaten da. Bai, guda guztiak dira  
alperrekoak, edo izango litzakez munduan zuzentasuna ta maita-  
suna nagusi balira. Baiña ez da olangorik. Ta Vietnam'go gudeari  
buruz komunistak ez dabe esango alperrekoa izan danik. ¡Ez ori-  
xe! Guda au dala ta Indotxina guztia eskuratzeko eran geratu dira-  
ta.

Egia esateko, alperrekoa izan da bai, Ipar Amerika ta Ego  
Vietnam'goentzat. Alperrekoak, izan dituen neke, odol jariote ta

eriotzak. Baiña arerioai arpegia emon barik ateak zabaldu baleutsez egite orren aurka berba egingo eben, gudea alperrekoa izan dala orain esaten dabeen geienak.

Ipar Amerikarrak guda onen errua iñori jaurtitekotan, Kennedy'ri bakarrik jaurti bear leuskioe, Ipar Amerika gudara eroan ebana bera izan zan da. Urrengo lendakariak aurrekoengandik jasotako ondorea eben Vietnam'go guda au ta euren ustez Ipar Amerika'rentzat ondoen zan eran jokatu eben.

Laterri altsua izateak be alderdi on eta txarrak ditu; munduko politika gorabera guztietan adi egon bear ko dau ta sarritan nai ez da be sartu egin bear izango dau asarre ta nasteetan. Ipar Amerika'ri altsua izateak on asko ekarri izango eutsazan baiña baita buruko min asko be. Olantxe, sartu bearra izan dau munduko guda bietan. Ta bere altsu mailla auxe aztun egiten jake ipar amerikarrai, dakartsoen bearkizunagaitik.

Alan be barregarri dira guda au galdu dabelako Ipar Amerika'ren etorkizuna ain baltz iragarri dabeenak: zera, España'k Kuba galdu ebanean Laterri altsu izatea galdu eban lez, Ipar Amerikaren beeratutea Vietnam'go guda galtzetik etorri leitekeala. Zorakeria andiagorik ezin esan daiteke. Olako guda bat galdu edo ez galdu, Ipar Amerika'ren altsutasunik ez da bat-be gitxitu. Aurrerantzean be altsu izaten jarraituteko bear diran guztiak beregan ditu: Biztanle asko, lurralde andi ta aberatsak, industria andia, tenika edo trebetasun punterengoa, gudaroste indartsua, guztia.

Ipar Amerika emendik aurrera munduko goraberaz gitxiago arduratzea izan leiteke baiña guda andiran batek-edo ondatu ezik, punterengoa izaten jarraituko dabela orain eta gerotxoago be uste izatekoa da.

Amaitu da bai Vietnam'go gudea. Len beraz berba asko egin bada be laster aztuko gara, Corea ta Angola'z aldi baten naikoa berba egin eta gero aztu giñan lez. Baiña gudea alde batekoak irabazten dabe ta galdu dabenentzat ez da dana gozoa izaten gudea-

ren amaia, batez be anaia artekoa danean. Vietnam'go agintari barriak erria edo erriko jendea ondo artu dabeen barriak zabaldu dira ta igesi joandakoai be deitu egin ei dautsee, danen artean aberria jasoteko errira biurtzeko esanaz.

Albista oneik egizkoak izatea izango litzake nire pozik andiena. Margo bateko nai besteko agintarien eskuan erria egon, benetako bakea ta era guztietako ondo izatea opa dautsat biotz-biotzez ainbat ezbear eroan bear izan daben Vietnam'eri.

Laterri arteko politikeari buruz Vietnam'en komunistak nagusitzeak zer ikusi andikiko ondorenak ekarri leikez. Komunismuaren menpean jarri nai ez dabeen Laterriak orretarako Ipar Amerika'ren laguntasunik ez badabe izan bear ¿zaindu al izango ete dabe euren buru jaubetasunik? ¿Vietnam'en amaitu dana, Corea'n edo Sortalde'ko beste Laterriren baten ez da asiko?

Komunismoa nagusitzen asi ezkerro Errusi ta Ipar Amerika'ren arteko indar bardintasuna galtzen joango litzake ta orixe izango litzake munduko bakea galtzeko arriskurik andiena. Bere eragiña debeen edo adiskide diran Laterriak beste aldekoaren saillera igarotzean, gauzea beretzat okerregei jarri baiño len zerbait bildurgarri egitera beartu leitekeelako nai Errusi nai Ipar Amerika, Kuba'ko errusitarren misillak zirala-ta jazo zan lez.

Vietnam'go komunisten gurenda au beste gudarik sortzeko bidea ez daiteala izan.

*GOIZ-ARGI 28-5-1975*

## **JUDUTARRAK ETA ARABETARRAK**

Edonoiz eta edonun izan dira gudak munduan. Izan be orixe da geienbat munduko kondairea. Ta diñogun lez edozein alderditan gudak izan badira be, aldi batzutan bakerik eza geiago nabarmentzen dan lurraldeak izaten dira. Oneitako bat azkenengo berrogei urtean Eguzkialde Urbil lurraldea izan da.

Mundu guztian zabaldua egozan judutarrak azkenengo guda nagusi ondoren Israel euren asaben lurraldean barrero aberria sortzeko asmoz bertara batzen asi ziranetik inguru areitan bakerik ez da ezagutu. Lenengo, Ingalaterra'koak andik bialtzeko eten bakoak izan ziran ango auzkak. Baiña ingelesak, angoakaz ezin buruturik, orretarako ipiñita euken epea amaitu baiño len alde egin ebenean, inpernu biurtu zan Israel, agintari barik geratu zan lurraldearen jaube, bai judutarrak eta bai arabetarrak biak nai eben egin-da.

Ta guda guztietan lez an be alderdi bat izan zan irabazle: judutarra.

Arrezkero, arabetarren buruausterik andiena orixe izan da, judutarrak andik bialdu, judutarren aberria ondatu. Ta orretarako alegin naikoa egin dabe, bi edo iru bidar izkilluak eskuetan artuaz. Baiña alperrik; guda guztietan len baiño txartoago geratu izan dira, judutarrak gitxiago izan arren aurreratugoa dagoz-da.

Jdutarrak arabetarren bildur gitxi izan dabe orain arte ta aurrerantzean be apur baten kezka andi barik lo egingo leukee euren artean besterik sartu ezik. Baiña arabetarrak gero ta lagun geiago ditue, Israel Laterritxoaren adiskide izanda baiño arabetarrena izanda kontu ohea da-ta. Arabetarren alde agertzen diranak onein adiskidetasunagaz gaiñera Aprika osoaren ondo naia irabazteko bidean jarten dira.

Azkenengo munduko guda nagusi ondoren judutarrak buru ziralra Israel erri askatu lez jarri zanean Errusi izan zan Laterri barria lenengo ezagutu ebana. Gaur, Errusi, Israel'en arerieren laguntzaillerik andien biurtu da. Prantzia be gaur arte ondo konpondu izan da judutarrakaz baiña orain lepoa emon dautso. Egia, De Gaulle'k ori egitea ez da arritzekoa, eguneko komenentziari baiño ez dautso begiratzen-da.

Israel be ez dago lagun barik baiña orreik lagunok bere alde bero-bero atarako litzakezanik ez dogu uste. Igazko udan juduta-

rrak tximistea lez aurrera joan ziranean mundu guztia bake eske jagi zan eta geratu egin zan gudea. Baiña gauzak bestera izan balira arabetarrek ez ziran geratuko judutarrak azpiratu ta Israel guztiagaz jaubetu arte.

Diñogun au ez da bada-ezpadako gure eretxia, zentzunak diñoana baiño. Arabetarren lurralde guztiaz jaube egiterik amesetan be ez dabe pentsauko judutarrak. Baiña arabetarrek aurrera egin ezkerro Israel Laterri txikia osorik menperatzea ez litzake zailla izango. Ta bein menperatu ezkerro geiago burua ez jasoteko moduan judutarren aberria ondatzea ziurren izango litzake. Ez da ori errezoi guztia. Igaz judutarrak aurrera joazanean bere lagunak arabetarren lagunakaz batu ziran bakea eskatzeko. Arabetarrek aurrera egin balebe osterá, onein lagunak gitxi aleginduko ziran bakearen alde.

Olantxe da. Erri bat lez norbere buru jaubetasunagaz bizitzeko eskubidea danok daukagu munduan. Israel'ek be bai. Bi milla urtean mundu zear sakabanatuta egonda be, bere erritasun kontzientzia bizirik daben erriak iñok baiño eskubide geiago dabela esango genduke.

Au danau ondo legoke iñori kalterik egin barik egin al balitz. Baiña Israel judutarren aberri edo Laterri lez ipinteko bertakoak diran ia milloé arabetar kanpora ataraak izan dira ta ainbat urtetan konzentraziño kanpoetan bizi dira.

¡Au baiño bidebakokeria andiagorik! Zeruan be deadar egiten dau okerkeria onek.

Ikusten danez ukatu eziñekoak dira alde bietakoen errezoiak; ukatu eziñekoak eta alkartu eziñekoak. Ta au olan izanik auziaren konponketea zailla be zailla dala autortu bear, batez be auzi orretan zer ikusi dabeenak borondate onik ipinten ez dabeelako.

Arabetar eta judutarren eztabaida au onez konpontzea baiño berau bitarteko dala euren eragiña, euren influentzia zabaltzea naiago dabeenak ba-dira. Laterri andi orreik' auzi orrek alik kon-



ponketa onena izan daian aleginduko balira egoera baketsuagoan arkituko litzake Eguzkialde Urbil lurraldea.

Bertan guda izkillutan, gudeak ondatutakoak konpontzen edo jasoten, lanerako diran gizonak armetan eukiteagaz eta abarretan eralgi dan dirutzeagaz konzentraziño kanpoetan dagoan jendearentzat bizimodu egokia eratu al izateko erriak eta lan bideak ipiñi eitekezan.

Eguzkialde Urbil aldeko bakea billatzea, alde bietakoen ona billatzea da ta ez alde batekoa armaz josi beste aldekoa ondatu naian.

¡Noizbait zentzunera etorriko al dira judutar eta arabetarrak eta baita orreik baketu bearrean sutzen alegintzen diran eragipen andia dauken Laterriak be!

*GOIZ-ARGI Azilla-1968*

## **ISRAEL'KO GUDEA**

Eguzkialde Urbil'ko gudea dala-ta idatzi dana irakurririk, Errusi ta Ipar Amerika izan dirala guda ori biztu dabeenak esan leiteke. Bai, eurok izan dira israeldar eta arabetarrak izkilluz lepoinaño bete dituenak eta baita gudea egitea be eurok eskatuta itxi dabe. Beraz, gauzak olan izanik, zerbait esatekoa be be-da. Baiña ez; israeldar eta arabetarren gudea geienbat eurak alan nairik izan da. Orreik alderdi biok iñok axaxatu bearrik ez dauke; orretarako dituen errezoi ta alkarrei dautseen gorrotoa naikoa ta geiegi be badiara euren artean gudak eta gudak sortzeko.

Orain, Ipar Amerika ta Errusi'ren izkilluz gudea egin dabe, baiña oneik ez baleutseez emon, besteren batzukandik jaube egingo ziran. Bear bada ez izkillu ain aurreratuak; baiña alkarrei eriotza asko egiteko pusillak be naikoa dira. Laterri guztiak, nai andiak nai txikiak, daukez izkilluak, baita beste Laterriakaz asarrerik eta eztabaidarik ez daukenak be.

Israel (orduan Palestina deitzen zan lurralde ori) bere buru jaube izatera eldu aurretik Ingalaterra zan lurralde aretako nagusi, Aberri Batuak ez dakit zein urte arte emondako nagusitasunagaz. Orduan be israeldar eta arabetarrek txakur eta katu ibiltzen ziran, txitean potean Jerusalem eta abarretako kaleetan alkarrei eraso ta zalapartarik andienak sortuaz il eta zaurituak naikoa izaten zituen. Ta Ingalaterra eurakaz ezin konponduta, orretarako izentauta eukan epea baiño len bere agintaritzea laga ta urten egin eban, erria agintari barik lagata. Ingelesak alde egin ebenean israeldarrak nagusitu ziran eta Israel Laterri barria sortu zan. Orduan Errusi'k begi onez ikusi eban Israel'en sortzea; iñok baiño len, Amerika'k eta lagunak baiño len ezagutu eban Laterri barria.

Gerora, arabetarren lagun izateagaz kontu ohea zala oartuaz euren adiskide ta laguntzaille andia egin da Errusi ta Israel'en arerio. Ipar Amerika'ri be arabetarren lagun izatea obeto letorkio, baiña ezegaitik be ez dau nai Israel baztatu. Beraz, argi da Erdialde Erdi'ko eztabaidan diru auzi edo ekonomiagaitik ez dabillea Ipar Amerika.

¿Iñok axaxatuta gudea egin dabeela? Ez dakit. Ipar Amerika'k bultzauta ez beintzat. Ipar Amerika'k guda orregaz ez dauko irabazirik eta ezta Israel'ek be. Ta ezetariko irabazirik ekarriko ez dautsan gudarik iñok ez dau nai. Oraingo gudea israeldarrak ez dabe asi, arabetarrek baiño. Arabetarrek nai ta nai ez gudea egin bearrean egozan, euren egoerea ezin eta larriagoa zanda. Palestinnarrak nun bizi ez daukela konzentraziño kanpoen antzekoetan eta Ejipto, lurralde andiak galduta ta irabazi bide andia daben Suez ibaia edo danadalakoa itxita ta abar. Beraz, arabetarrek zirkin egin bear eben, irabazi nai galdu, gudeari su emon bearra euken.

Guda au amaitu zanean alperreko gudea izan zala irakurri neban. Bai kontixu; ondo pentsau ezkeru gudak danak izaten dira alperrekoak. Baiña oraingo au arabetarrentzat ez da izan alperrekoa. Ez dabe irabazi gudea; bear bada irabazle baiño galtzaille geiago.

izan dira. Ta ezpai barik, gudeak apur bat luzatu baleu egundoko jipoia emongo eutsan israeldarrak.

Baiña guda onegaz sendotu egin dira arabetarrak. Lengo gudan lur jota geratu zan euren gudari izena. Ta orregaitik arrezkero egin dituen zemaiaak iñok ez ditu aintzat artu. Baiña emendik aurrera aintzat artu bearko dira arabetarrak. Errusi'gan lagun andia arkitu dabe ta euren arrolioa izkillurik gogorren biurtu da. Au dala-ta len baiña aletin geiago egingo dau munduak Eguzkialde Urbil'ko auzia konpondu daitean.

¡Danen errezoiak kontuan dituen bake zuzena lortuko al dabe!

*AGUR*

## **ARROLIOA DALA-TA**

Gure egunotan al dabenak al daben guztia egiten dau edozer gauzatan besteai ekarri leikioen kalteagaz ardura barik. Esate baterako 50.000 laurlekotan neurkin lauki lurra saldu al badau gitxi eretxiko jakoz 45.000 laurleko ta ez dau salduko. Ta olantxe beste gauza guztietan.

Noizik bein norbaitek olango geiegikerien aurka zerbait esan edo idatziko dau, baiña geienetan normaltzat artzen dogu ori. Geuk aukera ori ez izatea izaten da gure tamala.

Al dabenak al dabena egite au arabetarrak be ederto ikasi dabe. Israeldarrakaz izan dabeen gudea dala-ta arrolioa zeruetaraiño jaso dabeena guztiok dakigu. Eurak arrolioagaz artu dituen neurriak kalte andiak ekarri ditu mündu guztira: Lana gitxitu ta bearrekoak diran gauza askori ikaragarritzko gorakadea eragin; kezkea ta ezin bizia sortu toki askotan.

Edozein biotz bako salerosleren geiegikeriak baizen gaitzetsitekoa da arabetarren arroliogazko jokabidea. Gudan alik ondoen

urteteko neurri orreik artzea errezoizkoa da, baiña gudea amaituta be lengo bideari eutsi nai izatea iñundik iñora ezin onartu daiteke. Ortik Errusi'rentzat kalterik izan balitz, ez zan olangorik jasoko. Munduko politikan buru diran alderdi biak, edo zuzenago esateko, Errusi ta Ipar Amerika'k alkar artu balebe, makurtu bearko ziran arabetarrak. Baiña Errusi lagun agertu jake ta edozer geiegi-keria egiteko bildurrik ez dabe.

Arrolio ezak Laterri batzuei sortu dautsezan larritasunak ikusirik, erri aurreratuen aurrerapena erri atzeratuen kontura izan dala esan da. Ez dakit erri atzeratuen lan gaiak bear dan lez ordaindu dituen ala ez erri aurreratuak. Kontixu, geiegi baiño gitxiegi ordaintzea ziurrago izango da. Alan be ori esatea aoa geiegi zabal-tzea da. Errien aberastasuna edo aurrerapena kultureak ekarri dau, tenika bidez asko sortu edo produziduteak. Atzeratuak dirauen errietakoak baiño aurreratuak diran errietakoak burutsuagoak eta langilleagoak izan dira.

Gauzak, bera egitea kostau diran arabera balio badabe, ondo ordainduta egoan arrolioa lengo saneurrietan be. Lan gai gitxi dira arrolioa arabetarrai baizen gitxi kostautakoak. Arrolio putzuak Jaungoikoak ipiñi eutsezan euren lurpean eta ameriketarrak eta europarrak bera atarateko tresnak. Arabetarrak bat-be neke barik dirutza andiak sakuratu. Orixe bakarrik euren lana.

Arrolioia ondo be ondo ordaindua izan dala konturatzeko oraintsu zabaldu dan barria gomutautea naikoa da; zera, arrolioaren jaube diran arabetar Laterriak dirutan iñor baiño aberatsagoak dirala.

Euren aberastasunak loteria izan dira ta loterian aberasten dan iñori ez jake ukatzen bere diruen jaubetasunik, Arabetarrai be euren arrolioagaz bear dan lez baliateko eskubiderik ez dautsegu ukatuko ta on egin deioela. Baiña, Jaungoikoarren, inungo erriri estura ta ezin bizirik sortu barik.

Ta amaitzeko: Arabetarrek ainbeste diruren jaube izan eta palestindar koitaduak bizimodu erosoan egin al izateko lurralde bat ezin egokitu?

*AGUR 131' garren zenbakia*

## **DE GAULLE TA IPAR AMERIKA**

Beste erri bateri eskar ona zor dauksan erririk munduan bada erri ori Prantzia da Ipar Amerika'ri. Mende onetan ezagutu doguzan guda bietan, sekula munduan izan diran gudarik garratzenak, Amerika'k, bere semeen odola jarioaz atera dau Prantzia alemandarren menpetik.

Lenengo gudan ia Paris'eraifio sartu ziran alemandarrak eta ameriketarren era guztietako laguntzea ez izatera Prantzia'k ez eban jaurtik bere arerioa. Azkenengo gudan alemandarrak Prantzia guztiagaz jaubetu zirana danok dakigu; ta ameriketar gudariak Europa'n oifnak ipifni ez balitue Prantzia gaur be oraindik alemandarren menpean egongo zan.

Ta Amerika'k Prantzia'ri egindako on guztia ez da arerioen menpetik askatzea bakarrik. Guda ostean Prantzia (ta Europa guztia be bai) ondatuta egoan, birrinduta asko ta zer janik ez eukela, ta Ipar Amerika'k esku zabalez lagundu eutsan eta burua jaso al izan eban. Buru bakoa edo esker txarrekoa ez dan prantzesak, bizi dan arte guztian Ipar Amerika'ganako eskar ona sentidu bear leuke, Laterri onek Prantzia'ri egindako mesedeak andiak izan dira'ta. Baiña De Gaulle jaunak eskar onaren ordezt iraiña ta areriotasuna agertzen dauksaz. Europa'k Ipar Amerika'ren menpean ez daukala zetan egon esaten dau berak.

Bere jokabideari errezoi itxurea emon naian asmautako barriketak baiño ez dira De Gaulle'ren berbak. Bestelan, zorren itsuak al dira Amerika'gaz batera jokatu nai dabeen Europa'ko ainbat Laterrietako agintari ta politikuak, edo Amerika'ri salduta doguzan etoi edo traidoriak?

Ez bata ta ez bestea dira. De Gaulle burubakoa danik ez dogu esango, baiña beste guztien artean artutako erabagiak zuzenago izango dirala uste dogu, gizon bakarrarenak baiño. Ta Europa'ren ona nai izaten, De Gaulle baiño askotaz aurrera ipinten doguz Ipar Amerika'gaz batera dagozan europar politiku orreik. De Gaulle'k Europa'ren ona baiño Prantzia'rena aurrerago ipinten dabela ukatu eziñekoa da. Beste orreik, ostera, Europa'ren alde dabiltz; Merkatu Batuan eta baita O.T.A.N.'en be alkartuta dagoz. Jakiña, ez dabiltz euren errien aurka ta zetan ibilli be ez dauke, Europa, euren erriakaz osatzen dalako ta Europa'ren ona billatzean bakotxaren errien alde diardue.

Europa'k bere burua zainduteko Amerika'ren bearrrik ez daukanaren itxurea egiten dau De Gaulle'k. Baiña iñok baiño obeto daki berak ori egia ez dana. Azkenengo guda bietan Europa'k Ipar Amerika'ren bearra izan baeban gaur bearrago dau. Ipar Amerika'ren laguntza barik katuak saguagaz lez jokatu leike Errusi'k Europa'gaz.

Errusi'ren Europa'gazko asmoak zeintzuk diran ez dakigu; ez dakigu Europa Ipar Amerika'ren laguntza barik arkitzen dala Errusi'k bereganatu naian gudea egitera joango ete litzakion. De Gaulle'ren ustez, bear bada, Errusi ez doa ezelan be Europa'n gudea biztutera ta uste orregaz sendoturik Ipar Amerika'ri ostikadak jaurtiteko eran arkitzen dala ikusiko dau berak.

De Gaulle egundo ez da ondo konpondu Ipar Amerika'gaz. Alemandarren igesi Prantzia laga ta Ingalaterra'ratu zanean be, aliauen aldeko prantzes Gobernua bertan sortu eban arren, ezin-ta otzagoak ziran Ipar Amerika ta bien arteko artu-emonak. Ez dakigu zegaitik zan ori. Eukan indarrari zegokion baiño eskubide andiagoak bereganatu nai izango zitualako ete zan? De Gaulle'ren Ipar Amerika'ganako ezin ikusia orduantxe sortu zala esango genduke.

Baiña lengo kontuak albo batera itxita gaur'ko gorabera baka-rrik begiratuta be, ondo al datorkio Prantzia'ri bere lengo lagunak

alboan lagatea? Munduko politika auzietan musturra agertu nai daben Laterririk ezin daiteke bakarrik geratu, nai ta nai ezkoa dau lagunak aukeratzea. Ta lengo lagunakaz ezer ez badau nai, nun aukeratu gitxi geratzen jako De Gaulle'ri. Irugarren Mundua deitzen dan taldea ta komunistak diranak. Irugarren Mundua deitzen dan taldeagaz gauza on gitxi atarako dau. Ta komunistakaz be ez asko. Prantzia kapitalistea ta komunista Laterrien artean ez dago ezkontza onik; geienez be denpora gitxirako sasi-ezkontzea.

Errezoi askori begiratuta dauke prantzesak Gobernuan De Gaulle; baiña Laterrien arteko politikea baiño beste konturik ez balitz jai eukiko leukeala uste dogu.

*ANAITASUNA 7-7-1966*

## **PORTUGAL ERBESTEAN**

Azkenengo munduko gudea asi zanean Aprika osoa (Ego Aprika izan ezik) ta Asia'ko lurralde andiak Europa'ko Laterrien menpean egozan. Plipinas Ipar Amerika'ren menpean egoan baiña onek 1936'garren urtean-edo ordutik amar urtera askatasuna biurtzeko erabagia artu eban. Amar urteko epe ori, Plipinas askatasunerako gertu eitean zan.

Ta arrigarria; guda irabazle izan ziran Laterriak biurtu egin bear izan eutsen askatasuna Aprika'ko ta Asia'ko erri orrei. Baiña ez beti gogo onez. Bada, gudearen benetako irabazleak Ipar Amerika ta Errusi izan ziran, eta Laterri andi biok kolonizaziñoaren arerioak ziran. Ipar Amerika, erri guztiak bere buru jaube izatearen aldekoa zan eta Errusi'k, Europa'ko Laterri andiai indarra kentzea nai eban.

Bear bada erri batzuei ariñegi emon jakon bere buru jaubetasuna; bear bada erri orreik urte batzutarako O.N.U.'ren eskutanedo ipintea obeto izango zan eurentzat ta orretarako prestau-ala askatasuna biurtu.

Dana dala, askatasuna gauza andia da ta bera lortzeagaitik neke batzuk eroatea merezi dau. Ta Aprika guztiak, nekez eta lorrez bada be, euren erri bititzea egiten diardue.

Baiña danak ez. Portugal'ek ez dautse askatasunik biurtu nai bere menpeko erriai. Ingalaterra'k, Prantzia'k, España'k, Belgika'k Italia'k eta Holanda'k aske itxi zituen Aprika ta Asia'ko lurraldeak. Baiña Portugal'ek ez ditu nai itxi iñundik iñora Aprika'n menpean daukazan lurraldeak.

Europa'ko Laterrien Aprika'ko nagusitasuna angoentzat osoorik kaltegarria izan dala ez neuke esango; an dauken aurrerapen apurra emengoai zor dautseela esan daiteke. Jakiña, galtzen ez eben urtengo Europa'ko Laterriak, an egin dabeen guztia ondo kobrauko eben.

Baiña zek darabil Portugal, irabazi naiak ala areik aurrerabidean eroan naiak? Edozelan be, buru barik dabillega esan daiteke. Aldi baten, bere nagusitzea bakean eroan al ebanean, ondo etorriko jakon Portugal'eri an ataraten daben obaria. Baiña orain, bertan iraun al izateko 125.000 laguneko gudataldea gudea egitera bialdu bear badau, irabazi andirik ez dau atarako.

Ta dirudianez, begiak argitzen asi dira Portugal'en. Spinola gudalburuak auzi onezaz idatzi daben idaztiak naikoa buruauste emon dabela dirudi ta egoera oneri amaia emoteko gogoia be bai. Bertan Portugal'en jagi dan matxinada txikiak erakusten dau ori.

Portugal Laterri txikia izanik, Aprika'ko lurretan ataraten daben irabazi barik ezin bizi leitekeala uste izango dabe bertako agintariak. Prantzia'k bardin uste eban Arjelia'ri buruz. Baiña bildur areik errezo andirik ez eben. Prantzia, Arjelia galduta be txartoago ez ba bizi. ¿Portugal'eri ba bardin ez ete litzakio jazoko?

Jakiña, euren bizimodu an dauken portugaldarrentzat (an jaiotakoak asko) ez litzake ona izango ori. Baiña gaurko joerea



orixe da ta burua makurtu besterik ez dauko Portugal'ek. Ango portugaldarren ona etxean billatu bearko dau.

### *AGUR 134' garren zenbakia*

Oraingo oarra: Portugal'en ditadurea azkenengo egunetan egoala agertu zan idazlan au.

## **ARJENTINA'KO POLITIKA GIROAZ**

Mundua orain baizen gaiztoa nik ez dot ezagutu. Bai, guda andiak ziranetan kalteak eta jendearen zoritxarra andiagoa izaten zan; baiña orain lez gudarik ez eta txarkeria geiago ez da ikusi. Alde guztietan gogorkeria dago, danean eriotzea, danean gizonak artu ta eroatea. Bai, danean. Alan be, Arjentina'n dabilzala oke-  
ren esango neuke. Len gudariak egozala be olango gitxi ez zan an jazo; baiña areik itxi ta erriak aukeratutakoak agintea artzean jazoten danik jazoko zanik ez genduan itxaro. ¿Ori da demokrazia?

Demokraziz jokatuaz perondarrak Arjentina'ko azkenengo auteskundeetan izan eben ainiako garaitzarik egundo ez dot ezagutu. Gaur esan oi dan berbaz, perondarren festibala zirudian. Beste alderdi guztiak batera baiño eurak bakarrik jarraitzaille geiago. Peron lendakari ta emaztea lendakari orde. ¡Dana etxerako!

Ordukoa ikusirik Arjentina'ko egoerea ain arin orrenbeste okertu bear zanik ¿nok esango eban? Bear bada, Peron bizi izan balitz, bere agintea gogo onez artuaz bakean iraungo ebela orain aurka jarri diranak, uste izango dogu. Bai, ain aguro Peron'en barrutitik ez urtetea izan eitekean; baiña luzaro baiño len gaur dagozan alderdira igaroko zirana ez da ezpairik. Ezker egaleko edo erzteko orreik eta Peron'ek gauza gitxitan bat egingo eben. Peron bein be ez da izan ezkertarra, edo marxistea beintzat. Sasoikoa zanean be ez. Ta orain larogei urtegaz bide orretan asko barruratuko zanik ez neuke esango. Peron'en asmoa edo elburua ez zan alder-

dikeria, ez zan langilledia jasotea be, Arjentina jasotea baiño. Nekazaritza ta aberetza oinarriz zituan bere erria aurrerabidean ariño joan eiteala zan bere naia.

Orretarako, beste Laterrietakoak bertan zituen irabazi bideakaz jaubetu nai eban. Ferrokarrilla aberrikotu egin eban ingeles jaubei kenduta. Baiña ordaintzekotan kendu eutsen eta ortik ona baiño kaltea geiago izan eban Arjentina'k. Bere areriorik andiena Ipar Amerika eban; Arjentina'k gora egiteko eukan eragozpenik andiena berau zala uste eban.

Peron'ek, urte askoan aberrikotik kanpora bizi arren, ango politika giroa zelangoa zan jakiteko zioak bazituen, baiña sakon-sakon ez ekiala esan leiteke. Lendakari jarri aurretik izparkari bategaz telebisiñoan izan eban alkar-izketan, Arjentina'k Ipar Amerika baiño beste problemarik ez ebalan esan eban,... Ipar Amerika'k Arjentina'n ezer ez eiala ostu; auxe zala ango problema bakarra.

¡Ez egoan toki onean gizajoa!

Baiña oraindik lendakari ez zala ara egin eban osterean, an egiteko ikaragarriak itxaroten eutsela konturatuko zan kontixu. Berari arrera zoriontsua egiteko ustez egazkin zelaian batu zan jendetzearen artean izan ziran eriotzak, kezka galanta emongo eutsoen.

Gero agintaritzea eskuratu ebanean, naigabe andirik izateko astirik ez eban izan. Gaiñera, etorkiozan buruauste ta lan guztietatik eriotzeak askatu eban. Mesias izan bailitzan itxaroten eutsan erriak, berak majikorik ezer ez ebalan konturatu baiño len Jaungoikoa'ri kontua emon bearra izan eban. Guztia txarra ez jakon izan eriotza.

Peron joan zan eta emazteari geratu jako andreentzat baiño azunagoa dan Laterriko buruzagitzea. ¡Arjentina'koa bai beintzat!

*GOIZ-ARGI 221' garren zenbakia*

## ZURIAK ETA BALTZAK

Gizardiaren jokabidea zer dan ondo dakigu: Altsuak makala zapaldu. Lenago, orretarako gauza ziranean, Europa'n sartu ta emengo jaun da jaube izan ziran aprikakoak ainbat gizalditan. Gerrogo, azkenengo mendeetan beste era batera izan dira gauzak. Aprika ta beste lurralde asko be europarren buztarripean egon dira. Gaur, askatasun aizeak astindu ditu erri orreik eta banaka-banaka euren buru jaube izatera eldu dira.

Benetan pozgarria joera auxe, gureztat, erri bakartxu bat be besteen menpean ez litzake egon bear-da. Alan be igaroak-igaro, gagozan aldi onetatik auziari begiratuta, Europa Aprika'n egotea ez dala dana txarra izan eurentzat be, esango genduke. Eta geugaz batera egongo dirala uste dogu askatu barri diran errietako agintari ta goi maillako jendea be, euretan dagon on guztia, Aprika'n ezer aurrerapiderik badago, europarrai zor jake-ta.

Kolorezko erriak erri lez askatasuna lortu badabe be gizon lez ez dira oraindik eskubide guztien jaube egin toki batzutan. Ipar Ameriketari, dakigun lez, txitean-potean da zer bait zuri ta baltzen artean. Bardiñak dira an zuriak eta baltzak legearen aurrean; baiña baltzakaz artu-emonik nai ez dabeen errialdeak ba-dagoz an eta noizean-bein eztabaidak eta zalapartak izaten ditue alkarren artean. Azkenengoa oraintsu, James Meredith ikasle baltza dala ta ez dala. Mundu guztian adi-adi egon gara Mississipi'ko auzi ori zelan amaituko ete zan eta Kennedy'k indarrez bada be, baltzen eskubidea ezagutu eragin dabela, pozik jakin dogu. Gure zorion eta txaloak gizon adoretzu bioi.

Bai, danok poztu gara baltzen eskubideak ezagutu diralako. Baiña, egiazkoa, barru-barrukoa ete da baltzen alde agertze au? Geienetan, geuri ikuturik egiten ez dauskuen auzietan ba-dakigu errezoïaren alde agertzen, baiña gauzeak gixarratik elduten ba-dausku, errezoï ori kaltegarri bajaku, ez dogu ain bero ezagutuko, orduan ba-dakigu egiaren aurkako atxakiak arkitzen. An bizi ez

geranok baltzen errezoia errez ezagutu dogu, baiña angoak bagina, beste zuriakaz batera baltzen aurka ez ete gina ibilliko?

Euskaldunok be olango pekatuan jausi izan gara lenago. Geuk be agote arrazea baztartuta euki izan dogu. (Agoteak gitxi izan diralako zer esan eta buruauste gitxi emon izan dauskue ta euskaldunik geienak euren izenik sekula ez dabe entzun.)

Gaur, zorionez, asko aldatu da danon pentsatzeko erea auzi onetan. Munduko enda guztiak bardiñak garana ba-dakigu ta eskubide bardiñak bear doguzala autortzen dogu. Jaungoikoarentzat ez dago ez zuririk eta baltzik, danok gara zerurako sortutako arima ederdun gizonak.

Bai, asko aldatu da gure mentalidadea, baiña oraindik beso zabalik baltzengana joango litzakezan gitxi ikusten doguz. Nor da gure artean, arreba edo alabaren batek baltzagaz ezkondu nai dabela, ezkontza ori begi onez ikusiko leukeana? Iñor ez, ziur. Ta zegaitik ori? Baltzak diralako bakarrik.

Ara or geu be, erderaz esan oi dan «discriminación racial» egiten, sentimentuz bada be.

*GOIZ-ARGI Azilla, 1962' garren urtea*

## EUSKAL FOLKLOREA

### EUSKAL ABESTIAK DIRALA TA

Euskal abestiari indarra emoten alegindu bear giñakeala deritxagu; eusko izatearen atal bat izanaz gaiñera gaztediak, batez be neskak, euskerea aintzat artzeko bidea izan leitekealako. Orretarako, baiña, barriztau bearra, gaurkotu bearra daukagu.

Euskal abesti sailla, kantzionerua, punterengoa dala diño orretan aituak diranak; erbestekoak be goraltzarik andienak egin oi dautsez euskal abestiari. Baiña gure gauza guztiai lez euskal abestiari be makal aldia etorri jako.

¡Euskerazko kanta ederrik entzuten zan lenago gure erri ta mendietan!

Gaurko gaztediari, ostera, ez jakoz gogoko gure abesti zarrak. Guri lenguoi, ardaa lez abestia be zenbat eta zarragoa ta atsegiñagoa, jatorragoa ereizten jaku.

Baiña gaztedia aize barriak jo dabe. Ta euskaraz abestu daijala nai badogu geratu barik barriztauten joan bear gara gure abesti sailla, erderazkoa egin oi dan lez. Gaztediak abestuten dituan erdal abestiak, goizean jaio ta arratsalderako ilten diran loreen antzekoak dira; bi edo iru illabeteen irauten dabe sasoian bakarrik. ¡Baiña aldi orretan bai asko abestu!

¿Olangorik izan leiteke euskeraz?

Erdal abesti doiñua olangoa edo alangoa izan ez dauko ardurarik. Erdal abestiaren doiñuak milla eratakoak izaten dira. Ostera, euskal abesti izena eroan al izateko berbaz gaiñera doiñuz be euskal jatorra nai ta nai ez izan bear dabela uste izaten dogu.

Auzi onetan zerbait egin bearra daukagu ta aitua diranai itaun oneik egiten dautseguz:

¿Zelan jokatu bear da auzi onetan? ¿Ta zer da euskal musikea?

Zortziko izenez ezagutzen dan ritmo orretarikoa bada bakarrik euskal musikea ta musika orregaz bakarrik jantzi bear badira gure abesti barriak, bardintasan gogaigarria izango leukee eurak. Len be euskalduntzat daukaguzan abestirik geienak ez daroela zortziko doiñua ez daigun aztu. Ta ba-dira baita be erdal doiñua artu dabeen euskal abestiak. Tolosarren «De Galtzaundi» habanera utsa dala konturatzeko ereslaria izan bearrik ez dago. Gordeago egon oi da beste abesti batzuk daroen erdal jatorria; «Uso Txuria» eza-guna alemandar doiñua zala errez ez genduan esango, ondo dakianaren aotik entzun ez bagendu.

Euskal doiñu jatorrez gure gaztediaren gogoko litzakezan euskal abestiak egin al badoguz, obe milla bidar.

Baiña eresi kontuan jatortasun osoan jokatu nai ta abesti gitxi sortu al izango doguzan bildurrez bagagoz, jatortasun au zeatz-zeatz ezin izango dogu eroan. Jakiña, euskal doiñurik ez balego lez ezeren ardura barik be ez dogu jokatuko.

Ta amaitzeko, berbatxu bi abestien berben gaiñean: Gaztediak zer daben gogoko badakigu; maitasun kontu ta olango gai ariñak. Beraz, lotsabakokeriarik ez daiela euki ta gaiñontzean gaurkotasunez egiañak izan daitezala gure abestien berbak.

ZERUKO ARGIA, 23-8-1964

## RAVEL EUSKAL ERESLARIA AL ZAN?

Errenderia'ko euskaltzaleak ardura andiagaz artu dabeela dirudi euskal eresia. Irugarren urtean egin dabeen «Musikaste» izenekoak argi erakusten dau ori. Musika aste orreik euskal eresi auzia alde guztietatik aztertzeraz datoz. Aurtengoan, Ravel, Zibururu'ko ereslari entzutetsua ezagutu eragin eta goratu nai izan da geienbat.

Euskal Erria'k emon daben ereslaririk entzutetsuena aintzat artu ta goratzea bearrekoa zan. Baiña Ravel, euskal ereslaritzat artzekoa al da? Musikari bat, gure errian jaio dalako soillik ez da euskal ereslaria izatea nire ustez.

Ba-dira alango edo olango joeretan bereziten ez diran egitekoak. Esate baterako, gure errian jaio dan osagille bat, beste barik, euskaldun osagillea (osagille euskalduna obeto?) dala esan leiteke osagille ori nuntarra dan esan nai danean, osakintzea, atzeratuago edo aurreratuago, mundu osoan gauza bardiña da-ta. Ta beste milla kontutan be bardin esan leiteke. Baiña beste arazo asko joera desbardiñetan banatuta dagoz. Esate baterako, margolaritzeak milla joera izan ditu kondaira zear. Eta bere izakeretan, nabarmenago edo ez, euskal margolaritzea edo margolaritzako euskal joera be ba-dala esaten da. Jakiña, ez mundu zear bere eragiña ta izena zabaltzeko aiñakoa. Ta bere laukietan euskal azterrenik agertzen ez daben margolariari euskal margolari izena osorik ezin emon geinkio nai ta jaiotzez euskalduna izan.

Ta emen dator nire itauna: Ravel euskal ereslaritzat artu al leiteke? Ez dirudi euskal musikeaz asko arduratu zanik. Beintzat, euskal musikatzat artu geinkean ezer ez da ikusten bere lantean. Abesti erriko'i edo popularragaz musika lan onik ezin egin eitekeala esan ei eutsan bein Ravel'ek aita Donosti'ri. Orregaitik, kontixu, muziñ egingo eutsan euskal musikeari.

Ni ez naz iñor euskal musikeaz zerbait ganorazkorik esateko. Erriko musika taldean ainbat urtean soiñu bat aoan dogula putzka

ibiltea beste musikari izaterik ez dogunok olango kontuetan musurrik ez sartzea obe. Baiña Ravel, euskal musikaritzat ez dogula artu bearko nire eretxia aurtengo musika asteaz emon diran barriakaz sendotu egin dalako izan dot ausardi au; zera, «Ravel euskal musikaria» gaia itzaldiz azaltzea iñok ez eban leporatu nai izan. Askok lenengotik ezetz emon ei eben; beste batek, baietz emondakoak, ordutik iru illabetera atzera egin, eta azkenengoak, eguna urreratzean, ezin etorria adierazo ta orde, itzaldia eskutitzez bialtzen ebala esan arren eguna eltzean eskutitzaren azterrenik ez. Ta besterik ezean, nai ta nai ez, jaien arduradunetakoa kontixu izango zanak gaia azaldu bear, Ravel'en omenera etozan bere erritarrakaz txarto ez geratzeko.

Izlaririk ezin arkitze au, «Ravel euskal musikaria» gaiari gauza gitxi atara eikealako izan zan nire ustez.

Izlariak esan ebanez, Ravel il zanean goraltza andiak egin ei eutsazan aita Donosti'k, ez dakit musikako zein alderditatik begiratuta euskal musikearen maixutzat ipiñiaz. Baiña ezer zeaztuten ez eben aita Donosti'ren berba areik, euskal musikearen eragin txikienik ez dabeen beste askogaitik be esan leitekez.

Nire ustez, munduko edozein elderditan jαιο balitz be musika bardiaña idatziko eban Ravel'ek.

*GOIZ-ARGI 245' garren zenbakia*

## **FOLKLOREA TA BARRIKERIAK**

Folklore a dala-ta eztabaida ugari dabil aspaldion euskaltzaleon artean. Euren eretxiak asmorik onenagaz idatzi ditue arazo onetan dakienak, Gereño, San Martin, Oñatibia ta abarren lanak argitasuna ekarri dauskue folklore kontuan euskal irakurleoi.

Batzuk, balio gitxiko gauzatzat artzen dabe folklorea ta euskeraren alde egin bear gendukezan indar eta alegiñiak eroaten



kuzala uste dabe. Beste batzuk, ostera, euskal arimearen zati andi bat ikusten dabe bertan eta orregaitik iñundik iñora galtzen laga bear ez dana.

Egia da, euskal dantzetan sartuta dagozan gazte askok euske-rea baztartuta daukena. Baiña folklore zaletasunak euskereari kal-terik dakartsonik ez dot uste. Euskereagaz arduratu barik dantzan-da dabilzan gazte orreik dantzan ez balebiltz be euskereagaz ez litzakez arduratuko. Ostera, dantzea euskal giroan dabil eta eus-kaltzaletu daiteke erdalzalea dan gaztea.

Abesti modernuak, batzuen ustez, euskal arimearen aurka da-go; baiña danak ez dira eretxi onegaz batera datozenak. Beste oneik, euskera indartzeko bidea ikusten dabe gaurkotasuna dario-en abesti barrietan.

Ez dakit, abesti bat, euskal doiñu ritmorik ez daben abesti bat, euskerazkoa dala-ta beste barik euskal abestizat artu ete daike-gun. Baiña abestiok euskerearen onerako badira, gazteen ezpane-tan euskerea ipinteko badira, edozelan be ontzat emon bear do-guz, folklore ta olango beste errezoi guztiak baiño euskereak geiago arduratu bear gaitu ta. Baiña abesti orreik euskereari zer-bait on ekarteko, erria ipiñi bear dogu eurok abestuten, abesti orreik ikasteko aukerea gaztediari emon bear jako. Jakiña, bat ba-tean ez gara danera elduko, baiña beintzat, teatroetan-da noizik bein an edo emen egiten diran jaiak iñora ez garozala ta jokabide barriak aukeratu bearrean gagozala kontuan artu daigun. Ondo da-go euskal jaietako abestiak, zenbat eta geiago obe gaiñera. Baiña batez be irratitik emon bear dira abestiok; disko onak atara ta irra-titik abestu. Bein olango abesti diskoak ba-dagozala jakitean abesti orrein eskabidea erriak egingo leuke irratira edo beintzat guk euskaltzaleok egin egin (sic) bear genduke.

Erdal abesti modernuak euskeraz abestutekotan, indarrean da-goan artean euskeratu ta zabaldu bear dira. Lan au egin leikee-nak onen ardurea artu bear leukee, zeregin orretarako eratuaz.

Baiña abesti barri ta modernuetan guztia erderatik euskeratua ez bedi izan. Lenago, lengo erako abesti naikoa sortu izan dau Euskal Erria'k eta gaur be geure geureak diran eta gaurkotasuna darioen euskal abestiak sortu bear litzakez. Gure erriak, beste edozein alditan euki izan daben aiña ereslari ba-daukaz gaur be. Geiago ziur.

Len, ia euskal abestiak bakarrrik entzuten zituen euskaldunak eta olan errez zabaldu ta ikasten ziran. Zer entzun a ikasi. Baiña gaur egunean erdal abestiak geiago entzuten dira, nai irratiz nai beste milla eratara ta zaillagoa da euskal abestiak zabaltzea. Orre-gaitik, ori lortuteko, lan egin bearra dago.

Abesti modernu zaleak diñoenez, gure folklorea, geiena, er-bestetik geureganatu dogu. Zerbait besteengandik artu dogula ez neuke ukatuko, baiña dana beste errietatik artu dogula esateari geiegi deritxat. Gurearen antzeko zerbait beste erriren baten ikus-ten badogu, beti, andik gure erriratu dala zegaitik uste izan bear dogu? Olango gauzak edonun sortu oi dira ta euskaldunak be noizbait zerbait asmau edo sortuko eben.

Egia da, barrizaleak diñoen au: Zera, beste erriak be ba-dauke-la euren folklorea baiña barrikeriari ateak zabalen-zabal iragiten dautsezela. Egia da bai, baiña folklorea danean doa atzeruntz. Errialde guztietan, errialde aurreratu guztietan esan nai neban, eu-ren oitura zarrak baztartuaz, oitura barri bardiñak sartu dira. Lu-rralde guztietan abesti bardiñak entzuten dira, erri danetan dantza bardiñak egiten dira, toki guztietan jazkera ta jolas bardiñak da-goz.

Beste erriai folkloregaitik ardurarik ez badautse, guri ardura andia izan bear dausku? Baietz esango neuke nik. Beste erri as-kok, esate baterako Ingalaterra'k, folklore barik be naikoa nortas-un dauko; bere buruaren jaube da ta sendo dago bere berbetea. Ostera, gure erria ez da bere buruaren jaube ta berbetea be azke-netan daukagu. Orregaitik, gure erriaren nortasuna nabarmentzen daben edozeri kontu egin bear dautsagu galdu ez daitean; folklo-

reari buruz, gure erriak beste batzukandik jokabide desbardiña arteak ba-dauko bere errezoia.

Gaur folkloretzat daukaguzan antxiñako gauzak, aldi baten, barriak ziran. Bear bada barrikeriatzat joko zituen orduan eta txar-to ikusiak izango ziran. Au diñoan idazleagaz batera nator onetan. Baiña ez nago berak diñoan gaurko zenbait gauza modernu den-poreagaz folkloreko biurtuko diranik. Len astiroago sortu ta errian sartzen zirala oitura (?) barriak nik uste dot. Gaur, gauza barri geiago sortzen da dantza, abesti ta olango kontuetan eta eurak, ikasi baiño len alboratu egin bear izaten dira, barriai tokia egiteko.

Ni neu euskal abesti zar zalea nazan arren ez nago kanpotik artutako orrein aurka. Mundu guztian abestuten diran abestiak gure gaztediak be abestutea ondo baiño obeto deritxat. Baiña euskal abesti zarrak be zabaldu leitekez, orretarako lan egin ezkeru. Eusko gaztedia euskal abesti jatorrak abestuten ipintea ez da zailla. Jazoera polit baten bidez nire eretxi au indartuko dot:

Orain urte bi inguru, beste askotan lez, komedianteak edo titiriteruak egozan Ondarru'ko enparantzan. Geu be joan giñan gau aretan. Komediante areik, alango baten, umeai deitu eutsen lan bat egiteko. Une baten, an egoan ume pilloa enparantza erdian. Geiegi be bai. Lau txikienak aukeratu zituen, sei urtetik zortzi urte inguru artekoak. Nai ebena altabozetik abestu bear ebela agindu eutsen umeai. Ta asi jakon txikienari zer abestu bear eban itaunka. Erantzun eutsan mutiltxoak, abestuko ebanaren izena esanaz. ¡Baiña nun ulertu komedianteak, ezta gaur arte be!

— ¿Zelan diñozu, olango?— ta aldrabezkeriarik andienak edo ezer ez ziran berbak esaten zituan komedianteak.

Ta ez zirala konponduko ikusirik, zana zalako abestia abestu eiala agindu eutsan mutil txikiari. Danok gengoan zer ete zan abestia ta asi zan. ¡Zer abesti, ta Txomin Agirre'ren omenez Zubikarai'k berbak eta Belauste abadeak doiñua ipiñitako abestia!

Danok aoa zabalik geratu giñan. Orduantxe ikastolan irakatsitakoa zan.

Euskal abestien artean danetarikoak dagoz; geldiak, itunak eta alaiak be bai. Orretan daukagun aukerea gaztediari begien aurrean ipiñiko bageuntso, bere gogoko izango leukezan abesti naikoa arkituko leukezala uste dogu.

*GOIZ-ARGI, 7-1966*

## **EUSKAL ABESTI BARRIA**

Abesti giroan bete-betean bizi da gaurko gaztedia. Abestia, abestia barria, ogia baizen bearrekoa dabela dirudi. Abestia dala bere erlejiñoa esango genduke ta abesti ariñen abeslariak bere Jaungoikoa. Espaiña'ko gaztediarentzat Rafael baiño gizon entzutetsuagorik ez da.

Giro onek bultzauta euskaldunok be egin dogu gure abesti jai. III Euskal Abesti Sariketa, osperik andienean egin da. Gero zer ondoren izan daben ez dagiku. Bere eratzailleak esango dabe ori, saritutako disko asko saldu dan ala ez.

Ez goaz orain, jai orrek erriarengan zer ondoren itxi daben azterzen. Beste alderdi batetik ikusi nai dogu kontu au.

Euskal Abesti Sariketa au Euskal Erri'ko lau erri burutan egin da ta erri guzti orreitako egunerokoak emongo eben jaiaren barri ta abestian kritikea. Guk Donostia'koak esan ebena besterik ez dakigu. Jaiaren gora-berak zeatz emon arren, kritikarik ia ezer ez zan egin. LA VOZ DE ESPAÑA'n Anjel Inaraja jaunak egin eban apurra besterik ez. Egunerokoak erdi uts emon arren euskal aldizkarietan ugariago egingo zala kritikea uste genduan eta nai genduan. ZERUKO ARGIA'n idazten eban batek be orixe eskatzen eban; orretarako gauza zanak abestiazko kritikea egin eiala. Baiña iñor ez da izan abestien kritika sakona egiteko. Zegaitik ori? Mu-

sikeaz zerbait idatzi eikeen guztiak sariketara abestiak bialduaz tarteko izango ziralako edo agertu ziran abestiak gauza ezak iruditu ta eretxi ori agertu nai ez, edo euskal musikeagaz berba egiteko iñor ez dalako gauza edo beste zerbaitegaitik? Dana dala, gosez geratu gara, euskal eresiazko gure jakin naia ase barik geratu da oraingoz.

Edonun egiten dira abesti jaiak gaur. Euren asmoa abestiak sortu ta zabaldu besterik ez da. Gaurko musikea izan daiteala, eresi barria izan daiteala, orixe bakarrik abestietan ikusi nai dabeena. Gaurko doiñu barriak erri izakeradun eresi jatorrai kalte egin leitekean bildurrik ez dabe agertzen jai orrein eratzailleak. ¿Ta guk kontu onen ardurea izan bear dogu?

Garrantzi andiko itauna auxe ta erantzun burutsua eskatzen dabena. Bide gurutzean gagoz euskaldunak abesti kontuan, bide egokia aukeratu bearrean.

Berbetea dala bakarrik abestia uste dabe gazteak. Edozer ritomodun doiñuz egindakoa be berbak euskeraz izan ezkeru, euskal abestia dala. Ez gara gu eretxi orretakoak. Abestia, berez, doiñua geiago da berbak baiño, edo gitxiago ez beintzat. Doiñuak emoten dautso abestiari bere tankerea ta maillea. Euskal abestiai be bai. Jakiña, berba bako abestirik ez da ta euskerea ez darabillen abestia nai ta euskal doiñuz egiña izan, ez da euskal abestia; oso-osorik ez beintzat. Baiña berbetearen kontu au esan bearrik ez dabena da. Prantzes edo italiar abestiak prantzesez edo italiar berbetan egiñak izan bear dirala esaten iñor ez da asi, ori esan bearrik ez da-ta.

Beraz, euskal abestian ba-dau zer ikusi eresiak eta ez gitxi. Euskal abestiak olangoak edo alangoak dirala diñogunean, ia beti, doiñua bakarrik kontuan dogula berba egiten dogu.

Asturiar edo andaluziatar abestien sariketarik iñoiz eratuko balitz gaztelerazko berbak ipintea bakarrik ez litzakeala naikoa izango uste dogu. Asturiarrak ba-dauke euren doiñua ta andalu-

ziatarrak be bai eurena, kante jondo edo olango zerbait. Ta errezoi au danen gafiñetik kontuan artuko leukeela uste dogu.

Bestelan jokatu da gure aurtengo sariketan. Gorago aitatu dogun Anjel Inaraja jaunak diñoanez III Euskal Abesti Sariketan aurkeztu dituen abestiai ezin emon daitekioe euskal abesti izenik. Euskal abestia, jaun aren ustez olan izan bear da:

«Empecemos por considerar que la canción vasca debiera conservar su caracter silábico y por consiguiente y como consecuencia, tendría un determinado trozo melódico y rítmico bien determinado.»

Bide barriak zabaldu nai jakoz euskal abestiari. Gure gaztediak erderazko gaurko abestiak baizen gogotsu abestuko dituan euskal abestiak sortu nai dira. Asmo txalogarria auxe. Baiña abesti barriak berbaz bakarrik ez daitezala euskaldun izan, euskal kutsua be izan daiela billatu bear dogu, barritasuna ta euskal kutsua buztartu eziñekoak ez badira beintzat.

Euskerea da, bai, geien arduratu bear gaituana; baiña arduratu bear gaituan bakarra ez. Beste euskal izakerak zainduteak ez dakartso kalterik euskereari ta zaindu egin bear dira. Euskal eresia, euskal musikea be zaindu egin bear da. Beste errietan musika barriak lengo jatorrai kalterik ekarri leikioeen edo ez arduratzen ez badira be areitako asko ta gu ez gagoz gorabera bardiñetan. Gure erriaren nortasuna galtzen doalako, nortasun au nabarmendu daikeen guztiai eutsi bearrean gara.

Lenengo, euskal eresia zer dan ondo ikasi bearrean gagoz. Gaur, euskal musikea sortu daikeala edonok uste dau. Sariketa giroak kiniela itxurea emon dautso abesti kontuari. Nolabaiteko doñutxoak sortu ta notak ipinteko edonor da gauza ta basoan perretxi-koak lez agertu dira musikariak. ¡Zenbat sasi ereslari izan eta dira sariketa orretara agertu diranak euskal eresia zer dan tautik be ez dakienak! Jakiña, or egongo zan batzordea onenak aukeratzeko ta euskal kutsudun baliokorik egon bada ez dogu uste baztartuko ebanik.

Dana dala, euskal eresia zer dan erakutsi egin bear da. Lan au egin leikeenak aurreratu beitez, euskal eresia zer dan irakatsi beie euskal eresiaren izakerak zertzuk diran agertu beiez.

Lan au erritar aldizkarietatik egitea litzakigu onena, ereslariai ta ez garanoi, danoi ondo etorriko litzakigu onetan ikastea ta.

Ta amaitzeko: Gure abesti barria, barria izanaz gaiñera, nortasunez bete izan daiteala lortzen badogu, bere balioa askotaz andi goa izango da.

Alan izan bedi.

*GOIZ-ARGI, 9-1967*

## **TXISTUA TA EUSKAL DANTZAK**

Geure geureak diran gauza asko daukaguz euskaldunok. Besteen artean soiñua be bai; txistua edo danbolin soiñua. Munduko edozein baztarretan gagozala be nundik eta zelan ez dakigula txistu otsa gure belarrietara elduko balitz, antxe nunbait euskaldun bat legokean ezaugarria izango litzake, bere erria buru ta biotzean dabela gaiñera.

Gaur egundoko zaletasunik andiena dago txistua ikasteko. Pozgarria auxe. Baiña arazoa beste alderdi batetik ikusten badogu poztuteko ziorik ez dagoala ikusiko dogu. Dantza askea, suelta, umekondoren batzuk izan ezik iñok ez dau egiten. Euskal jaietan egiten diran dantza ta saltoak ez dabe ezer esan nai.

Gure enparantzetan jazoten dana ikusita Canpion'en ipuiña datorkit burura, ainbat urtean Ameriketean egon ondoren jai arratsalde baten pozik txistua jotera enparantzara joan eta ezagutzen ez eben gazteak ia zorrotzat artu eben txistulariarena. Orain, ogia irabaztera etorri diran erdaldun gazteak txistuka ta eupadako danbolin txistuari ixildu eragin dautsoela zenbait tokitan, entzun dogu.

Jazoera lotsagarria auxe; baiña batez be geure gaztediaren euskaltzetasunik eza agertzen dabelako. Olangorik ez litzake jazoko euskaldun gazte aldra andiak danbolin soiñuan dantzan egitera urtengo balabe. Iñok dantzan ez egitekotan, zetarako jo bear da danbolin soiñua? ¿Enparantzetan lotsagarri agertzekotan ixiltzea ez al da obe?

Baiña ez; ez gatoz il kanpaiak joten, auzia aztertu ta bere one-rako ezer egin ete leitekean ikustera baiño. Gaurko gazteentzat, batez be mutillentzat ez dauke erakarpenik, atratiborik, neskeari eldu barik egiten diran dantzak. Mutillak dira lenengo dantza askea egitea laga dabeenak. Gero, jakiña, neskak be mutillen bideari jarraitu dautsoe. Mutil bako dantza erromeriak ez dauko pozgarri-rik neska gazteentzat.

Alderdi onetatik begiratuta zer egin gitxi daukagu; euskaltzetasun gartsua gure gazteengan sartuko balitz, orduantxe indartuko litzakez ilda edo erdi ilda dagozan dantza ta beste gure oiturak.

Baiña beste alderdi bat be ba-dauko dantzeak aztertu bearrekoa: soiñu ots lez daukan balioa. Edozetariko musika aldren ondoan txiroa da txistu otsa. Musika aldrak ots desbardiñeko soiñuakaz egindako batasunak izaten dira. Orregatik, euren otsa, ederra, betea izaten da. Txistu taldeak, barriz, mota bateko soiñuak osatzen dabe. Ez gatoz, otsa obetzeko txistu taldeetan beste soiñuak tartean sartu bear litzakezala esaten. Ez, txistua orixe da, txistua, ta ez besterik. Atsegin bajaku edo ez, dan langoa artu bear dogu.

Alan be, beste alderdi batetik zerbait aldaketa egin leitekio bearri. Ez dot uste txistuak bere izakerea galduko leukeanik, lau lagunak jo bearrean zortzi edo amarrek joten dabeela. Bai, guk lau laguneko aldrak ezagutu izan doguz, baiña ez dogu uste oneik betiko kontuak diranik. Ziur, lenengoan lagun bakarrak joko eban; txistulariak berak danboliña joteak, len danborrerorik ez zala izaten erakusten dau.

Txistulariak batetik laura igo badira, zortzi edo amarrera igotea beste munduko gauzea ez litzake izango. Orduantxe izango



litzake musika aldra polita txistu aldea. Edozein erritan edo askotan beintzat batu daitekez orrenbeste txistulari.

Jakiña, ezin bat dago emen: diru kontua. Gure udalak ez doaz gaur beintzat, orrenbeste txistulari ordaintzera. Baiña ez da ori oraingoz bearrekoa. Txistu taldeak lau lagunekoak izaten jarraitu daiteke udalentsat; ibildeun, kalejira, alborada ta olangoetan lau laguneko taldeak joaz. Baiña erromerietarako, jende arterako, ots andiagoaren bearra izaten da ta nai dabeen guztiak jo daien atea zabaldu bear litzakez, borondatez joko leukeen guztiak artu bear litzakez txistu aldrean. Gero, bein era onetan asi ezkerero, denporegaz udalak eurak sortuko leukeez aldra andiagoak.

Emen ona arte idatzi doguna txistua dantzearen eragille lez artuta izan da. Baiña txistua ez da dana dantzea, dantzea egiteko bidea baiño. Orregaitik dantzea indartu nai bada dantzea bera aztertu bearra izango da. Dantza askeak barriztau bearra dauko? Erantzun ziurra emoten ez naz ausartzen. Dantzea barriztaute ori zein alderditara izan bear da? Ez dogu uste edozer aldakuntza egin daitekeanik euskal dantzearen izakerea galdu barik.

Aurreragoko baten gai onetzaz idatzi eban ZERUKO ARGIA'n J.M.G. idazleak. Bere eretxiz, arin-arin, jotak eta olangoak ondo dagoz erromeri ta olangoetarako, baiña «festa etxeetan» dantzatzeko, gizonezkoak amerikana ta korbateagaz jantzita ta neskatillak zapata takoidunakaz doazela, dantza barriak bear dira.

Ez dot uste txistuagaz jo ezkerero edozer dantza euskal dantzea danik. Euskal dantzak bere izakerea damotsen zerbait berezigarri izango dabe: Ritmoa, askea izatea, olango edo alango aruntz onuntzak egitea, atzaparrakaz kas-kas joaz laguntzea ta abar. Edozelan be, jota ta arin-ariñak dantzateko alkondara utsik eta abarketak oiñetan doguzala egotea ez da derriorreakoa. Ondo jantzita be egin bear genduke gure lengo dantzetan, orixe litzake euroi goiko maillea edo kategoria emotea-ta.

Errezagoa zan dantza askea gu gazteak giñanean. Ritmoari jarraitzen ekianak, lotsagarri agertu barik, errez egingo eban dan-

tzan. Orduan obetoago edo txartoago dantzan ez ekianik iñor ez zan. Orain barriz, ezpatadantzari aldretatik edo ez dakigu nundik zabaldu dan filigranaz betetako dantzea da. Orregaitik asko kostaten da ikastea ta eurentzat ikasi eziña bailitzan egoten dira gazte asko ao zabalik dakienai begira. Barriztautea ondo dago, baiña zailla, gatxa, ez daiteala izan.

Dana dala, arduratu egin bear gara indartuko dabeen bideak dantzeari iragiten edo zabalduten.

*ZERUKO ARGIA 8-1965*

### **LITERATURA SARIKETA EPAIAK DIRALA TA**

Epaille zeregiña zeregin aztuna dana danok batera egongo gara kontixu. ¡Zenbat bidar epailleen eskuetan egoten da gizonaren bizia! Orregaitik, zeregin aztuna dalako, iñoiz uts andiak egi-ten ditue epailleak. Besteak egindako txarkeriagaitik amar, ogei urte edo bizi guztia espetxean igaro dabeen makiñabat izan dira mundu zabalean.

Jesukristo, ontasunaren eredua, gurutzera epaitu eban Pilatos'ek ¡Eta ori, beregan ezer txarrik arkitzen ez ebala!

Gizonaren bizia jokatzen dan auzietan epai okerrak sarri izaten badira, garrantzi gitxiagoko gauzetan oraindik sarriago. Fubol edo ukabilketa jokoan joko zuzendariak erabagi okerren bat artu izan dabeela ta jendea orruka txitean potean ikusten dogu.

Ta literaturako nor geiagoketetan be bardin. Olangoetan artu izan diran erabagiak zer esan, eztabaida ta asarreak sortu izan ditu baztarretan bein baiño geiagotan. Aurtengo udan Ondarru'n ospatu zan bertsolarien Bizkai'ko Txapelketa'k be ez eban auts gitxi arrotu.

Ez nator orduko erabagiaren aurka edo alde. Ba-dakigu, askotan, epaia barik geu izaten garana okerrak. Olango autuetan, sarri-

tan, geure gogokoa dan epaia nai izaten dogu. Ta olan ez bada jazonen, ez jakiñak dira epailleak, edo zuzentasun izpirik ez daukenak.

Baiña bakotxari berea emonaz, epai oker asko izaten dirala, barriro esan bear dogu. Ta erabagi oker bat, nire ustez, Txomin Agirre'ren omenez Ondarru'n ospatu diran Lore Jokoetan emon dabe.

Gai askotako sariak izan dira: Olerti, antzerti, edesti ta abar, euskerazkoak eta erderazkoak. Baiña sari nagusia, olertia izan da. Batzaldiko arauak ziñoen lez ITXASOA gaitzat artuta, Juan Maria Antonio Monasterio gazteak irabazi dau saria «Bear zaitut laga» izeneko olerkiagaz.

Olerki onek ez darabil, gaitzat, itxasoa; zearka aitatu bai, itxasoari begira bere barruko guda ta sentipenak azaldu bai, baiña itxasoa gaitzat artu barik, itxasoaren izatea edestu barik.

Milla alderditatik ikusi ta oartu daiteke itxasoa, milla eratarata itxasoaz berba egin daiteke; baiña batez be guretzat, euskaldunontzat, bizia arriskuan ipiñiaz gure arrantzaleak nekez eta lorrez sendiko ogia ataraten daben putzua, Kresala idaztiko Kitolis'ek edestuten dabena, da, itxasoa.

Monasterio'ren olerki ori epaitzeko iñor ez naz; atsegiñez entzun neutsala egilleari besterik ezin esan daiket. Baiña olerki modura beste guztien gaiñetik egonda be ez eban merezi saria olerki orrek. Aipamena egin edo ascetit edo danadalako sariagaz saritu eitekean, baiña besterik ez.

Olerki sariketara ogeiren bat olerki eldu ei ziran; ziur, lojikkak diñoan lez, itxaso-itxasoari abestuko eutsoen geienak. Alan bere, itxasoari kiñu bat besterik egin ez eutsanak saria jaso eban.

Ez noa ni okerkeria orren aurka karrazika aстера; neuri gixarratik elduten ez daustañ auziak min gitxi emoten daust. Epailleengan daukagun uste ona apur bat galtzen asi jakula, besterik ez.

Epai zuzenak emotera elduko garala uste dot nik. Bost milloe laurleko orreikaz edo zati bategaz epai tresna eletroniku bat egin bear litzake.

Bear bada garesti izango da tresna ori, baiña bakea munduko diru guztiakaz be ez da ordaintzen.

### *ZERUKO ARGIA 1964' garren urtea*

Oraingo oarra: Aldi aretan, bost milloe izan ezkeru zer egingo leukeen euskera alde, ZERUKO ARGIA'k bere irakurleai itandu eutsen eta erantzun asko izan zituan. Ta nik, jolasean lez, goiko ori esan neban.

## **BERTSOLARI SARIKETAK ETA ERRIA**

Berba asko egin eta idazten da euskal bertsolariketaz. Ta beti beratzaz goraltzarik andienak egiteko. Izan be, merezi dau euskal bertsolariketak dagokion goiko maillan ipintea.

Antxiña, edozein errik edo beiñepein erri askok eben bat-batean bertsoak jaurtiteko doaia, gaur egunean mundu zabalean Euskal Erria'k bakarrik dabela esan daiteke. Bear bada beste nunbait be olango zerbait egon leiteke baiña ez dogu uste gurean aiñako indar eta zaletasunik iñun egongo danik bat-bateko bertsoetarako.

Baiña edozer kontutan be gauzak diran lez ikusi ta adierazotea komeni da. Ta bertsolariketa kontuan be bai. Azkenengo Donostia'ko Euskal Erri'ko Bertsolari Txapelketan jazo ziran iskamilla ta zaratak ipiñi nabe idazki au egiten.

Akatsak agertzea izango da nire gaurko jarduna. Ez dot uste bat-bateko bertsoen areriotzat joko nabenik iñok eta osotara begiratuta gitxiago oraindik euskal bertso zar eta abestiena. Bertsolari onen bertsoak entzuten makiñabat bidar egon izan naz ao zabalik. Bertso zarren alde edozeiñek aiña egin dot. Makiñabat bertso zar buruz ikasi ditut eta abestuten be edonoiz diardut. Zabaltzen be

alegin gitxi egindakoa ez naz, irratirako taldean abestuz eta gordeten diardunai lagunduaz. Olango zerbait aita Zabala'k esango leuke. Beraz, gai onetan zerbait esateko aña eskubide ba-dodala uste dot.

Euskal idazle geienak, gai onezaz berba egitean, euskerearen iraupengarririk indartsuenetakoa dala bertsolariketean autortzen dabe. Nik ostera, bertsolariketeari ez dausat ainbesteko eragiñik oartzen euskerearen iraupenerako. Bertsolari jokoetara joaten dan jendea era bitakoa da nire ustez: euskaltzaleak eta baserritarrak. Euskaltzaleak, euskal nortasuna osatzen dabeen izakera guztiak maite dituenak dira. Baserritarrak ostera, euskal oitura ta jokoetara joerea dabeelako jake atsegin bertsolariketean.

Baiña euskerea bazartu daben jendea ez da arduratzen bertsolariketaz. Euskerearen alde geien entzun premiñan dagoan jendea bertso jaietatik kanpora geratzen da. Berba baten esateko, lendik euskaltzale diran edo euskerea darabillementzat dira bakarrik bertso sariketak. Baiña ori olan izan da be, euskal nortasunaren alderdia dan euskaldun doai eder oneri eutsi bearrean gara.

Baiña gero ta okerrera goazen doan zerbait ba-dau euskal bertsolariketak. Askok, baserritarrak, joko bat lez ikusten dabe; idi proba, arri jasote, aizkora joko edo olango zerbait bailitzan. Eta azkenengo urteetan egin diran txapelketetan, edonoiz, erria jagi egin da epailleen aurka zalapartarik lotsagarrienak ataraaz. Epailleak oker egon leitekez, baiña alde gitxi euki dabeen bertsolari biren artean Kepa'ri edo Jon'eri saria emoteak, ez dauko orrenbesteko garrantzirik.

Euskal bertsolari txapelketak euskera aldeko jai eder batzuk bailiran artu bear gendukez eta ez fuboleko zelaietako ikuskizun lotsagarrienaren pare biurtu. Euskal bertsolariketa jaietan didarka dabilizan orreik euskaltzale kaxkartzat daukaguz.

Azkenengo Donostia'ko txapelketan Uztaipide'gaz jokatzeko Xalbador aukeratu ebelako egundoko zaparradea erriak atara ei

eban epai maikoen aurka. Ez nintzen an egon eta ez dakit Xalbador eta beragaz jardun ebenak zelan egon ziran. Baiña Xalbador, orain arte, Basarri kenduta, emengo ifloren bildur bakoia izan dala bai, ori edozeiflan aurrean esango neuke. ¡Poesiz jantzitako bertso ederrik jaurtitakoa da Xalbador!

Jakiña, erria danean bardin. Txapelduna erriak aukeratu bear baleu, Gernika'n jokatzan dala bizkaitarrak jasoko leuke lenengo saria, Donostia'n jokatuta gipuzkoarrai iflok ez leuskio aurrerik artuko ta Uztaritz'en edo Sara'n egin ezkeru txapelketea, Xalbador'en burua jantziko leuke txapelagaz. Orretan ez dago ezparririk.

Epai maikoak erdiak Bidasoa andikoak dirala, zegaitik urte baten edo noizik bein Donibane Loitzun'n edo Ezpeleta'n edo ango nunbaiten ez da txapelketa ospatzen? Emengo jendeak angoai ondo ulertzen ez dautselako areik emengoak baiño gitxiago diranik ez daigun uste izan.

Bertsolari txapelketak Euskaltzaindiari diru irabazirik lagaten dautsoen ala ez ez dakit. Baiña edozelan be era lotsagarri orreitan amaitzen diran txapelketarik ez leukeala ospatu bear uste dot nik.

*EL BIDASOA 23-7-1967*

## **BERTSO PAPERAK DIRALA-TA**

Uxola idazleak BERTSO SALTZAILLEA idazpuruagaz idatzitako artikuluak nire beste au egiteko gaia emon daust.

Bertso kontu au gogokoa izan jat beti, batez be lengo denporetan «Bertso Barriak» lez agertutako bertso zarrak abestutea.

Idazlan ori antxiñako gauzen gogoratze atsegiña izan da niretzat. Bertan aitatzen daben bertso paper saltzaille Errezil'ko esku-motza Ziburu'ko kaleetan ikusi neban bein, España'ko matxinada denporan. Bilintx'en «Itzazu nitzaz kupira» bertso entzutetsuak abestuaz saltzen ziarduan. Orduan egite arrotza zan an-

goentzat gizon aren zeregiña. ¡Iñoiz Bidasoa onuntzko alderdiren baten arrera ohea egingo eutsoen! Kanpion'en ipuin «El último tamborilero de Errahondo»'ko txistularia baizen bakarrik ikusten zan. Bere bertso areik, ia danak beti jakin ditudan arren, erosi egin neutsan bertso papera ta atxaki aregaz urreraturik berbatxu batzuk berari egin. Urrengo, orain sei urte inguru Bilbo'n ikusi neban, ugazabagaz egoteko ara joan nintzan baten; bazkaritan gengozala uskeria batzuk saltzen urreratu jakun. Nire ugazaba, mutil gaztea, ezaguna eban. Lengo aren zeregin bertso paper saltzea aitatu eutsan mutillak. Ez naz gomutauten esku-motzaren erantzuna zer izan zan. Edozelan be ondoren au atara daiteke: Bertso paper saltzeak bizitzeko aiña ez eutsala emoten. Beragaz amaitu zala Euskal Erri'ko bertso paper saltzaillea esango genduke. Orregaitik, omen txiki bat lez eskeintzen dautsadaz berari lerro oneik.

Uxola'k, bertso saltzaillearen biztutea premiñazkoa dala esaten dau bertsolariak ugarituteko; asko lotsati samarrak edo lotsati-lotsatiak diralako bere bertsoak kaleetan saltzen ez dirala ausartzen. Ta ez saltzekotan ez dabeela nai alperrik lan egin.

Nire ustez, bertso paper saltzaillea baiño bertso barrien zaletasuna lenago amaitu da gure errian. Esku motzagaz jazo zanak ederto erakusten dausku ori. Bere bizi guztian bertso paper saltzen ibilli zan agure gizajoa azkenengo urteetan axueta ta olangoak saltzeari emon bear izan eutsan.

Gaur bertsolariak indar andia artu dabeena iñok ez dogu ukatuko. Bertsolari jardunak sekulako ugarienak dira ta euretako asko anditasun ederrenean egin be. Baiña au beste kontu bat da. Gure bertsolarien jardun asko ikusten doguz baiña bertso barririk ez da ikasten.

Gure gurasoen denporetan beste abestirik ez egoan eta abestuteko euken zaletasuna bertso barriakaz aseten eben. Gaurko gazteak irratian entzuten dan abesti barri politari baizen arrera ona egi ten eutsoen Bertso Barriak papera agertzeari.

Baiña orain ez da olango konturik. Gaurko kaletar gazteen bu-ruak erdal abestiz beteta dagoz. Gaiñera euskal abestiak abestute-ko oiturea daukenai be ez jake atsegin gai bereko alango bertso pillo andia doiñu bategaz abestuten jardutea.

Nik neure erriko kontua dakit. Orain berrogei urte inguru, ni, mutil txikia, lanean sartu nintzanean, arrain lantegietako emaku-meak iñun diran bertso guztiak abestuten zituen. Xenpelar'en Pa-siñokoak, Azken Juiziokoak, Iturrino'ren Markesaren Alabak eta beste milla, nai ta edo nai ez da, ikasi egin nituan. Gorra izan ezik ikasi egin bear. Ondarru'n erriak azken ikasitako bertso paperak 1925 eta 1926'garren urteko Bilbo ta Donostia'ko estropadak zi-rala ta ataratakoak izan ziran. Gero, apur bat, Aitorren Izkuntza Zarra izenekoak.

Biztu ete geinke erriagan bertso barrien zaletasuna? Zail sa-mar ikusten dot. Eta ez uste izan Uxola jauna, onetan etsita nago-anik. Nai onek eraginda or diardut GOIZ-ARGI'ra bertso zarrak bialtzen. Ta ez ori bakarrik. Bertso Barriak'en sariketa bat egiteko asmoa darabil aspaldian buruan eta bateri baiño geiagori asmo au azalduta daukat. Gaia ta bertsoen neurria geuk jarri doiñu egoki baten abestuteko eran. Doiñua ederra ta bizkorra izan daiteala bertso orreik abestutea aspergarri egin ez daitean, luze egingo li-tzakez-da. Gaia, euskerea. Euskerearen alde doguzan errezoiak agertu. Euskaldun izatea geienbat euskereak emoten dauskula, be-raz euskerea egin nai ez dabeen gazteak euskaldunak dirala esate-ko eskubiderik ez daukela. Europa'ko antxiñenetako berbeta da-la euskerea, Europa'ko ego sartaldean diran izkuntzetan latiñetik ez datorren bakarra, senide ezagun bako bakarra. Ta orregaitik, berbeta kontuko jakintsuak zaletasunik andienagaz beragaz ardu-ratzen dirala. Euskerea jakiteak kultureari ez dautsala kalterik egi-ten; euskerea dakien gizon andi asko dagozala. Erdera utsa dakien umea baiño erdere ta euskerea dakiazan umea kultuago dala ez-pai barik. Millaka urtetan euskaldunon berbeta bakarra izan dana, ain zuzen, geure egunotan ilteko arriskoan dala. Ta olangorik jazo ez daitean dei larria egin gazteai ta ume gazteen gurasoai.



Gitxi gora-bera errezoi onek azalduaz sentigarri izan leitekezan bertsoak izan daitezala. Bertso orreik, euskerearen zabalkunderako, alde guztietara zabalduko gendukez. Geure irrati guztietatik abestu ta modan ipiñi. Ortik zear egiten diran diran euskal jai asko baiño mesedegarriago izango litzakez euskerearentzat.

Diru apur bat bear orretarako. Ez asko. Geienez be bi edo iru milla laurleko iru bat saritan.

¿Sariketa au egitea ez dogu lortuko?

¿Zer deritxazu Uxola jauna?

*GOIZ-ARGI Ilbeltza 1966*

## **SATARKA OLERKARIAREN URREZKO EZTEGUAK**

Beti jakuz pozgarri adiskideen urrezko ezteguak. Baiña oraingo oneik sekula baiño pozgarriago esango neuke, bat-be geiegikeria barik. Bada, urrezko eztegu oneik ez dira gure adiskideren bat ezkondu zaneko berrogetamarren urtearen gomutea, ia bere maitasunik andiena euskal olertian ipiñi eban gaur urtetsua dan olerkari bat olertiagaz alkartu zanekoa baiño; Sagartzazu'tar Klaudio «Satarka» olerkariak lenengo saria jaso ebanetik berrogetamar urte aurtan beteten dira-ta.

Egia esan, oraindik ez dogu alkar ezagutzen. Urte asko dira bai, Bidasoa'ko alderdi zoragarri onetara egaka asi nintzala, Bizkai aldean egin neban abirako txori lagunaren billa. Baiña orain arte, sendiko goraberak alderdi onetara bultzau naben arte, ez naz emen kokatu; orain arteko nire emengo egonaldiak laburrak izan dira.

Baiña Satarka arpegiz ezagutzen ez badot be, olerkari lez iñor baiño lenago, nire lenengo olerkaria bera da-ta. Bai, oraindik galtza motzakaz nenbillela gaurko mutiltxoak fuboleko kontuak irakurteko ipinten dabeen zaletasunagaz ARGIA asterokoa irakurten

nebanean, aldizkari arek urtero ataraten eban ARGIA'REN EGU-TEGIA'n asi nintzan olerkiak irakurten. Ta antxe ta orduantxe irakurten nituan Satarka'ren olerki gozo ta sentikorrak ta bai tarteka bat edo beste buruz ikasi be.

Aldi aretako iru olerkariren izenak geratu ziran nire buruan: Satarka, Zubigar eta Arrese'tar Emeterio. Gerotxoagokoak ziran Lizardi, Lauaxeta, Jautarkol eta abar. Orregaitik, lenengo ikusitako oargarriak edo maitasunak beti gogoan izaten dira ta Satarka be beti izan dot begiko. Baiña ez orregaitik bakarrik, ez niretzat lenengo olerkaria izan dalako ta beste barik. Olerkari lez be guztiz kontuan izatekoa da: Satarka'k ba-dau naikoa indar bere olerki bidez euskal olertian dizdiratsu argi egiteko. Au, beste berba guztiak baiño jaso dituan lenengo sariak obeto agertzen dabe.

Ez naz ni olerkari kritikua; olerkia zer eta zelangoa dan zeatz-tasun gitxi emongo dot. Baiña Satarka'k jaso dituan sariak ondo mereziak izan dituala bai esango neuke.

Satarka'ren sentzunak zabal-en-zabal egon izan dira beti ta izadiaren edertasun, gizonen poz eta atsekabeak eta Euskal Erria'ren goraberak bere biotza sentipenez bete izan dabe ta bere sentipenak abestuten ez da geratu txori kantaria lez.

Pozik egon daiteke Satarka, euskal olertian egin daben lan bikaiña ikusirik. Ta euskaltzaleon ondo nai ta txaloak irabazi ditu. ¡Bai orixe! Bere bizi luzea olerki bidez euskaltzaletasuna ereiten igaro dabenak ori ta geiago be merezi dau.

Ta une egokia auxe, berrogetamar urte olerkiagaz alkartu zanekoa, orretarako.

Zorionak milla bidar Satarka jauna ta Jaungoikoak oraindik urte askoan bizia luzatu deizula euskerearen onerako ta gure puzerako.

*EL BIDASOA*

## JOAN DIRA ERREGEAK

Iru errege datoz  
Oriente'tik  
erregiak  
aurretik dakarrela  
artizar eder bat  
bidiak erakustera.

Antxiñako bertso onek diñoan lez, etorri dira aurten be beti lez bere denporan Iru Erregeak, besapea jostailuz beterik umeen pozgarri.

Iñok, baiño obeto ikasi ta eureganatu eben Iru Erregeak Jesukristo'k umeentzat erakutsi eban ondo naia apostoluak bere ondolik txikiak bialtzen asi ziranean.

Arrezkero ia bi milla urtean zenbat on ez dabe egin umeengan, zenbat poz ez dabe zabaldu txikien artean! Orregaitik umeak eurak be beste iñogaz baiño geiago erregeakaz gomutauten dira, santu guztien artean Iru Erregeak ditue maiteen.

Erregeak ondo dakie munduko barri; gaurko munduan egin dan aurrerapidearen barri ba-dakie ta jostailurik ederrenak ekarten ditue. Orain ez dira etorten len lez jostailu merkeakaz. Ez, gaur, izan leitekezan gauzarik ederrenak lagaten ditue gure umeen oiñetakoetan. Gaurko jostailuak, gu nagusiok be ume biurtzen gaitue. Umeai jostailuak erabilten erakusteko atxakiagaz makiñabat zar ikusten dira egunotan belaunbikotuta trenari kuerdea emon ta zirri ta zarra. Ta baita andrakilleta edo panpiñari lo eragiten be.

Lenagoko Erregeetan umeak pozik ikustea zan bakarrik gure naia. Orain oster, aurren pozak emoten dauskun atsegiñaz gaiñera geuretzat be zuzenean ba-dakarre pozgarri geiago zarrok alkarrei egiten dautseguzan erregaluagaitik. Gaurko erregeak doe bikain ori dauke, nagusiak be ume biurtzen gaituela. Ez dago ume biurtze au baiño gauza andiagorik. Umeengan ez dago asmo zitilik, ez dago alkar galtzerik. ¡Ai munduan danok umeen antzekoak bagiña gure sentimentuz!

Alan be, Iru Erregeen kontu au kendu egin bear litzakeala esaten asi dira, umeak guzurra esaten ikasteko dala-ta. Guk oster, euren sentimentu onak agertzeko aukerakoa dala esango genduke.

¡Zenbat eskutitz biotz zirrara garri ez dautseez idazten umeak Erregeai! Urtero ikusten doguz olango eskutitz politak izparringi ta aldizkarietan. Aurten be bai.

Ume ta Iru Erregeen kontu oneitan gure etxean jazotakoa baiño politagorik gitxi izango dira. Orain bost-sei urteko kontua da. Zortzi urte inguru zituan gure semeetako batek kezka andia eban nunbait, Erregeak, munduko ume guztiai jostailuak emoteko, larrri ibilli bearko zirala diruz-da. Eta balkoian oiñetako barruan amar laurleko lagatea, asmoa artu eban. Olango iñuzentekeriarik ez egiteko esan neutsan, Erregeak dirua geiegi be ba-eukeala ta. Buruz bera entzun eustan, berbatxu batik be ez eustan erantzun. Alan be beretik ez neban atara. Eta eguna eldu zanean iñori ezer esan barik ixil-ixillik an itxi zituan, bere utxatik atarata, amar laurleko Erregeentzat, eurakaz errukituta, euren gastua arintzeko. Jakiña, diruak amarentzat izan ziran.

Olangorik nik sekula ez dot entzun eta ezta irakurri be. Beste umeak Erregeai eskatu besterik ez dautse egiten, bear bada ez eurentzat bakarrik, auzoko umezurtzarentzat be bai, edo amarentzat osasuna. Gurean jostailuak eskatu bai, baiña ordez dirua laga.

Gero denporeagaz argitu zanean eta kontu ori berari aitatu ¡arek egiten zuen barreak!

Erregeen kontu au umeai guzurra esaten erakustekoa dala? ¡Bai zera! Nagusitu garanean be or jarraitzen dogu geienok oiñetakoak balkoian ipinten egun baterako bada be ume biurtuta.

Eskerrik asko Iru Erregeoi, ume ta andien izenean eta urte askotan zuen eguna ikusi ta ospatuteko osasuna Jaungoikoak emon deigula.

*EL BIDASOA 15-1-1967*

## SANTA AGEDA'REN ESKEA

Euskaldunok oitura eusleak garala esan oi da. Ez da au egia oso-osorik. Makiñabat oitura eder galdu doguz azkenengo urteetan. Baiña, egia, tarteka-marteka ba-diraeu gure artean antxiñako oitura batzuk. Euretako bat, Santa Ageda'ren eske kantak. Aurten be talde ederrik ibilli da kalerik-kale abestuten Bizkaia ta Gipuzkoa'ko erri batzutan.

Gure ustez, abestirako dogun zaletasunagaitik geienbat eusten dautsagu oitura oneri euskaldunok. Izan be, gudan geien nabarmentzen dan zaletasuna abestutekoa da. Edozer antxiñako gauza, ezer txarrik ez badauko, antziñakoa dalako, ain zuzen, begiko egiten jaku, orretxegaitik gogo onez artzen dogu. Ta Santa Ageda'ren eske onek antxiñakoa izanaz gaiñera ba-dauko beregan pozik ikusi eragiten daskun zerbait polit. Gaur egunean geiago, eskean artzen dana, geienetan, beartsuai laguntzeko izaten da-ta.

Orain erri azi ta andietan urteten diran taldeak aurretik ondo abestuten ikasi ta lengo erara apain jantzitakoak izaten dira. Toki baktotxean iru edo lau bertso baiño ez ditue abestuten. Oitura onen jatortasun edo antxiñakotasuna erri txiki ta baserrietatik urteten dabeen taldeetan arkitzen da, nai ta iñoiz euregan itxurabakoke-riak ikusi jantzieta.

Santa Ageda, Ageda  
biar da Santa Ageda;  
Biar da Santa Ageda baiña  
gaur aren beizpera gaba.

Auxe da Santa Ageda eskeari asiarea emoteko abestuten dan kantu jatorra. Gero, alkatearen baimena orretarako ba-dabeela esan eta santearen goralmenez bi edo iru bertso abestu ondoren etxekoai abesten ekingo dautsee. Santa Ageda'ri abestute au geienetan askari edo meriendea egiteko atxakia baiño ez da. Orregaitik, diranak eta ez diranak esanaz jardungo dau bertsolariak ta jakia, aldrea, bertsolariak abestutakoa ber-abestuten. Lenengo, etxeko nagusi jauna koplaturko dau. Urrengo, etxeko andre zabala.

Gero, zaldun gaztea ta azkenez, damatxoa. Danentzat goraltza andiak izango ditu. Alan be andienak nagusi jaunarentzat izango dira:

Eder zeruan izarra  
errekaldean lizarra  
etxe ontako nagusi jauna  
urregorrizko bizarra.

Antxiña, Manuel Lekuona abade jaunak diñoanez, deunak aldaretan urregorrizko bizarra eukiten ei eben. Ara or, etxeko nagusi jauna, aldarako santuen pare biurtu.

Ta aspertu barik danentzat eta danetara abestu ta eskupekoa artu ondoren, urrengo urte arte agur egiñaz alde egingo dabe.

Limosna ere artu degu ta  
orain abia gaitian.  
Adiosikan ez degu eta  
Agur ikusi artian.

¡Zelan diran gauzak! Gaur irautea nai dogun Santa Ageda'ren eske au, beti ez da begi onez ikusi. Jose I. Lasa Prailleak ARAN-ZAZU aldizkarian agertzen dituan Gipuzkoa'ko kontu zarretan irakurten dogunez, Azpeitia'n 1745'garren urteko Urriaren lenengo eguneko meza nagusitan irakurri ziran legeen artean ondorengo au irakurri zala esaten dau:

«Que ninguna persona sea osada de andar de noche víspera de Santa Ageda cantando y pidiendo, so pena de 500 maravedises y 4 días de cárcel.»

Santa Ageda eguna ei zan aldi areitan urteko egunik zaratatsu ta iskamillatsuen. Beraz, ez da arritzekoa erri agintarien eragozpen ori.

Ez dago geiegikeriarik gaurko Santa Ageda eskean. Erri batzutan beste batzutan baiño desegokiago jazten dirala edo zarata geitxuago atarako dabeela; baiña ezer be ez nabarmenkeriarik.

Olango baten geu be iñoiz ibilli izan gara. Bizkai'ko erritxu baten urteten diran aldrak, zarata andiagaz abestutea dala uste izaten dabe aldrearen izena goian ipinten dabena. Baten, ango gazte batzuk gugaz gogoratu ziran. Arein eta gure erria auzoak dira; esku bateko atzamarrak ainbat kilometro bide dago arein eta gure erriaren artean. Onenbesteko bat emongo eustela ta ea sasofoiagaz joango nintzan esan eusten. Geienez be bi edo iru orduko ekiña izango zala uste neban eta joan egin nintzan. ¡Bai ondo damutu be! Egun osoan lanean jardun ondoren neure soiñua lagun nebala joan nintzan oiñez, ia ordubeteko bidean, alkarregaz batzeko izentautako tokira. Gabeko zortzirak inguruan asi giñan baserririk baserri soiñu bi geroazala: Akordeoia ta sasfoia. Ta ni, mendian gitxi oitutakoa, bide biurrietan zear oraintxe txirrist, urrengoan jausi ta gero jagi, ¡axe igaro neban gaba! Gau guztian ara ta ona modu orretan ibillita, goizeko egun sentia urratzean, lanera joan bear nintzala ta iges egin neutsen. Etxera orduko eguna guztiz argitu zan.

Urrengo urtean ez jatazan billa etorri. Baiña etorri bajatazan be alperrik izango eben.

Gaur egunean Santa Ageda'ren eskeak ez dauko areriorik. Egiten dan lez eginda erri agintariak ez doaz debekautera. Beraz, aldi baterako ba-dala esan daikegu.

Gure aldetik: Alan izan daiteala.

*EL BIDASOA 12-2-1967*

## **EUSKALDUNTASUNAGAZ ZER IKUSIRIK EZ DAUKEN OITURAK**

Lengo baten «ZERGAIK EZ ULE LUZEAK» izen buruagaz idazlan polita argitaratu eban ANAITASUNA onetan Gereño'tar Xabier jaunak. Ta amaieran, bestek euren eretxiak emon eiezala eskatzen eban.

Gai polita ta asarre barik erabilteko modukoa dalako euskaltzale jaun orren naiari erantzunez zer edo zertxu esaten aleginduko gara. Zein edo zeñiek besteen bide ta oiturak lagaten baditu gaiñontzekook baiño nortasun geiago daukalako dala diño berak. Nire ustez oituretan aldatzea, jantzi, orraztu ta olangoetan bestea-kandik bereizteak ez dau agertzen gizonezko edo emakume orreik nortasun geiago daukenik. Ostera, bereizkunde orreitan arrokeria ta kazkarkeria egon leitekez.

Oiturak denporeagaz aldatzen joaten dirala esan bearrik ez dago, ori danok dakigu-ta. Gu gizonok be orain eun eta berrogetamar urte oneitan asko aldatu gara jazte kontuan. Baiña geienoi ardura ta kezka gitxi emoten dauskue kontu orreik. Ez gara abereak, billotsik ezin daikegu iñora urten eta gure denporetako oitura modura jazten gara. Baiña bardin litzakigu jantzi kontuan beste oitura batzuk balegoz be.

Ostera, emakumeentzat garrantzi andiko kontuak dira jantzi, orraztu ta olango kontuak. Emakume gazteak etxean daukazank daki au. Jantzia gora ta jantzia bera ibilliko jatzuz. Eguraldiak kezka asko emoten dautse. Ez bakarrik otz edo bero edo euria edo eguzkia egin, baita euririk egin ez da be eguraldiaren koloreak zer ikusi asko eukiko dau olango edo alango soiñekoagaz kalera urte-teko.

Ta gaurko mutil gazte asko be emakumeen itxura artu naian ikusten doguz. Ez bakarrik ule luzeak, baita zapata takoiak be nai-koa luzeak, gerrian jakea estututa ta abar.

Guk, jantzi ta orrazkereari garrantzirik emoten ez dautsagunok baiño nortasun geiago al dauke besteak ez modura jantzi ta agertu nai dabeen eta izpillu aurrean jira ta bira ibiltan diran emakume ta gizonezkoak?

Gauza baliotsuagotzat neukan nortasuna neuk.

Ta aurrera joanaz auziaren beste alderdi bat aztertu daigun.



Gauza guztiak dauke bere asierea. Ta lenengoan arritzen ginduzan gauza asko, gaur berezko lez artzen doguz. Baiña oitura barriak lenengoz agertzen dituenak geienetan lotsabakoak izaten dira. Gaur, emakume batek zigarrua erretea ez da ezer, ezta gal-tzakaz jaztea edo bere arpegia margotutea ta olan beste gauza asko be. Baiña danok dakigu, gauza barri orreitan gure errietan asi ziranak lotsa gitxikoak zirana.

Edozetara jarrita gagoz gaur eta ez dakit ezegaitik iñor lotsa-bakotzat joko gendukean. Ondartzetan emakumeak ia billotsik ikusten oitu gara ta kaleetan be andrakilleten jantziakaz ikusten doguz gazte asko. Orren aurka ez diñogu ezer, danak iñuzentetzat joko gindukez-da.

Jakiña, lengo eran jantzi ta bizitean ez dago euskalduntasuna, lengo oiturak erabiltea bakarrik ez da euskaldun izatea. Gazteak bizar luzeagaz eta neskatillak ye-ye antzera ibilli, ez dausku ardu-rarik izan bear orrez gaiñera euskaltzaleak badira. Euskerea ta euskal kulturea gaurkotasunezko oituren gaiñetik dagoz. Egia da au. Baiña egia da baita be, arinkeriaz, jendea eurai begira ipinteko edozer zorakeria jantzi, orrazkera ta olangoetan nabarmendu nai dabenak, orregaitik bakarrik nortasun apurrik be ez dabeela.

*ANAITASUNA*

## GIZARTE AUZIA

### EMAKUMEA DUINTASUN BIDEAN

Azpiratuta egon izan da emakumea munduan. Gizona, gorputzez emakumea baiño sendoagoa dalako, nagusitzaz jaubetu da. Ta orregaitik, lege egille be bera izan da ta menpetasun gogorrean emakumea ipiñi dau. Pekatuan arkitu ebela ta judeguak emakume bat Jesus'en aurrera eroan ebenekoa gomutautea naikoa dogu menpetasun au aldi baten noraiñokoa zan jakiteko. Emakume arek pekatu egin baeban gizonagaz egin eban. Baiña emakumearentzat bakarrik eskatzen eben eriotzea . Gizonarentzat ez zan pekatua; ta bear bada gizon a, pekatuaren eragile izan eitekean gizon a, emakumearentzat eriotzea eskatzen ebenen artean egongo zan.

Kristiñautasunari eskerrak, asko arindu zan denporeagaz emakumearen menpetasuna. Egia, gaur be legearen aurrean gizonaren mendeko da, bere eskubideak gizonarenak baiño laburragoak dira, bai sendian, bai lanean ta bai beste gauza askotan be.

Gaur emakumea gizonaren pare egin nai da, bere eskubideak gizonarenak aiña izan daitezcan alegiñak egiten dira. Geuk be begi onez ikusten dogu eta txalotu be bai emakumeen alde egiten dan

guztia. Baiña batzuk eurentzat lortu nai dabeen askatasuna, neurritz kanpokoa dala esango genduke, emakumeen izakereari ez dagokiona.

Aurten baten gai onezazko idazlana ekarren euskal aldizkari batek, EMAKUMEA DUINTASUN BIDEAN izenekoa ta len esan ditudan geiegikeria batzuk aldeztuten ditu bertan idazleak. Berak emon dautsan asieratik asiko gara geu be.

«Neure andrea» esaten ei dogu gizonok, emaztearen jaube lez agertuaz. Esakera bat baiño ez da ori. Emakumeak eurak be bardin berba egiten dabe gizonagaitik: «Neure gizona».

Ara beste esandako bat:

«Gizonaren eskubideak bakarrik agintzen dau semeak sortzeko, etxea saltzeko edo erosteko, semeak azitzeko. Emakumea gizonaren menpean. Eta askotan menpetasun gorria.»

Legeak olan aginduko dau kontixu, baiña zorionez, oituraz, gauzak ez dira olan egiten gure errietan. Auzirik geienetan senarraren borondateak aiña indar izaten dau emaztearenak be gure pamilietan.

Umeen sortzeari buruz auxe diñot: Berez da gizona emakumea baiño aragikeria zaleagoa ta zaletasun ori ase naian asten da geienetan eta ez umeak sortu bear dituala edo dirala-ta. Ta jakiña, ondorena umeen sortzea da ta emakumearentzat izan oi da zamarik aztunena. Baiña gizonak beti ez dau abere lez jokutzen, bien akorduz egiten dira gauzak geienetan.

«Tristeia emakume asko gizonaren laguntza gabe ezin bizi izatea» esaten dau.

Emakumeak geienetan iñok beartu barik gizonagaz ezkontzen dira, amatasuna ta gizonaren adiskidetasuna atsegin jakezelako. Egia, neskazar geratzen diran emakume beartsuak beartsuago izan oi dira urteetan aurrerátzean. Ta beartsutasun orren bildurrak bultz egin deikioe gizonaren babesera. Baiña ori bardin edo antzera ja-

zoten da mutil zarrakaz be. MUTIL ZARRAREN DESPEIRA izeneko bertsoak erakusten dabe ederto.

Ara bere beste berba batzuk: «Idea okerra deritxat emakumea ama izateko batez be dala uste izatea. Ama izateko da aita izateko gizona dan bezela.»

Errezoi galanta azkenean diñoana. Baiña ama izateak eta aita izateak zeregin desbardiñak emon daikeez nai ta zeregin desbardiñok azken batera zuzenduak izan. Nire ustez, bai emakumea ta bai gizona orretarako dira batez be, ama ta aita izateko. Munduak jarraitu egin bear dau; alango edo olango kultureagaz, baiña, jarraitu.

Egia, abereak be aita ta ama izaten dira; baiña gizonaren eta emakumearen aitatasuna ta amatasuna abereena baiño askotaz gorago dago, bear dan moduko aita ta ama izaten badakie. Gizonaren eta emakumearen zeregiñik bikaiñenetakoa dala deritxat umeak munduratzea, bear dan moduko gurasotzea egin ezkeru.

Ondoren diñoan au oso-osorik ontzat emoten dogu:

«Asiera da emakumeak legearen aurrean gizonak bezelako eskubide ta deretxuak izatea.»

Baiña nik neuk ez dauset opa emakumeai danean gizonakaz bardintzea. Ez litzake ona izango emakumeentzat gizonak lez neguko gaberdian oetik jagi ta besapean otzara (otarra) dabeela itxasora joan bearra, edo miñetara jatsi ta atxur ta pikotxagaz jardun bearra edo gudan pusilla eskuan dabeela tiroka ekin edo kañoi andi bateri loietan bultzaka ibilli bearra.

Nik ez dakit gauza garbirik legeak emakumeaz zer diñoan; bikarioak ezkontzean esan euskuna besterik ez dot entzun edo irakurri auzi onezaz. Ta bera aspaldi joan jatan burutik. Baiña niretzat lege guztiak alperrik dagoz. Katoliko izaten dakien senar-emazteen artean emazteak ez daroa menpetasun gorririk. On eta txar alkarregaz eroango ditue.

«Emakumeak gizonaren deretxu berak behar ditu lan saritzan, ikas-bidetan, erri agintaritzan, ekonomi arazo guztietan, etab.»

¡Bai orixe! Ez naz ni orren aurka jagiko. Baiña amatasun zeregiña lenengoa dabela; berezkoa dabelako ta emakumeari duintasun andiena orretzek emoten dautsalako.

*ANAITASUNA 6-6-1966*

## **EMAKUMEEN ESKUBIDEAK ETA LANA**

Danok dakigu arako barrionak diñoana: Zera, pariseoak emakume bat pekatuan arkituta Jesus'eri eroan eutsela, Moises'en legeak agintzen ebanez, pekatu aretan artzen ziran emakumeak arrika il bear zirala ta andra ari zer egin bear jakon itaunka.

Jakiña, emakume a gizon bategaz loitu zan, baiña pariseo areintzat edo Moises'en legearentzat emakumea zan bakarrik erruduna, eriotzea bera be merezi ebana; gizonarentzat zigorrik, txikienik be ez eben eskatzen, gizonak nai ebena egin eikeen kontixu.

Olantxe dira askotan munduko kontuak, olangoexak munduko legeak; gizonak, sendoagoa dalako, gizadiaren nagusitzea bereganatu dau ta emakumea oinperatu, bai oituraz eta bai orretarako legeak emonda be. Milla gauzetan bazartuak izan dira emakumeak, eskubiderik ez dabe izan.

Zorionean azken urteotan aldakuntza andiak ikusten dira munduan eta emakumeak eskubide asko bereganatu ditue. ¡Poztutekoa auxe!

Baiña emakumeen eskubide kontu onetan ez nago oso-osorik eurak danean gizonakaz bardindu nai dituenakaz. Ta au euren ona naian.

Aurten baten auxe irakurri neban euskal aldizkari baten:

«Emakumearen gizartean aurrerapide berezi bat ikusten ahal degu, iraultza txiki bat. Iraultza txikia izan da, baiña iraultza bat behinik bein. Españaia'n, Frantzia'n eta Ingalterra'n baino lehena-go, auteskunderako eskubidea iritxi zuan emakumeak. 1961'garreneko urtean izan zan lortze ori. Geroztik, gudari ta mariñel izan ezik, edozein ogibide aukeratu dezake. Baina, orain mariñek izateko eskariak egin dira. Geroago behar bada, gudari izateko eskariak egingo dira.»

Zer, itxasora ta gudara joatea emakumearentzat konkistak, irabaziak al dira? Lana ez da gizonarentzat konkistea edo irabazitako alderdi ona, bizi nai badau bizkargaiñeratu bear daben zamea, eginkizun aztuna baiño. Abereak, erle, txindurri ta olangoren bat edo beste kenduta, ez dabe lan egiten. Gizonak ostera egin (sic) egin bear. Barriro diñot; lana ez da gizonaren eskubidea, bear kun edo obligaziñoa baiño. Jopuak, esklabuak, ez ziran ezelango eskubideen jaube; lan egitea zan euren egiteko bakarra. ¡Ederra eskubidea!

Gizonak eta emakumeak lan kontuan dabeen desbardintasuna ez da onei eskubideak ukatzen jakezelako; geienbat, izaki desbar diñak diralako da. Ez dakigu denporeagaz noraiño elduko garan. Bear bada, denporeagaz laborioetan sortuko dira umeak. Baiña oraingoz emakumeen bidez bakarrik munduratu daitekez. Ta ez umeak munduratzeko bakarrik, baita eurak azteko be emakumea bear, al dala bere ama, gizonak ugatzik ez dautso emongo-ta.

Auxe da izan be emakumeari duintasuna damotsona, aurr munduratu, azi ta ezi, ta ez gizonen lan aztunak egiten etxetik kanpoan jarduteak. ¿Edozer lan mota egiteko, egin al izateko, eskubidea emakumeak izan bear dabeela? ¡Bai jaunak! Baiña eurentzat egoki diran lanetarako.

Umeai be lan egiten ez jake uzten, eskola ikasi bearra daukelako ta lanerako makalak diralako. Bardin-bardin, lan asko ez dira emakumeentzat. Emakumeak mariñel izateko eskubidea eskatu ei dau. Bai, ontzi andietan sartuta pilototza edo olango eginkizunen

baten arduradun izanaz mundurik-mundu ibilteko ez da bizibide txarra. Baiña Gran Sol'era arrastera edo negu erdian, gabaz, ardo-  
rera, antxobatarra joan daitezten bidean ipiñi bear al doguz bada?  
Edo ta pikotza eskuetara emon eta meatz zuloetan sartu edo txis-  
pea, fusilla, leporatuaz gudara bialdu?

Bai, emakumeak euren buruaren jaube izan bear dira euren  
ondasunakaz agintzeko, eskubide osoa lanerako nai politikarako.  
Baiña euren ardura nagusia familia izan bear dala ta lan mota ba-  
tzuk eurentzat ez dirala kontuan izanik.

OARRA: Errepublika denporan, 1931'garrenetik 1936'garren  
urtera bitartean, lortu eben auteskunde eskubidea España'ko  
emakumeak.

*GOIZ-ARGI Urria, 1971*

## UMEEN LANA

Gizadia aurrerabidean joan da joan doa, bein be geratu barik.  
Len beregan zituan gatx asko uxatu egin ditu ta bizia erosotu as-  
kori. Alan be makiñabat okerrekin estutzen dau oraindik gizadia.  
Okerrenetariko bat umeen lana. Mundu zabalean milloika dira  
ikastolarako urtetakoak izan arren lanean diarden umeak. Gaur-  
ko munduan ain bearrekoa dan eskolea ikasteko aukera barik, sa-  
rritan euren osasunarentzat kaltegarri diran lanetan, dagokien ume  
bizitza ezin eginda, ez jolas ta ez ezetariko gozotasunik, denporea  
baño len gizonkerietan.

Egia, gure errietatik gatx au aldendu dala esan daikegu, zorio-  
nez. Edo ia aldendu dala beintzat. Amalau-amabost urte ez dituen  
ume gitxi ikusiko doguz lanean Euskal Erria'n.

Len gauza guztiak bestera ziran. Gure gurasoen denporetan  
amar urte orduko asten ziran itxasoan. Ta ni neu be amabi urte oz-  
ta-ozta eginda, oraindik belaun koskorak agirian nituala maunez-

ko jantzirik arrain lantegian sartu ninduen. 1925'garren urteko urriko lenengo astelena urrun geratzen da baiña burua ondo daukadan artean ez dot uste aztuko jatanik. Ta orduko lau urte aurretik (bai, zortzi urte nituanetik) udabarriko illa bi inguruan erriko beste ume guztiak lez antxobeari burua kentze lan zikiña egin bearra izan neban.

Ta au zegaitik? Gai onezaz ez da gitxi idazten. Gatxaren barri zeatz-meatz ederto emoten dabe. Alan be gatxaren zegaitia azaldu ta sendabidea aitatzean guztiz zuzen ez dabilzala esango neuke. Umeak aldezteko legerik ez dagoala zenbait lurraldetan eta egonda be ez dirala beteten, diñoie.

Ez, umeen lan gatxa edo okerra ez da lege kontua. Umeen lana errien beartsutasunaren ondorena da bakar-bakarrik. Errialde aberatsetako jendea ez da txiroetako baiño sentimentu obeak dituana; ango gurasoak ez dira beste onetakoak baiño euren ume maitaleagoak. Baiña aberats bizi diran errietan edo beintzat premiña andi barik bizi diranetan gatx onetan ez dira jausiko. Erri orreitako umeak, oraindik amen altzoan egoteko adiñean lanean asi bearrik ez dabe izango gu asi giñan lez.

Ez da bada gurasoengandik edo gurasoakaitik datorrena umeen lan egite au. Ezta lege zuzen batzun paltea edo ez izatea be. Txirotasuna da umeak lanera bultzaten dituana.

Beraz, auxe da geienbat gudatu bear dana umeak lanetik atara nai bada. Bai, egia, umeen lana dabekauko dabeen legeak bearrekoak dira mundu guztian; eta legeok bete daitezcan alegindu bear giñake. Baiña lenengoa, gatxa sustraitik osatu nai izatea da; umeak lanera bialtzen dituan beartsutasun ori errietatik uxatzen alegindu gaitzean.

Bizimodu ohea eroan bear da errietara; pamilietan, gitxienez euren premiñai arpegia emon al izan deioela estutasun andi barik. Auxe lenengoa. Gauzak olan diranean, pamilietako premiñai errez



arpegia emoteko aiña gurasoak irabazten dabeenean, ume gitxi lanean ikusiko da. Kristiñau zibilizaziñoa dabeen errietan beintzat.

*GOIZ-ARGI, Garagarrilla, 1971*

## **BEARGIÑEN ZARTZAROA**

Nai ta bear baizen aguro ez bada be beargin jendearen bizimodua obetzen doa munduko toki batzutan.

Era askotara konturatu gaitekez onegaz, batez be zarrakaz. Len, zarrak, zerbait egiteko gauza ziran arte, lan egin bearra euken. Eurentzat ez egoan ezetariko laguntzarik. Ni, neure erriko zarrakaz gomutauten naz. Ia danak arrantzaleak, euren kopradia-tik eguneko laurleko bat jasoten eben; eta ori, liortarrak iñun ez euken laguntzatxoa bazan be ez zan naikoa ta irurogetamar urtetik gora eukezan agureak pipea espanetan eta sarri mukia erioela on-tzietako tostetan jarrita (jezarrita), buru makur itxasora sardiñata-ra joaten ikusten genduzan.

Orain irurogetabost urtegaz dago danentzat zartzakoa edo zarren subsidiua, batzuk gitxitxo ta beste batzuk polito. Ta or ikusten doguz gure zarrak asko oraindik sasoiko, ederto jantzita ara ta ona ondo irabazitako atsedena gozatuaz.

Nik neuk zarren kontu onetan aurrerapide anditzat neukan irurogetabost urtegaz zartzakoa artzea, baiña ez dirudi alan danik. Beintzat, gai onezaz artikulu bat baiño geiago irakurri izan ditut nire eretxien aurrez-aurre dagozanak.

Zarrai erretiroa emotea euren gauza ez izatea arpegira emotea ei da ta orrek atsekabetu besterik ez ei ditu egiten.

Danetarikoak gagoz eta izan leiteke ori egia batzutan. Baiña alan izanda be zek sortu eragiten dautse atsekabea? Lanari laga bearrak ala euren zar izatea gogora ekarteak?

Beti lanean jardutea beti gazte irautea balitz, gitxi izango litzakez lanetik erretiratzea nai izango leukenak. Baiña lanak iñor ez dau gartzetuten. Jakiña, lanak eta lanak dagoz; lan arifiak eta lan zatar eta aztunak. Bear bada gorputz nekepean egiten dana baiño burua nekatzen daben lana gogorragoa izan leiteke. Baiña idazle orreik, esku, arpegi ta jantzi zikiñakaz nekepean eta izerditan egiten dan lanaren barri gitxi dakie ta langilleak, lanari laga bearra, atsekabez artzen dabeela uste dabe. Baiña urteak leporatzeak atsekabetuten baditu be lana lagateak ez dau iñor atsekabetuko.

Ez dakit euren idazlanak zer asmogaz egiñak diran. Bear bada, alan nai dabeenak, euren betiko lan tokietan jarraitu al izateko eskubidea lortu naian egiñak dira. Ez dago txarto. Olango zarrrik balego, jarraitu daijala nai daben arte.

Baiña lanerako gauza dala ta egin nai dabenarentzat ez dogu uste zartzakorik edo subsidiarik izango litzakeanik eta ikusiko genduke orduan lana itxi nai izango ez leukeenak zenbat izango litzakezan.

Iñori lanerako gogorik kendu naian ez gatoz. Lan barik ez dago mundurik.

Baiña zarrentzat on ustean ezer eskatzekotan oso-osorik besterako eskabidea izan bear litzake: Gazteagoa dala erretiratzea, irurogei urtegaz-edo. Eta sari onagaz, lanean diarduen alogerak bizi-moduaren arauz goruntz egiten dabeen moduan goruntz egingo leukeen lan sari dezenteagaz.

Ez dago emen errezoï bako eskabiderik. Berrogei edo berrogetamar urte edo geiago bearrean egin dabenak, ori ta geiago laga dau.

Ta ez dagoz or zear seguru sozialagaz aurreratuta eurakaz zer egin ez dakiezan milloiak eta milloiak?

*GOIZ-ARGI (Ez dakit noizkoa)*

## KONTSUMO GIZARTEA

Gaurko gizarteari kontsumo gizartea izena ipiñi jako. Gauzak alik ugarien sortu ta denpora berean alik geien kontsumidu. Gaurko gizartearen elburua auxe dala dirudi: Sortu ta andeatu, egin eta desegin.

Ez noa diñoen au osorik ukatzera, baiña onetan berba jokoa be ba-dagoala esango neuke. Aldi bakotxak bere berba ta eretxiak izaten ditu ta kontu onetan be loritoen zeregiña beteaz, danak berba bardiñak aizetzen dabiltz. Benetan modako egin dan berbea da kontsumo gizartea.

Gizadia, len eta beti, alik erosoen bizi naikoa izan da. Erlejiñoaren kezkeak eraginda basamortu edo komentuetara joten ebe-nak kenduta, ondo bizitea atsegin izan jako gizadiari. Mendeak dira bizimodu obe baten billa, itxaso zabala alan-olan igarota, jendea Ameriketara saillean joaten asi zala. Beraz, kontu onetan ez da alde andirik len eta orain. Aldea, beste onetan da: Zera, asko aurreratuta dala mundua, gizonak edozetatik gaiñezka sortzen dabela; ta ugaritasun onegaz gero-ta jende geiago baliatzen dala.

Era guztietara da munduaren aurreratzea; illargira eldu da gizona ta an saltoka ibilli; sendakintzan gauza arrigarriak egin dira; gero-ta zabalago doa kulturea erri jende artean. Ta era berean gizonari bizitza erosoten dautsen tresnak be egokitu ta ugaritu egin dira.

Gizarteak, tresna ta enparau gauzen sortzaille diran lantegieta-ko nagusien danbor otsean dantzan egiten ei dau. Sortzen dituen gauzak bearreko dituala erriari sinistu eragin ei dautsoe zabalkunde bidez. Ba-dau onek bere errezoi alderdia baiña dana egia danik ezin esan daiteke. Bearrekoa ez dan zerbait eroatera bultzau daike zabalkundeak, baiña gitxitan jazoten da ori. Saltzeko ipinten diran gauzak berez dauke alderdi onen bat; zabalkunde barik be berez izaten dira saldugarriak. Edo lana kentzeko izaten dira, edo apaingarriak, edo atsegiña emotekoak edo beste zerbait on ba-dabe. Be-

giratu daigun geure etxeetara. Len ez egoan ez jantzi garbitzekorik, ez frigorifikorik, ez butanorik eta ez gaurko beste milla tresnarik. Ta bizi giñan. Beraz tresnok ez dirala bearrekoak esan dai-teke. Baiña biziteko bearrekoak ez badira be bai mesedegarriak, etxekandreen lanak ederto erreztuten dituenak.

Zabalkundeagaitik geiago saltzen dirala? Izan leiteke. Baiña alan balitz, zabalkundeari eskerrak tresna orreik ezagutu badoguz, beragaz esker onekoak izan bear giñakeala esango neuke, emon dauskun argitasunagaz bizitzea erosotu dauskulako. Tresna orreik erosi eragiñaz zabalkundeak ziririk sartu dautsen ala ez geure etxekandrai itandu bear geunskioe.

Arpegi txarrez begiratzen dautsoe kontsumo gizartea izena ipiñi dautsen oneri mundua obetu naian lanean diarduen jakintsu batzuk, langille jendearen ona billatzen diarduen soziologuak.

¡Auxe bai ulertu eziñekoa dala!

Beartsu edo langille jendearentzat izan da geienbat munduko aurrerapena, geure onerako. Munduan aberatsak gitxi dira beartsuen ondoan eta tresna asko egin eta asko saltzen bada langilleen etxeetarako dirala geienak ukatu eziñekoa da. Aberatsak bakarrik izan balira tresnon erosleak, ez zan orain besteko saldu-erosirik izango ta gaurko gizarteari kontsumo gizarte izenik ez jakon ipiñiko, izen ori ez zan egokia izango beretzat-eta.

Aberatsak oraingo aurrerapen barik be ondo bizi ziran. Orain milla edo bi milla urte be andikiak jauregi ederretan aukera guztiakaz bizi ziran, gozo-gozo. Andiki andrak labadorarik ez zanean be eskurik ez eben bustiko lixibea egiten eta ezta izerdirik jaurti be etxe solairuari dirdira emoten. Neska otsein bat gitxi bazan bi edo iru eukiko zituen.

Argi da bada, aurrerapenak sortu daben ugaritasunagaz bear-egin jendeak irabazten urten dabena. ¿Zegaitik orduan txartzat artu bear dogu kontsumo gizarte izenez ezagutzen dan gure egunotako gizarte au? ¿Langilleok beti miserian bizi bear al dogu?

Egia, gaurko gizarteak akats ugari daukaz. Munduko alderdirik geienetan asko premiña gorrian arkitzen dirala, zenbait tokitan, ikaragarritzko diru ondatzek egiten ditue batzuk, nasaikeriz eta arrokeriz. Geure indar guztiakaz gaiztetsiten dogu au. Baiña onek ez dau nai esan, onegaitik, kontsumo gizartea izena batzuk ipiñi dautsoen eta beargiñen sendiai erosotasuna dakartsen ugari-tasanari txarto begiratu bear dautsagunik.

Aurrerabidea (progresua, edo desarrollua edo nai dautsazuen lez deitu) ta ugaritasuna bat dira edo ia bat. Kontsumo gai ugaritasunik ez dagoan tokietan era guztietara dagoz atzeratuta. Beraz, aurrerapidearen aurka ez bagagoz, kontsumo gai ugaritasunaren aurka be ezin egon gaitezke, kontsumo gizartea ezin gaiztetsi dai-kegu.

Ez, aurrerapideari ez jako langarik ipiñi bear; gauza ugaritasu-na zabaldu daiteala mundu guztira nai izan bear dogu. Mundurik geienarentzat ez da ez, zoritxarrez, ugaritasunik, miseria ta gosea baiño. Obe leukee, Aprika, Asia ta Ego Ameriketako kontsumo gi-zartea baleukee, gose gitxiago izan, itxurago jantzi, etxe obetan bizi, sendakintza obe batek zaindu ta kultura geiagoren jaube izango litzakez-da.

*GOIZ-ARGI, 12-1969*

## **OSAKUNTZA GIPUZKOA'N**

Gipuzkoa'ko osakuntzaren barri osoa emongo dodalakoan ez naz asten. Ez nago kontu onetan sartuta ori egin al izateko. Ezta be ez noa ari edo oneri osagilleagaz jazo jakona agertuaz oraingo osakuntza oinperatu naian.

Len beargiñok onetan ez geunkan ezer. Orain zer edo zer ba-dogu. Baiña dogun au obetu bearra ba-dagoala deritxat. Gipuz-koa'n bai beintzat. Gipuzkoa'n, ebakuntza egin bearreko Seguru-ko asko ezin eginda dagoz Donostia'ko Residentzia'n tokirik ez

da. Ez nator zurrumurrak aizetzen neuri jazotakoa edestutera baiño.

Orain iru illabete inguru, ebakuntza txikia egin bear jatala ta orretarako paperak emonda Residentzia'ra bialdu ninduan ebakuntza egin bear eustan osagilleak. Ori bai, bear bada, tokirik eza-gaitik bereala ez ninduela artuko jakiñean jarrita. Ta joan nintzan, emaztea lagun nebala. ¡A zer alperrik! Itxaron aretoan goizeko amarretatik arratsaldeko laurak arte ederto jarri giñan kontuaren jakitun. Ebakuntzea al bait ariñen egin bear ebenentzat (urjentzia-koentzat) oia arkitzea be ez zan txarto. Besteontzat ezta amesik be.

Illetan sartu ezinda egozan asko ziran an geugaz batera, bertara iru-lau ostera egindakoak. Ta arratsaldeko lauretan, bakotxari bere agiriak biurtzera enpleatuak etorri jakuzan, tokirik ez egoala ta urrengo baten biurtzeko esanaz. Baiña urrengo egun ori ez dabe izentauten, itanduta be ez, tokia noiz izango dan iñok ez daki-ta.

Ta eurakaz, bat be errurik ez eukenakaz, eztabaidan jardun eta buruari eragiten urten genduan an gengoan danok. Geiago ez naz biurtu.

Itxura danez, an, eguneroko kontua da au. Beraz, ebakuntzea ezin eginda dagozan gitxi ez dira izango Gipuzkoa'n. Problemearen zabalerea jakiteko onezazko zenbakiak emon al balira ondo izango litzake.

Ta onek arrituta nauko; osakuntza saillean ain problema andia egon eta iñok ezer ez esatea, ezer ez aitatutea. Nik beintzat, erdal izparringietan be onezaz ez dot ezer irakurri.

¡Balio gitxiagoko gauzai ekiten jake!

*AGUR 86' garren zenbakia*

## LENENGO MAILLAKO IRAKASKINTZA DUAKOA DA?

Gaurko idazlana ikastolaz izango da; baiña ez euskal ikastolaz, erdal ikastolaz baiño. Euskal ikastolaz jendea ain kez-katsu izan eta ainbat idazten danean euskal idazle bat erdal ikasto-letako auzi batzukaz kezkatuta ikustea, bere jokabidea ontzat ez emotea be izan leiteke. Beraz, neure burua garbitu bearran naz.

Ez naz ni euskerearen indartzea oso-osorik euskal ikastoletan ikusten dabeenetakoa. Baiña alan da be gogoko ditut euskal ikas-tolak. Nire errian olango kontuakaz iñok amesik be egiten ez eba-nean asi nintzan bakarrik arazo onetan zerbait egiten; umeai eus-keraz irakurten eta idazten irakasten ibilten nintzan gabetan. Ta Laterriaren eta lekaimen ikastoletan euskerea zerbait sartzea lor-tu neban; eta erriz aldatu bearra izan ez banu Laterriaren ikasto-letan oraindik geiago lortuko neban.

Emen, orain bizi nazan errian be zerbait egin barik ez nago, gauza andirik ez bada be, baiña geiago egiten ez badot ez da nire erruz; Ondarrabia'n ez da ni beragana eldu ez nazan euskera solo-ko beargiñik. Baiña len esan dodan lez iñok ez nau artu nai izan euren artean.

Edozer atxakigaz auxe esateko gogoa neukan eta esan dot.

Ta itz-aurre luze onen ondoren neure arazoari eldu deiodan.

España ta bere agindupeko lurraldeetan duan izan da umeen lenengo maillako irakaskintzea gure denpora guztian; lenagoko konturik ez dakit. Permanentzia izena emon jakona asmau zan orain urte batzuk irakasleen lan sari txatxarra edo ezereza apur bat geitu naian; zera, zerbait ordainduta, alan nai ebenak ordubetean ikastolan jarraitzea. Baiña auzi onek zer esan asko sortu eban, ke-ja asko izan zan, beti garbi jokatzen ez zalako. Ta kendu egin zan Permanentzia izeneko ori.

¿Baiña, kendu egin zan ala izenez aldatu? Bigarren auxe kon-tixu, ezpai barik zenbait tokitan. Len Permanentzia esaten jakona-

ri Partikularra deitu ta kito. Ondarrabia'ko ikastola batzutan (ikastola danetako konturik ez dakit) illeko ogetamar ogerleko ordaintzen da partikularreko ordua, umerik txikienak be bai. Bi edo iru ume ikastolan dabiltzan etxeetan dirutza polita illero atara bear dabe. Ta bi edo iru ume edozein etxetan daukez ikastolan. Familia asko izango dira, bai, diru ori erruki barik emongo dabeenak, baiña lansari andi barik bizi diranentzat ez da gitxi, beste gauza askotara be eldu bear izaten da-ta.

¿Nai ez dabena ez dala joango? Gogo andi barik be umeak partikularrean itxiko dituen etxeak izango dira, besteak baiño beartsuago ez agertzearren edo eurak umeak txartoago artuak izan leitekezan bildurrez.

Baiña arazo au alderdi onetatik aztertu bear da: Ikastolako orduak, partikularrekoak barik, diranak dirala, naikoa ala gitxi dira umeentzat? Onetan irakasleak dauke berbea ta geienbat eurai itanduten dautset. Umeak, bear dan lez edo bear aiña ikasteko denpora geiago bear badabe, ikastolako ordu normalak geitu daiezela ta geitze orren arabera Laterriak irakasleai lansaria geitu deioela.

Umeak ikastolan ordu geiago egin bear badabe ta geiagoko ori eurak ordaindu bear badabe, España'ko lenengo maillako irakas-kintzea duakoa danik ezin esan daiteke; geienez be erdi duakoa dala.

Edo ta, lengo orduak naikoa badira, iñundik iñora ez da itxi bear Laterriaren ikastoletan partikularra emotea. Irakasleak iñori partikularra emon nai badeutsee, euren etxeetan edo al daben tokian emon deioela. Olan, partikularra benetan nai dabeenak bakarrik joango dira ta ez ezinda be besteak baiño gitxiago dirala ez erakustearren edo txarto ikusiak izan ez daitezkan bialduak diranak.



## ARRANTZEA

### EUSKALDUNEN ANTXIÑAKO ARRANTZEA

Euskaldun arrantzaleak Kolon baiño lenago Ameriketara eldu zirala bein baiño geiagotan entzun izan dogu. Ori esatea errezago iruditzen jaku egiztatzea baiño. Baiña aspaldiko denporetan Terranoba'ko itxasoetan ibiltzen zirana gauza ziurra da. Len alderdi areitako toki batzuk euskaldun izenak ei eroezan nai ta orain geienak galduta egon. Oraindik denpora asko ez dala ondarrabitar idazle Aranburu'tar Jabier'ek makallau arrantzaleakaz itxaso areitara joan zanean ango erri baten euskal abizenak eroezan illobiak ikusi ei zituan eta erakutsi be egin zituan zinema bidez joan-etorri arezaz egin eban berbaldi baten.

Makallau arrantzako kontuak baiño bale arrantzakoak argiago dagoz. Orain iru-lau mende euskaldun arrantzaleen arrantza modu bat bale arrantzea zan. Orretarako urrunera joan bearrrik ez euken, balea gure itxasertz aldera urreratzen zan-da. Ondarrabia'ko arrantzaleak 1200'garren urte inguruetan urteko ogei bale gitxi gora-bera atrapauten zituela agiri batzuk esaten dabe. Gero gitxituaz joan zan; 1620'garren urtetik 1635'garrenera bitartean ogei bale guztira atrapau zituen. Zarautz'ko Kopradiako agiri liburuetan ipinten danez 1637'garren urtetik 1801'garrenera amabost

Baleak batez beste ogei neurkin edo metro luzerakoak izaten ziran eta euren pixua ogei milla kilo gitxi gora-bera. Baiña ogetabost neurkin luze ta berreun milla kilo pixukoak be iñoiz artzen zituen.

Treiñeruetan joaten ziran baletara (gaurko estropadetakoan antzekoak luze-zabaleran) eta arpoitxoakaz zaurituaz eriotzea emon. Itxasontzitxo ariñetan beragana urreratu ta besoetako indar guztiakaz arpoia sartzen eutsenean ;zelango amorrua balearena ta zelango arriskoa arrantzaleena!

Zoragarrizko ikuskizuna ei zan bale arrantzea. Paisan Ugarte-a'n (Isla de Faisanes) Pirineotako Bakea izenez edestiak jasoten daben itunbena egitera Prantzia'ko ta España'ko ordezkariak batu ziranean, illa batzuk aurrerago ikusitako balea barriro gure uretara biurtu arte alkarrizketak luzatuko zirala zurrumurrua zabaldu ei zan. (Emendik konturatuko gara zelango ikuskizuna zan.) Ta jazo be alan egin ei zan. Bakea izenpetu baiño egun batzuk lenago, lau egunean beragaz auzkan ibilli ostean, il ei eben Ziburu'ko arrantzaleak. Karlos V'k balea atrapauten ikusteko aukerea izan ei eban Ondarrabia'ra etorri zanean.

Baleak irabazi andiak emoten eutsezan arrantzaleai; aragia ta orioa naikoa. Au argitarako izaten ei zan. Miña (mingaiña) osa ona izaten ei zan; jakiña, andikien janaria.

Gipuzkoarrak azkenengo atrapautako balea 1901'garren urtean izan zan Loreillaren 14'an. Oriotarrak artu eben. Beste bat 1878'garren urtean atrapau eben. Zarautztarrak il eben Mollari ondoan Otsaillaren 11'an. Bale aren azurrak Donostia'ko Acuarium'en ikusten dira. Ez zan andia. Urte batzuk lenago 1854'garren urtean getariarrak beste bale bat atrapau eben. Aurreragoko egun baten donostiarrak zaurituta itxitakoa kontixu. Azkenengo bale atrapaute bietan asarre andiak sortu ziran arrantzan ibilli ziran errietako arrantzaleen artean, jazoera bietako bertsoak adierazoten dabenez. (Ain zuzen, 1854'garren urteko baleari ataratako bertsoakaz gure egunetaraiño eldu jaku, Ondarru'n beintzat, orain

«Aitorren Izkuntza Zarra» izenekoak abestuteko erabilten dogun euskal doiñu ederra.)

Baleaz kanpora orduko arraiñiak gaur be ezagunak jakuz. XVI mendean Gipuzkoa'ko errejidoreak emengo arrantzaren barri erregeri emoteko jakiten ibilli zanean, gipuzkoar arrantzale bate-gandik barri oneik jaso zituan:

«Neguan eta itxaso sakonean lebatz, kongrio, bixigu, toailla ta mielgea atrapauten dira ta sardiñea ta lebatz apurra udan. Ur andietako arrantzea kordel eta amuz egiten da amasei-amasortzi laguneko itxasontzietan. Sardiñea ta antxobea ostera sarek atrapauten dira zortzi laguneko treiñeruakaz.»

Barri oneitan uts andi bat oartzen da; gure denporetan geien emoten daben arraiña, atuna, egaluzea nai egamotza, ez dau aita-tzen. Gure alde onetan ez ete zan ezagutzen bada aldi areitan? Arritzekoa dan arren, alan dirudi.

*GOIZ-ARGI Garagarrilla 1969; 115' gn zenbakia*

## **ARRANTZALEEN BIZIMODU GARRATZA**

Gaberdian edo goiz aldera oe gozoa laga, jaki apur bat artu ta itxaso illun sakonera sartu bear izaten eben len arrantzaleak, familiarentzat ogia irabazi nai baeben. Ta makiña bako itxasontziak ziranean, aurrera egin nai baeben, erramuari (arraunari) sendo eragin bear. Ontzi andiak ziranean, atunetan da, erabilten zituen orretarikoak, arraunez erabilteko baiño aztunagoak ziran da, aize-rik ez zanean, geldirik itxaso erdian, ez aurrerra ta ez atzera. ¡Ta zenbat ez bear itxasontzi kaxkar areitan!

Asko aldatu dira itxasoko kontuak ordutik ona. Gaur egunetik egunera itxasontzi ederragoiak ikusten dira; makiña andiko sendo ta bizkorrak. Oraingo itxasontzi oneik ekatxari arpegi emoteko gauza dira. Jakiña, itxasontzirik sendoenak be menperatzen ba-da-

ki itxasoak. Alan be alderdi onetatik begiratuta gure arrantzaleak len baiño lasaiago bizi dirala ezin ukatu daiteke.

Baiña aurrerapenak dana ez dautse erosotu gure arrantzaleai. ¡Ez orixe! Gaurko itxasontziakaz lengo arrantzakerea, lengo bizimodua erregeen bizimodutzat artuko leukee mariñelak. Len, gaberdian edo goizaldean itxasoratzen ziran geienetan, baiña ia egunero illuntzerako kaian sartzen ziran. Gaur ez dago olango konturik. Gaur, atunetan diarduenean beintzat, astebete ta geiago itxasoan egiten dabe. Ta antxobatea, len manjuetan egun eder asko igaroten bazituen be (lurrun-ixasontzietakoak beintzat), gaur, gabeko arrantzakera gogorra biurtu jake. Otsaillerako asita gau guztian sare bustiari elduta ¡zenbat otz ez dabe artzen! Orratio, negua, nai ta irabazirik ez, itxasorate gitxigaz polito igaroten eben. Orain neguko atsedenk be ez.

Gaurko itxasontziak edonora joateko gauza dira ta neguan emen ezer irabazterik ez badago irabazia dagoan tokira doaz. Len Aprija'ko Dacar'era joaten asi ziran. An be bear zan ainbat irabazirik ez eben arkitu ta orain Aljeciras aldera joan da euskaldun itxasontzi pillo bat, neguan andik ekiteko asmoz.

Ara joatearen aldeko diranen errezoia auxe da: ainbeste kostau diran itxasontziak ezin geldirik egon daitekezala negu osoan. Bai ez da aztu bear dan errezoia, baiña ez bakarra ta nagusiena be. Iñok orretara beartu barik irabazi geiago izateko ustez egin ditue itxasontzi andiak eta geienetan irabazi be geiago egin dabe.

Beste errezoï indartsu batzuk dagoz auzi onetan bai edo ez esateko kontuan euki bear diranak: Jaube ez diran arrantzale sendien premiñak eta arrantzale guztien bizimodua. Arrantzaleak irabazten dabeena errez joaten da pamilian. Beraz, andik ekarri leitezkan diruak pozik artzekoak dira. Baiña arrantzaleen bizimoduaz zer?

Gorputz bízitzea ezinda gogorragoa egingo jake sei-zortzi illabetean euren bizimodu guztia itxasontzian egin bearko dabe ta; itxasoan jan, lan eta lo.

Arrantzaleak eurak ikusiko dabe bakotxaren etxean premiñazkoa ete dabeen biziteko Aprika aldera joatea. Joan bear badira joan egin bear, baiña ez itxasontziak lotuta euki ezin leitekezelako. Ori azkenengo errezoia da. Gizon errezoiak dira lenengo.

*GOIZ ARGI Orrilla 1961*

## **MERKE SALTZEN DA ANT XOBEA**

Atun egaluzea da bajurako euskaldun arrantzaleai irabazi geien emoten dautsen arraiña. Ostera, antxobea edo bokarta da zer esan eta buruausterik andienak sortzen dautsezana.

Gitxi gora-bera be irabazietatik euneko ogetamabost antxobeagaz artzen dau. Gaiñontzeko geiena atun egaluzeak damotso.

Antxobearen gatxa bere ugaritasunetik dator. Orain amabi-amalau bat urte, lenago debekauta euken ardora izeneko arrantza eran jarduteko baimena lortu eben ezkerro ikaragarritzko antxoba pilloak erriratzen ditue. Ta jakiiña, ezin saldu bear litzakean saneurrian; eta okerragoa dana, iñoiz saldu ez da uretara jaurti be bai.

España'ko matxinadea ezkerro bizimoduak egin daben gorakadea egin dau gitxienez edozein arraiñek. Len kiloko zortzi txoriandi egiten eban atun egaluzeak orain ogei laurleko inguru egiten dau. Ta beste arrain askok be gorakada auxe egin dau. Antxobeak ez. Guda aurretik sei txoriandi (txakurrandi) inguru egiten eban eta gaur batez beste ez dakit iru laurlekora elduko ete dan. Azkenengo amabost urte oneitan gora baiño bera geiago egin dau antxobearen saneurriak. Beraz, ba-dauke errazoirik naikoa auzi au konpondu nai izateko. Baiña errez ez dabe lortuko orixe. Antxobea garestiago saltzeko edo itxasora barriro jaurtiterik ez izateko, bide bat dago: jendeak emen edo kanpoan, era batera edo bestera, antxoba geiago jan daijala. Ta au, geienetan ez dago iñoren eskuan.

Antxobarik geiena latetan gatzitu ta Italia'n saltzeko izaten da. Italiarrak eurak ipinten dabe saneurria; ta jakiña, bear dabeen baiño geiago ez dabe erosten. Orregaitik estu izaten dira emengo arrain lantegi jaubeak gertutu dituen antxobak ezin salduta. Beraz, era onetarako, gatzituta saltzeko, antxoba geiago ezin daiteke erosi.

Preskorako, au da emen eta España'n preskorik jateko be antxoba asko saltzen da. Urtetik urtera geiago. Orretarako diran arrain salerosleak, irabaziaz saldu al leitekean toki guztietera bialtzen dabe arrain au. Alan be, España'n nok jan egon arren, atrapauko leuken antxoba guztia atrapau barik geratzen dira ta askotan, barrero itxasora jaurti. Bai, sinistu be ez egitekoa dan arren, egi-egia da. España'n bertan jende asko goserik eta emen antxobea nai ezda, botaka. Zegaitik ori? Bear bada, oraindik urruneraiño arraiña baldintza onean eroaterik ez dagoalako edo olan egitea asko kostauko litzakealako. Ta ez irabaztekotan iñok ez dau nai lanik egin.

Beraz, arrantzaleai eurai dagokie auzi onetan zerbait egitea. Ikusi noraiño eltzen dan antxobea ta noraiño ez, España'ko baztar guztietara kondiziñoi onetan eroaterik ete dagoan, ori egitea zenbat kostauko litzakean eta abar.

Egia esateko ez dagoz lo, auzi onetan, arrantzaleak. Asmoak artu ta aurrera eroaten alegintzen dira. Orain iru edo lau urte Gipuzkoa'ko arrantzaleen bazkunak gatzituteko lantegi bat eratu eban nai ta txarto amaitu. Orain urte bi Abastos'ko kamio andi batzuk etorten ziran saldu ezin zan antxobea eroateko, baiña oneik be onura andirik ez eben ekarri. Aurten, egunean zortzi mila kilotik gora ez ekarteko erabagia artu eben, au da, itxasontzi bakoetak arrain pillo ori baiño geiago ez liorreratzea, antxobearen saneurriari eusteko. Ta erabagi onek ondo urten dautsela dirudi, beintzat, bein erriratu ezkerero antxoba gitxi itxasora jaurti da aurten.

Agirian dago bada antxobearen auziak konponketa gatxa daukana. Erabagi batzukaz oso-osorik konpontzerik ez dago. Alegin asko ta denpora asko bear da ta alan be aurrerakada gitxi egingo da. Arrain urun lantegi barriren bat egin dala, Italia'tik kanpo beste norabait antxoba apurren bat bialtzen dala, España'n zear urrunago bialtzea lortuten dala, edo atzerrian fileta antzera antxoba geiago jaten dala, dana begi onez ikusiko da.

*KARMEL Irailla-Orrilla 1961*

## **GORUNTZ DOA ANTZOBEAREN SANEURRIA**

Iñoiz, beste era batera arrantzaten eben denporetan, San Juanetan be antxoba pillo ederrik ikusi izan dogu. Baiña aurtengo antxobateak berea emon dabela esan daikegu. (Loraillaron 22'ean idazten dot au.)

Antxobateak bardintsuak izaten dira geienetan. Urte guztietakoak zer esan bardiña lagaten dabe: Antxoba asko atrapau ta merke saltu dala, geiago atrapau eikeala ondo saltzeko aukerea izan ezkeru, batzuk asko ta beste batzuk gitxi irabazi dabeela ta abar. Azkenengo urteetan antxoba geiegiren problemea izan da.

Aurten beste eran agertu dira gauzak. Beste urteetan baiño beranduago etorri da arraiña ta etorri danean be beste urteetan bai zen ugari ez. Ori ikusirik, bear ainbat lanik egingo ez eben bildurrez, sekula baiño garestiago ordaindu dabe antxobea ola edo fabriketakoak. Lengo urteetako ia bateko bi. Igaz amar bat erreal balio izan eban batez beste kilo antxobeak eta aurten ogerlekoa inguru. Preskeruak be, au da España barruan jateko erosi ta saltzen dabeenak, garestiago ordaindu dabe.

Azkenengo oneik geiago ordaintzea ez da bat-be arritzekoa. Edozer arraiñek guda aurreko bateko amabost balio dau. Ta antxobeak ainbesteko gorakadarik ez dau egin, orduan baiño askotaz geia goi atrapauten da-ta.

Aurten lengo urteetan baiño urriago izan da ta gorakada polita egin dau. Arrain gitxiago atrapau ta geiago irabazi dabe arrantza-leak. Len esan dogun lez, antxobea garestiago saltze onen errezoï bat berandu etorri dalako izan da.

Dana dala, aurtengo antxobateak zerbait irakatsi dauskula-ta nago. Antxobearen saneurriari eusteko laurleko bi dau beko mugea. Ortik berago ez dago saltzerik ez arrain lantegietakoai ta ez preskeroai. Oneik biok beintzat, antxobarik bear badabe kiloko laurleko bi ordaindu bear dabe. (Arrain uruna egiten dabeenai merkeago saltzen jake, besteak erosten ez dabeenean.) Baiña aurtengoa ikusirik beko muga au goratxoago jaso leitekeala uste dogu. Goratxoago jasota be arraiñak salduko litzakezala, antxobea bear dabeenak beko saneurri mugea goratxoago jaso arren, arraiña erosi barik ez litzakezala geratuko esan daikegu.

Egia esan, arrain lantegietakoen antxobeagazko jokia ez da amaitu. Erosi, ondo ordainduaz erosi dabe. Orain saltzea geratzen jake, zelan saltzen dabeen ikusi bear. Beti lez saltzen badabe, au da, bidezkoak dituen irabaziakaz saltzen badabe, antxobearen beko saneurri mugea jaso egin bear leukee arrantzaleak. Bat batera ez, apurka baiño; baiña beste arraiñen balioa ta gaurko bizimoduari dagokion maillera jaso egin bear litzake. Beste urteetan ainbat antxoba etorri ezkeru aurtengo saneurrietan salduko ez litzakeana ba-dakigu, baiña beintzat, beko muga egoki bat ipiñi.

Jakiña, orretarako, arrain lantegietako jaubeak arraiña zelan saltzen dabeen ikusi bear.

*GOIZ-ARGI Bagilla 1962*

## **ITXASOKO ARRISKUAK GITXITU EGIN BEAR DIRA**

Ez dakit iñorentzat ona ete dan negua. Banaka batzuentzat izan leiteke baiña geienontzat ez, batez be aterpe barik lanean jardun bear dabeenentzat. Orratio, iñorentzat be ez itxasgizonentzat



baizen txarra. Arrantzale ta gaiñontzeko mariñelentzat bildurgarria izaten da askotan. Zenbat ezbear, zenbat eriotza ez dira jazoten itxasoan neguko ekatxetan!

Egia esateko, edonoiz izaten dira itxasoan pamiletara negarra eroan oi dabeen jazoera samingarriak, udaran be bai, baita eguraldi ederretan be. Itxasontziak alkar jo dabeela, edo beste edozegaitik. Itxas errietako edestiak egun itun asko daukaz, batez be itxasontziak aize-oialez ibiltzen ziran aldietakoak.

Gaurko itxasontziak ordukoak baiño sendoago ta andiagoak dira, ekatxari arpegi emoteko lengoak baiño milla bidar geiago balio dabeenak. Baiña orain be arrantzale askok ur sakonean arkitzen dabe euren illobia; itxasontziak sendotu diran neurrian euren itxasoko ibillerak be zabaldu egin dira-ta.

Bai, itxasoko ezbearrak mundua mundu dan artean iraungo dabe. Alan be, asko gitxitu leitekez eurok, orretarako bear dan ardurea artuko balitz. Zoritxarrez, gauzak beste erara dira, ardurarik ez dauko iñok auzi onetarako. Legeak agintzen daben apurra be askotan erdipurdiz bete edo bete ez. Itxasontzi jaubeak, liortarrak be ba-dira batzuk-eta, ez da arritzekoa salbamentu kontu onezaz ardura andirik ez artzea. Baiña ta arrantzaleak? Onein jokerak, egitan, arritu egiten gaitu, sekula ez dabe onezaz ardurarik artu, ez erakutsi-ta. Arrantzaleak edonoiz dagoz Madrid'en, Gobernuari au edo ori eskatzen; baiña salbamentuari buruz, arazo au obetu naian, iñoiz iñori eskabiderik egin dautsoenik ez dot entzun.

Auzi onek arrantzale ta beste itxastarrai ardurarik ez dautsenik ez dogu esango. Ardurarik izan ez, ostera, euren bizia jokutzen dabeen kontuan? ¡Bai orixe! Baiña itxurea danez, ez dauke federik orretarako diran tresnetan. Itxasoko ezbearretan zeregiñik ez dagoala uste dabe, alanbearrezko jazoerarik ezin leitekeala eragotzi-ta-edo.

Lengo berbera diñogu; itxasoan beti izan dira eriotzak, baiña itxasgizon eta agintariak arduratuko balira, asko arinduko litzakezala ezin ukatu leiteke.

Auzi onetan be asko lagundu leikeen tresna ta gertuketak badagoz. Orain, beste gauza guztietan lez salbamentu kontuan be, aurrerabide andiak sortu dira. Jakiña, dirua bear. ¡Zorioneko dirua! Eta zer? Itxasontziak arrantzarako edo beste bear izanetarako balio andiko tresna ta tramankuluz orniduta dagoz. ¡Ederto orixe! Ta gizonak, arrantzaleen biziak ez al dau balio? España'n urtean bi milla gizon inguru itoten dira itxasoan, 700 inguru arrantzale, euretatik asko liorretik bertan, kai inguruan be ez gitxi. Oraintsu Zumaia'n jazo dana danok daukagu gogoan. Lenago, edozein erritan, kai inguruan, olangoetarako tresnak gertu egoten ziran, gitxienez, «salbabida» izenez ezagutzen ziran kortxozko burbillak beintzat. Gaur ez dago olangorik.

Gaur olango zoritxar bat jazoten danean, zer esana, marmarra bai izaten dogu, baiña besterik ez. Lenago lez alango edo olangoa euki bagendu! Baiña asmo onurakorrik ez. Aizeak eroaten dituen berbak baiño geiago egin bear litzakez. Iñor baiño lenago arrantzaleak jagi bear litzakez eurentzat mesedegarri litzakezan erabagiak artzeko eskatuaz, iñok baiño geiago eurak jokutzen dabe auzi onetan da.

Baiña arrantzaleaz gaiñera, itxasoagaz zer ikusia dauken giñontzeko guztiak be arduratu bearra dauke auzi onetan. Alegin guztiak egin bearra daukagu guztiok itxasoari gizonen bizitzak irabazteko. Balio andikoa da giza bizia, errez-errez galtzen izteko.

*KARMEL Orrilla-Bagilla 1961*

## **ITXASOKO EZBEARRETARAKO ELIKOTERUA**

Zer esana ugari sortzen diardu arrantzaleen elikoteru orrek. Oraingoan berbetatik egintzetara be gauzak aldatuko dirala uste izatekoa da. Alan obe.

Elikoteruren eskabidea Ondarru'tik urten eban. Igazko Gabon inguruan, oker ez banago, itxasoko ezbear baten ondoren, elikote-

rua bear litzakeala ta suskriizio bat iragi eban erri onetako Jose Maria Saenz'ek. Bilbo'ko LA GACETA DEL NORTE izparringiko «Irakurleen izparrak» atalera albistak bialtzeko zaletasun andia dauko beronek eta ori dala-ta sariak jaso be bai. Diñogun aldi aretan ez bakarrik barria jaso ta bialdu, baita sortu be berak egin eban. Baiña burutaziñoa oneri edo areri etorri, edo asmo bategaz edo besteagaz sortu ez da ardurarik, ona ta bearrekoa dan ala ez baiño.

Salbamentu kontuan asko ete daike elikoteruak? Ez dakigu. Milla eratakoak izaten dira itxasoko ezbearrak eta elikoteruaren premiñea bein baiño sarriagotan izan leiteke. Eta noizik bein, berandutik berandura bizi bakar bat gaizkatuko baleu be ondo emonak izango litzakez orretarako bear diran milloiak. Gaiñera, itxa-soagaz zer ikusi dauken guztien artean diru ori osatu ezkerro, ez litzake aztun izango iñorentzat. Beraz, betor ordu onean elikoteru ori.

Baiña elikoteruagaz dana egiña dagoala ez daigun uste izan. Zoritxarrez gure arrantzaleak ez dabe aintzat artzen salbamentu kontu au. Askotan, orretarako emoten dituen legeak be erdipurdiz beteten ditue. Aurtengo udan, itxasoratzea debekau egin eutsoen ondarrutar itxasontzi bateri Santander'ko kaian, bear ainbat salbabidarik ez eukalako.

Arrantzaleen auzi onezazko ardurarik ezaren oiñarria ementxe dago: Ez dabeela sinisten salbamentu kontuko tresnakaz. Ondo gomutaten naz, salbabidak egin eiozan nire aitagana etorri zan bateri umeetan entzundakoaz.

«Salbabida oneik jantzi bearra baletorkigu, obe izango genduke euron orde z arri andi bat lepotik lotuko bagendu.»

Egia, orretarako ondoen gertuta be itxasoko ez bear askotan zer egiñik ez da izaten. Baiña baita be egia da, ondo gertuta ego-teak on asko ekarri leikeala sarritan.

Ta, gauzak, orain arte baiño obeto egin leitekez. Arrastero ta gaiñontzeko itxasontzi nagusiai legeak eskatzen dautsen laguntzarako ontzitxo zegaitik bajurakoai ez jake eskatzen? Ta ontzitxo orreik dira onenak? Kortxoeko ta gomazkoak baiño obeak dira? Ta salbabida kontuan emen ezagutzen doguzan orreik baiño obarik ez da ortik zear? Nik ez dakit.

Nik ez dakit itxasoko legeen barririk eta gauza orreik mundu zear zelan dagozan jakiteko nere eskuetara ez da eltzen auzi orrezazko aldizkaririk. Alan be iñoiz izparringietan irakurri dodanez, egazkinlariak eta, ba-ditue ur azalean eta bat-be otz barik eukiten dituen jantziak.

Arrantzarako urteten diran aurrerapen guztiak ontziratzen ditue gure arrantzaleak. ¡Ederto auxe! Eta zegaitik ez ontziratu salbamentu kontuko asmaketa guztiak? Eta ez ori bakarrik. Erri batzutan, gizonak itxasorako gertuten dituen ikastolak dagoz. Ikastola orreitan salbamentu kontuko irakaspenak emon bear leukeez. Lenago jazo diran ezbearrak aztertu eta euretan zer egin eitekean ikusi.

Salbamentu kontuaren ardura geiago artu daiela bai itxas egin-tari ta bai arrantzaleak be; ta orretarako asmau leitekezan aurrerapen guztiak artu egin bear dira: elikoteru ta gaiñontzekoak.

*GOIZ-ARGI Gabonilla 1961*

## **BESIGUTEA AZKENETAN**

Liorrean lez itxasoko kontuetan be aldakuntza andiak ikusteko jaio gara. Gaur ez dago, gure gurasoen denporetan lez aize-oialez edo arraunez itxasontziak erabilterik. Makiña indartsuakaz dabil-tzan itxasontzi ederrez bete dira gure kaiak. ¡Zelango balioa ta zelango edertasuna uraren gaiñean!

Arrantza erak be aldakuntza andiak izan ditu, batez be atun egaluzetan. Baiña amaitu dana edo amaitzeko bidea artu dabena,

besigutea da. Lenagoko denporetan besigutea izaten zan neguko arrantza nagusia, jatorra. Gaur osteria ia galdu da. Urte asko dira Ondarru'n besigutara joan ez dirala. Ta galdu be gauza andirik ez dabe egin jokabide orregaz. Gaur zortzi arrua besigu atrapau, biar bear bada ogei eta beste bi edo iru egunean ezer ez. Orixe zan besigute arrantzea. Jaubearentzat irabazirik ez eta arrantzalearentzat be bardin samar. Aparia ta noizik bein besiguren bat saltzeko ta kito. Ta lana ta otza ugari. Etxean be lana emaztearentzat. Arrantzale bakoitxak lau tretza enkarnauta edo amuan arrain apurra ipiñita eroan bear izaten zituan, ni mutiltxoa nintzanean. Bakoitzean berreun amu, karnatea ipiñita. Nasterik izan ez eian ardura andiz egin bear izaten zan ordu biko lana. Ta guztia, laurlekotxo bategaz ordaintzen zan; lau tretza lau errial. Gaurko konturik ez dakit, baiña antz emotekoa da emazteen lan au zenbategaz ordaintzen dabeen, ordutik ona diruaren balioak izan daben aldakuntza gogoran izanik.

Antxiñako bizimodua bizitzeko baiño kontauteko politagoa izaten da.

Gorago esan dodan lez, besigutea azkenetan dago. Getariar arrantzale bateri entzun geuntsanez, itxasontzi bakar bat ibilli ei da aurren besigutan euren erritik. Igaz arte danak ibiltan ei ziran eta urte batetik bestera, danak laga dabe. Beste errietan be orixe jazo da. Naiago dabe arrantzaleak antxoba txikitara edo bobatara edo olango zerbaitetara joan, bein elduten badautse negu osoko besigutakoa eginda dauke-ta. Jakiña, negua beti da negua; eta len, orain eta gero be neguan arrain gitxi ta eguraldi txar asko izango da.

Dacar'eko ori geratzen jake, baiña ara joateak kontuak ditu. Arrantzaleak bizimodua itxasoan badauke be geu lez liorrekoak dira ta euren etxetan noizbait gozatzeko eskubidea ba-dauke. Orratio, arrantzaleai, batez be gazteai eskabide auxe egingo geuntseke: Neguko etxean egoteak, itxasora barik egiten dituen asteak eta asteak, ez daiezala alperrik galdu. Asko dira bai Onda-

rru'n beintzat, neguko denporan ikastolan ibilli ta lemazain eta makiñista egiten diranak. Ederto orixe, bai eurentzat eta bai erriarentzat; gaurko itxasontzietako arduradunak asko jakin bear dabeta. Baiña asmo ori ez daukenak be kultura geiago izan daien alegindu bear litzakez. Jakintza liburuak eta aldizkariak irakurri bear leukeez, batez be itxas gaietakoak. Orretarako Kofradiak-eta liburutegiak ipiñi bear leukeez; liburutegiak ipiñi ta irakurteko zaletasuna arrantzaleai sartzen alegindu, liburutegiak ipintea lenengo zeregiña dan arren, orregaz bakarrik dana ez da egiten-da. Ondarru'n «Stella Maris» bazkunak arrantzaleentzat liburutegi eder bat ipiñi dau baiña bertan enbazo gitxi ikusten da.

Arrantzaleak: Argitu egin bear zarae. Erriak aurreratzeko bide bakarra orixe da, jakintzearen jaube egitea, kulturaz jaztea. Beste erriak be olantxe goratu dira ta geuretzat be ez dago beste biderik. Ikasten alegindu bada arrantzaleok, neguko etxean egoteetan. Orretarako, daukazuen asti eder ori ez alperrik galdu.

*GOIZ-ARGI Epailla 1963*

## **ARRAIN MERKEAK**

Bizimoduak egin daben goruntzkoan, arraiña ez da azken geratu. Gure bajurako itxasontzientzat lenengoak diran antxobea ta atun egaluzeak guda aurrean baiño gitxienaz berrogetamar bidar geiago balio dabe. Baiña ba-dira gitxi, ia ezer ez, balio dabeen arraiñak be, txitxarrua ta berdela batez be. Bi edo iru egunean asko etorten bada, arrain onein saneurriak lur joten dau. Iru edo lau laurlekoan kilo ezin saldu.

Ez dakit ziur zelan izan diran kontuak, baiña aurtengo udazkenean be beti lez kontixu ta izparringietan irakurri genduaneez, bizkaitar itxasontziak itxasora barik geratu ziran arrain onein saneurria goratu naian. Nolabait konpondu ziran-edo, beintzat, barriri itxasoratu ziran.

Baiña konponketa txarra daben kontua da ori. Arraiñaren saneurria, saltzeko erosten dabeenak ez dabe ipinten, etxekandreak baiño. Legatz, besigu, atun ta olakoai aiñako abegi ona egingo ba-leutsee etxekandreak, edo guk, jatean, txitxarru ta berdelari, arrain oneik beste areik aiñako saneurria izango leukee. Baiña, bein edo birritan jan orduko muzin egiten dautsagu; duan emonda be ez doguz jan nai izaten. Ta kontserbarako be balio andirik ez dabeen arraiñak dira.

Beraz, zer bide dago txitxarruak eta berdelak saneurri obea izan daien? Zabalkundea egin bear ei da, irakurri dogunez; jende-ari ezagutzen emon bear ei jakoz arrain orreik. Ta asmo onetan ez ei da ezer egiten; orretara iñor baiño beartuago dagozan arrantzaleak eurak be ez ei dabe ezer egiten.

Arrain orreik bear leukeen balioa izan daien alegintzen diran guztien eretxi ta esanak borondate onez artzekoak dira; baiña zabalkunde kontu ori balio gitxiko kontua dala uste dogu. Egia, txitxarru ta berdelaren zabalkunderik ez da bein be egin, baiña legatz, besigu, atun eta beste arrain garestiena be ez da egin. Ta zabalkunde bearrrik ez dogu zein arrain dan ona ta zein ez jakiteko. Aosapaiak erakusten dausku ederto ori. Ala, ori be telebisioak nai daben eran sakatu al leikigu? Arrain garestiak ainbat proteina dabeela arrain merkeak be? Izan daiteke. Baiña jatea ez da indartzea bakarrik, baita atsegin artzea be ba-da.

Bear bada, denporeagaz jate lana astokeriatzat gizonak artuko dau ta pastillakaz bakarrik biziko da. Orduan arrain guztiak bardin balioko dabe kontixu, onenbeste edo ainbeste proteina leuken pastillak egiteko izan leitekez-da. Baiña ordurarte txitxarrozar ete berdelari jendeak ez dautsee istimaziño andirik egingo. Bestelan, jendearen aosapaia asko aldatu bearko da.

*GOIZ-ARGI 157' garren zenbakia*

## ZELAN EGIN BEAR DA ARRAIN SALTZEA? (SALKETEA)

Bizimoduak, batez be janariak gorakadarik egiten badau bitartekoai, intermediariuai errua emoten jako. Ta au ez erriak bakarririk, baita agintariak eurak be bitartekoen errua bailitzan berba egiten dabe edo itxurak egiten ditue. Dirua esku betean sakelera-tzeko bat-be kontzientzia barik gauzen balioa izarretaraiño jasoten dabeenak dirala bitartekoak uste dogu.

Arrain kontuan be bitartekoaz ez da berba gitxi egiten. Orreik ei dira arraiñagaz irabazirik andienak ataraten dabeenak. Batez be «asentadore» izenez ezagutzen diranak. Oneik joten dabeen soiñura dantzaz egiten ei dau arrain salketeak, oneik ipinten ei dau-tsoe saneurria arraiñari. Au olan dan ala ez ez dakit baiña arrantzaleak baiño bitartekoak geiago irabazten dabeela baietz esango neuke.

Au egia izan arren arrain arazoan bitartekoak kaltegarri diranik ez neuke esango. Bitartekoak merkataritzearren atal bat dira edo merkataritzea bera. Ta merkataritzea, aurrerapenak sortu ez badau be, bere gaurko lodi zabalerea aurrerapenak emon dautso; aurrerapenaren abiadan doa, bearrekoa da, merkataritzea. Gauza gitxi dira, ia bat be ez, sortzailleak bitarteko barik azkenengo erosle edo kontsumidoreari zuzenean saltzen dautsazanak. Bai, saldu-erosian diarduenai eskerrak, arraiñaren salketea zabalago egin da.

Besterik ezagutu ez dogulako-edo guri ondo iruditen jakun kaietako orain arteko arrain salketeari akats andiak arkitzen dautsoez arrantza auzian azterketa sakonak egin dituenak. Erosleak alkar artu daikeela edo artzen dabeela arraiñari saneurriak ipinteko, arrantzaleak euren arraiña saltzean sakabanaturik eta eragiñik barik jokutzen dabeela, Madrid, Bartzelona ta abarretako bitarteko nagusi edo asentadoreak emondako saneurrietan kaietako arrain saltzeak egiten dirala ta abar.



Gauzak ez dira betiko egiten; edozetan izan oi dira aldakuntzak. Arrain salketan be aldakuntzak izan leitekez. Ara arrasteruak: Oneik bajurako itxasontziak baiño geroago sortu ziran gure kaietan; euren arrain salketea, bajurakoen betiko erea baztatuaz beste era batera egiten dabe. Erosleak, baktotxak, arraiña zenbatean erosiko leukeen eskutitz azal itxietan emoten dabe ta goren jarten dabenarentzat izaten da arraiña.

Bai, arrain salketea era askotara egin leiteke: orain arte lez errematean goitik bera abestuaz, errematerik geienak izaten diran lez betik gora abestuaz, arrantzale ta erosleak erabagita aurretiaz jarritako zaneurri jakiñean eta azkenez arrasteruak lez eskutitz azal itxietan saneurria ipiñiaz. Baiña era orreitan guztietan bitartekoak bear dira; ta arrantzaleak euren arraiñak emon daiken guztia eurentzat izan nai badabe, bitarteko barik euren kontura egin be arko leukee salketea itxasontzitik jan bear dabenarenganaño. Ta ez da erreza auxe. Orretarako ikaragarritzko eralguntzea, ikaragarritzko tinglaur eratu be arko litzake.

Ta alan eginda be arrantzalearentzat onik izango ete litzake? Era orretan atara leitekean irabazia, salketa arduradun sail edo andra berak ez leuke jango?

*GOIZ-ARGI 169-170' garren zenbakia*

### **ARRAIÑARI SANEURRI ZUZENA ZELAN IPIÑI?**

Egaluzearen saneurria dala-ta ez dira pozik izan euskaldun arrantzaleak lengo txanda baten. Arraiña ugaritzen danean jazoten dan lez, bere saneurriak berakadea egin eban eta agindutakoa baiño gitxiago zala ta arraiña saldu nai ez da egon diran itxasontziak be izan dira.

Arrantzaleen ustez arraiña merke saltzen da ta erosleak edo jan bear dabeenak garesti dala esaten dabe. Españia barruko guda etorri arte, egaluzea, azkenengo urteetan, 0,80 laurleko gitxi gora-

bera izaten zan kiloa; aurten batez-beste 80 laurlekotik gora izango da. Au da, bateko eun igon da ordutik ona. Ez dot uste beste gauzak geiago igon diranik.

Orduan ez ziran asarratzen arrantzaleak arraiña merke saltzen zalako. ¡Zenbat antxoba uretara jaurtiten zan, saldu ez da, denpora areitan! Baiña orduan oporrera joateko oiturarik ez zan. Itxaso-kontuak alantxe zirala-ta jazoten zanari burua makurtu. Gaur ez, gaur arrantzalea asko aldatu da, beste edozein lez. Gaur egunean bear be asko bear da ta bere arraiñari alik saneurririk andiena eragin nai dautso. Ta ori ezin lortutea, arraiña saltzeko era zarraren errua dala diño. (Ez dakianarentzat diñot: ereosleak ipinten dautso saneurria arraiñari goitik beruntzko errematean.) Ta beti ezagutu izan dan saltzeko erea aldatu nai dabe. Arraiñari saneurri jakiñak edo fiñoak ipiñi nai dautsoez. Geiago nai gitxiago atrapau, beti, aurretiaz ipiñitako saneurrietan arraiña salduk al iza-tea lortu nai dabe.

Arraiña ez beste jaki guztiak jaubeak ipiñitako saneurrietan saltzen ei dira. Au ez da egia osoa. Gauza batzuei, gari ta orioari bai beintzat, gobernuak berak ipinten dautse saneurria; ta bestei eskatu-eskeñi legeak askotan, erderaz «oferta demanda» berbakaz esaten danak. Danok dakigu au zer dan: zer saldu asko ta erosle gitxi danean saneurriak beruntz egiten dau ta bestera danean goruntz.

Dendetan gauza guztiak euren saneurria eukiten dabe, baiña iñor ez da beartuta egoten areik eroatera. Arraiña oster, bein atrapau ezkerre saldu egin bear da denpora asko baiño len, ondatu egiten da-ta. Arrantzaleak, euren dan arraiñari nai dabeen saneurria ipinteko eskubidea izango dabe kontixu; baiña erosleak be nai ez dabeenik ez erosteko eskubidea ba-dabeela ezin daike ukatu iñok.

Ez; arraiña ez da beste jakiakaz bardintzekoa; bere-bere saldu-erosi legeak izatea gauza bidezkoa da; legeak edo oiturak.

Arraiñari saneurri zuzen bat emon al balitz erosleak be ontzat emongo leukeela ta nago; bada arraiña erostea edo eskuratzea al-

karren leian edo errematean egiten da ta onek bere kezkek sortzen ditu. Baiña ez da erreza arraiñari saneurri zuzena ipintea. Alde batetik gaurko bizimodua ta itxasontzien kostua ta bestetik, merkatan arrain eta kontserba geiago edo gitxiago izatea kontuan izan bear dira.

Arraiñari saneurri bat ipinteko lenengo baldintzea, itxasontziak, beti, aurretiaz izentautako kaietara arraiña eroatea da ta erosle bakotxak zenbat arrain erosiko edo artuko leuken erabagitea; freskeroak zenbat jasoko leukeen eta zenbat, fabriketakoak.

Arraiñak saneurri ona beti izan daian itxas errietan frigorifikak ipintea ondo izango litzakeala be esaten da. Baiña orreik be on andirik ekarriko ete leuskioe arrantzaleai? Ez dakit; frigorifikak kostu andiak daukez, ez jaso ta martxan ipiñi arte bakarrik, gero be bai. Au da, batetik irabazten dana bestetik joan.

Naiago neuke, bai, alde bietakoentzat ona dan erabagi bat artuko balebe arraiñaren saneurri auzi onetan. Denporeagaz argitasun apurren bat nunbaitetik agertuko al da!

*EL DIARIO VASCO 22-8-1976*

## **ARRANTZEA BETI IZAN DA IRABAZI GITXIKOA**

Egundo izan ez dan ardurea dago orain arrantzeaz. Batzarrak eta mai biribileko jardunak an eta emen, idazlan sakonak aldizkari ta egunkarietan, irratietan be arrantzeaz berba egiten, guztiak auziari konponketak arkitu naian.

Arrantzeak beruntz egin dau ta bere etorkizuna oraindik illunago ikusten da. Baiña arrantzearen gaurko urritasuna ukatu ezifia dan arren, lenago be ugaritasuna baiño olango aldiak sarriago eza-gutu izan ditue arrantzaleak.

1926'garren urtean il zan nire aita arrantzalea ta bere irabazietan urtean milla laurlekotik gora ez zala bein be igaro, amari en-

tzunda nago. Errepublika denporan, bein, arrantzaleen iru-lau urteko irabazien barri izparringian irakurri neban. Urte baten baka-riek eguneko lau laurleko irabaztera eldu ziran. Beste urteetan gitxi gora-bera eguneko 3'50 laurleko zan arrantzaleen irabazia. Ortik gaiñera, etxerako arrain apurra iñoiz eroaten eben eta liortarrak ez zituen osagille ta osakaiak duan zituen. Guztia jota liorrek langillen aloger txikienaren erdi inguru zan arrantzaleen irabazia, liortarrak igande ta jai egunak kenduta eguneko bederatzi laurleko inguru irabazten zituen da. Au da, gudea etorri zan arte urteko milla laurleko inguru zan euskaldun errantzaleen urteko irabazia; gaurko berrogei milla laurleko inguru.

¡Orduan bai gitxi irabazi arrantzaleak eta txarto bizi euren sendiak! Ondarru'n (ta besteetan be bai kontixu) euneko larogetamar pamilik zorretan jango eben. Mutil txikitan, nasai eroaten genduan agirian zotza, diru orde, ogitara joaten giñanean, okiñak, zenbat ogi guri emon an zotzean ainbeste akatz aiztoagaz egiteko.

Jakiña, itxasontzi jaubeak be ezinda larriago ibilten ziran, itxasontziak erreten eben ikatza ordaintzeak naikoa buruko min sortzen eutsen da.

Ondarru'n urte gitxiren buruan azienda asko pikutara joan ziran, lengo itxasontzia zartu jakenean barririk egiteko alik ez da geienetan. Eta geiago be galduko ziran, itxasontzi zarra baztarten ebanari barria egiteko desguaze izeneko diru laguntza emoten Gobernua asi ez balitz Errepublika denporan.

Gure esanen egia agiriago ipinteko, orduan eta gerotxoago Ondarru'n pikutara joan ziran itxasontzien izen zerrendea ipiñiko dogu. Burutz egiña da ta pillotxuren bat aztuko jakun ziur.

Antzo-Solo  
Arala'ko Deun Mikel  
Artibai  
Bi koñatuak  
Bolinders

Bussalachi  
Carmen  
Deun Ander  
Deun Andoni  
Ena  
Esperantza  
Flor de Mayo  
Iñazio Echaburu  
Itxaropena  
Jesus San Antonio  
Jontxu  
Josefina  
Jose Maria Echaburu  
(Jose Saldu'rena; izena aztuta daukat)  
Josuren Biotza  
Junbaistaneku  
Koroko Ama  
Labako  
Maria Luisa  
Mater Luisa  
Mater Dolorosa  
Maurizia  
Miren Kepa  
Mirentxu  
Ongi Etorria  
San Jose  
San Lorenzo  
Tostartekuen Alkartasuna  
Tubal  
Ur Txoria

Itxasontzi banaka batzuk gudea zala-ta suagaz erreta edo atxetan edo ondartzan galduaz edo jaubeari kenduaz amaitu ziran.

Goiko itxasontzi orreik ondorengorik ez eben izan, lenago esan dodan lez, geienetan jaubeak orretara eltzen ez ziralako. Ta

al ebenak, itxasontzi jaube liortarrak be ez zituen barriztau, jakiñean iñok ez dabelako dirurik galtzen ipinten.

Antxiñako kontuak barriztauaz gaurko egoera ta etorkizun larriri garrantzia kentzera ez nator, arrantzaleak gitxigaz be biziten oituta dagozala esan naian lez. Ez. Baiña arrantzako buruaustei erabagia emon nai dan aldi onetan gogoan eukitekoak dira lengo kontu orreik. Alderdi txar eta onak, guztiak kontuan izan bear dira.

*GOIZ-ARGI 31-3-1973; 162' garren zenbakia*

## **BAJURAKO ITXASONTZIAK GITXITEN**

Arrantzaren etorkizun baldaren ondoren txar bat, itxasontzi urritzea izango dala dirudi. Lengo baten gure adiskide Atxukale'ri irratitik esaten entzun geuntsanez lau itxasontzi saldu dira edo saltzen ipiñi dira Bermeo'n. (Onezaz ez naz ondo gomutauten) Ta modu onean saltzeko aukerea izan ezkeru, erriko bajurako itxasontzi geienak salduko litzakezala, ondarrutar adiskide batek aurtan baten esan eustan. (Itxasontzi saltzea ia beti erdal errira izan oi da.)

Baiña itxasontzirik ez salduta be auzi au txarto dagoana argi dago, barririk gitxi egiten da-ta. Len itxasontzi barria egiteko txandarik ezin artuta ibiltan ziran Ondarru'ko ontzitegian eta orain, urteetan, bajurako barri bat ez da egin.

Aurreragoko idazlan baten esaten neban lez, lenago be arkitu izan dira arrantzaleak egoera onetan. Baiña len itxasontzi barria egiteko laguntza apurra naikoa zan. Errepublikan denporan, gobernuak lengo itxasontzi zarra baztarten ebanari emoten eutsan laguntzaz baliatuaz, itxasontzi asko barriztau al izan ziran. Baiña aurrerabidez betetako gaurko itxasontzi andi ta indartsuak laguntza apur bategaz egiteko langoak ez dira. Lengo ta oraingo itxasontzien aldea ikusi daigun. Diesel makiniadun itxasontziak egiten

asi ziranean, 1932'garren urtean egin zan Ondarru'ko lenengoa, erriak «La guapa» ezizenez ezagutzen eban berrogetamar zaldiko «Markue» izenekoa, berrogetamar milla laurleko kostau zan. Au da, diruaren balioa kontuan izanaz gaurko bi milloea bear dira.

Jakiña, Gobernuak dirua aurreratuz egiten dira oraingo itxasontziak, baiña nok erantzun ainbeste zamari arrantzea ain makal dabillan urte oneitan?

Aldakuntza eskatzen dau onek; gure erriak oso-osorik arraiñaren peskian, itxasoagaz buztartuta, ez daitezala izan. Itxasoagaz zer ikusirik ez daben langintzea be bear da gure itxas errietan.

Egia, ba-dakigu orretara eltzea zailla dana, gure itxas erri askok orretarako egokitasun gitxi daukelako: aukerako lur gitxi, bultzirik ez, errege bide ziztriñak eta abar. Baiña itxasoari oso-osorik lepoa emotea be ez dau iñok eskatzen; itxasoari be emon al daben aberastasuna atara egin bear jako. Itxasotik eta liorretik bietatik izan daiela bizi bidea gure itxas erriak. Itxasontziak gitxituaz kalean geratu leitekezan eta itxasoko lana baiño liorrekoa atsegiñago jakenak nun lan egin izan daiela.

Baiña liorreko langintza oneri bear ainbat zabalera ezin emon al balitz, au kontuan izan daigun: Azken ogei urte oneitan Ebro'tik andiko askok Euskal Erria'n bizi bide polita arkitu dabeela. Beraz, arrantza auzia asko okertuko balitz, itxas errietako batzuk bere errietatik urruti barik bizi bidea arkitu eziñik ez da. Badakit oinkada oneik emotea erreza ez dana, baiña geienetan ez da kalterako izaten.

*GOIZ-ARGI 164' garren zenbakia*

Oraingo oarra: Lenengo motor makiñadun arrantza ontzi andia «BOLINDERS» izan zan. «Markue» bigarrena izan zan, emengo makiñeagaz, Zumaya'koagaz lenengoa.

## IRABAZI BIDEAK ITXAS ERRIETAN

Jendea gero ta ikasiagoa da ta orregaitik gizarte auziagaz be len baiño geiago arduratzen da. An eta emen euren errien ona bi-llatu naian diardue bizibide ta kultura bide barriak sortzen; lantegi kooperatibak eta ikastolak batez be.

Lengo baten Atxukale idazleak irratiz ziñoanez Ondarru'n (gure errian) etorkizunagaz kezkatuta bizibide barriak sortzeko azterketak egiten diardue. Itxasoagaz zer ikusirik ez daukan lan-gintza erriratu nai dabe.

Asko poztu ninduan albista onek. Aspalditik ikusten neban onen bearra ta idatzi be egin neban. Ain zuzen, Atxukale'k barri au emon eban astean bertan agertu zen GOIZ-ARGI'n, orain urte batzuk dirala sariketa baterako idatzitako idaztian esaldi au:

«Gure arrantza erriak geienak itxasoari lotuta dagoz, oso-oso-rik itxasotik bizi dira. Obe litzake euren onerako, arraiñagaz zer ikusirik ez daben industria ta bizimoduak erriratuko balitue, arrantzea bere neurrian artuta.»

Gero ta premiñazkoagoa da itxas errietan liorreko langintza, batez be itxasoagaz zer ikusirik ez daukana. Bajurako itxasontziak gitxituaz doaz eta oker au konponduko dan itxurarik ez dago. Ira-bazia baiño kaltea ziuurrago ekarriko leuskion arrantzako itxasont-zi barririk iñok ez dau nai egin.

Beste aldetik, jendea, batez be gazteak, gero ta eskolatuagoak dira ta liorreko lanbideak ikasten ditue. Beraz, guztiak erritik urruneratu bear ez badira errian edo inguruan nun lan egin eratu bearra dago.

Baiña liorreko lana errikoentzat sortu nai izateak itxasoeri le-poa edo bizkarra emon bear dautsagunik ez dau esan nai. Onda-rru'ko bizibide nagusia, beti, arrantzea izango da. Beraz ardura andiagaz artu bear dogun auzia da,



Bajurako arrantzea ezin ta illunago ikusten da. Okerrena, arrantzaleak nun itxasoratu ez dabeela izango dira, iñok ontzi barririk egin nai ez dabelako. Baiña auzi oneri be erabagia emon bear jako. Iñok egin nai ez badau, koperatiba modura be itxasontzi barririk egiteko itxurarik ez bada, urtenbide bakarra, Kopradiak dira. Arrantzaleen Kopradiak atzeratuak geratu dirala esaten dabeenak ba-dira; arrantzeak gaur daukazan problemai urtenbidea billatzen ezer ez dabeela egiten. Euren egitekoa arraiña saldu ta erderaz «Seguridad Social» esaten jakonaren kontuak eroatea dala bakarrik.

Ara bada emen Kopradiak euren gain artu leikeen egiteko garrantzitsua: Errietan itxasontzirik ez daiteala gitxitu ta ori lortu al izateko barriak euren kontura egin. Iñok baiño ariñago lortuke leukee Kopradiak orretarako bearco litzakezan diru aurreratzeak. Jakiña, eurentzat kalterako izan leitekezan garazetan, eurai kaltea ekarri leikien negozioetan, Kopradiak be ez dabe nai izango asi. Baiña au be konpondu leitekeana da. Itxasontziak bere burua ordaintzeko euneko berrogetamar gitxi badau bear dan ainbat artu daijala. (Kopradiak egin leikezan itxasontziaz diardut eta ez besteakaz.) Olan arrantzaleentzat gitxiago geratzen dala? Bai, baiña bestelan itxasontzi barririk ezin egin bada, egin al izateko bideak ipintea da lenengoa; arrantzaleak, gitxiago irabazita be nun itxasora joan eta ogia irabazi euki daijala.

Gaiñera onek bere konponketa izan leiteke; itxasontzi bako-txean lagunak gitxitu.

*AGUR 141' garren zenbakia*

## **ITXASONTZIEN JAUBETASUNA ZABALDU EGIN BEAR DA**

Beti izan dau Eliza Katolikuak ez eukien ardurea; batez be Leon XIII'ren denporetatik ona aletin andiak egin ditu langilleak dituan eskubideak munduari ezagutu eragiten. Eta Elizearen ardura

au gitxitan lez nabarmendu dau gaurko Aita Santu Juan XXIII'k argitara emon daben «Mater et Magistra» izeneko eskutitzak.

Azkenengo denpora oneitan izan diran Aita Santu guztiak diñonez, beargiñok be ba-dogu alik erosoen biziteko eskubidea. Jakiña, orretarako gure lana baiño beste biderik ez dogu ta ortik atara bear dogu geuk eta geure sendiak bear dabeen guztia. Sendi alogeraz gaiñera, lantegi edo enpresetan jaube lez izatera eldu ta bertako irabazietan parte artu bear gendukeala langilleok, irakatsi dabe Elizako buruak.

Eliza Katolikuaren irakatsiak gogoratu ta arrantzaleak datorkiguz burua. ¡Aukera ederrik galdu da emen azkenengo urteetan era onetara lan egoteko! Egia, gure kaiak itxasontzi ederrez bete dira ta tostarteko diran arrantzaleak, au da, jaubeak ez diran eta itxasontziak kargurik ez daukenak be len baiño irabazi obeak ditue. Baiña Gobernuak itxasontziak egiteko aurreratzen daben laguntzeagaz bat be ez dira baliatu aitatu doguzan arrantzaleak. Eta gure ustez, Gobernuaren laguntzeagaz jaubetu ta ondoren beste norabait eskua luzatuaz, baltzako edo danentzat izango zan itxasontzi bat baiño geiago atara eitekezan.

¡Zer gauza ederra, ontziko guztiak eta eurak bakarrik ontziaren jaube izatea!

Baiña iñor ez da gogoratu baltzako itxasontzi modu orreik egin al izateko. Danak euren buruarentzat lan egin dabe; dirudunak, dirudunak lagunak dituen arrantzaleak, kargutakuak, arrantzako teniko edo ikasiak, danak.

Bakotxaren opillari su egite au txarto dagoanik ez diñogu. Gaiñera, dirudunen laguntza barik gure kaietako itxasontzi eder pillorik ez genduan ikusiko. Baiña, baita be egia da, berengo maillako arrantzaleak jaube izatera elduteko aukera ederra galdu dana. Tostartekoak eurak be ez dabe ezer egin eta iñok ez ditu orretara zuzendu. Ez da egon orretarako girorik. ¡Lenagoko arrantzaleak gaurko erreztasunak izan balitue! Itxasoko kontuak

orain baiño zailago ziran aldietan ezagutu genduan baltza erako itxasontzi bat Ondarru'n.

Tamalgarría da on asko egin leitekean auzian ezer egin barik besoak gurutzatuta geratzea. Ta bear bada, arrantzaleak eurak dauke errurik geien.

Argitu egin bear doguz bada gure arrantzaleak. Gure laguntzea eskeñi bear dautsegu. Ondasun jaubetasunaz dotriña ederra dauko Elizeak eta dotriña ori egi biurtu daitean alegindu bear gara. ¡Bestelan alperrekoak dira Elizearen irakatsi ederrak!

H.O.A.C. eta antzeko eliztar bazkunentzat zeregin aukerakoa auxe: Arrantzaleai gizarte arazoan irakatsi, itxasontzi jaube izan daitezcan nora ta zelan jokatu bear dabeen be bardin eta orretara oiñak zuzendu daiezan berotu, giroa ipiñi.

Ea zerbait egiten dogun.

*GOIZ-ARGI Jorrailla 1962*

## **ARRANTZEA MAKALTZEAK LIORREKO LANA SORTZEA ESKATZEN DAU**

Gizadiaren geroko janaritegia itxasoa ei da. Alan diñoe olango kontuetan jakitun diran askok. Gaur baliaten ez garan eta janari biurtu leitekezan asko ei dauko itxasoak: Planktona, algak eta abar.

Gu ez gagoz onetan dakienen esanen aurka. Guk auxe esango dogu bakarrik: Itxasoan gero-ta arrain gitxiago dagoala. Gure itxasoetan beintzat.

Egia, azkenengo urteetan urtetik urtera arrain geiago atrapau izan da; itxasontziak anditu egin dira ta tresnak egokitu. Olan bada, itxaso eremu andiangoak lanerako izanik eta erreztasun geiago be bai, arrain geiago atrapau izan da. Baiña ain zuzen, auxe da arrain gitxitzearen zioa, motibua.

Itxasoa, eskutapena, misterioa dala esaten da. Ez da ez erreza arrain batzuen eskutatea ta urrengo agertzea zelan dan jakitea. Gu gazteak giñanean, gure itxasoetatik urte askoan aldenduta egon zan eta guk mutil koskorrok ezagutu be egiten ez genduan arraiña, papardua deritxona, agertu zan, eta negu batzutan ugari atrapau be. Ta urte batzutara, agertu zan lez aldendu be egin zan, bere ibillerak zelan diran iñok jakin barik.

Ain zuzen, papardoaren jazoera au aitatzten dabe itxasoan arraiña gitxitu egin dala entzun nai ez dabeenak. Egia, itxasoko gauza asko eskutuan dagoz gizonarentzat, baiña argi ikusten dana ez daigun ukatu. Gure arrantzaleak orain mende batzuk baletan (ballenatan) naikoa irabazten eben. Orain, len emen balea atrapauten zan kontua ia ipuintzat daukagu. Mende onen lenengo laurdenean makiñabat sardiña gure kaietan sartzen zan; gaur barriz sagardandegietan-da emoten dauskuezanak be geienetan kanpotik ekarritakoak izaten dira. Ogetabost urte ba-dira gitxienez euskaldun arrantzaleak papardoagaz txori-txiki bat irabazi ez da-beela. Ta arrain oneik lez besteak be amaitu edo aldendu leitekez.

Bajurako arrantzan iru-lau arrain mota atrapauten dira; urte baten ez bada bestean txitxarrua, berdela, besigua, sardiña edo beste arraiñen bat gure kaietan ikusiko dogu, baiña aspaldiko urteetatik ona euneko larogetamabost edo geiago antxobea ta atunkia (egaluzea geiena au) dira. Arrain mota bi oneik ondo emongo balebe besterik ikusi ez da be ez litzakez txarto izango gure bajurako arrantzaleak.

Baiña zoritxarrez antxobea ta egaluzea, azkenengo urteetan kosteratik kosterara, gitxiten joan dira. Ta joera onek estutu egiten ditu gure arrantzaleak eta batzarrak emen eta batzarrak an egiten asi dira okerra zuzendu naian.

Baiña konponketa erreza ez dauko auziak. Bizi bearra dago ta alik geien itxasoari kentzen alegintzen dira arrantzaleak. Sortzen dabena baiño geiago atara izan jako itxasoari azkenengo urteetan.

Itxasoan ez da ereiten eta arraiña ugaritzeko bide bakarra gitxiago atrapautea da.

Ukatu eziña dan azkenengo iru-lau urteetako arrain gitxite onek jarraitzen badau gure itxas erriai aldatu bearra elduko jake. Euskal Erri'ko itsas ertzeko erririk geienak oso-osorik itxasotik bizi dira. Olantxe Bermeo, Ondarru, Mutriku, Getaria ta abar. Erri oneitako bizimodu guztia itxasoari begira dago: Arrantzea, ontzitegi, arrain ola edo kontserba lantegaiak, kajategi, izoztegi, karraitze, saregille, makiña konpontzeko tallerrak eta abar. Itxasoagaz zer ikusirik ez daben langintza gitxi edo bat be ez dago erri oneitan. Ta arraiñak orain lez jarraitzen badau langintza barriak zabaldu bearra izango da Euskal Erri'ko itxas errietan.

Ba-dakigu au erreza ez dana baiña eziña be ez da. Azkenengo ogetabost urte oneitan millaka ta millaka erdaldunek Euskal Erria'n ogia arkitu badabe, gure itxas errietara itxasoagaz zer ikusirik ez daukan lan apur bat eroatea ez da beste munduko gauzea. Lan apurra eroan, esan dogu, arrantzale erriak itxasoari oso-osorik lepoa emon bear dautsenik ez dogu uste-ta, ta olangorik esan be ez dogu egin. Ez, era onez emongo daben guztia kendu bear jake itxasoari, bere aberastasuna gitxitu barik emon daiken guztia. Baiña esate baterako bosteun itxasontzirentzat baiño arrain geiago ez dagoan itxasoan milla itxasontzi ibiltea danentzat gosea ekar-tea da.

Ta Kantauri itxasoan itxasontzi geiegi dagozana itsuak be ikusten dau.

*GOIZ-ARGI Urrilla 1969, 118' gn zenbakia*

## **KOPERATIBA ERAKO ITXASONTZIAK EZ DABILZ ONDO**

Euskal Erri'ko itxasontzi koperatibaz ez dira barri onak. Edo zuzenago esateko, Ondarru'ko koperatibaz, itxasontzi koperatiben

sorlekua erri au izanaz gaiñera emengo itxasontziak dirala-ta izan dira zabaldu diran barriak-eta.

Lendik orretariko itxasontzi bat edo beste ba-egoan be, orain amar urte inguru izan zan errezoi andi bako opor batek orretarako giroa sortuta asierea emon jakon koperatibako itxasontziaz Ondarru'n. Ta era orretako itxasontzi pilloa egin zan aldi laburrean, arrantzaleak eurak diru pitiña ipiñi ta gaiñontzeko guztia Gobernuak aurreratuz. Bakarka edo partikular eran egiten diran itxasontziaz Gobernuak, askotan itxastarrak ez diranai, dirua aurrerazten badautse, milla bidar errezoizkoagoa zan koperatiba eran egin nai ziran itxasontziaz laguntza ori egitea, ontziko arrantzale guztiak jaubeak izan eitezan.

Baiña ain itxaropentsu asi ziran itxasontzi koperatibak, asko, ez dabiltz ondo. Egia, aldi txarrean sortu ziran; gure itxasoetako arraiña gitxituaz doa ta gaurko itxasontziak gastu andikoak dira. Koperatibakoak ez diran itxasontziak be ez dauke Amerika andirik. Baiña auzi onezaz jardun dabeenak diñoenez itxastar koperatibak txarto ibilteak ba-daukaz beste errezoi batzuk be. Orretara ez ei dira ezi arrantzaleak, bear dan formaziñorik ez ei jake emon. Alkartasun sentimenturik ez ei dago euren artean. Diruari asko begiratu barik inbersioak egin dirala ta abar.

Nik neuk gauza gitxi esan daiket onezaz, aspaldiko urteetan neure erritar arrantzaleengandik urrun nabil-da. Koperatibak aurrera egin daien nai bada, bertako arrantzaleak era orren maitale ta aldezle sutsuak izan bear dabe; aldi txarretan be euren koperatiben alde gogotsu aleginduko diranak. Ta (au zetan esan bearrik bere ez dago) diru kontuan arduratsua izan bear da, gastu andiak errez egin barik. Onezaz kanpora, gizonak gertute edo eurai formaziño egokia emote ori ez dakit zenbateraiño dan bearrekoa. Beste itxasontzi jaubeak be geienak arrantzaleak dira, gitxi ika-siak, baiña arraiñak zerbait emon ezkeru, ba-dakie polito urteten.

Ain zuzen, koperatibako arrantzaleak, eurak, arrenkura auxe ei dauke, zera, bear zan denporan arazoaz ez zituela argitu. Baiña

zein zan orduan ori egin eikeana? Tostarteko arrantzaleen irabaziak geitu naian, ekonomi kontuan ezer ez ekien asmo oneko batzuen bultzadeagaz sortuak izanik kooperatibak ¿zein zan arazo onetan arrantzaleak baiño geiago ekiana?

Edozeiñek daki bajurako arrantzeak aldi on gitxi izan dabee-na: Makiñabat itxasontzi jaube lur jota geratu dira gure bizian; eta batzuen batzuk zori ona izanik urteen buruan zerbait aurreratzera eldu badira be, irabazi orreik urtero itxasontziko guztiai banandutera joan ezkerro bakotxari asko ez jakon elduko.

Gaur itxasontzi kooperatiben giroa ia guztiz galdu da. Iñok ez dauko sinisterik euregan. Nunbaitetik, itxaroten ez dan biztu aldi-ren bat izaten ez badau, urte asko baiño len guztia amaituko dala esan daiteke.

Tamalgarría auxe! Euren kooperatibai eusten alegindu egin bear litzakez arrantzaleak. Kooperatibako itxasontziak besteak baiño txartoago zetan ibilli ez da. Ta bardin eginda be, euren irabaziak beste itxasontzietakoak baiño geiago ez izanda be, gitxiago ez bada beintzat, iraun erazo egin bear leuskioee kooperatibai. Besteen menpe barik norbere buruaren jaube izatea ez da gitxi. Bere kontura izateko gauza ba-dala erakusten emon bear dau arrantzaleak. Baiña orretarako, lenago esan dogun lez, alkartasun langintza au, arrantzaleak, barru-barrutik sentidu bear dau.

*GOIZ-ARGI 173' garren zenbakia*

## **BAKOTXAREN ITXASOAK ZABALTZEN**

Laterriak orain arte euren aurreko itxasoetan liorretik iru millara arte izan daben nagusitasunak aldakuntzak izango dituala laster esan leiteke.

Orain bi edo iru urte Islandia'k bere jaubetasuna amabi millara arte zabaltzen ebala esan ebanean geigikeriaren bat esan baile-

ban itxas errietakoak artu eben bere esana. Baiña andik denpora gitxira beste Laterri asko bere atzetik zituan.

Erriak, gaur, len baiño geiago begiratzen dautsoe itxasoari. Aberatsa dala itxasoa jendeak ikusi dau, bertatik janari asko ataraten dala konturatu da ta aberastasun ori zaindu nai dau; batez be orain lez urruneko erriak, Japon'ek eta Errusia'k, gure itxasoetan sartu ta baztar guztiak garbitu bear dituela ikusita.

Baiña nai dabenak nai daben eran jokatzeko kontua ez da au; orain arte mundu guztikotzat euki izan diran itxasoak ezin leitez geiagoko barik iñok bereganatu. Ta Ingalaterra'k deituta Londres'en batu dira Laterriak erabagi batzuk artzeko. Jakiña, asmo ta nai desbardiñak izanik errez ez dira batera etorriko, batzuentzat mesedegarria dana besteentzat kalterako izaten da-ta.

Errien jaubetasuna itxasoan amabi millara zabaltzeak zer ondoren ekarri leike euskaldun mariñelai? Itxura danez, ikutu gitxi egingo dautse aldakuntza orrek. Euskaldun arrantzalea geienetan bajurea deitzen jakon erako arrantzalea da. Atuna (egaluzea ta egamotz apur bat) eta antxobea dira bere arraiñak. Ta bai bata ta bai bestea arrantzateko ez dauko besteen uretan sartu bearrik. Atunetarako karnatatzat erabilten daben antxoba txikia askotan Prantzia'ko uretan artzen dabe ta emen izan leiteke zerbait eragozpen. Baiña len be auzi onetan polito konpontzen dira Bidasoa alde bietako euskaldun arrantzaleak. Emengo itxasoetan angoai atunetan lagatearren eurak be emengoai antxoba txikitan lagaten dautsoe ta kito. ¡Oba euskaldunak alkarrei orrenbeste lagundu ez!

Beraz, orain arte konpondu izan badira danen onerako, emendik aurrera be konpondu eziñik ez dauke.

Ostera, arrastaka arrantzaten daben Pasaia'ko Ondarru'ko itxasontzientzat ondoren txarra ekarrela uste genduan, emengo arrastero asko Prantzia'ko ondartzetaraño ia sartuta arrantzaten dabe-ta. Baiña auzi onezaz berba egin dogun itxasontzi jaubeai buruko min gitxi emoten dautse Londres'ko erabagiak. Geiago oraindik: Mesedegarri izango dala emengoentzat diño.



Emengo jendeak ezer ez daki arraiñaren bizitzeaz; nun jaioten dan, zenbat denpora bear daben azten, nundik nora ibiltan dan eta abar. Emen ez dago zenbait tokitako inbestigaziñoko itxasontzi ta ikastolarik eta gauzarik geienak itsumustuan esan eta egiten dira.

Baiña gauza bat dakigu ziur alan be: Emengo arrasteko arrantea gero ta galduago doala. Aspaldiko urteetan legatzkume asko atrapau izan dabe arrasteroak Prantzia'ko ur orreitan. Ta ondorenik laga barik atrapauten dan arraiña, igalia nai dogula zugatza moztutea lez da. Ondamendi ori debekau naian emon izan ditue legeak emen baiña dana alperrik izaten da; beingo baten lenera etortan dira gauza guztiak. Orregaitik, ondo letorken lege bat bete eragiteko indarrrik ez dagoalako, kanpokoak euren itxaso orreitan arrantzatea debekauko baleusku arrasteko arrantzearen etorkizunarako obe izango litzakeala uste dabe askok.

Baiña ta arraiña ugaritu artean zer? Len be balioko beste arraiñik atrapauteko biderik egon balitz bakean itxiko eutsoen legatzkume orri. Kantauri itxasoan ibilteko itxasontzi geiegi egin dira ta orretxen ondorenak dira oneik.

Ta auziaren beste alderdiari begiratu deiogun: Emengoak Prantzia'ko uretara joaten diran lez angoak be ona etortan dira ta amabi milla baiño barrurago arrantzan jardun. Baiña emen gauza polit bat (gauza triste bat obeto) jazoten da: Gure itxasoak zenbait tokitan sakonak dira, goi-bera andikoak. Ur orreitan arrantzateko indar andiko itxasontziak bear dira ta emen orrelango gitxi daukaguz eta etxetik arrabetera daukaguzan uretan gure ordez Prantzia iparraldeko itxasontziak ibiltan dira.

Beraz, amabi millako lege ori onartzen bada be zer galdurik ez dauke gure arrantzaleak. Ori obe!

*ZERUKO ARGIA 2-2-1964*

## 200 MILLARA NAGUSITASUNA ZABALTZEN

Gaurko munduan guztia da problemea ta buruaustea. Zenbat eta aurrerapen geiago ta problema geiago.

Besteak beste, bizi lagunak ugarituaz goaz munduan eta gairera aukera geiagogaz bizi gara edo bizi nai dogu beintzat. Orre-gaitik, geiago bear da danetik, geiago sortu bear da. Ta itxasoari be len baiño jaramon geiago egiten jako, len aintzat artzen ez eben erri atzeratuak be itxasoari begira jarri dira.

Orain arte, itxaso, iflorena ez eta guztiena izan da. Liorretik iru milla artekoa bakarrik Laterriak euren lez ezagutzen eben. Ez dakit baiña olan be ez antxiñatik kontixu. Orain, barriz, egundoko anarkiarik andiena sortzen diardue. Batzuk sei millara arte, urren-goak 70 millara arte ta Ego Ameriketako Laterri batzuk 200 millara arte zabaldu dabe euren nagusitasuna.

Au baiño bidebakokeria andiagorik ezin daiteke. Liorrean, besteen lurraldeak sarri eureganatu izan ditue Laterriak. Alan be askotan ederto kostauta ostuten zituen besteen lurra, odol askoren truke. (Beno, batzutan errez be bai.)

Itxasoan ostera, nai utsagaz alderdi ikaragarriak eureganatzen diardue Laterri batzuk, mundua sortzean Jaungoikoaren FIAT edo EGIN BEDI berbeak izan eban indar edo birtutea baileukean.

Jokabide orrek ikaragarritzko kalteak dakarz itxasotik bizi diran askorentzat. Nai dabenak nai daben beste bere nagusitasuna itxasoan zabaldu al baleu orain asko dirudien 200 millan ez litza-kez geratuko; denporeagaz munduko itxaso guztia danen artean banatu arte ez litzakez geratuko, nai ta mugak ipintea erreza ez izan.

Ez, ori ezin daiteke; itxaso guztia Laterrien artean banatu bear litzakeala ifnok ez dau esango orain. Beraz gora ta gora joan ez daitezcan, Laterri baktxaren nagusitasuna zenbat millaraiño zabaldu leitekean danen artean orain erabagiteko kontua da. Itxaso

danena izan bear da. Alan be orain arteko eretxi batzuk aldatu be-  
arra izango dabe. Len iru milla artekoa izan da Laterriak eurentzat  
ezagutu izan dabeen itxasoa. Orain, ori baiño geiago edozeiñek  
eskatuko dau. Norbere lurralde aurreko itxasora norberari ogia  
kentzera, len bertan arrantzatu izan ez dabeen urruneko itxason-  
tziak etortea, nai ta legeko milletatik kanpora, ez da ondo. Esate  
baterako, Kantauri itxasoan beti kantauritarrak bakarrik arrantzatu  
badabe ez daiteala bertara japoitar edo errusitarrik etorri.

Bestealde, euren itxasontziak bear dabeen baiño itxaso zabala-  
gorik iñungo errirek ez daiala bereganatu. Ostera, aspalditik  
arrantzaten dabeen kaletan (kalaetan) itxi egin bear litzake beste  
Laterrietako itxasontziaz, euren bizimodua alaxe moldatua dabee-  
lako, edo ta, bialdu nai badira, urteak emon beste erara euren  
arrantzea moldau daien.

Ez da erreza izango danen naiak eta bearrak batera ekartea.  
Alan be maian jarri ta berba egin bearra dago gai onezaz; iñundik  
iñora ezin daiteke itxi nai dabenak nai dabena egiten. Ezin daiteke  
Ego Ameriketako Laterri batzuk egin dabeen modura euren itxa-  
sontzientzat geiegi dan itxaso zabala, nai dabeela ta beste barik,  
eurereganatu ta gero, diru truke arrantzaten itxi kanpokoai.

¡Olango kolonialismorik nik ez dot ikusi!

*GOIZ-ARGI 160' garren zenbakia*

## DANETIK NASTEAN

### GAIXO ETXETIK

Bat-be uste ez genduala, ia bat-batean, Anoeta gaiñeko Residencia Sanitaria Nuestra Señora de Aránzazu izeneko gaixo-etxean geure burua arkitu dogu.

Korde barik ona ekarri gaituela ta esnatzean nun gengoan ez genkiala emengo oean geure burua arkitu dogula ez dogu esan nai onegaz; ori ez. Baiña gure ona etortea naikoa bat-bateko kontua izan dala bai. Urte askoan nasai-nasai eroan dogun belaun ondoko anditsu bat txartu jakunean osagillari erakutsi ta ogetalau ordu baiño len ebagi galanta eginda, oiña edo bernea luze-luze, emen gagoz oean.

Ebakuntza gozorik ez da. Operaziño ariñena be minkorra. Baiña gauza txarren bat izan ezik, lenengo egunak igaro ondoren, atsedeen ederrik artzeko aukerea izango dau gaixoak olangoetan.

Jakiña, oean egote utsa be aspertzekoa izan leiteke. Ta bereala neurriak artu doguz. Libururen bat edo beste ta papera ta boligrafua ekarri deiguezala etxetik.

¡Izan be, au astia ta au aukerea ganorabakokeriak esanaz pape-  
rak baltzituteko! Ta emen gagoz esku bategaz liburu gaiñean pa-  
pera ta eskumako atzamar artean boligrafua doguzala, zer gairi el-  
du ezin asmauta.

Asentzio edo Salvatore eguna da. Zoragarrizko eguna argitu  
dau. Indartsu dator eguzkia. Egia, aizea be burrundaratsu dabil.  
Baiña gure gelara aizerik ez dator eta bai eguzki argitasun ederra  
leio zabal zear. Udabarrian gagozala aztu bagiña izadiak berak  
ederto gomutau eragingo euskun. Mendi zelaiak orlegiz jantzita,  
zugatzak loran, txoriak kantuz. ¡Au izadiaren edertasuna!

Baiña ederra atsegin bajaku be ez gara olerkariak, ez dakigu  
edertasunari abestuten. Beraz, beste zerbaiteri eldu bearko.

Bereala gaurko egunari dagokion oitura bategaz gomutau ga-  
ra. Asentzio eguna, berrogei Kredo errezateko eguna. An ibilten  
giñan umeak giñanean, Kredo guztiak ezin esanda, alkarren leian  
nok lenago amaitu.

— Erroke, zenbat errezau dozuz?

— Amazortzi.

— Amazortzi bakarrik? Nik bost paltau ditut.

Ta ekin barriro marmarrean.

Ez goaz gaur berrogei Kredo otoiztera baiña bat astiro-astiro  
ta biotz-biotzez esan dogula autortzen ez gara lotsatuko.

«Kredo; sinisten dot guztia daikean Jaungoikoaren seme bakar  
Jesukristogan...»

Sendotu Jauna gure fede makal au, lurrean biziteko be sinis-  
menik eza baiño itunagorik ez dago-ta.

Euskal kanta zar saillean be aitatzen da gaurko egun au. Ez  
dakigu geiago diran ala ez, baiña bi, beintzat, ba-datorkiguz buru-  
ra une onetan:

«Salbatore gora da» ta «Bazko eta Salbatore», biak Bidasoa beste aldekoak.

Lenengoak, gure ustez, euskal abestietako ederrenetako doiñua dauko; gozoa, leuna, goi maillako eresia. Alan be nire gaurko egoeran, bigarrenari jaramon geiago egingo dautsagu. «Bazko eta Salbatore» izenekoak gaiari dagokion doiñu ituna dauko, baiña ez balio gitxikoa.

Oean gaixorik egoan mutil gazte baten bertsoak dira. Jai ugari ziran gaiñean, jolastuteko aukera ederrik izango eben gazte lagunak, baiña bera, gaztetxoa zala artu eban gaixotasun txarrak menperatuta eukan, ez zan zutiñik egoteko gauza.

Bazko eta Salbatore  
ullanena Mendekoste  
eta ni gaixo au triste  
xutik ere ezpanaite

Ta indartu nai eban; zelan nai ez eban izango bada! Eta osagi-lleri arren mingotsa egiten eutsan:

Mendigarai medizia  
ene konsolatzalea  
luze zadazu bizia  
¡Pena da ola iltzia!

Baiña... nire idazlan au luze samar doakiola dirudi gelako lagun bakarra dan amar urteko mutiltxoari. Constantino Cuadrado izen abizenez, salamankatarra, baiña urtebete inguruan Irun'en bizi dana. Begi baltz andiko mutiltxo guapua. Azurretako gatxa dauko, berna erdi ingurutik jarioa. Bere gurasoak kezkatu dagoz luzarorako izango dabela-ta. Mutiltxoa ostera, nasai agertzen da. Bizi luzea aurrean ikusten dabelako-edo, emendik urteteko kexurarik ez dau erakusten.

Une onetan aspertu samar dagoala dirudi. Kartetan jokatu nai gizajoak. Beraz, albait ariñen idazlan oneri amaierea emon eta beragaz jokoan astea izango da nire egitekorik onena. Ez dogu, orre-

tarako, oetik jagi bearrik. Bi oien artean dagoan maitxoa naikoa dogu. Olantxe igaroten doguz ordu asko egunero. Bera izaten da geienetan irabazle. Kartarik geienak ezagutzen ditu ta.

Emon deiodan bada amaierea idazlanari. Baiña ez. Amaitu baiño len esker oneko agertu nai neuke emengo arduradun guztia-kaz. Emen, ezin obeto arkitzen da gixoa, miñez dagoana. Osagille azkarrak gogotsu ekiten dautsoe lanari ta gaixo laguntzaille diran neskatil liraiñak mitxeletak bailiran geratu barik batera-bestera euren zeregiñetan, eta bardin beste langille guztiak be zuzendari arduratsuaren begiratu zorrotzpean.

Kirofano orretzek bildurra sartudo ez baleu,, etorri leiteke ona urtean zortzi egun inguru egitera.

*EL BIDASOA Maiatzak 14-1967*

## ASTOA

Astoa da etxe abere guztietatik txartoen artzen doguna. Egundo igurtzi bat ez dautsagu egiten astoari; beti kargea lepora ta ordaiñez makilkadea ta ostikadea. Egia, makilkadearen eta ostikadearen errua berea izaten da iñoiz. Danok dogu geure alderdi okerren bat eta asto koitaduarena auxe da: buru gogortxokoa, egoskortxoa izatea. Sarritan aurrera egin bearrean atzeruntz alegintzen dala, edo atzera eragin nai dautsagunean bere indar guztiakaz aurrera egiten dabela.

Baiña ori gora-bera begirapen apur bat izan bear geuntsake sekula janari gozorik emon ez dautsagun eta beti zamapean darabilgun astotxoari. Lanerako edo gure edozer gauzatarako doguzan tresnak ondo zaintzen alegitzen gara, gero eurakaz baliatzen gara. Ostera, astoa lertu bearrean bere gaiñean jarrita ainbat bidean egunero plaza merkatūra joaten dan baserri etxekoandre ipurdi andiak be zigorkadak besterik ez dauz izaten bere aberearentzat. ¡Asto gizajoa!

Gangakeria ta basatikeriari be asto izena ipiñi dautsegu.

— Ez egizu astakeriarik egin— esaten dautsagu bear ez dan zerbait egiten diarduan bateri, astoak gauza guztiak txarto egingo baileukezan. Ta dana, astoak noizik bein arrantzaka edo garra-garraka ibilten diralako. Guk oin biko abereok be arrantzaka ta gangarkeriak egiten obeto dakigu!

Ez, astoak ba-dau alderdi onik, asto jatorrik izan da edesti zear. Zeru lurren egille Jesus Umetxoa Belen'go estalpetxo baten jaio zanean, antxe zan astoa idiagaz batera, bere arnasa beroz jaio barriaren otza kendu naian. Jesukristo Erramu igandez Hossana ta txalo artean jerusalendarrak artu ebenean, bere eskerrona agertu naian astotxo baten gaiñean joan zan, une zoragarri aretan Jaungoikoaren eroale izateak astoari goratasuna emoten eutsan-da.

Begi onez ikusten eben gure asabak astoa. Ez zirala jo bear astoak esaten eben, lepoan kurutzea dabeela-ta. Astoak, Jesus'ek Belen'en bedeinkatuak zirala ta eurakaz bidean joan ezkerro, ezer okerren bildurrik ez egoala uste izaten eben, ez deabru, ez trumoi ta ez beste ezer txarrenik.

Ama Birjiñaren zaldia ei zan astoa; orregaitik gure asaben denporetan emakumerik ez zan ikusten zaldi ta mando gaiñean. Ta, asto gaiñean, joan be lotzaz; gizonen modura ez, alde batera jarrita baiño. Gizonen modura joaten ziran emakumeai Mari-mutil ezizena ipinten ei eutsen, Azkue'k diñoanez.

Asto gizajoak eroapen andikoak dirana ondo dakigu; beti makilkadak eta ostikadak artzen eta beti buru makur, murruskadarik txikienik be nagusiari egin barik. Baiña sekula izan ez dana bein izan leiteke ta beingo ori Ondarru'n jazo zan. Makilkadak artzen nekatuta-edo, bein, asto batek besotik aginka egin eutsan bere nagusi kale-garbitzailleari. ¡Ta zelango aginkadea! Okerragorik izan ez eian besoa moztu egin bear izan eutsen.

Nik uste dot Ondarru'ko asto aren egitadea, asto guztien ize-  
nean izan zala, modu txarrean erabilten doguzalako danen izenean



asarrea agertzea, protesta andi bat. Beintzat, abereetatik apalenetakoa da astoa, mantsoenetakoa. Ondo artu ezkeru umea langoa izaten da. Ondarru'ko Belinda'k ederto ezagutzen ditu bere ongi-lleak. Bere adiskide abadeak urrunetik atzapar puntan gozorik erakusten badautso, laster joango da, gurdia atzetik dabela, karameloa aoan artzera.

Bear eben astoak euren alde norbait agertzea, merezi zituen goraltzak norbaitek egitea. Ta egundoko adiskidea agertu jaken: Juan Ramón Jiménez. Nobel Saria'ren irabazle olerkari ospetsua. Platero astotxoa ta biak lagun andiak ziran. Ta adiskidetasun au agertzen «Platero y Yo» izeneko liburu aitagarria idatzi eban, mundu guztira zabaldu dan liburu ospetsua. Juan Ramón Jimenez'ek bere liburuan astoarentzat irabazten daben aintza ez da galduko abere orreik egin leikezan arrantza ta garra-garra guztia-gaitik.

Ta zelan diran gauzak! Urruzuno'tar Pedro Migel abade euskal idazleak, orain urte mordoia idatzi eban asto ipuin bateri «Asto plauteroa» izena ipiñi eutsan. Ia-ia Juan Ramón'en astoaren izen berbera.

Amaitzeko. GOIZ-ARGI'ren irakurle baserritarrak, astoari ainbeste gorapen emoten dauksan au berau be naikoa asto izango dala ez dabe esango?

*GOIZ-ARGI Ilbeltza-1967*

## **KANPAIA**

Ez da ain bearrekoa kanpaia gaur egunean. Orain, batez be erri andietan, elizkizunetarako bakarrik joten dira kanpaiak. Baiña le-nagoko denporetan guztiz bearrekoa zan, gizarte bizitzan bearre-netako tresnea zan kanpaia. Danerako erabilten zan, erriari jakin eragin bear zan guztia kanpai bidez zabaltzen zan, batzar guztietara kanpaiagaz deitzen zan. Sua zala erriari adierazoteko, edo eka-

txa gaiñean zala barria zabaltzeko larri-larri kanpaia joten zan, dinbi ta danba, bizkor eta gogor. Arraiña saldu edo beste edozer salerosketarako be kanpaia. Gure Jauna gaixoren bateri eroan eta norbait iltamuan egoala edo il zala erritarrak jakin eien kanpai otsa zabalduko zan, durundi goibel eta lodiz. Baita alba, eguerdi ta illuntzeko Abemaritakoetan be kanpaia, Aingeruaren Barri Onak otoitztuteko ta illundutakoan Garbitokiko arimen alde otoitz eske; ta baita gudara deitzeko be. Ta jakiña, kristiñauai elizara deitzeko batez be joten da kanpaia.

Izan be, kanpaiaren lenengo zeregiña, bere egiteko nagusia, orixe da-ta: Zeru-lurren egille dan Jaungokoari otoitz egiteko kristiñauoi elizara deitu. Orregaitik kanpaiak, bereziki, elizea da-be bere tokia, kanpantorreak dira bere tokirik egokienak. Bai, elizetatik kanpora be kanpai banakak ikusten dira, kanpaitxoak, txiliñak geienetan.

Kanpaiak iru-lau izen ba-ditu euskeraz: eskilla, joale, kanpai, txilin eta abar.

Kanpaiagaz erriari gauza asko jakin eragin bear izaten dalako joaldi bakotxak bere esanaia dau; antxiñako «morse» dirala kanpaiak esan daiteke. Zeregin batzutan kanpai andiak erabilten dira, beste batzutan txikiak, urrengoan bizkor erabilten dira ta beste batzutan astiro.

Kanpai aldiak euren zeregin desbardiñai dagokien izenez eza-gutzen dira: albakoa, ume txiliña, (umeen obiratzekoari Onda-rru'n) abemaritakoa, arimena, abade deia abadeak enterrurako elizatik urteten diranean joten dana, elizakoak edo gaxoai Gure Jauna eroateko dana ta abar.

Kanpaiak barri guztiak, on eta txar, emoten dauskuz ta bere otsak danetariko sentipenak biotzeratu. Larunbat arratsalde edo jai aurreguneko kanpaiak, biaramoneko jaia gogoratzeko joten dauskuezan kanpai zaratatsu alaiak, il kanpaiak baiño poz geiego emoten dauskue.

— Ixo— esaten dautsagu gugaz jardunean diarduanari, il kanpai otsa gure belarrietara eldu orduko— ixo, il kanpaia joten asi da-ta.

Ta joaldi guztia amaitu arte ixil-ixillik egongo gara; ta azkenean joten dituan danbadak zenbatu, ildakoa gizonetzkoa edo اندازkoa izan dan jakiteko. Danbada bi joten baditu, ildakoa emakumea izan dala esango dogu ta iru joten baditu, gizonetzkoa izan dala.

Gure errietako kale zar estuetan, emakumeak, il kanpaia entzun orduko balkoietara urtetan dabe ta zeifena izan ete dan itaunka asi. Denpora asko baiño len jakingo dabe.

— Gizajoa! Danok dogu zerbait eta arek be akatsen bat izango eban, baiña ez zan txarra.

Ta ori edo olango zer edo zer esanda, Aita Gure bat errezauko dabe ildakoaren arimearen alde.

Gaur, zarren batzuk izan ezik, oitura eder au baztartu egin dogu. Ildakoaren arimeagaz gitxi gomutaten gara orain.

Baita Abemaritakoa jotean be egiten eben otoitz gure gurasoak, egozan tokian egozala. ¡Zenbat bidar ikusi doguz gure arrantzale zarrak itxasoari begira edo alamedan kontu-kontari egozala eguerdiko Anjelusa entzutean, txapela kendu edo eskuagaz buruan lepo aldera atzeratuaz, buruko ule zuriak edo soillak agirian zituela Agur mariak aopean otoitztuten.

Ondarrabia'ko erriko legeetan, 1530'garren urtean idatziak, au irakurten da Azkue'k diñoanez.

«Ez daiteala ziñegotzi edo kontzejalen batzarrik egin orretarako kanpairik jo ezik; eta kanpaia jo barik batzartuko balitzaz an artutako erabagiak ezer ez daijala balio ta iñok ez daijala aintzat ar-tu.»

Kanpai entzutetsu asko dagoz munduan. Onetxek dira kanpairik andienak:

Errusi'n Kremlin'en dagoana, 50.000 kilokoa, Londres'ko Aldun Etxekoa 25.000 kilo dana ta Toledo'ko katedralekoa 17.000 kilokoa.

Santiago Compostela'ko eliza nagusikoak be ederrak izango dirala uste izatekoa da. Beintzat, moruak, España menperatu ebenean eliza aretako kanpaiak artu ta kristiñauen lepoetan Granada'ra eroan zituezan.

Jakiña, españiarrai ez jaken ori aztu ta andik iru-lau gizalditara aprikarren menpetik burua jaso ebenean, bardin jokatu eben eura-kaz: moruen lepoetan ipiñi ta Santiago'ra biurtu zituen kanpaiak.

Azkue'k EuskalERRIAREN Yakintza bere liburu ederrean diñoanez, aldi baten Arrona'ko umeak buruko miña ebenean Ondarru'ko Antigua'ko elizara eroaten ei zituen eta kanpai barruan burua sartu ta kanpaiari eragin,aren durundiagaz osatzen zirala-ta. Osatzen ziran ala ez ez dakigu, baiña gortuteko besterik ez eben bear gizajoak!

Zer ikusi andia dauko kanpaiak euskal edestian. Kanpai otsera urreratu zan Baltategi'ko Errodrigo'txo artzain gaztea Aloña mendiko arantza artera. ¡Ta zer ikusiko ta Andra Maria, Arantzazu'ko Ama Birjiña antxe arkitu! Ederto esango dau kontu au Salvatore Mitxelena olerkariak:

Baltategi'ko Errodrigotxo  
zorioneko artzaia:  
ik entzun uan lenengo aldiz  
zeru deiaren kanpaia;  
Zori oneko kanpaia eta  
zori obeko artzaia.

Talan talan  
Aloña'ren maldan  
Zeru bera ari zan  
deika kanpai artan

Ta kanpai otsera agertu zan Ama Birjiña a Euskal Erria'ren-  
tzat zorion bidea izan zan; anaien arteko gudeak amaituaz bakea  
ekartera etorri zan-da.

Mitxelena'k bere Arantzazu-Euskal Poema izeneko poema zo-  
ragarrian esaten dauskunez:

Zorioneko kanpaia ta  
zori obeko artzaia  
Zori onena zuk, Euskalerri,  
ba-dator zure garaia.

Askok kanpai ots ederra ezin izaten dabe gogo onez entzun  
zaratea bailitzan, eliz durundia dalako-edo.

Baiña euskaldun geienoi kanpai soifua atsegin jaku ta alan  
izaten luzaro jarraitu daigula.

*GOIZ-ARGI Ilbeltza 1967, 85' gn*

## **APOLO'REN IRETARGIRA JOATEAZ ZERBAIT**

Paper batzuk arakatzen niarduala aldi onetarako ondo datorren  
zerbait arkitu dot: Errusi'k eta geroago Ipar-Amerika'k jaurti zi-  
tuen lenengo trepeta edo sateliteen barri emoten eben idazlanak.

Danera oituten gara ta orain garrantzi gitxi emoten jako sateli-  
teak aifera jaurtiteari; gaur, izparringiak, trepeta txiki baten barri  
emoteko ez leukee izki andirik erabiliko. Baiña orduan ots andi-  
ko barria zan. Gaiñera jazoerak jazo ziran lez jazota zer esan an-  
diago ipiñi eben.

¡Izan be gogorra izan zan a ameriketarrentzat! Satelitea bota  
bear ebela asteak aurretik mundu guztira bolo-bolo barria zabal-  
du, jazoera ori izan bear zan egun, ordu ta miñutuak be iragarriaz.  
Ta egun aren zain gengozala, errusitarrak aurea artu, aurretiaz  
orrezaz txistik atera barik, ixil-ixillik. ¡Alangorik! Goitik zear

munduari biraka ameriketarren satelitea ibilli bear zalakoan, eta bera bakarrik gañera, errusitarrenak aurrea artu.

Baiña ori ez zan izan okerrena ameriketarrentzat. Gero eurena jaurtiteko ordua eltzean, gure jaietako bolanderak (etxapleroak) baiño gorago igon ez ta lurrera ¡plaut! jausi, ainbat zer esan emondako trepeta, begira egozan jendearen aurrean. ¡Alango lotsagarrikeriarik! Ameriketarrei ezkerreko begiagaz begiratzen eutsenentzat irribarre bide aukera-aukerakoa izan zan. Prantziskotar Irugarren Ordenakoentzat ataraten eben ANAITASUNA aldizkari-ko aita prantziskotarrak naikoa adarra jo eutsen.

Ara zer ziñoen euren aldizkarian 166 eta 168'garren zenbakietan:

«Rusoak bota! Ona sarkaldeko erriak bildur-ikara batean jarri dituana: rusoak bota dutela, alegia. Batez ere Norteamerikarrak bildurtu edo kikildu, ezpaizuten uste noski rusoak gauza oietan ain aurreratuak zaudenik. Eta orain dira istilluak! Zer uste zenuten bada? Mundu guztia zuei begira ta zuen zai egon bear zuala? Zuek itz bat esanda, mundu guztiak bereala «amen» esaten egon bear duala? Mundua Norteamerikako jauntxo oiezaz aspertzen ari dala esan leike. Askotan burugabeak eta iñuxentegiak bait-dirudite... Berak ere aspalditik ari dira «satelite» berria egiten; aspalditxotik entzuten genien au ta ori egiten ari zirala, alako illean botatzeko asmoa zutela-ta. Baño azkenean rusoak aurrea artu. Au bai matrailleko galanta artu dutena! Arpegi arpegian emana gañera!»

«Parre egiteko ere ba-da. Ipar-Ameriketakoak –munduko jauntxoen artean jauntxoena– egun auetan beren illargitxoa zeru-goietara botatzekoak ziran. Ortarako, iñungo periodiku ta radioetan aurretik iragarria zuten noiz ta nola ta zein ordutan eta zein miñututan botako zutela. Mundu osoa zai zegon. Zai, zai, zai! Eguna etorri zan... eta egualdi txarra, alajaña! Botatzerik etzegotata urrengo egunerako utzi bear izan zuten. Badator biaramona –biaramonak beti egun txarrak, alperkeri egunak –eta badijoaz

noizpait zorioneko illargitxoa botatera. Bat, bi, iru.. ta iñungo dunbadarik aundienean or dijoa illargitxoa, gora joan bearrean, beera, lurrera, kea besterik ateratzen ez duala. Ta, parregarrienen parregarri, «bip...bip...bip» etengabe kantatuz lur jo ere. Orrelakorik! Ortarako alako Propaganda? Ortarako ainbeste istillu? Ortarako «Vanguard» edo «Aurreneko» izena jarri illargitxoa gora jaso bear zuan itxaperoari?...»

Baiña ameriketarrak galtzen ere ba-dakie ta orduko euren porrota gora-bera gogotsu aleginduaz, lenengo eldu ziran elburura, ta iretargian, mundu guztikoen begien aurrean, ameriketar ikurriña sartu. Mundua mundua danetik azañarik andiena. Ta arrezkero nai dabeen guztian nai dabeen lez joan dira iretargira, gu Aizkorri edo Gorbea'ra baizen errez.

Zer esaten dabe orain ANAITASUNA'n ameriketarrak ezin oinperatuta jardun eben praille areik?

Gu, beintzat, Ipar-Amerika'ren egite arrigarri orreik goratzeko besteai irrik egitera ez goaz. Errusi'k, iretargira lenengoi eldu ezin izan danean ara joateari itxi egin dautsala dirudi. Baiña berak be aireko joku orretan gauza andiak egin dituana danok dakigu: Lenengo izan zan satelitea jaurtiten, gizona tresnatik kanpora airean erabilten, trepeta edo sateliteari iretargi inguruan ibilli eragiten. Aireko geltokia be orain arte eurak bakarrik ipiñi dabe. Ta geratu barik jaurtiten diarduen trepeten bidez makiñabat jakingarriren jaube egingo ziran.

Bai; Errusi'k be asko egin dau aireko joan-etorrietan. Baiña ni ez naz asi Ipar Amerika ta Errusi alkarren ondoan ipiñi ta zein geiago ta zein gitxiago izan dan agertu naian eta gitxiago oraindik, bat jasoteko bestea oinperatzen, ameriketarren aurka edozer esateko gitxi bear eben idazle arein errezoirik eza agirian jarten baiño.

*GOIZ-ARGI 158' garren zenbakia*

## ZENBAT BIDAR BIZI BEAR DAU GIZONAK?

Gaur ez dago ezer arrigarririk gizonarentzat. Gauzarik miragarrienen barri egunerokoak emoten dauskuela oitu gara ta eziñik ez dagoala iruditen jaku.

Orain arte gauzarik andiena ildakoari bizia emotea zala iruditen jakun. Jesukristo'k, lurrean bizi izan zanean egin zituan miraririk andienetatik andiena Lazaro ta beste batzuei bizia biurtzea izan zala esaten dogu. Orain, gizona biztutea laster egin al izango dan gauzea dala esaten asi dira osagilleak. Orretarako ildakoa otzetan kontserbau bearko da, eriotzea ekarri dautsan gaixotasuna osatzeko osakaia edo bidea arkitu arte.

Amerikatarrak saldu-erosietan mustur luzea dauke ta emen be zerbait usain artu dabela dirudi. Frigorifika andietan euki bear ei dira gizonak, bizitzara biurtu al izango diran aldirarte. Ona emen asmaketa polita frigorifika egillentzat. Etxe guztiak tresnaz bete dituenean beste sal-bidea atara nai dabe euren negoziua bapo joan daitean. Beartsu koitaduontzat datoz emen istilluak. Len be etxekoren bat iltean letania baiño luzeagoa izaten dan kontua ordaintzeak naiko buruko min emoten dau. Ta gero frigorifikearena geitzeko.

Egia esan, ildakoa olan edo alan kontserbatea ez da oraingo kontua bakarrik. Makiñabat mamu zar atara ditue lenago be, Faron'en denporetakoak, Ejipto'ko illobietatik. Jakiña, orain obeto egiten dira gauzak. Orain Ameriketatik-eta, ekarten diran legatzak baizen presko egongo dira gizonak il eta urte askoan be.

Baiña, (ta asi gara baiñaka) gizona mundu onetarako biztutea komeni al da bada? Itaun oneri ezin daikegu erantzun zuzenik emon; baiña naikoa buruauste sortuko dituala ta nago. Ilten diran guztiak nun gorde ainbeste urtean? Etxeetan ez beintzat, metroko milla laurleko asko ordainduta egiten diran etxetxoetan bizi garrantzat be leku asko ez da izaten-da.



Kanposantuak or dagoz, baiña kanposantu bereziak bear-ko dira, tresna ta makifiaz beteak. Ta ildakoak be sailletan gorde bear-ko dira; emen naparreriaz ildakoak, an biotzeko gaixoa izan ebe-nak, aruntzago minbiziagaz il ziranak eta abar. Alan be nun tokia egin ainbeste ildakorentzat?

Ta ez ori bakarrik. Asko ta asko ilda be, ezin kabidu gara munduan. Gaurko buruausterik andiena auxe da izan be, ia nun sartuko dan jendea emendik berrogetamar edo eun urtera. Ta, ori dala ta jaiotzak neurtzen asi dira munduko zenbait tokitan. Ta orain ostera, ildakoak etorriko jakuzala etxeko jan maian jarrile-kua artzera edo autobusean edo zinean arrapataka guri tokia ken-tzera? Gaiñera, uste al dogu, berrogetamar edo eun urte ilda daro-aguzala ezagutzen ez gaituen gure billoben billobak gu biztutea nai izango dabeela? Ta ildakoak eurak be ez dot uste barriro mun-duratzetik nai izango leukeenik. Nik neuk ez beintzat. ¡Ni barriro mundu guzurti onetara biurtu, nekepean bizia igaro ta ostera be eriotza gogorra ikusteko!

Ez, ildakoai bakean itxi deiogun. Ildakoai, bakea ta otoitza. Ta ildakoak eurak be bakerik ez deioela galdu bizi diranai.

Latiñez ez dogu ikasi baiña gaurko idazlan au olantxe amaitu-ko dogu:

Bai an eta bai emen  
Requiescant in pace.

*EL BIDASOA*

Nire oraingo oarra: Ez neban kontuan artu idazlan au noiz ar-gitaratu zan, aldizkari orretan agertu ziran beste lanen bat edo besteren antzera, baiña edozelan be, gizona iretargira joan baiño lenagokoa dala argi dago.

## ¿BA DIRA AIREKO OVNI ORREIK?

Gu umeak giñanean munduaren azkenagaz istilluak izaten ziran. Olango izarra bustana atzetik ebala ikusten zala edo alango beste zerbait goietan ikusten zala ta orrek munduaren azkena iragarten ebala. Ta naikoa zer esana izaten zan.

Gaur ez dago olango ipuiñik; baiña ipuiñik ez da palta. Bear bada len baiño geiago dabil gure egunotan. Ta euretako bat, lengoan «aireko platilluak» izenez deitzen asi ziran eta gaur «ovni» izen barria sortu eragin dabeen orreik dira; beste mundutatik etorten dirala askok diñoen tresna orreik.

Ez da gitxi idatzi ta berba egin gauza onezaz. Millaka dira ovni orreik ikusi dituela diñoenak. Jakiña, geienetan emendik urrun ikusi izan ditue, Ego Ameriketanda. Ta guk urruneko jazoerak ez doguz aintzat artzen, arako esaera zarra buruan dogulako edo: «Urruneko intxaurrak amabost, urreratutakoan bost eta eurak ozta-ozt. Baiña urrerago be ikusi ditue, España'n be bai. Guk baiño begi argiakoak izan, kontixu!

Aspaldi ez dala gizon birek jardun eben gai onezaz telebisiñon. Ez ziran edozein; eskolauak zirudien. Ovni kontuan jakintsuak zirala esan bear dogu. Biak itsu-itsuan sinisten dabe beste mundutatik etorten dirala esan oi dan tresna orreikaz. Beno, itsu-itsuan ez, olan egitea, orretarako legokezan errezoi barik sinistea litzaketa. Dirudianez, jaun bi orreik errezoi ugari ikusten dabe. Auzia barru-barrutik sentiduten dabe, buru-belarri bertara jarriak dira. Liburuak idatzi, izparringietan be bai, berbaldiak emon. Gizadia zerura bidean ipiñi nai daben elizgizona baizen gogotsu; edo langille ta beartsuen munduko bizitzea erosotu nai daben sozialista jatorra lez diardue artu dabeen egitekoan. Ori be ez da arritzekoa, edozer zorakeriak, edozer aldrebeskeriak, aldezte sutsuak ditu-ta.

Ez diñot ovni kontua zorakeria danik. Alan be, orrenbeste arduragaz artzekoa danik ez dot uste. Niri ovni orreik ez dauste lo-rik galduko. Ba-dirala? Ez dirala? Bardin jat nai batera nai bestera

izan. Ni ez noa orreizaz idatzi dan libururik eroatera ta emongo baleuste be ez neukeala irakurriko uste dot, tebeo, nobela ta olangoen irakurle sekula ez naz izan-da. Baiña naiago neban jaun orreik errazoiak emon balitue telebisaiñoan izan eben jardunean. Itza ta pizza naikoa egin eben, baiña errezoiz txikienik be ez eben agertu.

Nire eretxia zer dan? Balio gitxiko nire errezoia auxe da: Ezetz; beste mundukorik onera ez dala etorri.

Ez diñot beste munduan bizidunik ez danik edo ezin leitekenik. Arrigarria izango litzake milloiz ta milloiz mundu izan eta gure onetan bakarrik izatea. Beno, zer ez da arrigarria izadian? Beste askoren artean arrigarria benetan gure mundu onetako millaka asko mota bizidunen artean gizona bakarrik buru argikoa izatea. Gizonik ez izatera mundua sasitegia besterik ez zan izango.

Bai; izango dira kontixu bizidunak diran beste mundu geiago, ta emendik iretargira joaten asi diran lez beste mundu orreitatik batera bestera dabiltzanak be. Baiña gu ez gaitu iñok ikertu. Batzuk esaten dabeen ovni edo danadalako traste orreik agertzen dirana egia bada ta gure gaitzean nai dabeen lez ibilli ta gero tximista lez aldendu, mundu onetakoak baiño askotaz aurreratuago dagoz. Ta orren aurreratuak badagoz, emen beso zabalik artuak izango litzakezala jakin bear leukee. Beste orreik mundu onek arduratzen baditu, ukatu eziña izango litzakean zerbait agergarri zegaitik ez dabe izten, gezna edo mezu bat zegaitik bialdu edo itxi ez?

*GOIZ-ARGI Epaila-1972; 147' garren zenbakia*

## **EGAZKINZALEAK ETA EGAZTIAK**

Orain 66 urte izan ei zan egazkintzearen jaiotzea. Ta edozer izaki jaiobarriren antzera ibillera makalekoa izan ei zan bere asieran. Lenengo egazkiñaren egakadea, gaurko atleta onen jauzkea,

saltoa, baiña asko luzeagoa ez zan izan, neurkin batzuk. ¡Baiña ordutik ona gorakada galanta egin dau egazkintzeak!

Gaurko egazkiñentzat mundu osoari birea emotea ume jokoa da. Egazkin andi ta indartsu ugari dagoz, nai jendearen aruntz-onuntzerako nai gudarako, bere izenez ezagun egin jakuzanak. Esate baterako prantzes eta ingelesen artean egin dabeen «Concorde» ospetsuak be tinta gitxi ez dau gasta eragin eguneroko ta aldizkarietan.

Orain beste andi bat egin dabe ipar ameriketarrek, 747 izenekoa. ¡Andia izan bear, benetan, bere erraietan eroso jarrita 500 lagun eroan al izateko!

Berazaz emon dituen argitasunetan ikaragarritzko zenbakiak irakurten dira. 1.400 milloie laurleko ei da bere balioa. Makiñabat erri izango dira Euskal Erria'n orretariko egazkin bakar batek aiña balio ez dabeenak.

Ez da baiña nire asmoa egazkin andi orren balioa argitu naia, beragaz zenbat etxe, zenbat beribil, zenbat olango edo alango lan-tegi edo zenbat lur erosi leitekezan esanaz. Ez; itxuraz aintzat ar-tzea merazi ez leukean beste zerbaitek idazten ipiñi nau.

Abereak gizonai serbitsu andia beti egin izan dautseela esan bearrik ez dago; sabel sorria ito, lepoan ara ta ona erabilli, zezen eta abarrekaz jolastu ta beste milla gauza. Ta beste milla gauzen artean, ikasketak egiteko «Indietako koneju» lana.

Ba-dakigu, egazkiñak airean noizik-bein egaztiakaz topo egin oi dabeena. Ta ori gogoan arturik olangoetan egazkiñai zer jazoko litzakien jakin naian, 747 egazkin orren arduradunak saiorik baka-nena egin dabe: egazkiñaren lau motorretako atalik makalenetara oillaskoak indarrez jaurti, egaztien danbadak ezer kalterik egiten eutsen ikusteko. ¡Basatikeri andiagorik!

Ez dabe esan eskuz ala izkilluz egin dabeen oillasko jaurtitea. Bear bada, balon-manoko jokalariaik eroan ditue saio orretara, ze-regin orretarako gazte orreik dira aukerakoak-eta.

Abereen begirale bazkunak ba-dabe emen euren asarrea eger-tzeko zioa. Ta sekula baiño geiago dabeela esango neuke gaiñera. Bikini'n ipar-ameriketarrak atomika bonbearen indarra neurtzeko, gizonen bizia arriskoa ipiñi nai ezda, ainbat abere saio inguruan ipiñi zituen. Eta errusitarrak, oraindik gizonakaz sateliteetan asi barik egozanean, tximiñoa sartu eben lurraren biran ibilteko jaurti eben orretariko tresna baten. Areik errusitarrak be, bizi bat gal-tzekotan, gizonarenak baiño aberearenak gitxiago balio ebala ta bialduko eben tximiñoa, kontixu.

Baiña abereen begirale diran bazkunak garrazi ederrik egin eben!

747 egazkiñaren saioak egiteko, ez zan bearrekoa oillasko edo beste egaztiakaz egitea. Egazkiñen edozein alderdi edo atal sendo dagoan ala ez jakiteko milla erataro jokatu leiteke. Plaztikozko edo nolabaiteko biotza gizonarentzat egitea buruan dabeenean, egazti itxurako zerbait egitea, luma ta guzti gaiñera, ez litzake zailla izango.

Egia, Asis'ko Prantzisko deunaren antzeko gitxi gagoz; arek lez abereak anaiatzat artzen dituanik nik ez dot ezagutzen. Baiña, iñok egaztiai maitasunik izatekotan, egazkiñen arduradunak izan bear leutsekeala uste dot. Egaztirik izan ez balitz zeñeri bururatu egazkiñak sortzea?

*GOIZ-ARGI Otsailla 1976*

## **EMAKUMEEN JANTZI ARIÑAK**

Gizakiaren lenengo jantzia zugatzaren orria izan zala ikusten edo irakurten da Biblia Jaungoikozko liburuan. Jaungoikoak de-bekautako sagarra janaz pekatuan jausi ziranean euren gorputzak billotxik ikusirik, urreen arkitu ebenagaz, estaldu eben estaltzekoa gure lenengo guraso Adan eta Eba'k.

Arrezkero, denporak zear eta an eta emengo errialdetan makiñabat jantzi modu ikusi izan dira. Jantzi apaiñak eta jantzi narrasak, abereen narruz egindakoak eta eunezkoak, udakoak eta negukoak, luze ta laburrak, milla eratakoak.

Euskaldunari beti atsegin izan jako ondo jaztea, beti edo aspalditik beintzat. Aita Larramendi'k bere denporetako gipuzkoarren dotore jazteko zaletasuna agertzen dau. Ez ei zan emen arlote asko. Beartsuenak be dotore jantzi bear, sabelari kenduta bada be. «Ederki apainduta zaude.» entzutea naiago ei eben aldi aretako euskaldunak «Oparo bazkaldu dezu.» entzutea baiño.

Gaurkooi bietara jakula atsegin esango genduke.

Gaurko mundu aurreratutako gizakiaren jaztea moda etxeak zuzendutakoa da. Geienetan, zeñek jantzi arrotzagoak atara ibiltzen dira moda etxeak, jendea eurai begira ipinteko emakumeak daukeen zaletasunaren barri ba-dakie ta.

Orain arte moda kontu au emakumeen arazoa bakarrik izan dala esan daikegu. Gizonak be beti ez dira bardin jantzi; gizonen jantziak be denporeagaz aldatzen joaten dira. Alan be, jantzi kontuak gizonoi lo gitxi galdu eragin dausku. Emakumeai ostera zer janak baiño zelan jantziak buruko min geiago emoten dautse.

Baiña gaurko gizontxoak emakumeen zaletasun orregaz jaubetuten asi dirala ikusten da. Orain gizonen jantzi erakusketak be asi dira. Baiña gizonen jantzi zaletasuna, emakumeena ainbat izatera elduko danik ez dogu uste. Ezta urreratu be.

Jantzien aldatzea sekula baiño geiago nabarmendu da gure denporetan, batez be emakumeen jantzien luze laburrean. Gaur oraindik bizirik dagozan andra zarrak gazteak ziran denporetan orkatillak arteko luzeak ziran emakumeen gonak. Ia arrastaka be erabilten zituen ta ibilli ebiltzala toki batzutan apur bat jasotako ardurea artzen ez baeben, gona barrenagaz kaleak garbitu be bai.

Gero apurka-apurka laburtzen asi ziran jantziak eta oraindik ez dira geratu. Eta ez dakigu noiz eta nun edo zein neurritan gera-

tuko diran; bada, abade ta prailleak be gauza oneizaz kurpitudik berba egitea laga eben ezkeru emakumeak ez dauke iñor euren jantzi kontuko lotsabakokerien aurka egiteko.

Gaurko jantziak, ortik zearko alderdi askotan, minifaldak dira, andrakilleten edo panpiñen jantziak. Egia, orrek be ba-dauko alderdi on bat: oial edo eun gitxiago bear.

Gu gazteak giñanean, aurreko denporetatik jantziak asko laburtuta egozan da, abesti au abestuten genduan:

Hay que ver, hay que ver, hay que ver  
la ropa que hace un siglo  
llevaba la mujer.  
Creo yo, creo yo, creo yo  
que de las faldas aquellas  
salen lo menos dos.

Gure amonen gazte denporetako gonakaz gu gazteak giñanean, gona bi egin al baziran, oraingoak lau be egingo litzakezala esatea ez da geiegi aoa zabaltzea.

Baiña, oraintxe, gona laburtzeari, itxi bearrean arkitzen dira, bestelan gaiñeko jantzi barik geratzeko ez dabe asko palta. Ta ori ez; orrenbestera ez dira elduko. Jantziak gorputza estalduteko bakarrik sortuak badira be, emakumeak gauza guztiakaz artea egiten dau ta jantziak ezer baiño egokiagoak ditu orretarako.

Bear bada laburtu ezin dituanen luzetzen asiko da. Geldirik edo beti batean ez egotea da kontua. Itxasoko mariak lez gora ta bera, sekula be ez batean.

Dana dala, minifaldakaz jazteak emakumeen kontua bakarrik izaten jarraitu daiala beti, ez gizonena be.

*GOIZ-ARGI Abendua 1966*

Oraingo oarra: Nire izen barik agertu zan idazlan au.

## GIZONTZARRAK ETA GIZONTXOAK

Danoi, edozein sailletan, andi izatea jaku atsegin. Andikien aurka berba egiten dogu, baiña kiniela ta loterian jokutzen dogu. (Egia esan, nik neuk ez asko.) Goikoa izan nai genduke, diruz ezin bada agintez edo al dan moduan. Abadeai gotzain izatea atsegin izango jake; guri, besterik eziñean, gure erritxoetako alkate edo jolas alkarteren bateko lendakari bada be bai.

Ta gorputzez be andia izatea nai genduke. ¡Bai orixe! Albokorari goitik bera begiratu al izan. ¡Zenbat kezka izaten da pamilietan seme-alabak txiki geratuko diran buldurrez. Ta or ibiltzen gara, kezka orrek eraginda, sukaldeko orman baztartu eragiñaz eskoba kirtena buru gaiñean jarrita euren luzerea neurtzen. Ta alan naita, azkenengo neurtu alditik asko azi dirala esaten dogu beti.

Orain urte batzuk dirala izparringian irakurri genduanez, Mao Tse Tun'en emazteak ginasia egin eiela agindu eutsan txinatar gaztediari, europarren alboan txiki geratu ez eitezan.

Txakurrai, azi ez daitezcan, ospin edo binagrea emoten jakela iñoiz entzun izan dogu, baiña gizakiak azi edo anditu naian ezer olakorik artu izan dabenik ez.

Emendik aurrera kezka oneik iñori buruko miñik ez dautsoela emongo dirudi. Mundu guztiko osagilleak oraintsu Italia,n egin dabeen batzarrean esan dabeenez laster ez ei da geiago txikirik izango; ipotx edo enanorik ezelan be ez. Guztiak nai dabeen aiña aziko ei dira, nai dabeen luzerea izango ei dau gizakiak.

Gaurko aurrerapenak gauzarik arrigarrienak lortzen ditu ta au be jazo leitekeana da. Baiña ta komeni al da ori? Lenengo gatxa, Errusi ta Amerika'ren gaur eguneko izkillu lasterketearen antzeko zein geiagokea sortzea izango litzakeala uste dogu. Bat andia, bestea andiagoa. Orretarako litzakezan pastillak istimaziño ederra izango leukee. Bear bada estraperloan erosi bearra izango litzake ta guk beargiñok ezingo giñake orretara eldu. Baiña ez; aspirina baizen merkeak izan daitezala pastilla orreik. Ta alan be bakerik



ez litzake izango. Gizonak bere luzerearen neurria bere eskuan izan ezker, ¿nun geratu?

Gobernuak lengo kezka ta buruaustiaz gaiñera beste au euki-ko leukee ta ez txikia. Ta beste milla kontu dirala ta batzen diran lez an edo emen batzarrean batu bearra izango leukee munduko Laterriak. Jakiña, beti lez, danak batera etortea zaila izango litzake. Orduko, metro bitik gorako gizon ugari izango litzake ta gitxienez neurri ori artu bearra litzake gizon guztien neurritzat. Beno, gizon eta andreentzat, orduko oneik be danean gizonen maillara elduko litzakez-eta.

Lege ori bete eragiten izango litzakez kontuak, deskuiro itzurea eginda besteak baiño andiago egindakoak be agertuko litzakez-da.

Baiña istillu gogorragoagorik be izango litzake. Gaur egunean munduko gizon asko txatxarrak (kaxkarrak) izanda be or gabiltz estu ta larri gizadiari goserik ezin kenduta; ta gero zer? Sabelak geiago eskatuko leuke, geiago bearra litzake jazteko, (beno, andrazkoagaitik ez diñot au, oneik, udan beintzat, gauza gitxi bear dabe ta) oiak andiagoak, oiñak atze aldetik dindillizka eukiteko oiturea sartzen ez bada, etxe sabaia gorago, aulkiak sendoago, oiñetan Charlot'en antzeko zapatatzarrak eta dana olantxe.

Ta guztia prootxu barik. Urte asko baiño len, guztiak bardiñak ikusten oituta, euren buruak anditzat ez leukeez eukiko.

Bear bada, gizaki anditze ori lortzen geien egindakoari Nobel saria emongo leuskioe.

Nik onetan beste guztiakandik bestera uste dot. Gizona anditzea baiño txikitzea obe dala. Ez da gizon andirik eta txikirik beste norbaitegaz edo zerbaitegaz konparau ezik. Gizonik andiena be zer da bada urrunetik begiratuta? Zer da gizona danik andiena be Aitzkorri'ko puntan, urrunetik begiratuta?

Gaur edozer lanetarako makiñak dira ta gizonak ez dauko andia edo indartsua izateko premiñarik. Gorputz aldetik begiratuta

naikoa dau osasuntsua, sendoa ta itxura onekoa izatea. Gizon txikia buru argikoa izan leiteke ta txikia izanik, bere gorputz premiñak betetera errezago elduko litzake.

Nire ustez, gizon aukerakoa, neurkin eta erdikoa izango litzake. Ori bai, sendoa ta itxura onekoa izan daiteala. Ta batez be danak bardiñak izan daitezala. Bestelan, noizbait bost neurkin edo metroko gizonak izatera elduko balitz, orduan lau neurkiñekoak txikiak izango litzakez edo txikitat artuko leukeez ordukoak.

Orixe; metroterdi inguru neurri egokia gizonarentzat.

*GOIZ-ARGI Urrilla 1968*

## **LAN EGUNAK GEITU EGIN BEAR DIRA?**

Parkatu deidela irakurleak ondorengo mordoillokeria. Deunak «kapakaidan» doaz azkenengo urteetan. Len etxeetan deunen lauki andiak ormetan dindillizka egoten ziran; Joseba deuna, Andoni deuna ta abar. Orain olango lauki edo kuadrarik iñun ez da ikusten. Egutegietan be egunen zenbakiak danak deunen izenakaz etorten ziran. Gaur ia miraria da deunen izenak dakarrezan egutegia arkitzea.

Irudi lizuna bai ugari! Ainbeste on egiñaz bizitzea igaro ebe-nak baiño lau-bost bidar ezkontza austeia egin dabeenak edo dibortziatu diran zineko artistak edo antzekoak obeto ikusten dira gaur. Oraingo deunak, artista ta abeslari barrizaleak dira. Elizetan eurentan be atzeruntz doaz deunak; eliza barrietan beintzat deun gixi ikusten da. Abadeak eurak be deunak ez dituela gogoko esan daiteke.

Ta orain errematea! Ortik kalte andiak datozala ta deunen egunak kendu egin bear dirala esaten edo idazten jendea asi da. España'n (eta bere menpeko lurraldeetan) aste barruko jai geiegi ei dagoz. Ta jaiak dirala ta bide sortu diran zubi izeneko egunak

geituaz, iñun baiño lanik bako egun geiago ei dago. Ortik zear irakurri dogunez, 143 egun ei dira urtean jai egiten doguzan egunak.

Egia, ez da gitxi alan bada. Zenbakietan, matematikan, ez ei da utsik. Baiña nik uste dot orretarako diran tresna aurreratuenak be (elektroniko konputadorak; ta parkatu barriro be) zelango zeatzatasunak eurai emon, alango ondorena emoten dabeela. Ni beintzat, igande, jai ta urteko opor egunak danak zenbatuta 85 egunera ez naz eltzen. Astean 48 ordu lanean egin eta larunbat arratsaldeko atsedengaitik lanik bako eguntzat ez dogu au zenbatuko. Ta ezta beste egunetan lan ordu geiago sartuta kitoten edo errekupe-raten diran deunen egunak be.

Ara nire kontuak:

Igandeak	52
Kitotzen ez diran jaiak	8
Erri jaiak	3
Opor egunak	20
Guztira	83

Nik ez dot zubi egunik egiten, baiña eginda be kitoten badira lanik egin bako eguntzat ez dira artu bear.

Beraz, nun dira lanik bako 143 egunak?

Zubi egiten diran egun baktxean zazpi milla milloi laurleko-ren kaltea izaten ei da. Zenbaki orreik zelan egiñak diran jakin nai neuke! Orratio, egun orreitan izaten dan kaltearen zenbakia España'ko bizilagunai banatzea balitz baktxari laurleko asko ez litzakigu elduko.

Deunen egunak dirala ta zubi egun asko egiten dala? Mende asko zear deunen jaiak egin izan dira baiña orain arte ez zan zubirik. Beraz, lanik egiten ez dan egun asko sortu badira kendu as-mau barriak diran zubi egunak eta bakean itxi mendez mende ospatzen datozen deunen egunai.

Erlejiño ikuspegitik begiratuaz ez nabil deunen egunak zaindu naian, euretan kristiñautasunari dagokion gauza gitxi egiten da-ta. Baiña deunen egunak larunbatera edo igandera aldatu daitezkezala diñoanari, ori egitea jai orreri lurra emotea litzakeala erantzungo dautsat.

Bai, deunen egunak kentzea eskatzen dabeenak ekonomia aldetik begiratuaz eskatzen dabeela ez da ezpairik. Europa'ren mailan jarri bear ei gara lan egun kontuan. Ta irabazi kontuan zer?

Lan barik ez dago aurrera egiterik, bai, egia da au. Baiña zubi egunak kenduta alde gitxi egongo da gure ta Europa'ko lan egunetan. Guk deunak jai egiten doguz eta arek guk baiño opor egun geiago artzen ditue. Gaiñera aurrerabideari eskerrak, lan orduak gitxitzen doaz edonun; ain zuzen, España'ko Langille Batzar Buruak lan orduak gitxitzeko eskatu dau egunotan «atrapau nai gendukezan errien parean, gaurko egunai dagokien eran eta langilleari benetako atsedena ta jakitea emoteko moduan jarriaz.»

Alde batetik lan orduak gitxitzeko eskatzen eta bestetik lan egunak geitzeko. Zoratuta gabiltzala dirudi.

*AGUR 61' garren zenbakia*

## NEURE ERRIKO KONTUTXUAK

### ONDARRU ALA ONDARROA

Gaurko onetan eztabaidatxu bat ipiñi naian nator; geure erriaren izenari buruzko geu ondarrutar idazleon arteko eztabaidea. Baiña bakezkoa izan daiteala, gero?

Euskeraz ederto idazten dakien asko dagoz Ondarru'n eta eurai zuzentzen dautset dei au: Zubikarai'tar Agustin, Atxukale, Azpiritarrak, Arantzamendi'tar Juan, Olea'tar Andoni ta abarrei. Atxukale jaiotzaz ondarrutarra ez izan arren gure erriko auzi ta eztabaidetan sartzeko eskubidea ondo irabazita dauko.

Nik, auziari asierea emonaz neure eretxia agertuko dot; ta besteak be, luzeago edo motzago, zerbait idaztea nai neuke.

Uste dot, España'ko azkenengo gudate arte gure erriko bariak emotean ONDARROA ipinten genduala izen burutzat. ONDARRU idaztea, geienbat, gudate ezkerokoa dala esango neuke. Gure erriaren izen jatorra ONDARROA dala ukatu eziñekoa da. Jakiña, denporeagaz, beste edozer lez, izenak be aldatu egiten dira. Gaurko ZARAGOZA jatorriz, CESAR AUGUSTA, zala iñoiz

irakurrita nago. Ta, aspaldiko izen modu orretara biurtu bearko litzakeala Ebro ondoko uri andi orren izena ez dogu esango. Baiña izenaren aldatzea edo okertzea aspaldikoa ez danean, jatorrizkora biurtzea, oker bat zuzentzea dala esango neuke.

Polita da gero gure jokabidea! Erderaz diardugunean izen jatorra emon oi dautsegun zenbait errirei, euskeraz, izen okertua emoten dautsegu. Erderaz BILBAO, ZESTONA (CESTONA), ARRONA, ONDARROA ta abar; eta euskeraz BILBO, ZESTUA, ARRUA, ONDARRU ta abar. Nire ustez izenen okertze au asko erabiltetik dator. Apur bat urrunekoentzat ARRONA ta ZESTONA diran erriak bertan ingurukoentzat ARRUA ta ZESTUA dira.

Gure erriaren izena len euskeraz zelan idazten zan jakin nai badogu, antxiña-antxiñara jo bearrik ez daukagu, gure erria aitaizen daben euskerazko antxiñako idazki gitxi arkituko doguz-da.

Baiña mende onetara sartu baiña len, Agirre'tar Txomin erri-tar idazleak ONDARROA idazten eban. Ta olantxe baita be Azkue'k eta ia erritar genduan Izurrategi'tar Juan abadeak «Jerusalem'go Osterea» bere liburutxoan. Ta orain irurogetamar-larogei urteko ondarrutar bertsolarien bertsoak irakurten badoguz ONDARRU baiña ONDARROA askotaz geiago idatzita ikusiko dogu. Geroago, 1925-1926'garren urteetako estropadak zirala ta ataratakoko bertsuetan lenengo esateko erea, (ONDARRU), indartu egin zala oartuko gara; baiña orduan be ONDARROA edo ONDARRUA naikoa idatzi zan.

Ta, BOGA-BOGA gure abesti ospatsuan zelan esaten dan ez gara aztu bear.

Baiña beste kontu garrantzitsu bategaz be gogoratu bear gara auzi oneri erabagi zuzena emoteko. Gure erritar, au da, ondarrutar berba egitean ONDARROA berbeari egiten dautsagun moztutea, beste berba askori be egiten dautsegu; O izkiagaz amaitzen diran berba guztiak artikulua artzen dabeenean orixe berori jazoten da;

«astoa», «artoa», «zuloa» ta abar idatzi bearrean «astu», «artu», «zulu» ta abar idatzi bear al doguz berbetan esaten doguzan lez? Bada berba oneik eta beste asko be ONDARRU berbearen kasu bardiñean arkitzen dira. Ta legea danentzat bardiña izan bear litzakeala uste dot.

Nik ementxe amaitzen dot. Neure eretxiaren alde bururatu jatazan errezoirik nagusienak agertu ditut. Nik ONDARROA idatzi bear litzakeala uste dot. Ta besteok, adiskideok, zer esaten dozuen zain geratzen naz.

*AGUR 14-9-1974, 151' garren zenbakia*

## **TXORDO KALE GARBITZAILLEA**

Euskal literaturan lendik be ezaguna da kale garbitzaillea, Bilingual Donostia'ko zaldi zar baten bizitzeari atara eutsazan bertsoetan aitatu ebanetik.

Orra sei bertso kale  
garbitzailleari  
zeña bere izena  
dan Jose Mari  
erreza lezazkike  
iru Ave Mari  
indarra etortzeko  
zaldi zuriari,  
animali ori  
urriki zait neri,  
falta du ugari  
egoteko guri,  
kartoiakin egiña  
dala dirudi.

Geuk be gaur, beste kale-garbitzaille bat dakargu aldizkari onetara: Txordo ondarrutarra.

Gaszte denporeak iges eginda eukan, berrogei urte ba-eukazan gitxienez eskobea eskuetaratu ebanean. Beti beartsu izatekotan liorretik jokatzea obe zala ta ainka egin eutsan itxasoari, emengo gudea amaituta laster. ¡Ez eban errezoi gitxi!

Arrezkero sekula ez dabela oiñik itxasoan ipiñi jokatuko neu-ke. Ez da berak ardandegian jateko izatekotan be ez litzake itxa-sora joango txibi, kraba edo beste ezetara. ¡Makiñabat errezagoa da besteak atrapautakoa jatea!

Pelotazale amorratua izan zan gaztetan. Ondarru'ko pelota to-  
kian bera baiño geiago ikusten zan mutillik ez egoan. ¡Pelotan  
urratu dituan abarketen dirua poltsikoan baleuko obe leuke berak!

Aldi aretan erriko bikoterik onena egiten eben Panderito au-  
rrelariak eta biak. Ez eban asko luzatuko pelotea Txordo'k baiña  
bai ederto baztartu. Eroan eta baztartu, orixe zan bere jokoa. Ba-  
karrik biren aurka makiñabat joko irabazi zituan. An egoten giñan  
gu, mutiltxuok, gertu, eskua anditzen bajakon, lurrean eukala oiña  
gaiñean ipiñi ta anditsua zapaltzeko.

Bere beste zaletasun andia, txoriak ziran; ta jakiña, txoritarako  
ez da premiñazkoa sasoikoa izatea ta pelota zaletasuna baiño lu-  
zaroagokoa izan eban txoritarako zaletasuna. Eskuetan bi edo iru  
kaiola zituala joan -etorri gitxi egindakoa ez da Korteta alderuntz  
erreklamura.

Baiña orain, urteen pixuz astunduta, gatx egiten jako Anti-  
gua'ra edo Arteta baserrirako aldatza, gaztetan berak apostu baten  
miñutu gitxitan igotako aldatza, Ardandegian arkitzen dau bere  
atsegiña orain. Laneko orduetatik kanpora txordo arkitzea ez da  
gatxa. Baiña goizean bizkor beti bera, kale baztarrak garbitzen,  
bizkor, auts ta zakarrak eskobeagaz astintzen eta bizkor baita be  
buru ta mingaiña, zirikalariari erantzun egokia emoteko.

Txordo'k ez dauko gogo andirik beste mundua ezagutzeko.  
Ezilkortasun naia berak baiño irudi obeakaz agertu daben olerkari  
ta filosoforik ez dagoala esango neuke. Iltea baiño buru utsa kaio-



lan sartuta ta begiak batera ta bestera bizkor erabilliaz danari begira egon, naiago ei dau. Txoria balitz lez kaiolan, baiña burua bakarrik izanda be, bizi beintzat!

Udaberriaren gezna, mensajea, be berak ekarten dausku urtero. Negua azkenetan danean olango berba pozgarriak entzun oi doguz sarritan:

— Tira, txarrenak igaro doguzala esan leiteke, Txordo'k ernania (enara) ikusi ei dau-ta.

Bera izaten da beti ernania lenen ikusten dabena Ondarru'n.

Itxasoko otzara (otarra) betiko baztatu ebanean arek artu eban lango pozik amalauko kinielea ataraten dabena be ez dau artzen.

Baiña lan eta arazo guztiak dabe euren alderdi okerren bat, edo ona ez dana beintzat. Ta kale-garbitzailleak be ba-eben berea. Denpora areitan txapel gorri pilloren bat arkitu bide eben Ondarru'ko baztarren baten eta udaletxeko beargin guztiak bestelango txapelik ez eben erabilten.

Ta Txordo, beti txapel baltzagaz oituta egoalako-edo, ezin zan oitu txapel gorria erabilten. Ta gaiñera zer erantzun txapel gorri a zala ta ez zala zirikatzen eben ainbestei? Ta ederto kostauta, baiña azkenean be beregaz urten eban. Txapelari erdian txapea ipintea. Orrelan, ez zan beste txapel gorrien politika esanaikoa, orrelan uniforme zana eta iñok ez eutsan berari arpegira ezer jaurtiko.

Txordo, gudatean, beste asko lez Bilbo aldean egon zan eta Bizkai'ko erri burua frankotarren mendean jausi zanean itxasontzi baten sartu ta lagunakaz errira buru makur. Errira eldu ziranean, jakiña, danak komandantziara deklaraziñoak egitera. Txordo'ren txanda eldu zanean beste itaun batzuen ondoren au egin eutsen:

— Cuáles han sido sus ideas políticas?

— Nacionalista sin peligro. — Txordo'ren erantzuna.

Ta ipiñi eben, «Nacionalista sin peligro.»

Bere ondoren Ixkiri'ren txandea zan. Ixkiri ta Txordo lagun andiak ziran. Ta Ixkiri'ri be besteai egiten eutsezan itaun bardiñak.

— Cuáles han sido sus ideas políticas?

— Derecha.

Izan be, Ixkiri, sendiz, erregetarra zan, au da, eskumatarra.

Baiña itaun egilleari aren erantzuna, motsa, osoa ez zana iduritu jakon nunbait eta barriro be diñotsa:

— Pero qué derecha?

— Derecha.

Ixkiri ortik ataratekorik ez egoan. Norbaitek emon eutsan, kontixu, leziño ori ta ondo ikasita egoan. Gaiñera, lagun biak be, erderaz ia bat be ez ekienak ziran.

Orduan Txordo'k, bere lagun eta bestearen konpondu eziña ikusirik, ate ondotik:

— Ese, nastau, (nastua, nasia)

— Y qué es nastau?

— Café con leche. – Txordo'ren erantzuna.

— ¡Ah! Con que, café con leche?

Ta txordo, «Nacionalista sin peligro», aske laga eben eta Ixkiri, «derecha» zana, iru bat illabeterako erri lan eta zeregiñak egi-tera zigortu.

Arrezkero, ¡jamaika barre eragindako kontua izan da au!

*GOIZ-ARGI Maiatza, 1967*

## GILLERMO PELOTARIA

Euskal kirol ikusgarria, pelotea, mundu zear zabaldu dabeen pelotarien artean asko izan dira ondarrutarrak; ta batzuk punterengoak. Baiña danen artean nagusi, Gillermo. Izen abizenez esatekotan, Amutxastegi'tar Gillermo. Ta bere denporetako erritarrontzat, Pasajero, plairako zubia egin aurretik jendea ibai beste aldera ontzitxo baten erramutan (arraunean) eroan eta ekarri egiten eban bere aitagandik jaso eban ezizena ori eban da. Ta berak be, aitaren orde z makinabat aldiz egin eban zeregin ori.

Amaika urteko mutiltxoa zala Madrid'era eroan eben zestuzko pelotari. Bereala agertu eban ortarako eukan ia iotasuna; ta urte gitxi barru, mutil gaztea zala, gorengo maillara eldu zan. Pelota zeruan argi dirdaitsuz argi egiten eben izarren artean (Piston ta Patakone mutrikuarrak, Cazalis ta abar), eguzkia zan bera.

¡Aren bizitasuna ta besoetako indarra! Askotan lagun bat artu ta iruren aurka jokatzen eban, jokoan egoanean biñaka ari arpegi emotekorik ez egoan da. Ta orregaitik ospetsu izatera eldu zan, batez be pelota tokiak ziran Ameriketako erri anditan, Mexiko, Miami, Habana ta abarretan. Monarka, errege, ezizena ipiñi eutsen, benetan zestozko pelotako errege zan da. Era guztietako gizon andiak, artista, kirolzale nai erri agintariak, laguntzat euken.

Ta nai eban lez bizi zan, gitxi ikasita gazterik etxetik urten eta munduko zerua osorik eskuetara etorten jaken beste askoren antzera.

Idazle baten laguntzaz bere bizitzea agertzen eban liburua idatzi eban, NEUK... (YO ACUSO) izenekoa. Baiña erriko jaun andi bategaitik, maixu ospetsu bategaitik, gordiñegi berba egiten ebalako, txarto artua izan zan liburua errian eta gure artean ez zan zabaldu Ameriketara argitaratu zan liburu au. Tamalgarri izan zan akats au, Ondarru'ganako maitasun andiz idatzitakoa ei zan da.

Ipinten ete dau bertan arako Ondarru'ko musika taldekoa zala, oraindik mutiltxo, tronboiaren bokillea galduta, taldeko zuzendari Izeta'ren bildurrez, pasakallean, al eban eran joaz joan zala?

Len Ameriketara joaten ziran pelotariak, urte pilloa egin barik ez ziran errira biurtzen, orduan orretarako oraingo erreztasunik be ez egoan-da. Ta pelotari ona bazan musikea joten jakon Ondarru'ra biurtzen zanean. Etorritako illuntzean edo gabean, musika taldeak, bere etxe aurrera joan eta musikea joten eban jendea dantzatuaz. Jakiña, ori diru usaiñean-edo egingo eben.

Gero erriko alkate izan zan Bikandi'tar Antonio'ri jo eutsoela entzunda nago. Urrutia'tar Isidoro'ri jo eutsoela neuk ikusita daukat. Ta Gillermo'ri be jo geuntsan Ameriketari aldi luzea eginda ospetsu erriratu zanean. Ta eskuan puro kaja andi bat ebalat jatsi zan musika bandakuoia emotera. ¡Ta besarkada ta bizkarrean alkar jote naikoa izan zan bera ta beragaz batera musika taldekoak izan ziranen artean!

Geiagotan be etorri izan da errira Gillermo. Baiña gero berrogei urte inguruan etorri barik egon da, oraintsu arte. Ta beti lan goa etorri da, ondarrutar-ondarrutarra berbetan eta izaeraz, danen laguna.

Ta berak be makiñabat pelotariri egindako omenaldietan lagundu izan dau ta pelotariak aukera au galtzeko ez egozan, ta Irailaren 20'an omenaldia egin eutsoen berari Markiña'ko pelota tokian. Arrantzaleak itxasoan ziran arren ondarrutar asko eldu ziran bertara. Guk, erritik kanpora bizi gara ta etorri zanik be ez genkian, omenaldiaren barri izparringian irakurri arte. Beraz, orduan ezin txalotu izan gendualako emendixek jotendautsuguz.

¡Zorionak Gillermo ta urte askoan Jaungoikoak osasuna emon deizula!

*AGUR 157' garren zenbakia*

## ORAIN 50 URTEKO DONOSTIA'KO ESTROPADEA

Orain 50 urte Donostia'n egin ziran estropadak Ondarru'k irabazi zituan. Ain zuzen aurten lez illaren 5'ean eta 12'an izan ziran. Oraindik amairu urte egiteko neukazan mutiltxoa nintzan, bada, Iraillaren 23'an dira nire urteak, eta ikusi nituan kontuak gaurkoak bailitzan daukadaz buruan eta curak esateko egun egoia dala gaurkoa deritxat.

Estropaden lenengo denporetan punterengoa zan Ondarru; danak ez zituan irabazi baiña orduan ospetsua zan gure erria erramutan edo arraunean. Zerbaitegaitik izango zan. Beste estropadak itxi ta orduko azkenengo biak aitatuko ditut.

1898'garren urteko Donostia'ko estropadak Ondarru'k irabazi zituan FLORA izeneko treiñeruagaz Manuel Beitia atzekoa zala. Igande bietan izan zan irabazle. Ordutik lau urtera, 1902'garren urtean Bilbo'ko estropadetara joan ziran eta an be irabazi egin eben. Orduan be Beitia izan zan lemazaiña.

Gero ogetiru urtean ez ziran joan estropadetara. 1925'garren urtean kopa eder bat ipiñi eben saritzat Bilbo'n, iru urte jarraian estropadak irabazten zituanarentzat, edo lau urtean, jarraian izan ezik; eta apur bat lenago sortua zan Club Deportivo Aurrera ara joateko ustean treiñerua gertuten asi zan. Arrantzale bat edo beste ba-zan tartean, baiña geienak liortarrak ziran saioetan asi ziranak. Eta Ondarru'k estropadetan kondaira ona izanik, liortarrak erriaren estropadetazko entzute ona galdu eikeela ta arrantzale Kofradia sartu zan; eta arrantzaleakaz aldea eginda, estropadea irabazi zan igande bietan.

Bein Bilbo'ko estropadea irabazi ezkerro Donostia'ra joan bear zan eta urrengo urtean, 1926'garren urtean joan ziran. Uda aretan ez egoan beste konturik Ondarru'n, estropadea gora ta estropadea bera. Aurreko urteko mutil geienak eta beste barri batzukaz 17 mutill-edo, geratu ziran errian, atunetara barik, estropadetarako gertuten.

Beste egitekorik ez euken eta gogor saiatzen ziran entsaiuetan; treiñeru beragaz arrantzara, sardiñatara be batzutan joaten ziran. Eguerdian Club Deportivo'n bazkaltzen eben, naikoa okela janaz. Entsausak egiteko Donostia'ko estropaden bidea edo errekorridua ustez ipiñi eben, eta, kontixu bide gitxiago izan-edo, beintzat, orduko markak baiño asko lenago egiten ebela ta ezpai barik irabazle izango ziralakoan egoan erria ta alan egin ziran apostuak. Dana dala, illaren bostean bederatziz segundoren alde atara eutsen bigarrenai, San Juan'goai.

Egun aretan zerbait politika mobimentu izan zan España'n eta urrutizkiñak agintarien mendean egozan; eta estropaden ordua eldu zanean, an egoan erri osoa alkarrerri begira, nundik zer entzungo. Ta gazte bat, txirringan Saturraran gaiñeko Katei'ra joan eta ango urrutizkiñez jakin eban eta Arrigorri'tik siñuka, estropadea irabazi zan antza jendeak artu eutsan eta bat-batean jaxe zan zaratea!

Urrengo estropadara neuk be joan nai neban. Orduan itxasoz joaten zan estropadetara; erramulariak be alantxe joan ziran. Ni joateko nintzan itxasontzia, zortzi zaldiko kubiarta bako txikia zan, LAU ANAIK izenekoa ta goizeko orduetan jagi ta ontzi jaubearen etxera joan nintzanean ez nintzan asko poztu. Ontzi txiki arentzat txarra zala eguraldia ta ez joala esan eustan ontzi jaubeak, Paulo Zoxu'k. Ta, bapor izenez ezagutzen ziran itxasontzi asko joazan Donostia'ra ta euretako baten sartu ta joan nintzan itxasoz ordu bi ta geiagoko bidean.

Eguerdian an gengoan Kontxa'n estropadearen zaiñ. Baia barruan sokaz dana esitua egoten zan estropadako lekua ta itxasontziak danak itxituraren kanpoan geratzen ziran. Juradua ta Alponso XIII erregeren ontzia, FAKUN-TUZIN izenekoa bakarrik joan ziran treiñeruen atzetik. Orduan bigarren igandeko estropadea treiñeru birek egiten eben eta beste estropadarik ez zan izaten. Olan, illaren 12'an, gaur berrogetamar urteko estropadea Ondarru'k eta San Juan'ek egin eben, treiñeruak aldatuta. Ez egoan

eguraldi ona, eta Ondarru'k errez irabazi eban; amasei segunduren alde atara eutsan San Juan'eri. Lenengo igandean 19 minutu ta 32 segunduan egin eban Ondarru'k. Ordurarteko Donostia'ko irugarren marka zan; euken treñieru aztunagaz egiteko marka ona zan. Pasaia, 9 segundu atzerago eldu zan.

Bigarren igandean, gaur berrogetamar urte, 21 miñutu ta 3 segundu. Pasai San Juan, len esan dodan lez 16 segundu berandua-go eldu zan. Lenengoaren saria, ikurriñagaz gaiñera, 12.000 laurleko zan; alantxe izan zala uste dot gudate arte. Langille baten lau urteko irabazia, gaurko ia milloia.

Goiko ori idatzi ta urte askora Auspoa 63-64 liburuan ikusi dot Juan Zabaleta'k 1931'ko estropadari jarritako bertsoen artean ondorengo au:

Bost bandera segidan,  
ori da mutilla!  
gero sariya: peztak  
emezortzi milla;  
zergatikan daukaten  
txit patroi abilla,  
gora Arrillaga ta  
bera kuadrilla!

Estropadea amaituta ia bereala, FAKUN-TUZIN itxasontzi ondora arraunean joan ziran errege agurtzera ondarrutar erramulariak; eta erregek itxasontzi au laga eutsen Ondarru'ra etorri eitezan eta aren inguruko gizon andiak lagun zituela etorri ziran errira erramulariak.

Iraillean bertan, urrengo igande bietan, 16'an eta 23'an, Portugalete'ko estropadak ziran. Estropada biak errez irabazi zituan Ondarru'k. Bietan alde bardiña atara eutsan Sestao'ri: 16 segundu.

Ta bigarren urtean be ekarri eben a kopa ederra, beste urtebetean Club Deportivo Aurrera'n eukiteko. Kopa aren jaube egiteko

iru urtean jarraian irabazi bear zan eta Ondarru, bi irabazita eukita, ez zan joan geiago estropadetara; ondarrutarrak irabaztekotan joazan estropadetara ta kontu orreik geiegi estutzen eben erria, eta bakea naiago zan eta ez ziran geiago joan eta kopea irabazi barik geratu zan.

Entzunda nagoanez, denporeagaz Orio'k irabazi ei eban. Ondarru'k nai izan baleu beretzat zan kopea. Eun kopen artean be ezagutuko genduke a kopea orduko ondarrutarrak.

Ondarrutarrak orduan egin ebena iñok ez dau egin sekula; ogetiru urtean estropadetara joan barik egon eta erramuak (arrau-nak) baztartuta egozan aldian, asi erramutan eta jokatu zituen estropada guztiak irabazi. Iru sari, sei bidar lenen elduta. Bai, 1926'garren urteko ondarrutarren erramulari aldrearen moduko asko ez ziran Kontxa'n ikusiko; 18 urtetik 24 bitarteraiñoko mutil sendoak, Juan Bautista Beitia, lenagokoaren semea, patroï ebela.

Amaitzeko beste au esan nai neuke. Ondarrutarrak iru bidar donostia'n erramutan ikusi izan dira; birritan ango estropadetan eta beste bein 1888'garren urtean Pasaia'ren aurkako desapioan, Getaria'n asi ta Donostia'ko Kontxa'n amaituaz. Eta iruretan irabazle izan ziran.

Ondarru'k, gaur, estropadako kontuak lagata badaukaz be, denpora areitan puntarengo zala ukatu eziaña da.

*EL DIARIO VASCO 19-9-1976*

Oraingo oarra: 1976'garren urteko irailaren 12'an argitaratu naian idatzi neban idazlan au baiña urrengo igandean argitaratu eben.

## **NIRE UMETAKO KONTUA**

Ni txikia nintzanean ikastola oneik egozan Ondarru'n: Parbuluak, lekaimiak irakasle zirala. Bertan, zortzi urte arteko mutillak



eta sei urte arteko neskak ibiltzen ziran. Zortzi urtetik gorakoentzat ikastola bi, au da, maixu bi bakarrik. Ta sei urte ingurutik gorako nesKentzat beste ikastola bi, maistra bigaz. Maixu ta maistren oneik Erriko Eskola izenez deitzen ziran Laterriarenak ziran. Ta duako ikastola oneitatik kanpora Mojetako Eskola izenekoa egoan, lekai-meena, ordainduta, adin guztietako nesKentzat eta sei urte inguru arteko mutiltxuentzat. Lekai-meak, orain lez, Gurutzeko Alabak ordenakoak ziran.

Ikastola orreitatik kanpora Doña Benina'nekoa egoan. Ain zuzen, ikastola au Ipar Kale'ko 12'garren zenbakian zan, gu bizi giñan gaiñeko etxean. Geienez be amabi neurkin lauko izango ziztuan gelatxo baten zan ikastolea.

Neska zarra zan Doña Benina ta beragaz bizi zan aiztea be bai. Euren jantzetan antxiñakoak ziran, antigualak. Udan geiago, baiña, bestelan, geienez be amabi lagun inguru ibiltzen ziran, neska ta mutillak danak nastean. Beno, neskak alkarren inguruan eta mutillak be alkarregaz. Neskak etxetik eroandako aulkietan jarten ziran eta mutillentzat banku bat egoan. An tokirik ez ebana lurrean. Idazteko, neurkin laukoa inguruko mai bat egoan. Maia orman baztartuta egoan eta geienez be lau lagunek idatzi eikeen batera. Idazten atzeratuak ziranak idazten eben bakarrik, txandaka. Nik an egin nituan urte bietan bein be ez neban ezer idatzi.

Amar urte nituala, Zugatz Jaia egiteko gertuten asi ziran erri ikastolan eta nik olango edo alango ikurriñagaz joateko gogo gitxi ta Doña Benina'ren ikastolara aldatu nintzan. Auzokoak giñan da ez eusten illekorik artzen (iru laurleko, illekoa); baiña, ordez, mandatuak egin bear. Beti eukan olango mutiltxoren bat edo beste. Nigaz batera, orain Gernika'ko pelota tokiko intendentea dan Totolo zan.

Ni an egon nintzan denpora guztian bein be dotriñarik ez genduan esan edo ikasi. Baiña egun baten, dotriña esan bear genduala-ta etorri zan. Berak ez ekian euskeraz berba egiten, nai ta bere abizena Egiguren izan. Gaiñera, bere aita ondarrutara-edo, zan,

beintzat ba-zituen senideak (aideak) Ondarru'n. Baiña len esan dodan lez ez ekian euskeraz eta aldi aretan Ondarru'n ez zan beste dotriñarik euskerazkoa baiño ta berak beste bateri emon bear dotriñea itandute zeregiña. Ta dotriña zar bat eskura emon eustan eta besteai itauntzeko agindu. Baiña dotriña arek ez eukan lenengo orri bat edo beste. Ta buruz asi nintzan itaunak egiten:

— Kristiñaua zara?

— Bai jauna, kristiñaua naz, Jaungoikoari eskerrak.

— Nundik jatortzu kristiñau izena?

— Jesukristo geure Jaunagandik.

— Zer esan gura dau kristiñau izenak?

— Kristo'ren izena.

Ta an geratu nintzan geiago ezin itanduta. Erantzun, bai, erantzun, liburu osoari be egingo neutsan asko estutu barik, baiña buruz itauntzen ez nekian.

Orduan Doña Benina urreratu jatan eta makilleagaz dinbi ta danba, sakia atara eustan; eta negarrez asi nintzan. Baiña ez miñez, amorruz baiño. Ta negarrez asi nintzala ikusi ninduanean amak alan ikusi nindeian-edo baldea eskura emon eustan eta ur billa geurera bialdu ninduan. Guk ba-geunkan ura etxean, geuk ipiñita, baiña eurak ez, eta geuretik eroaten neutsezan egunean iru-lau baldakada garbiketarako. Edateko ta jatekoak egiteko, Erribera'tik, Zubi-Zar azpiko iturritik eroaten geuntsan baldakada bat egunero. Ta len esan dodan lez, baldea eskura emon eustan eta joan nintzan geure etxera ur billa.

Etxean negarrez sartu nintzanean amak esan eustan:

— Txotxo, zer dozu?

Orduan odolak irakiten jarri jatazan eta saltoka eskillarak goruntz igarota, ate marku azpitik, an ate ondoan bere lekuan jarrita egoan maistreari baldea oiñetara jaurtiaz, neure indar guztiakaz

¡Kalbo! didar egin neutsan eta beste bi edo iru saltotan beruntz-koa egin eta etxean sartu.

Doña Benina, ule gitxi euki-edo pelukiagaz ibilten zan eta nire berbeak bere onetik atara eben. Ta eskuan artaziak artuta, aretxek sartuko eustazala ta didarka gurera etorri zan. Baiña ni, gure etxe zar andi aretako gela baten bela edo aize oial artean eskutau nintzan.

Gure aita arrantzale ta beleroa zan eta aize oialez beteta eukiten genduan etxe guztia. Beraz, arek ni arkitzeko bildurrik ez neban. Doña Benina, gure ama ikusi ebanean, berari didarka asi jakon, beragaitik nintzala orren lotsabakoa ta iñun diranak esaten. Gure ama, ate ondoan josten egoan auzoko andra bategaz kontu-kontari ta maistrearen esate ta amorrua ikusita bildurtuta egoan berba egiteko adore barik. Ta maistrea, ikusten ez nindueanean, ez zan ausartu atetik barrura sartzen eta an joan zan.

Ta orduantxe amaitu zan nire Doña Benina'neko ikastolea.

Andik urte batzutara ethez aldatu giñan eta eurak, ikastolea lagata Bilbo'ra joan ziran betiko eta ni eurakaz zearo aztu nintzan.

Bein, ordutik ogetamar urtera gitxienez, Ondarru'tik Bilbo'ra ibilten ziran autobusetako kobradorea zan Roberto Martinez'ek esan eustan:

— Zu, Belero, zuretzat gorantziak emon daustez Bilbo'n.

— Niretzat ez, Bilbo'n ezagun bat be ez daukat-eta.

— Bai, Doña Benina'k.

— Aitearen...! Oraindik bizi da Doña Benina?

Orduan larogetik gora urte eukiko zituan. Ta koitadea, itxura zanez, nigaz euki eban asarre aregaz aztuta egoan.

Ta amaitzeko; Jaunak zeru ederrean euki daijala!

*GOIZ-ARGI 150' garren zenbakia*

## LENENGO JAUNARTZEA

Udaberri guztiak dabe umeentzat ain pozgarria izaten dan igande bat. Euren Lenengo Jaunartze eguna. Guk olangorik bat be buruan ez dogula, igande baten etxetik urtetean, kaleai alaitasuna damotsen aingeru zuriakaz tope egiten dogu. Tira! geure bostean esaten dogu, umeen Lenengo Jaunartzea gaur!

Geuretzat be gaurko umeentzat lez zan egun au; irrikiz bere zain egoten giñana. Alan be, alde ederra dago orduko Jaunartzetatik gaurkoetara!

Gaur, eztegu andi batzuk lez dira umeen Jaunartzeak edozein etxetan. Gure auzoan ikusi dodan olango otoruntz batek bultzau nau au idaztera. Berrogetak lagun, erdaldunak geienak, mezarik entzuten ez dabeenak, ume baten Lenengo Jaunartzea dala-ta jattetxe baten, olangoetan oi dan zarata ta abesti artean bazkari ederra egiten.

Ez noa mundutarkeria au gaiztetsiten astera, gaur dana da olantxe-ta. Ez, nire asmoa, lengoetatik gaurkoetara dagoan aldea irakurle gazteai begien aurrean ipintea da. Orretarako, orain berrogetamar urte neure Jaunartzea zelan izan zan esatea onena.

Zazpi urtegaz, lekaimeen eskolan genbiltzala, lenengo aldiz Jauna artu neban. Oneri Jaunartze Txikia esaten geuntsan eta ez zan aintzat artzen. Ez aparteko jantzirik ez ezer ez zan izaten. Ordutik urtebetera, oraindik lekaimeakaz genbiltzala egin genduan Jaunartze nagusia. Ondarru'n, orduan, urtean bitan izaten zan Jaunartze Nagusia: Gabon egunean eta urrengo udabarriko, orduan esaten zan lez, San Jose Patroziño egunean. Geienak Gabon egunean egiten genduan; San Jose Patroziño egunean, obeto bizi ziran pamilietakoko umeak eta zerbait ba-zirala uste ebenetakook.

Kristiñau Ikasbidea edo Dotriña ondo ikasita eukiten genduan. Jakiña, orduan be umeentzat Jaunartze eguneko garrantzitsuenetakoa, jantziak izaten ziran, nai ta batez be gerora neskatoen artera sartu dan apainkeriarik ez izan.

Neu be arro joan nintzan neure oiñetako baltz dirdaitsu, esku-larru zuri ta besotik dindillizkako lazuagaz. Alan be nire jantziak ba-dauko bere kondairatxoa.

Nire osaba bat, Santa Kruz'dar Manuel, Manuel Dando ezizenez, Ondarru'ko astilleroan lan egiten ebana, bere aloger kaxkarragaz familiako bear-izanai arpegirik ezin emonda, Las Arenas'era bizitera joan zan, (Areneta esaten etxean ikasi genduan) Euskalduna astilleroan lan egiteko. Ta an itxasontziak margozten da, lanean erabilten eban jaka zarra, gure ama jostunak artu ta barrukoz kanpora birea emon eta zati zarrak kenduaz, dotore-dotore ipiñi eustan. ¡Bai orixe! Tamala, argazkirik ezin atara izan genduan-da. Orduan Ondarrua'n ez egoan argazkilaririk eta ezta argazki tresna txikiena eukanik be.

Jaunartu ta elizkizuna amaitzean, sakristian kokotea ta zerbait edari gozo emoten euskuela uste dot. (Kokoteak, Markiña'n egiten ziran eta diran janari gozoak dira, erroskillen gai bardiñekoak, baiña zapalak, orduan geienez be txori-andi bi balioko ebenak; gaur ez dakit, iru laurleko gitxi gora-bera). Gero etxeratzean beste kokote bat artu ta senideen eta gurasoen adiskide ziranen etxeetara ta an geure kokotea aora eroaten geuntsen eta kraskadatxoren bat egingo eutsen, asko ez kentzeko kontu izanaz bai eurak eta bai geuk. Txakur andi biko kokote bat zortzi edo amar pamilitarako. ¡Alde ederra gaur eroaten diran tartakaz!

Senide ta adiskideen etxeetara joatean, euretan emongo euskuen dirua buruan izaten genduan. Zeiñek geiago batu izaten zan Jaunartzea egiten eben umeen ilusiñoa. Errial bi iñok emoten ba-euskuzan, asko izaten zan; geienak orrenbestera ez ziran eltzen. Guztira iru-lau laurleko artzen genduzan. Jakiña amarentzat.

Etxeetarako osterea eginda geure etxeratzean, jantziak kendu ta betikoak jantzirik, kalera. Eta gero, eguerdian, betiko bazkaria, indabak-edo. Baiña Gabon egunean Jaunartzea egiten genduanok zori ona geunkan onetan. Bazkari ona egingo ez bagenduan be aparia bai beintzat; ez geure Jaunartzeagaitik, Jesus'en Jaiotzeari

egokiona baiño. Besteak, San Jose Patroziñoi egunean Lenengo Jaunartzea edo Nagusia egiten ebenak ez euken gure zoririk jataldi on bat egiteko.

Bai, beste milla gauzetan lez kontu onetan be ederto aldatu dira oiturak. Jakiña, txarto bizi garala besterik ez dogu entzuten, ta milla bidar obeto bizi bagiña be bardin.

*AGUR 30-6-1971*

## **BERRIATUA'RI EGIN JAKON BIDEBAKOKERIA**

Ondarru'k Berriatua bereganatu dabela jakin dot izparringitik.

Ez dakit ortik zer on eta zer kalte datorkien erri bai. Ondarru'k edo Ondarru'ko udalak auzoko erri bat bereganatu nai izateak, erria anditu nai izatea baiño errezoi indartsuagoren bat edo beste izango dabela uste izatekoa da.

Alan be ez da ondo ori. Geure auzokoaren ondasunak geuri be ondo etorriko litzakiguz, baiña orreik bereak dira ta olangorik, eurak geureganatzerik, amesik be iñok ez dogu egiten. Edozer gauza, bere jaubearena da.

Arako ipuiña gogora ekarten dau egitada onek: Zera, gizon bategen bidean joiala, suge bat ia illean arkitu eban eta bere kolkoan sartu berotu eitean; eta zuzpeltu zanean bere ongillari aginka egin eutsan. Bada, Ondarru, Berriatua'ko lurretan sortua da. Au olan dala jakiteko, gaur be, Ondarru inguratzen dabeen alderdi guztiak, itxasoa kenduta, Berriatua'renak dirala konturatzea naikoa da.

Baiña ori ez da dana. Ondarru'n bertan, errian bertan, alderdi bat, Berriatua da; beraz, baita bertan dagozan auzoak be. Berriatua dira ostiko-joko zelai Zaldupe ta euskal abestirik ospetsuena dan Boga Boga'k aitatzzen daben Plai edo ondartzia ederra be.

Ondarru barruko alderdi bat Berriatua izateak ez dot uste iñorentzat kalterik dakarrenik. Neu be alderdi orretan bizitakoa naz ogei urte baiña geiagoan, baiña ezetariko okerrrik ez jatan etorri orretatik. Nire alaba zarren biak jaio ziranean Berriatua'ko auzitegira joan bear izan nebala jaio barrien izenak emotera. Bai txirringutsa artu ta pozik egiten neban osterea. Orixe bakarrik neukan kaltea, bada auzo orreik elizaz Ondarru'ri dagokioz eta bataiua emen egiten genduan.

Edozelan be, auzo orreik, Berriatua'gaz konponketea eginda gero Ondarru'rentzat egitea ez litzake txarto izango. Baiña eurak nai ez dabeela, Berriatua'ri bere buru jaubetasuna kentzea iñundik iñora ontzat ez emotekoa da. Aberri bat besteak bereganatzea bai-zen bidebakokeria da ori. Ni beintzat, Berriatua'ren alde nago.

*AGUR 9-2-1974*

Oarra: Goiko idazlan au pozik irakurriko eben berriatuarrak; baiña nire eretxietan guztiz oker nengoala esaten etorri jatan AGUR'en irakurle bat, ondarrutarra.

Egia, Ondarru'n dagoan Berriatua'ren alderdian serbitsu guztiak lenengo aitatu dogun erriaren kontura dira. Beraz, bidezkoa, errezoizkoa da alderdi ori Ondarru'k artzea. Baiña ez, bost kilometrorra dagoan erriari, Berriatua'ri bere buru jaubetasuna kendu ta oso-osorik Ondarru'ren menpean ipintea.

Beraz, lenean geratzen naz. Berriatua guztia Ondarru'rentzat egitea lapurreta garbia izan da nai ta Gobernuaren erabagia izan.

## **ONDARRU'KO TXORIZALEAK**

Ondarru'n ba-dira txorizale amorratuak eta auren artean bat, puntarengoa, AGUR'en irakurle dan gure adiskide Olea'tar Andoni. Berak txori kontuan egin dituanak andiak dira ta iñoiz bakanak be bai. ¡Sendi desbardiñeko zenbat ezkontza! Txori kantari onik.

izan dau; ospetsuak izan ziran Irigoien'dar Juan buru zala Artxanda-Zar'eko zelaian ospatutako sariketetan lenengo sariak irabazi zituen TXIRRITA ta BASARRI izenekoak.

Orain arte iñori bururatu ez jakona bururatu jakon berari aurtengo udabarrian: zozo eme bat birigarro arragaz alkartzea. Ta kaiola eder baten abia biguna oroldiz betea atondu ta txori biak bertan sartu zituan. Bereala zabaldu zan albistea erriko txorizaleen artean eta jendeak makiñabat ostera egin eban bertara ikasketa edo «experimento» orren barri jakin naian. ¡Ta politena! Ikusle batek esan ebanez, emetzakoa zana arra ei zan eta batzuk ori zalata naikoa irri ta barre egin be bai.

Egunak aurrera ta fruturik ez zala agertzen ikusirik, lagunen esamesanak ixiltzeko, Olea'k, nunbait arkituta, zozo arrautza bat abian ipiñi eban ikusleak aoa zabalik itxirik. ¡Baiña au zoritxarra, berak zelan jazo zan ez ekiala, arrautzea aldendu ez zan bada! Gurasotzat egozan txoriak jan ete eben?

Ta jendeari zer asmau eziñik kezka beteta egoala, ain zuzen egunean bertan, bere zozoaren kontuakaz adarra jo naian korreoz bertso batzuk artu zituan, ixillekoak, iñok izenpetu barik. Ta bertsuok sutan ipiñi eben gure lagun naigabetua ta bereala idazluma eskuan arturik erantzun egokia bertsoz moldatu eban.

Ondoren datoz bertso sail biak; lenen ixillekoarenak eta gero Olea'renak. Irakurleak ikusiko dabenez Ondarru'ko txorizaleak txori kontuan ez dira bakarrik maixu, baita euskerazko bertsoetan be.



## OLEA'REN ZOZUA

Etorri lagun danok  
Egin daigun parra,  
Ez pentsa natorrenik  
Jotzera adarra.  
Ume egiteko zeukan  
Zozo «eme» zarra  
Olea'ri biurtu  
Omen zaio «arra».

Asieran omen zan  
Moko beltz berdía  
Papo nabarra eta  
Zorrotza begia.  
Orain kanbiatuta  
Bere seiñalia,  
Luma beltz, piko ori  
Ta arrautza paria!

Lenengo txor-txor eta  
Gero txorro-txio  
Gauzak emen ez daude  
Argi orraitio!  
Deituta joan zaio  
Lagun Serapio  
Ta arra nola leikean  
Onek esan dio.

Zozo orren istori  
Edo edestia  
Ikusirik ain dala  
Benetan tristia,  
Jabeak pentsatu du  
Berak idaztia.  
Laster jakingo degu  
Sekreto guztia!

Len zozo «eme» zena,  
Orain zozo «arra».  
Guk ezagutu degun  
Mirari bakarra  
Noiz mamorro jaki ta  
Noiz muda belarra  
Pello'k ba du zugandik  
Ikasi bearra!

*IXILLEKOAK*

## KARRIKA-ZOZOARI

Txir-txartada batzuk

Ikaratuta bai nago  
ainbat jende ikusirik,  
parreak egin nai bapo  
gogoz nere bizkarretik

Agertu izan ditut nun-nai  
pare gabeko maixuak;  
sortu nitula, ere bai  
txori kantari kontuak.

Nola dudatu liteke  
ez dala «eme» zozoa;  
bere kabia du bete  
agiri dan ozkolaz?

Ba-da lagunik esana  
arrautza aren barruan  
aizea bakarrik zala  
gorringo ordeaz sortua

Ixura danez, oraindik  
zer ikasi, lagun onik  
ba-dezute bai nigandik  
mutil gazte ta gizonok!

Gogoan euki TXIRRITA'k  
Artxanda-Zar zelaian,  
bere estarri ta birrikak  
utzi zitula goi-goian.

Baita BASARRI'k urrengo,  
abots gogor, doiñu gozo,  
lenengo sari urrezko  
merezi izan zula oso.

Eta PARDILLO REAL'a  
Obe da ixillik egon...  
Txori onen sortumena  
Ez daukat nik zertan emon.

Ara gizajook! Aitu:  
Zuen parre ta algarak  
laister atertuko ditu  
neronen birigarroak!

Exeri ta egon lasai...  
txirt eta txorrotxioak,  
Serapio ta Joxemai  
nik beti artezagoak.

*OLEA*

*AGUR 16-9-1972*

## ONDARRU'KO KUKUAK

Munduko gauzarik politenen artean txoria da bat. Txoria danoi jaku atsegin eta abeslaria bada oraindik geiago. ¡Zer atsegiña, udabarrian goizean-goiz mendira urten eta txoritxoan txorrotxia entzutea!

Egia, txorien kantu soiñu guztiak ez dira mailla batekoak; batzuen eta beste batzuen soiñuak alde ederra dabe. Ta kukuarena ez da atsegiñena, ezta urrik emon be. Baiña txori onen abestia pozik entzuten da; batez be negu baltz ondoren udabarriaren gezinari, mentsajeru, izan oi dalako. Ondarru'ko Txordo'k esango leuskuke ederto barruan zer poz artzen daben urtero iñok baiño len ku-ku otsa entzutean.

Ta olerkariak eurak be kuku soiñua beste edozein txorirena baiño geiago aitatu izan dabe euren olerkietan. Ez, kuku soiñua ez da auntzaren gaberdiko estula. ¡Ez orixe!

Ondarru'ko txorizaleen artean buruauste naikoa izan da aurtengo udabarrian kukuaren ku-ku dala ta ez dala. Gure adiskide Olea'tar Andoni'ri iñori baiño len bururatu jakon kukuak bere soiñua zer notetan emoten eban jakitea. Ta diapasoiak atzamarretan ebalak Gorozika aldean denpora ederrik emon ondoren artu be bai: SI-SOL Ta ezparik izan ez eian, urrengo baten be artu barriro ta lengo nota berberak.

Ta arro-arro asi zan berak jakindakoa beste txorizaleei zabal-tzen. Baiña itxura zanez beste geiagok be alegiñak egin zituen gauza bera jakin naian. ¡Ta polita! Danak nota desbardiñak artu zituen. Olea'k SI-SOL, besteak FA-RRE ta irugarrenak MI-DO. Ta or ibilli ziran odolak buruan artuta danak bereagaz urten nai-rik.

Ez dot uste eztabaidan ibilteko kontua danik, bada, txoriak be gizonak lez batzuk baritonuak-edo, izango dira ta beste batzuek gorgoritoak egiteko gauza izan eta gogoko jakenak. Gaiñera, ku-kuen nota desbardiñetan akorde modernoren bat be egon leiteke.

Dana dala, kontu au dala-ta be bertsolari ixillekoak barrero bertsoak atara ta Olea'ri bialdu eutsazan. Ta ondarrutarrak irakurri daiezan emen ipinten doguz:

## OLEA TA KUKUA

1

Negu gogor ta latza  
Urruntzen danean  
Udaberri biguna  
Barriz agertzean  
Pizti eta txoriak  
Mendi oianean  
Kantuaz ari dirala  
Eguna argitzean

3

Seguru egoteko  
Bi nota oiekin  
Gauza bat pentsatu du  
Domingo Paz'ekin  
Mendira juatia  
Biak alkarrekin  
Diapasoi bana ta  
Magnetopoiakin

5

– Zelanik esan zeinke  
Ori ezta ola!  
Ez dozu ba ikusten  
Grabauta dagola?  
– Barriz ere diñotzut  
Ez da LA-SOL-LA  
Baizik LA bemoleko  
DO-LA...DO-LA...DO-LA.

2

Gozean goiz jaikirik  
Baraiku'n kukuak  
Bardin erantzun oi du  
Korteta goikoak  
Zubi-barri'tik entzun  
Olea maixuak  
Zer nota ote dira  
Orien soñuak

4

Baraiku gora igon  
Eta bereala  
Kukua asten zaie  
«KU-KU» dariola  
Domingo'k orduantxe  
– Ba-daukat: LA-SOL-LA  
Olea'k erantzuten:  
–Ori ezta ola!

6

Olea'k lan eder bat  
Egin dualako  
«Kukun» kantua orain  
Urte guzirako  
Len aundia baziñan  
Txorizaleentzako  
Orain aundiagoa  
Eta betirako.

*IXILLEKOAK*

*AGUR 14-10-1972*

## OLEA'REN TXORIAK

Ondarru'ko txorizaleak ixildu ziralakoan nengoan baiña, ¡bai zera!; oraindik, AGUR'en tokirik lagaten badautse, naikoa endredu egiteko dagoz.

Olea'ren zozoa dala ta izan diran eztabaidak, nai ta gauza gitxi argitu, erdi amaitu diranean txorizale onen «pardillo real»agaz sartu dira. Zazpi bertsoko saila bialdu dauste gure aldizkarirako. Ez dakit zein dan bertsolaria. Edozein bada be ez dira baztartzeko bertsoak irakurleak ikusiko dabenez.

Erroma'n, bat santu egin nai daben auzian deabru izena emoten dautsoe beste bateri ta bere egitekoa, santu bidean doanaren utsak agertu ta nabarmentzea izaten da. Baiña alan be merezi dabena santu egiten dabe.

Txori kontuan be bardin. Olea'ri, asko aurka urten jakoz, baiña arerioak arerio, bera iñor baiño gorago dago txori kontuan; besteak barriketea ta Olea'k sariak.

Pardillo Real kontuan ez naz sartzan; gaiñera, ni, ez bataren alde ta ez bestearan alde nago. Nire zeregiña, onetan, bertsoak argitaratzeko bidea egitea da ta egin dot ori.

## OLEA TA PARDILLO REALA

1

Uste izanagatik  
Zerbait nekiala  
Ikusten det txoritan  
Jakitun zerala.  
Nere galdera ere  
Ezta ain makala;  
Erantzun egidazu  
eta bereala,  
Zer kolorekoa da  
Pardilla Real'a?

3

Jakin zazu sarritan  
Entzuna naizena,  
Txoriak «truk» egiten  
Abilla zerana;  
Zure jokoa ez da  
Garbi ta zuzena,  
Oraintxe egin dezu  
gauzik errezena  
Pardilloari jarri  
Errege izena.

5

Errege gisa bada  
Azia ta ezia,  
Derrior izan bear  
Txori berezia;  
Ez dakit Tituloa  
Daukan merezia!  
Lenbizi entzun nai det  
Bere eresia,  
Kantzatzen ote du  
Perossi'n Mezia?

2

Munduan nola degun  
Beti zer ikasi  
Txorizale guztiei  
Galdezka naiz asi,  
Eta oietako batek  
Dit adierazi,  
Pardillo Real ori  
Nai dula ikusi  
Benetakoa bada  
Gaiñera erosi.

4

Txori orren izena  
Ez da legezkoa  
Naikoa du kaiola  
Kañaberazkoa.  
Kaskar gañeko tanta  
Margo gorrizkoa  
Uste al dezu dala  
Koroi urrezkoa?  
Pardillo Arrak ori  
Dute berezkoa

6

Aukeratu egun bat  
Idurre'n biltzeko  
Orren doñu eztiak  
Guztiok aitzeko  
Txorizale artean  
Erabakitzeko;  
Gaitasun berezia  
Badu kantzatzeko  
Nagusi ta Txoria  
Biak koroitzeko.

Txori orrek bear du  
 Izen oso ona.  
 Iñortxok etzekian  
 Orlakoik zegona.  
 Egia baldin bada  
 Olea'k diona  
 Idurre'tikan au da  
 Eskatzen zaiona  
 Pardillo Real'akin  
 ETORRI GALDONA

*MONTETXUKO*

*AGUR 23-12-1972 67' gn zenbakia*

## OLEA'REN ERANTZUNA

AGUR'en 67'garren zenbakian Olea'ren «Pardillo Real» zala ta agertu ziran bertsoak, txorizale ospetsu au gogor zirikatu ebela dirudi, beintzat bereala erantzuna moldatu eban bertsoetan. Baiña diñoanez, geiago ez ei doa bertsorik idaztera, beretzat zeregin au zailla dala-ta. Bertsoz egin nai ez badau, itz lauz egin daijala, ta ki-to. Baiña «h»rik ez daijala sartu, orrek kentzeko lanik guri emon barik.

Ondarru'n «ika» ez da itzik egiten, eta sekula egin dan arrastorik be ez dago gure berbetan. Azkue'k berak be au esaten dau bere «Morfologia Vasca» liburu ospetsuan. Orregaitik, gu, «ika» iñoiz asten bagara, ankea sartzeko arriskua izaten dogu. Gure adiskide txorizaleak be tarteka «ika» berba egin edo idatzi dau; ta utsik egin badau parkatuko dautsoe orretan ondo dakienak, bere emaztearen errikoak, markifarrak-eta.



## ZIROL ETA BERTSO EGILLE OBEARI

Mutillak! Au dok larritasuna!  
Zer jakin nai dek ziero ik?  
Uts olerkari, uts bertsolari,  
ala ere, bai erantzunik.  
Aspaldian «neureen» zai zaude  
ortan ez dago dudarik,  
Baiña «borobillak» esateko  
ez dut sekula lotsarik.

Desapio aunitz denporetan  
dabiltz zabal paperetan;  
zozo, birigarro ta kukuan  
gezur ta saltsa asmetan.  
Zuretzat doi bat dut nik bakarrik  
txori gaxoak pintetan,  
ta tariña kanario gaitik  
abillidadea truketan.

durre'ko zelaian nai duzu  
auzi au bein erabaki  
ikusi daigun Akilla ondoko  
txoka zarran ba'dun antzik  
Baita neurtu guran zagoz, ziur,  
bere doiñu ta eztarri.  
Fin-fiñak ote bai belarriak?  
Ori jakin bear argi.

Nik egin edo esandakoak,  
zuk nai duzuz or salatu,  
bidez, erreztasuna duzula  
ezingo dogu ukatu,  
Nik, ordez, bardin soin ta atorra  
izerdiagaz ondatu,  
baiña ire antzeko txoriak  
sarri ditut lumatu.

Aal gutxi dut ta orregatikan  
goazen azkar arira:  
AGUR'en agertzen duzun kezka,  
arritzeko miraria;  
nola sortu zan «Pardillo Reala?  
Narrutsik eta bizia...  
Negosio ta perretxiku onak  
illunpean jatorria...

Ez,ez du ezagutzen «Perossi»,  
baiña txori izugarri  
ta arrigarri onen txirulak,  
entzun ta exeri adi;  
«Eskala Kromatika»n ain zuzen,  
txukun, gozo ta garbi  
josiak dituzu. Urretxindor  
maixuak ez zuna ikasi.

Zuri erantzuten Galdona'ra  
juaten naiz sarri-sarri  
Salda, okela ta ongi-etorri  
an prest Olea jaunari.  
Nola modutan, azkena dut gaur  
bertso egilleko lanari.  
Nik ez dut astirik ez lumarik,  
Nereak fin, Joxemari.

ANDONI

AGUR 72' garren zenbakia